



euskalekonomia

2016ko TXOSTENA



LABORAL
kutxa

Ikerketa Departamentua
Zuzendaria: Joseba Madariaga
Lan taldea: **IKEI** research & consultancy SA

© Laboral Kutxa.

ISBN: 978-84-941393-9-0

1. ESPARRU OROKORRA.....	12
1. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA).....	13
1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA.....	13
1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA	23
2. IKUSPEGI OROKORRA	34
2.1 EKOIZPENA	37
2.2 ESKARIA.....	41
2.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK.....	46
2.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA	48
2. INDUSTRIA	56
1. IKUSPEGI OROKORRA	57
2. ENERGIA.....	63
2.1 EAE-KO ENERGIA-BALANTZEA.....	64
2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA.....	68
3. SIDERURGIA.....	73
3.1 IKUSPEGI OROKORRA.....	73
3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA.....	76
3.3 EUSKAL SIDERURGIA	79
4. ONTZIGINTZA	87
4.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	87
4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN.....	89
4.3 ONTZIGINTZA EUSKADIN.....	92
5. AUTOMOBILGINTZA.....	96
5.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	97
5.2 SEKTOREA ESPAINIAN	100
5.3 AUTOMOBILGINTZAREN INDUSTRIA HORNITZAILEA EAE-N.....	106
6. MAKINA-TRESNAK.....	109
6.1 MUNDUKO EGOERA.....	109
6.2 MAKINA-TRESNAK EUSKADIN	111
7. ESKU-ERREMINTA	118
8. PAPERA	122
8.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	122
8.2 SEKTOREA ESPAINIAN	124
8.3 SEKTOREA EAEN	127
9. KAUTXUA.....	130
9.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	130
9.2 KAUTXUA TRANSFORMATZEKO SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAE-N.....	130
9.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTUEN AZPISEKTOREA.....	133
10. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA	135
10.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	135
10.2 SEKTOREA ESPAINIAN	136
10.3 SEKTOREA EAE-N	137
11. ERAIKUNTZA	140
12. EKONOMIA- ETA FINANTZA-ANALISI SEKTORIALA.....	152
12.1 SARRERA.....	152



12.2	METODOLOGIA.....	152
12.3	RATIOEN PIRAMIDEA.....	163
12.4	FUNTSEN ITURRI ETA ERABILEREN EGOERA-ORRIA	170
13.	EAE-KO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA	208
13.1	SARRERA.....	208
13.2	BILAKAERA OROKORRA.....	208
13.3	SEKTORE EKONOMIKOAK.....	211
13.4	SOLDATAKO-KOPURUAK.....	214
3.	LEHEN SEKTOREA.....	217
1.	IKUSPEGI OROKORRA	218
1.1	BILAKAERA ESTATU-EREMUAN	218
1.2	BILAKAERA HEGO EUSKAL HERRIAN	220
2.	NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA	227
2.1	EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK.....	227
2.2	NEKAZARITZAKO PREZIOAK	232
3.	ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA.....	234
3.1	AZIENDA-ERROLDA	234
3.2	ABELTZAINZAKO EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK	236
4.	BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA	244
5.	ARRANTZA-SEKTOREA	247
5.1	IKUSPEGI OROKORRA.....	247
5.2	BAXURAKO ARRANTZA.....	248
5.3	ALTURAKO ARRANTZA.....	254
4.	ZERBITZUAK.....	257
1.	IKUSPEGI OROKORRA	258
2.	HEZKUNTZA	259
2.1	UNIBERTSITATEK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA.....	259
2.2	UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA	269
3.	GARRAIOA.....	278
3.1	TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA.....	278
3.2	ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA	283
3.3	ITSAS GARRAIOA	288
3.4	AIRE BIDEZKO GARRAIOA	299
5.	FINANTZA SEKTOREA.....	303
1.	IKUSPEGI OROKORRA	304
2.	FAMILIEN FINANTZA-EGOERA.....	308
3.	KREDITU-ERAKUNDEAK.....	311
3.1	KREDITUAREN BILAKAERA	311
3.2	GORDAILUEN BILAKAERA	321
4.	INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK.....	328
5.	BURTSA-MERKATUA	332
5.1	IKUSPEGI OROKORRA.....	333
5.2	BILBOKO BURTSA.....	336

Taula aurkibidea

1. taula	Barne-produktu gordinaren bilakaera.....	13
2. taula	Gutzizko barne-eskariaren bilakaera	14
3. taula	Ondasun- eta zerbitzu-trukeen bolumen-gorabeherak.....	14
4. taula	Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak).....	15
5. taula	Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera	16
6. taula	Lan-kostu unitario nominalen bilakaera	16
7. taula	Enpleguaren bilakaera.....	17
8. taula	Langabezia-tasa.....	17
9. taula	Administrazio publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-gaitasuna (+) edo beharra (-), barne-produktu gordin nominalaren ehunekotan).....	18
10. taula	Adierazle nagusiak (EB-28).....	20
11. taula	Barne-produktu gordinaren hazkundera (Europar Batasuna).....	21
12. taula	Europar Batasuneko per capita barne-produktu gordin (2016).....	22
13. taula	Aurreikuspen ekonomikoak (industrializatutako herrialdeak).....	23
14. taula	Barne-produktu gordin eta bere osagaiak (eskaria eta eskaintza).....	26
15. taula	Barne-produktu gordinaren banaketa (errenta).....	26
16. taula	Kontsumoko prezioen indizea (KPI) eta industriako prezioen indizea (IPI).....	28
17. taula	Errenta-adierazleak eta soldata-kostuak.....	29
18. taula	Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak.....	30
19. taula	Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu-motaren arabera. Urteko batezbestekoak.....	31
20. taula	Defizit publikoa	31
21. taula	Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2017).....	33
22. taula	Bilakaera orokorra.....	34
23. taula	Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera	36
24. taula	Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaera.....	37
25. taula	Industria Sektorearen adierazleak.....	38
26. taula	Eraikuntzaren Sektoreko Adierazleak.....	39
27. taula	Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak.....	40
28. taula	Barne-eskariaren adierazleak.....	41
29. taula	Kontsumoaren eta inbertsioaren adierazleak.....	42
30. taula	Kanpo-merkataritzaren bilakaera Hego Euskal Herrian	43
31. taula	EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta atalen arabera.....	44
32. taula	Nafarroako inportazioak eta esportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera.....	45
33. taula	Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan.....	46
34. taula	Soldata-adierazleak.....	47
35. taula	Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia	50
36. taula	Langabezia-tasa, adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak.....	51
37. taula	Enpleguaren bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera. Urteko batezbestekoak.....	52
38. taula	EEZPren bulegoetan erregistratutako kontratuak.....	53
39. taula	Hitzarmen kolektiboak eta grebak.....	53
40. taula	Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2015	54
41. taula	Hego Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera	55
42. taula	Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera	58
43. taula	Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen helburu ekonomikoen arabera.....	58
44. taula	EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-arloka.....	59
45. taula	Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-arloka	59
46. taula	Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako.....	60



47. taula	Emaitzen kontua. Urtetik urterako bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko).....	62
48. taula	EAEko energia-balantzea, 2015.....	65
49. taula	Azken kontsumoa EAEn, energia-motaren arabera.....	66
50. taula	Azken kontsumoa EAEn, sektoreen arabera.....	67
51. taula	Energia elektrikoaren produkzioa eta eskaria Hego Euskal Herrian.....	70
52. taula	Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldeka.....	71
53. taula	Altzairu gordinaren ekoizpena.....	74
54. taula	Siderurgia-produktuen kontsumoa.....	75
55. taula	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak.....	76
56. taula	Inportatutako lehengaiak.....	78
57. taula	EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza.....	80
58. taula	Siderurgia-jarduerak EAEko industriari eginiko ekarpena.....	81
59. taula	Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera.....	81
60. taula	Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena.....	82
61. taula	Soldadurarik gabeko hodian ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza.....	83
62. taula	Soldadurarik gabeko hodian esportazioak, helmugako herrialdeen arabera.....	84
63. taula	Negozio-arloak eta enpresa-unitateak. Tubos Reunidos taldea. 2016.....	86
64. taula	Fabrikatutako produktuak, merkatuaren eta industria-sektorearen arabera. Tubos Reunidos taldea. 2016.....	86
65. taula	Munduko merkataritza-ontzidia.....	87
66. taula	Munduko merkataritza-ontzidia, jatorrizko herrialdearen arabera.....	88
67. taula	Munduko merkataritza-ontzidia, itsasontzi-motaren arabera.....	89
68. taula	Espainiako itsasontzi-ekoizpena.....	90
69. taula	Eskabide-zorroa urte-amaieran.....	90
70. taula	Eskabide-zorroa itsasontzi-motaren arabera, urte-amaieran (2016).....	91
71. taula	Ontzigitza Euskadin.....	92
72. taula	Ontzigitzaren ekoizpena Euskadin. Partaidetza Estatuan. Tonaje konpentsatua.....	92
73. taula	Eskabide-zorroa Euskadin.....	94
74. taula	Enpresa bakoitzaren eskabide-zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak.....	94
75. taula	Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa.....	99
76. taula	Espainiako automobilgintzaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza.....	100
77. taula	Autoen matrikulazioa, marken arabera.....	102
78. taula	Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak.....	103
79. taula	Automobilgintza-sektorearen esportazioak eta inportazioak.....	104
80. taula	Espainiako automobilgintzarako ekipo eta osagaien industriaren kopuru nagusiak.....	105
81. taula	EAEko automobilgintzaren sektore hornitzailearen bilakaera.....	107
82. taula	Makina-tresnen mundu mailako ekoizpena, merkataritza eta kontsumoa.....	110
83. taula	Makina-erremintako sektorearen aldagai nagusien bilakaera espainiar estatuan.....	112
84. taula	Makina-tresnen ekoizpenaren banaketa Espainian, makina-moten arabera.....	113
85. taula	Espainiako makina-tresnen esportazioak herrialdeka.....	114
86. taula	Makina-tresna moten araberako esportazioak.....	115
87. taula	Espainiako makina-tresnen inportazioak herrialdeka.....	116
88. taula	Sektoreko magnitude nagusien bilakaera.....	118
89. taula	Esportazioen banaketa, eremu geografikoen arabera.....	119
90. taula	Inportazioaren banaketa, eremu geografikoen arabera.....	120
91. taula	Paperaren eta kartoiaren produkzioa (CEPIko kideak).....	122
92. taula	Paperaren eta kartoiaren produkzioa, herrialdeka.....	123
93. taula	Ore-produkzioa, herrialdeen arabera.....	124
94. taula	Paperaren eta kartoiaren produkzioa eta kontsumoa. Espainiako guztizkoa.....	125

95. taula	Produkzioa eta kontsumoa, paper-motaren arabera.....	126
96. taula	Produkzioa eta kontsumoa ore-motaren arabera	127
97. taula	Paperaren eta orearen produkzioa EAEn.....	127
98. taula	Paperaren sektoreko enpresa nagusiak EAEn.....	128
99. taula	Kautxu naturalaren eta sintetikoaren kontsumoa munduan.....	130
100. taula	Kautxua eraldatzeko sektorearen oinarrizko datuak ⁰ Espainian.....	131
101. taula	Kautxu eraldatuaren kanpo-merkataritzako datuak, azpisektoreka.....	132
102. taula	Kautxu eraldatuaren kanpo-merkataritzako datuak, azpisektoreka.....	132
103. taula	Pneumatikoen eta birkautxutuen ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza	133
104. taula	Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian	134
105. taula	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpresen bilakaera EAEn.....	137
106. taula	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko ekoizpenaren bilakaera EAEn	137
107. taula	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko esportazioen bilakaera EAEn.....	138
108. taula	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpleguaren bilakaera EAEn.....	138
109. taula	Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera.....	140
110. taula	Eraikuntzaren Koiunturako Indizea (EKI).....	141
111. taula	Lizitazio ofizialaren banaketa administrazio zentralaren, Autonomikoaren eta Tokikoaren artean.....	142
112. taula	Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2016).....	143
113. taula	Lizitazio ofiziala, obra-moten arabera (2016).....	144
114. taula	Hasitako eta amaitutako etxebizitzak.....	147
115. taula	Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn	150
116. taula	Eraikuntzako langileak.....	150
117. taula	Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralaren enpresa laguntzaileen kopurua.....	163
118. taula	Ondare garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan.....	164
119. taula	Aktibo garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan.....	165
120. taula	Leverage finantzarioa Euskal Herriko industria-sektoreetan	166
121. taula	Euskal Herriko industria-sektoreen eta Estatukoaren arteko konparazioa, 2015	168
122. taula	Euskal Herriko industria-sektoreetako funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	171
123. taula	Euskal Herriko industria-sektoreen eta Estatukoaren arteko konparazioa, 2015	172
124. taula	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industrien sektoreko ratioen piramidea.....	176
125. taula	Paperaren industriaren sektoreko ratioen piramidea	177
126. taula	Arte grafikoen eta grabatutako euskarrien erreprodukzioaren sektoreko ratioen piramidea.....	178
127. taula	Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea.....	179
128. taula	Farmazia-produktuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	180
129. taula	Kautxuaren eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	181
130. taula	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	182
131. taula	Metalurgiaren (burdinazko eta altzairuzko produktuen, eta ferroaleazioen fabrikazioa) sektoreko ratioen piramidea.....	183
132. taula	Produktu metalikoen fabrikazioaren (makineriarena eta ekipoen izan ezik) sektoreko ratioen piramidea.....	184
133. taula	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	185
134. taula	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	186
135. taula	Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	187



136. taula	Ibilgailu motordunen, atoiien eta erdi-atoiien fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	188
137. taula	Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko ratioen piramidea.....	189
138. taula	Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	190
139. taula	Industria osoko ratioen piramidea.....	191
140. taula	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	192
141. taula	Paperaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	193
142. taula	Arte grafikoen sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	194
143. taula	Industria kimikoaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	195
144. taula	Farmazia-produktuen fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	196
145. taula	Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	197
146. taula	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	198
147. taula	Metalurgiaren (burdinazko eta altzairuzko produktuen, eta ferroaleazioen fabrikazioa) sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	199
148. taula	Produktu metalikoen fabrikazioaren (makineria eta ekipoa izan ezik) sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	200
149. taula	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	201
150. taula	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	202
151. taula	Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	203
152. taula	Ibilgailu motordunen, atoiien eta erdi-atoiien fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	204
153. taula	Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	205
154. taula	Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	206
155. taula	Industria osoko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria.....	207
156. taula	Enpresak ekonomia-sektorearen arabera. 2010-2016 aldiko konparazioa.....	213
157. taula	Enpresak soldatako-kopuruen arabera. 2010-2016 aldiko konparazioa.....	216
158. taula	Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak.....	219
159. taula	EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak.....	221
160. taula	Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Hego Euskal Herria.....	224
161. taula	Enplegua lehen sektorean.....	226
162. taula	Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak.....	228
163. taula	Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera.....	230
164. taula	Nekazaritza-produktu esanguratsuenen lortutako errendimenduak.....	231
165. taula	Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak.....	233
166. taula	Azienda-errola (urte bakoitzeko azaroaren 30ean).....	235
167. taula	Esnearen ekoizpena.....	236
168. taula	EAEko ekoiztutako esnearen erabilera.....	237
169. taula	Esne-ekoizpenerako eliteko behi-aziendako ustiatzearen lagin baten emaitzak.....	238
170. taula	ABEREk eta INTIA-ITGk kudeatutako esnetarako ardi-aziendaren ustiatzearen batez besteko emaitza ekonomikoak.....	239
171. taula	Euskal Herriko hildako ganaduaren kanaleko pisua.....	240
172. taula	Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-aziendako ustiatzearen emaitzak.....	242

173. taula	INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-aziendako ustiatzearen emaitzak.....	243
174. taula	EAEn egurra mozteko lizentziak.....	245
175. taula	EAEn egurra mozteko lizentziak.....	246
176. taula	EAEko ontzidiaren egitura.....	247
177. taula	EAEko baxurako ontzidia, portu bakoitzeko (2016).....	248
178. taula	EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera (2016).....	249
179. taula	Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira.....	250
180. taula	Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantzaren helmuga, 2016.....	250
181. taula	Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera.....	251
182. taula	Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera (2016).....	252
183. taula	Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera (2016).....	253
184. taula	EAEko alturako ontzidia, 2016.....	254
185. taula	EAEko alturako freskoko ontzidiaren egitura, 2016.....	255
186. taula	EAEko bakailao-ontzidia, 2016.....	255
187. taula	EAEko atunontzi izoztaileak, 2016.....	256
188. taula	Zerbitzuen sektorearen bilakaera.....	258
189. taula	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza.....	259
190. taula	Euskalduntze maila. Haur Hezkuntza.....	260
191. taula	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza.....	261
192. taula	Euskalduntze maila. Lehen Hezkuntza.....	262
193. taula	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH.....	263
194. taula	Euskalduntze maila. DBH.....	264
195. taula	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketa.....	266
196. taula	Euskalduntze maila. Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketa.....	267
197. taula	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. LOGSE BATXILERGOA.....	268
198. taula	Euskalduntze maila. LOGSE BATXILERGOA.....	269
199. taula	Ikasle eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko Unibertsitateetan.....	270
200. taula	Ikasleen banaketa UPV/EHU ⁽¹⁾	271
201. taula	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean.....	273
202. taula	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP).....	274
203. taula	Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean.....	275
204. taula	Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean.....	276
205. taula	Bidaariaren mugimendua.....	278
206. taula	Bidaariaren mugimendua, konpainien arabera.....	278
207. taula	Bidaariaren garraioaren ondoriozko diru-bilketa.....	279
208. taula	Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herriaren duten merkantzien bolumena.....	279
209. taula	Trenbide bidezko garraioaren sektoreko langileak.....	280
210. taula	Bidaariaren mugimendua Bilboko Metroan.....	280
211. taula	Bilboko Metroko bidaiarien banaketa, geltokien arabera (2016).....	281
212. taula	Ibilgailuen parkea.....	283
213. taula	Kamioen, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazio garbia.....	284
214. taula	Motorizazio-indizeak.....	285
215. taula	Garraiatutako salgaiak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barneko eta eskualde arteko garraioa jatorrizko eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera.....	285
216. taula	Hiri-garraioa. Sektoreko oinarritzko datuak.....	287
217. taula	Hiriko garraioaren bilakaera.....	287
218. taula	Itsaso bidezko munduko merkataritza.....	288
219. taula	Espainiako itsas merkataritza.....	289
220. taula	Euskal portu nagusietako trafikoa.....	290
221. taula	Salgaien guztizko trafikoen osaera.....	291
222. taula	Kanpoko trafikoa eta kabotajea.....	291



223. taula	Bilboko Portuko kanpoko trafikoaren osaera 2016	292
224. taula	Pasaiaiko portuko kanpoko trafikoaren osaera. 2016.....	293
225. taula	Bilboko portua. Trafikoa herrialdeen arabera, 2016.....	294
226. taula	Pasaiaiko portua. Trafikoa herrialdeen arabera, 2016.....	297
227. taula	Bilboko portua. Magnitude ekonomikoak.....	298
228. taula	Euskal Herriko aireko trafikoa	299
229. taula	Aireontzien trafikoa, aireportuaren arabera.....	300
230. taula	Salgaien trafikoa, aireportuaren arabera	300
231. taula	Bidaia-erien trafikoa, aireportuaren arabera.....	301
232. taula	Aireportuko trafikoaren gorakada (2016/2015).....	301
233. taula	Kreditu-erakundeak eta kredituko finantza-establezimenduak (KFE). Erakunde-kopurua.....	306
234. taula	Kreditu-erakundeak eta kredituko finantza-establezimenduak (KFE). Enplegatutako pertsonak.....	307
235. taula	Gordailu-erakundeak. Bulego-kopurua.....	307
236. taula	Euroguneko familietako ondarearen egitura (erreal eta finantzarioa).....	308
237. taula	Familien aktibo finantzarioen posizioen osaera eurogunean.....	309
238. taula	Euroguneko familien zorra eta zor-mota	309
239. taula	Kreditura sarbidearen inguruan Eurozoguneko familien balorazioa.....	310
240. taula	Kreditu-erakundearen aktiboaren osaera.....	311
241. taula	Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera.....	312
242. taula	Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	313
243. taula	Gordailu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	314
244. taula	Gordailu-erakundeak. Kreditua agenteen eta eremuaren arabera.....	316
245. taula	Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa.....	318
246. taula	Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak.....	318
247. taula	Gordailu-erakundeak. Zalantza-koen edo berankortasunaren gutzitza tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	319
248. taula	Gordailu-erakundeak. Zalantza-koen edo berankortasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	320
249. taula	Gordailu-erakundeak. Zalantza-ko kredituaren bilakaera helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	321
250. taula	Kreditu-erakundeak. Gordailuak kreditu-erakundeetan, agenteen arabera.....	322
251. taula	Gordailu-erakundeak. Gordailu motak. Beste sektore egoiliar batzuk.....	322
252. taula	Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina.....	323
253. taula	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta APen gordailuak.....	325
254. taula	Kreditu-erakundeak. Etxeko unitateetarako eta sozietate ez- finantzarioetarako eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasak (TEDR).....	327
255. taula	Finantza-arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundearen ondarea eta kopurua.....	328
256. taula	Higigarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtzen ondare-banaketa, balio eraginkorren arabera.....	330
257. taula	Higigarrietako Inbertsio Funtzen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera (abenduaren 31).....	331
258. taula	Burtsa-indize nagusien bilakaera	332
259. taula	Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatutako izan ezik. Inbertsio- funtsetako partizipazioak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta- eskaintza publikoak.....	333
260. taula	Burtsa-merkatua. Negoziatutako bolumenaren balio efektiboa	334
261. taula	Errenta finkoko merkatu antolatuetako kontratazioa	336
262. taula	Eperakoen eta aukeren merkatu ofizialak.....	336
263. taula	Bilboko Burtsaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, gehienekoa eta gutxienekoa.....	337
264. taula	Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena Balio efektiboak.....	338

Grafiko aurkibidea

1. grafikoa	Interes-tasen aldakuntzak	19
2. grafikoa	Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala.....	32
3. grafikoa	BPG-aren bilakaera.....	35
4. grafikoa	Industria-errentagarritasuna.....	61
5. grafikoa	Azken kontsumoa EAEn, energia-motaren arabera (m ptb).....	67
6. grafikoa	Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena	75
7. grafikoa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak.....	77
8. grafikoa	Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena.....	79
9. grafikoa	Grupo Tubacex taldearen 2016ko salmenten banaketa geografikoa.....	85
10. grafikoa	Ontzigtzako eskabide-zorroaren eta ekoizpen haztatuaeren bilakaera (mCGT).....	93
11. grafikoa	Sektoreko fakturazioaren bilakaera.....	107
12. grafikoa	Sektoreko ekoizpenaren helmugako merkatuak.....	108
13. grafikoa	Makina-tresnen sektoreko merkataritza-balantza.....	113
14. grafikoa	Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian.....	125
15. grafikoa	Lizitazio ofiziala.....	146
16. grafikoa	Amaitutako etxebizitza-kopurua.....	149
17. grafikoa	Eraikuntzako langileak.....	151
18. grafikoa	Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta haren osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2015.....	169
19. grafikoa	Euskal Herriko industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren (e1) eta Estatu osokoaren arteko konparazioa, 2015.....	170
20. grafikoa	Funtsen iturri eta erabileren egoera-orria Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2015.....	174
21. grafikoa	Euskal Herriko industria-sektoreetako inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxuaren eta Estatu osokoaren arteko konparazioa, 2015.....	175
22. grafikoa	Enpresa-kopuruaren bilakaera.....	209
23. grafikoa	Enpresa-kopuruaren urtetik urterako aldakuntza	210
24. grafikoa	Ehunekoaren bilakaera, Estatuko enpresa guztien multzoan (Estatua=100).....	210
25. grafikoa	Enpresa-kopuruaren bilakaera sektore ekonomikoaren arabera (zenbaki indizeak 2010=100).....	212
26. grafikoa	Enpresen bilakaera, soldatako-kopuruaren arabera (zenbaki indizeak 2010=100).....	215
27. grafikoa	Balio erantsi gordinaren bilakaera nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura	222
28. grafikoa	Enpleguaren bilakaera lehen sektorean.....	226
29. grafikoa	Abeltzaintza-ekoizpena Euskal Herrian, bilakaera espezieen arabera.....	241
30. grafikoa	Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak.....	251
31. grafikoa	Ikasleen matrikulazioaren bilakaera Euskal Herrian	265
32. grafikoa	Salgaien eta itsasontzien trafikoa Bilboko portuan	295
33. grafikoa	Salgaien eta itsasontzien trafikoa Pasaiaiko portuan.....	296
34. grafikoa	Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra.....	304
35. grafikoa	Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa.....	305
36. grafikoa	Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (BSE).....	314
37. grafikoa	Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	315
38. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuentzako kredituaren bilakaera.....	316
39. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera.....	324
40. grafikoa	Berriz finantzatzeko interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala.....	326
41. grafikoa	Kotizazio Indize Orokorra. Bilboko Burtza (2016).....	337

A decorative graphic consisting of numerous gears of various sizes and colors (white, red, green, black) arranged in a cluster that tapers towards the top right. The background features a series of parallel, light-colored diagonal lines.

1. ESPARRU OROKORRA

16

1. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)

1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ezaugarri nagusiak: ekoizpen-jarduera

2016an, munduko ekonomiaren zabalkuntza-erritmoa moteldu egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2016an zabalkuntza % 3,1ekoa izan da; 2015ean, berriz, % 3,4koa; eta 2014an, azkenik, % 3,5ekoa), hain zuzen ere, sortzen eta garatzen ari diren merkatuetako ekonomiak gelditzen hasi direlako (2016ko hazkundera: % 4,1; 2015eko hazkundera: % 4,2) eta ekonomia aurreratuek aurreko ekitaldian baino gutxiago egin dutelako aurrera (2016an, % 1,7; 2015ean, aldiz, % 2,1), ekitaldiaren azken tartean lehengaiak garestitu egin direla kontuan izanik.

2017ko ekainean ELGAk eginiko aurreikuspenen arabera, industrializatutako herrialdeen multzoak bere hedakuntza lau hamarren moteldu du, % 1,8ko hedakuntza izan baitu 2016an (aurreko ekitaldian, % 2,2 izan zen ehuneko hori); horrenbestez, 2015ean erregistratutako hazkunde-biziagotzea eten egin da 2016an.

1. taula Barne-produktu gordinaren bilakaera

Herraldea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	2,4	2,6	1,6
Japonia	0,3	1,1	1,0
Alemania	1,6	1,5	1,8
Frantzia	0,7	1,2	1,1
Italia	0,2	0,7	1,0
Erresuma Batua	3,1	2,2	1,8
Kanada	2,6	0,9	1,4
Eurogunea	1,2	1,5	1,7
ELGA guztira	2,0	2,2	1,8

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Ameriketako Estatu Batuetako ekonomiari erreparatuta, haren aurrerapen-erritmoa ere lasaitu egin da 2016an (aurrerapena % 1,6koa izan da 2016an, eta % 2,6koa izan zen, aldiz, aurreko ekitaldian), batez ere, barne-eskariak indarra galdu duelako (% 1,7koa izan da 2016an, eta % 3,2koa, berriz, 2015an).

Bestalde, sortzen eta garatzen ari diren merkatu-ekonomiek, Indiak eta Txinak, dinamismo handiagoa izan dute 2016an (% 6,8ko eta % 6,7ko hedapenak, hurrenez hurren), nahiz eta aurreko ekitaldian baino indar txikiagoa izan duten (2015ean % 7,9 eta

% 6,9 hazi ziren, hurrenez hurren); Brasilek eta Errusiak, oster, -% 3,6ko eta -% 0,2ko uzkurdua izan dute, hurrenez hurren.

2. taula Guztizko barne-eskariaren bilakaera

Herraldea	(% Δ)		
	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	2,4	3,2	1,7
Japonia	0,4	0,7	0,4
Alemania	1,4	1,4	2,2
Frantzia	1,1	1,4	1,8
Italia	0,3	1,3	1,1
Erresuma Batua	3,4	2,0	1,5
Kanada	1,5	0,0	0,6
Eurogunea	1,3	1,8	2,1
ELGA guztira	2,0	2,4	1,8

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Bestalde, Eurogunearen aurrerapen-erritmoa % 1,7raino hazi da 2016an (2015an, aldiz, % 1,5ekoa izan zen); ondorioz, 2014an hasitako berreskurapena finkatzen ari dela esan dezakegu (2014an, Eurogunekeo ekonomiak % 1,2ko gorakada izan zuen), aurreko urteetako atzerakada luzearen ondoren.

Kanpo-merkataritza

Testuinguru horretan, industrializatutako herrialdeetako merkataritza-jarduera ahuldu egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, esportazioek indarra galdu baitute (% 2,3ko gorakada 2016an, eta % 4,4koa 2015ean), baita inportazioek ere (% 2,6ko areagotzea 2016an, eta % 4,7koa aurreko ekitaldian). Herrialdeka, bereziki nabarmentzen da Alemaniak, Frantziak eta Erresuma Batuak kanpo-salmentetan izan duten desazelerazioa eta Japoniatik datozen kanpo-erosketek izan duten atzerakada.

3. taula Ondasun- eta zerbitzu-trukeen bolumen-gorabeherak

Herraldea	Inportazioak			Esportazioak		
	2014	2015	2016	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	4,4	4,6	1,1	4,3	0,1	0,4
Japonia	8,3	0,8	-2,3	9,3	2,9	1,2
Alemania	4,0	5,0	3,7	4,0	4,6	2,5
Frantzia	4,8	6,4	3,5	3,4	6,0	1,2
Italia	3,1	6,7	3,1	2,4	4,1	2,6
Erresuma Batua	2,5	5,5	2,8	1,5	6,1	1,8
Kanada	2,2	0,3	-1,0	5,8	3,4	1,1
ELGA guztira	4,1	4,7	2,6	4,4	4,4	2,3

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Bestalde, ELGAko herrialde guztien eragiketa arrunten balantzeak (alegia, ondasun eta zerbitzuen merkataritza-jardueraren eta transferentzia arrunten bilakaeraren emaitza) saldo positiboa areagotu egin du 2016an (113,2 mila milioi dolar; 2015ean 81,7 mila milioi dolarrekoa izan zen). Horren arrazoi nagusi izan dira Japoniako superabit-saldoa hobetu izana (2016an 183,1 mila milioi dolar, eta aurreko ekitaldian 133,9 mila milioi dolar), Estatu Batuetako defizit-saldoa okertu izana (2016an -481,2 mila milioi euro, eta 2015ean -463 mila milioi euro) eta Euroguneko saldo positiboak atzerakada txiki bat izanak (423,8 mila milioi dolar 2016an, eta 436,4 mila milioi dolar aurreko ekitaldian).

4. taula **Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak)**

	<i>(mM \$)</i>		
Herraldea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	-392,1	-463,0	-481,2
Japonia	36,8	133,9	183,1
Alemania	293,2	289,6	286,5
Frantzia	-30,8	-4,8	-22,6
Italia	40,2	26,3	47,8
Erresuma Batua	-139,7	-122,4	-115,7
Kanada	-43,6	-52,9	-51,2
Eurogunea	406,4	436,4	423,8
ELGA guztira	14,1	81,7	113,2

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Prezioak eta soldatak

Petrolio merkatu egin bada ere ekitaldi osoan (Brent upel bakoitzak 52,2 dolar balio zuen 2015ean, eta 2016an, berriz, 43,3 dolar), azken hiruhilekoan garestitu egin da (urte arteko % 12,4), eta horregatik, kontsumo pribatuaren deflatorea 2015ean baino gehiago hazi da, oro har.

Ildo horretan, ELGAren arabera, kontsumo pribatuaren deflatoreak hazkuntza-erritmoa bizkortu du 2016an; zehazki, % 1,1eraino Estatu Batuetan eta % 0,4raino Eurogunean (aurreko ekitaldian % 0,3raino bizkortu zen Estatu Batuetan eta % 0,1eraino, berriz, Eurogunean). Industrializatutako herrialdeen multzoan % 1,1eraino igo zen 2016an (% 0,8raino, oster, 2015ean).

5. taula Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera

Herrialdea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	1,5	0,3	1,1
Japonia	2,0	0,4	-0,4
Alemania	0,9	0,6	0,7
Frantzia	0,1	-0,2	0,1
Italia	0,3	0,0	0,0
Erresuma Batua	1,7	0,3	1,1
Kanada	1,9	1,1	1,0
Eurogunea	0,5	0,1	0,4
ELGA guztira	1,6	0,8	1,1

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Testuinguru horretan, banku zentral nagusien diru-politikak zabaltzen jarraitu du 2016an, baina kontrako joerak izan dituzte. Ekitaldia amaitzean (abenduan), Estatu Batuetako Erreserba Federalak % 0,75era igo du bere erreferentzia-tasa (2015eko abenduaz geroztik % 0,5ean zegoen finkatuta); bestalde, martxoan Europako Banku Zentralak % 0,05etik % 0,1ra jaitsi du bere erreferentzia-tasa.

Banakako lan-kostu nominalen dagokienez, 2016an haien aurrerapen-eritimoa bizkortu egin da Estatu Batuetan, Japonian eta Eurogunean (Japonian % 2,3, eta Eurogunean % 1,3). 2015ean, datu horiek % 2,1, % 0,3 eta % 0,7 izan ziren, hurrenez hurren.

6. taula Lan-kostu unitario nominalen bilakaera

Herrialdea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	2,2	2,1	2,3
Japonia	1,2	0,3	1,3
Alemania	2,2	2,1	2,0
Frantzia	0,7	0,1	0,9
Italia	0,2	1,2	1,5
Erresuma Batua	-0,7	1,0	1,9
Kanada	1,2	1,8	1,1
Eurogunea	0,7	0,7	1,3

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Lan-merkatua

Jarduera ekonomikoari eutsi ahal izan zaionez, lan-merkatuek bilakaera ona izan dute 2016an: okupazioa hazi egin da eta langabezia-tasak behera egin du ia leku guztietan.

Zehazki, 2016an enplegua hazi egin da aztertutako herrialdeetan eta blokeetan, eta dinamismo handiena Euroguneak eta Estatu Batuek izan dute (% 1,8 eta % 1,7, hurrenez

hurren); izan ere, kasu gehienetan aurrerakada handiagoa ikusi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

7. taula Enpleguaren bilakaera

(% Δ)

Herraldea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	1,8	2,1	1,7
Japonia	0,7	0,5	1,0
Alemania	0,8	0,9	1,2
Frantzia	0,1	0,1	0,6
Italia	0,1	0,7	1,3
Erresuma Batua	2,4	1,7	1,4
Kanada	0,6	0,9	0,7
Eurogunea	0,6	1,0	1,8

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Bestalde, 2016an langabezia-tasak behera egin du oro har, Kanadan izan ezik, herrialde horretan apur bat igo baita (% 7 2016an, eta % 6,9 2015ean). Bestalde, Euroguneko langabezia-tasa Estatu Batuetakoa eta industrializatutako herrialdeen multzokoa baino nabarmen handiagoa izan da (% 10, % 4,9 eta % 6,3, hurrenez hurren).

8. taula Langabezia-tasa

(biztanleria aktiboaren % zenbat)

Herraldea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	6,2	5,3	4,9
Japonia	3,6	3,4	3,1
Alemania	5,0	4,6	4,2
Frantzia	10,3	10,4	10,0
Italia	12,6	11,9	11,7
Erresuma Batua	6,2	5,4	4,9
Kanada	6,9	6,9	7,0
Eurogunea	11,6	10,9	10,0
ELGA guztira	7,4	6,8	6,3

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Diru- eta aurrekontu-politika

2016an, gehiegizko defizit-mailak murrizteko neurriak aplikatzen jarraitu dute gure gertuko herrialde gehienek, eta kontu publikoen desorekak geldiarazi egin dituzte neurri horien ondorioz, Estatu Batuen, Japoniaren eta Kanadaren kasuan izan ezik. Izan ere, herrialde horietako desorekak areagotu egin dira.

Zehazki, Frantziako, Italiako eta Erresuma Batuko defizitak -% 3,4ra, -% 2,4ra eta -% 3,3ra jaitsi dira (2015an, herrialde horietako defizitak -% 3,6, -% 2,7 eta -% 4,3 izan ziren, hurrenez hurren), eta Alemaniako superabita, berriz, % 0,8ra igo da (aurreko

ekitaldian baino portzentajezko hamarren bat gehiago); horrela, Eurogunearen finantzaketa-beharrak haren barne-produktu gordinaren -% 1,6raino iritsi dira (aurreko ekitaldian, -% 2,1 izan zen ehuneko hori).

Aitzitik, Estatu Batuetako ekonomiaren defizita -% 5eraino igo da, Japoniakoa -% 4,6raino eta Kanadakoa -% 1,9raino (2015ean, -% 4,4, -% 3,5 eta -% 1,1, hurrenez hurren).

Bestalde, ELGAko herrialdeen finantzaketa-beharrak portzentajezko hamarren bat areagotu dira 2016an: zehazki, barne-produktu gordinaren -% 3; aurreko ekitaldian, berriz, ehuneko hori -% 2,9 izan zen.

9. taula Administrazio publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-gaitasuna (+) edo beharra (-), barne-produktu gordin nominalaren ehunekotan)


(Barne-produktu gordinaren % zenbat)

Herraldea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	-5,0	-4,4	-5,0
Japonia	-5,4	-3,5	-4,6
Alemania	0,3	0,7	0,8
Frantzia	-3,9	-3,6	-3,4
Italia	-3,0	-2,7	-2,4
Erresuma Batua	-5,6	-4,3	-3,3
Kanada	0,0	-1,1	-1,9
Eurogunea	-2,6	-2,1	-1,6
ELGA guztira	-3,5	-2,9	-3,0

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Lehen ere aipatu den bezala, 2016an banku zentral garrantzitsuenek politika moldakorrak aplikatzen jarraitu dituzte, baina norabide desberdinekin: Estatu Batuetako Erreserba Federalak %0,75ra igo du bere erreferentzia-tasa abenduan; bestalde, martxoan Europako Banku Zentralak % 0ra jaitsi du bere erreferentzia-tasa.

1. grafikoa Interes-tasen aldakuntzak



Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Europar Batasuna

Arreta Europan jarriz, eta Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenekin bat etorritik, EB-28 osoak % 1,9raino jaitsi du bere hedapen-erritmoa 2016an (2015ean % 2,2). Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, barne-eskariak dinamismoari eutsi dio (% 2,1ko aurrerakada izan du bai 2015ean bai 2016an). Bestalde, esportazioek eta inportazioek indarra galdu dute (esportazioen hazkundera % 3,1ekoa izan da 2016an eta % 6,4koa 2015ean; inportazioen hazkundera, ordea, % 4koa izan da 2016an, eta % 6,3koa 2015ean).

Barne-eskariaren osagarriari erreparatuz gero, kontsumo pribatuak ez ezik, kontsumo publikoak ere sendotu egin du bere igoera 2016an (% 2,3 eta % 1,7 2016an; 2015ean, berriz, % 2,1 eta % 1,4); inbertsioaren igoera, berriz, moteldu egin da (2016an % 2,6, eta aurreko ekitaldian % 3,6).

10. taula Adierazle nagusiak (EB-28)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
Jarduera			
– Kontsumo pribatua	1,2	2,1	2,3
– Kontsumo publikoa	1,0	1,4	1,7
– Kapital finkoaren eraketa gordina (KFEG)	2,7	3,6	2,6
– Barne-eskaria	1,8	2,1	2,1
– Esportazioak	4,4	6,4	3,1
– Inportazioak	5,0	6,3	4,0
– Barne-produktu gordina	1,6	2,2	1,9
Prezioak eta soldatak			
– Barne-produktu gordinaren deflatorea	1,0	1,1	1,0
– Kontsumo pribatuaren deflatorea	0,7	0,2	0,5
– Lan-kostu unitario errealak	-0,5	-0,9	0,0

Iturria: *European Economy. Europako Batzordea (2017ko udaberria).*

Herrialdeen araberako analisiak agerian uzten du EBko herrialde guztiak hazi egin direla 2016an, Grezia izan ezik (aurrerakada nulua izan du Greziak). Zehazki, Irlanda, Malta, Errumania eta Luxenburgo izan dira kide dinamikoenak, eta denek % 4tik gorako hazkundeak izan dituzte (% 5,2, % 5, % 4,8 eta % 4,2, hurrenez hurren). Beste herrialde hauek dira, aldiz, aurrerapen txikiak izan dituztenak: Portugal eta Finlandia (% 1,4 bakoitzak); Danimarka (% 1,3); Belgika eta Frantzia (% 1,2 bakoitzak); Italia (% 0,9). Bestalde, Alemaniak (EBko traktore ekonomiko nagusiak) % 1,9ko hedakuntza izan zuen. Erregistro horrek esan nahi du Alemaniak bi hamarreneko azelerazioa izan duela 2015ean izandakoarekin alderatuta.

Bereziki nabarmendu behar da Erresuma Batua; izan ere, 2016an erreferenduma egin zen lurralde horretan, Europar Batasunean jarraitzeari buruzkoa (*brexít* deitu zitzaion erreferendum horri), eta Europar Batasunetik ateratzea erabaki zuten herritarrek bozketa horretan. Hori izan zen Erresuma Batuak Europar Batasunetik irteteko hasitako prozesuaren lehen urratsa. Edonola ere, Erresuma Batuak % 1,8ko aurrerakada izan zuen 2016ko ekitaldian.

11. taula Barne-produktu gordinaren hazkundea
(Europar Batasuna)

(Urte arteko aldakuntza-tasaren % zenbat)

Herraldea	2014	2015	2016
Irlanda	8,5	26,3	5,2
Malta	8,3	7,4	5,0
Errumania	3,1	3,9	4,8
Luxenburgo	5,6	4,0	4,2
Bulgaria	1,3	3,6	3,4
Suedia	2,6	4,1	3,3
Eslovakia	2,6	3,8	3,3
Espainia	1,4	3,2	3,2
Kroazia	-0,5	1,6	2,9
Zipre	-1,5	1,7	2,8
Polonia	3,3	3,8	2,7
Eslovenia	3,1	2,3	2,5
Txekiar Errepublika	2,7	4,5	2,4
Lituania	3,5	1,8	2,3
Herbehereak	1,4	2,0	2,2
Hungaria	4,0	3,1	2,0
Letonia	2,1	2,7	2,0
EB-28	1,6	2,2	1,9
Alemania	1,6	1,7	1,9
Erresuma Batua	3,1	2,2	1,8
Estonia	2,8	1,4	1,6
Austria	0,6	1,0	1,5
Portugal	0,9	1,6	1,4
Finlandia	-0,6	0,3	1,4
Danimarka	1,7	1,6	1,3
Belgika	1,7	1,5	1,2
Frantzia	0,6	1,3	1,2
Italia	0,1	0,8	0,9
Grezia	0,4	-0,2	0,0

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2017ko udaberria).

Per capita barne-produktu gordina aztertzen badugu, erosketa-ahalmenaren parekotasunari dagokionez, nabarmendu behar da 2016an oraindik ere alde handiak daudela Batasuneko kideen artean. Lehengo kideen artean, Greziak (% 62,2), Portugalek (% 71), Espainiak (% 84,2), Italiak (% 88,6), Frantziak (% 97,4) eta Erresuma Batuak (% 99,4) dituzte maila baxuenak, EB-15eko batez bestekoa (% 100) baino baxuagoak. Maila altuena, berriz, Luxenburgok du (% 249,3). EB-28 osoa kontuan hartuta, pixkanaka bazkide berriak sartzearen ondorioz, Europako batez besteko per capita barne-produktu gordina nabarmen murriztu da.

12. taula Europar Batasuneko per capita barne-produktu gordina (2016)

Herrialdea	UE-15=100	UE-28=100
Luxenburgo	249,3	269,5
Irlanda	166,8	180,3
Herbehereak	118,5	128,1
Austria	116,6	126,1
Danimarka	115,8	125,2
Suedia	114,8	124,1
Alemania	113,9	123,1
Belgika	108,7	117,5
Finlandia	100,6	108,8
EB-15 guztira	100,0	108,1
Erresuma Batua	99,4	107,5
Frantzia	97,4	105,3
EB-28 guztira	92,5	100,0
Italia	88,6	95,8
Malta	87,6	94,7
Espainia	84,2	91,0
Txekiar Errepublika	81,2	87,8
Eslovenia	77,0	83,2
Zipre	75,8	81,9
Eslovakia	72,6	78,5
Portugal	71,0	76,8
Lituania	70,5	76,2
Estonia	69,1	74,7
Polonia	64,1	69,3
Hungaria	63,6	68,8
Grezia	62,2	67,2
Letonia	60,2	65,1
Kroazia	54,5	58,9
Errumania	54,5	58,9
Bulgaria	44,5	48,1

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2017ko udaberria).

Aurreikuspenak

Nazioarteko erakunde nagusien arabera, hurrengo bi ekitaldietan munduko ekonomiak aurrerakada txiki bat izango du, zabalkuntzaren erritmoa motela izango bada ere. Berriz ere, sortzen eta garatzen ari diren merkatu-ekonomiek bultzatuko dute batez ere munduko ekonomia. Izan ere, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) aurreikusten du 2017an munduko ekonomia batez beste % 3,5 haziko dela, eta 2018an, berriz, % 3,6.

Aurreratutako ekonomia guztiek, batuta, % 2 inguruko zabalkuntza lortuko dute 2017an eta 2018an (haien aurrerakadak ahula izaten jarraituko du), eta Estatu Batuek izango du dinamismo handiena. Ildo horretan, ELGAren arabera, Ipar Amerikako ekonomia % 2,1 haziko da 2017an (2018an % 2,4), Eurogunearena % 1,8 (2018an ere % 1,8) eta Japoniarena % 1,4 (2018an % 1).

Sortzen eta garatzen ari diren ekonomiei dagokienez, haien zabalkuntza-eritmoa pixkanaka indartuko da; hain zuzen ere, NDFk % 4,5eko aurrerapena aurreikusten du 2017rako eta % 4,8koa 2018rako.

13. taula Aurreikuspen ekonomikoak (industrializatutako herrialdeak)

Kontzeptua	2017	2018
(%)		
– Barne-produktu gordin errealaren (% Δ)		
• Ameriketako Estatu Batuak	2,1	2,4
• Japonia	1,4	1,0
• Eurogunea	1,8	1,8
• ELGA guztira	2,1	2,1
– Inflazioa (kontsumo pribatuaren deflatorea) (% Δ)		
• Ameriketako Estatu Batuak	2,1	2,1
• Japonia	0,4	1,0
• Eurogunea	1,5	1,4
• ELGA guztira	2,3	2,2
– Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren % zenbat)		
• Ameriketako Estatu Batuak	4,6	4,3
• Japonia	2,8	2,7
• Eurogunea	9,3	8,9
• ELGA guztira	6,0	5,8
– Defizit publikoa (barne-produktu gordinaren % zenbat)		
• Ameriketako Estatu Batuak	-4,7	-5,2
• Japonia	-5,0	-4,4
• Eurogunea	-1,2	-0,9
• ELGA guztira	-2,8	-2,7
– Munduko merkataritza (% Δ)	4,6	3,8

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

Ezaugarri orokorrak

2014an erregistratutako % 1,4ko gorakada eta gero, Espainiako estatuko ekonomiak % 3,2ko hazkundea izan du 2015ean eta 2016an. Hala, lan-egoerak hobetzen jarraitu du ekitaldi horretan.

Horrenbestez, 2016an Espainiako estatuko ekonomiak Europar Batasunarekin alderatuta dinamismo handiagoa lortu izanaren ondorioz, pixka bat aurrera egin du Erkidegoko ekonomia nagusiekiko benetako konbergentzia-prozesuan.

Eskariari dagokionez, 2016an barne-produktu gordina areagotzearen arrazoietako bat izan da barne-eskariak portzentajezko 2,8 puntuko ekarpen positiboa egin diola mundu-mailako hazkundeari (2015an portzentajezko 3,3 puntu positibo), eta hori zati batean

konpentsatuta geratu da kanpoko sektorearen portzentajezko lau hamarreneko ekarpen positiboarekin (portzentajezko hamarren negatibo bat aurreko ekitaldian).

Eskaintzari dagokionez, lau sektore handiek gora egin dute 2016an; izan ere, lehen sektorea hedatu egin da (% 3,4 hedatu da, eta 2015ean -% 2,9 izan zen). Industria-sektorea, berriz, gutxiago hedatu da, (% 2,4 eta aurreko ekitaldian % 5,5). Azkenik, eraikuntza eta zerbitzuak hazkundera indartu dute (eraikuntzaren hazkundera % 2,5koa izan zen 2016an eta % 0,2koa aurreko ekitaldian; zerbitzuen sektoreak, berriz, % 3,4ko hazkundera izan zuen, eta % 2,6koa, berriz, aurreko ekitaldian).

Lan-merkatuari dagokionez, enpleguaren aurrerapen-erritmoa moteldu egin da 2016an, % 2,7raino igo baita (% 3ko gorakada izan zuen 2015ean); halere, okupazioa hazi egin da sektore guztietan, eraikuntzan izan ezik (eraikuntzako okupazioa gelditu egin da; hau da, aldakuntza nulua izan du). Horrez gain, nabarmendu behar da lehen sektoreari eta zerbitzuen sektoreari lotutako enplegua indar handiagoz hazi dela (2016an, % 5,1 eta % 2,9, hurrenez hurren, eta aurreko ekitaldian, % 0,1 eta % 2,6, hurrenez hurren), eta industria-sektoreari lotutako enplegua, berriz, moteldu egin dela (2016an % 1,6, eta 2015ean % 4,3). Bestalde, langabezian dauden biztanleen kopuruak bizkorrago egin du behera (2016an -% 11,4, 2015ean -% 9,9 eta 2014an -% 7,3); hain zuzen ere, 4.481.200 pertsona egon dira langabezian 2016an (hots, langabezia-tasa % 19,6 izan da).

Prezioei dagokienez, kontsumoko prezioen indizearen urte arteko aldakuntza (abendutik abendura) % 1,6raino igo da 2016aren amaieran (aldakuntza nulua 2015aren amaieran), baina urteko batez besteko terminoetan pixka bat negatiboa izan da (-% 0,2).

Bukatzeko, aurrekontuaren exekuzioari dagokionez, aipatu beharra dago 2016a barne-produktu gordinaren -% 4,54ren baliokidea den defizitarekin itxi dela (kreditu-erakundeei emandako laguntzak barne); beraz, portzentajezko 0,59 puntuan hobetu da aurreko ekitaldian lortutako erregistroa (2015ean, barne-produktu gordinaren -% 5,13koa izan zen defizita).

Agregatu makroekonomiko nagusiak

Arestian aipatu den bezala, aurreko ekitaldian zuen hedakuntza-erritmo berari eutsi dio Espainiako ekonomiak 2016an (% 3,2 bi ekitaldietan); horrela, urte arteko hazkuntza-erritmoa moteldu egin da hiruhilekotik hiruhilekora (% 3,4 lehen bi hiruhilekoetan, % 3,2 hirugarren hiruhilekoan, eta % 3 laugarrenean).

Puntu honetara iritsita, jarraian jardueraren bilakaera aztertuko da, hainbat ikuspegi kontuan hartuta: eskaria (helmuga), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2016an, Espainiako estatu osoko barne-produktu gordin osoa 1.113.851 milioi eurora iritsi da¹; horietatik 854.148 milioi azken kontsumoari dagozkio (632.320 etxeena, 11.520 EZIAGGE edo etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeena eta 210.308 administrazio publikoena), 221.966 inbertsioari (110.970 eraikuntzara bideratutakoak, 78.489 ekipo-ondasunetara eta 32.507 jabetza intelektualeko produktuetara), eta 5.323 izakinen aldakuntzari. Horrenbestez, ondoriozko barne-eskaria 1.081.437 milioi eurokoa izan da guztira. Esportazioen (368.322 milioi euro) eta inportazioen (335.908 milioi euro) arteko aldea kanpo-eskaria da, eta hori kontuan hartuz, guztizko eskaria zenbatekoa izan den jakin dezakegu.
- 2016ko kanpo-eskariak hazkuntza orokorrari egindako ekarpen positiboari (portzentajezko 2,8 puntu) barne-eskariariak egindako ekarpen positiboa (portzentajezko 4 puntu) gehitu zaio. Barne-eskariaren esparruan, bai kontsumo pribatuaren erritmoa bai publikoaren hazkunde-erritmoa areagotu egin dira (2016an % 3,2 eta 2015ean % 2,8), baina kontsumo publikoa eta inbertsioa moteldu egin dira (2016an % 0,8 eta % 3,1, hurrenez hurren; aurreko ekitaldian % 2 eta % 6, hurrenez hurren). Arreta azken partida horretan jarrita, bai eraikuntzarekin lotura duen osagaiak bai ekipo-ondasunekin erlazionatutako osagaiak hazkuntza moteldu dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2016an % 1,9 eta % 5, hurrenez hurren; 2015ean % 4,9 eta % 8,8, hurrenez hurren).
- Sektorekako banaketa aintzat hartzen bada, 26.028 milioi euro lehen sektoreari dagozkio, 179.527 milioi euro industria-sektoreari (142.968 milioi euro manufaktura-industriari dagozkio), 56.540 milioi eraikuntzari eta 748.911 milioi zerbitzuei. Partida horiek zergei dagozkienei gehituz gero (102.845 milioi euro), guztizko ekoizpena lortuko dugu.
- Sektore guztiek gora egin dute 2016an; zehazki, lehen sektorea hazi egin da berriz ere (2016an % 3,4 eta aurreko ekitaldian -% 2,9), zerbitzuek eta eraikuntzak aurrerapen-erritmoa bizkortu dute (2016an % 3,4 eta % 2,5, hurrenez hurren; 2015an, % 2,6 eta % 0,2, hurrenez hurren), eta industria-sektorearen aurrerapen-erritmoa moteldu egin da (2016an % 2,4, eta aurreko ekitaldian % 5,5).

¹ Prezio arruntak.

14. taula Barne-produktu gordina eta bere osagaiak (eskaria eta eskaintza)

(urtez urteko tasaren % zenbat, bolumen kateatua)

Eragiketak		2015	2016
ESKARIA	Azken kontsumoko gastua	2,6	2,6
	– Etxeena	2,8	3,2
	– EZIAGGEena	3,6	3,2
	– Administrazio publikoena	2,0	0,8
	Kapital finkoaren eraketa gordina	6,0	3,1
	– Eraikuntza	4,9	1,9
	– Ekipo-ondasunak eta aktibo landuak	8,8	5,0
	Izakinen aldakuntza*	0,1	0,1
	Barne-eskaria*	3,3	2,8
	Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	4,9	4,4
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	5,6	3,3	
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan		3,2	3,2
ESKAINNTZA	Nekazaritza, abeltzailtza, basogintza eta arrantza	-2,9	3,4
	Industria	5,5	2,4
	Eraikuntza	0,2	2,5
	Zerbitzuak	2,6	3,4
	Produktuen gaineko zerga garbiak	6,7	4,2

(*):Merkatu-prezioen barne-produktu gordinaren hazkundeari eginiko ekarpena.
Iturria: EIN.

- Errentaren alderditik begiratuta, soldatakoen ordainketak hartu du guztizko barne-produktu gordinaren % 47,2; ustiapeneko soberakin gordinak, berriz, % 42,5 hartu du, eta ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak, azkenik, gainerako % 10,3a.

15. taula Barne-produktu gordinaren banaketa (errenta)

(% Δ nominala)

Eragiketak	2014	2015	2016	2016 (M euro)
Soldatakoen ordainketa ⁽¹⁾	1,3	3,8	3,1	526.098
Ustiapeneko soberakin gordina ⁽²⁾	0,1	2,7	4,4	473.032
Ekoizpenaren eta inportazioen gaineko zerga garbiak ⁽³⁾	4,3	7,7	2,2	114.721
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan ⁽⁴⁾	1,1	3,7	3,6	1.113.851

(4) = (1)+(2)+(3).

Iturria: EIN.

Kanpo-merkataritza

Estatuko ekonomikoak aurreko ekitaldiko aurrerapen-erritmoari eutsi dio 2016an, eta testuinguru horretan, esportazioak eta inportazioak ez dira hain indar handiarekin hazi, % 4,4ko eta % 3,3ko hazkundeak izan baitituzte, hurrenez hurren (2015ean, ordea, esportazioak % 4,9 hazi ziren, eta inportazioak, berriz, % 5,6).

Hala, kanpo-eskariak ekarpen positiboa egin dio hazkunde orokorrari 2016an: portzentajezko lau hamarren (aurreko ekitaldian, portzentajezko hamarren negatibo bateko ekarpena egin zion); zehazkiago, ekitaldiko hiruhilekotik hiruhilekora indartu egin da ekarpen hori (2016ko lehen hiruhilekoan, portzentajezko hamarren negatibo bat; bigarren hiruhilekoan, portzentajezko puntu-erdi positibo bat; hirugarren hiruhilekoan, portzentajezko zazpi hamarren positibo; laugarren hiruhilekoan, azkenik, portzentajezko zortzi hamarren positibo).

Laneko kostuak eta prezioak

Petrolioaren prezioak ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoetan izan duen beheranzko joerarekin eta azken hiruhilekoan izandako gorakadarekin bat etorritik, 2016ko prezioen bilakaeraren ezaugarri nagusia hau izan da: urteko lehen zortzi hilabeteetan urte arteko tasa negatiboak izan ditu (urtarrilean, -% 0,3; otsailean eta martxoan, -% 0,8; apirilean, -% 1,1; maiatzean, -% 1; ekainean -% 0,8; uztailean, -% 0,6; abuztuan, -% 0,1), eta positiboak (gero eta gehiago) irailetik aurrera (irailean, % 0,2; urrian eta azaroan, % 0,7; abenduan, % 1,6).

Hori horrela izanik, 2016an inflazioa positiboa izatera aldatu da ekitaldiaren amaieran (urte arteko tasa, abendutik abendura), % 1,6koa, 2015ean erregistratutako aurrerapen nulurekin alderatuta. Urteko batez bestekoari dagokionez, prezioek beheranzko erritmoa moteldu dute eta -% 0,2raino iritsi dira (2015ean, -% 0,5era iritsi ziren). Azpiko inflazioa % 0,8koa izan da (aurreko ekitaldian % 0,6koa izan zen).

Hala, kontuan hartuta ELGAREN arabera Eurogunearen inflazio-tasa (kontsumo pribatuaren deflatorearen bidez neurtua) % 0,4koa izan dela 2016an (2015ean % 0,1ekoa izan zen), Espainiako ekonomiaren eta moneta bakarraren blokearen arteko diferentziala portzentajezko sei hamarren negatibokoa izan da (aurreko ekitaldiko zifra berbera).

Ondasunen multzo desberdinak aztertuz gero, komunikazioak, *beste batzuk* izeneko taldea, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeak izan dira inflazio handienekoak; denek % 1 baino gehiagoko tasak izan dituzte (% 2,6, % 1,6, % 1,4 eta % 1,1, hurrenez hurren). Horien ondoren, honako hauek daude: jantziak eta oinetakoak eta irakaskuntza (% 0,6 bakoitzak), edari alkoholodunak eta tabakoa (% 0,5) eta etxeko tresneria (% 0,2). Gainerako taldeetan, berriz, prezioek behera egin dute: medikuntza (-% 0,2), aisia eta kultura (-% 1), garraioak (-% 2,1) eta etxebizitza (-% 4,2).

16. taula Kontsumoko prezioen indizea (KPI) eta industriako prezioen indizea (IPI)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
KPI			
– Indize orokorra ⁽¹⁾	-1,0	0,0	1,6
– Indize orokorra ⁽²⁾	-0,2	-0,5	-0,2
Elikagaiak	-0,1	1,2	1,3
Elikagaiak ez direnak	-0,2	-1,0	-0,6
• Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	-0,3	1,2	1,4
• Edari alkoholdunak, tabakoa	1,4	1,4	0,5
• Jantziak eta oinetakoak	0,1	0,3	0,6
• Etxebizitza	1,3	-2,1	-4,2
• Etxeko tresneria	-0,5	-0,2	0,2
• Medikuntza	0,1	0,1	-0,2
• Garraioak	-0,9	-4,5	-2,1
• Komunikazioak	-6,1	-1,8	2,6
• Aisia eta Kultura	-1,4	-0,4	-1,0
• Irakaskuntza	1,8	1,1	0,6
• Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,5	0,8	1,1
• Beste batzuk	1,0	1,6	1,6
Azpikoa	0,0	0,6	0,8
IPI			
– Indize orokorra	-1,3	-2,1	-3,1
• Kontsumo-ondasunak	-0,5	1,1	0,2
• Ekipo-ondasunak	0,2	0,8	0,6
• Bitarteko ondasunak	-1,5	-0,7	-1,5
• Energia	-3,1	-8,8	-10,8

(1): Abendutik abendura

(2): Urteko batez besteko aldakuntza.

Iturria: EIN.

Industriako prezioei dagokienez, 2016an haien indize orokorrak indar handiagoz erortzen jarraitu du, (-% 3,1eraino erori da, 2015ean -% 2,1era jaitsi zen, eta 2014an, azkenik, -% 1,3ra), energiaren prezioen beherakada nabarmenaren ondorioz (-% 10,8); halaber, bitarteko ondasunen prezioek ere beherakada izan dute, baina askoz ere txikiagoa (-% 1,5) eta ekipo- eta kontsumo-ondasunei dagozkienek gora egin dute apur bat (% 0,6 eta % 0,2, hurrenez hurren).

Bestalde, produktibitateak % 0,3ko gorakada izan du 2016an (barne-produktu gordinak % 3,2ko aurrerakada izan du eta enpleguaren hazkundea % 2,9koa izan da, lanaldi osoko lanpostuei edo haien baliokideei dagokienez), eta soldatako bakoitzeko ordainketa ez da aldatu (% 0ko aldakuntza izan du); lan-kostu unitarioa -% 0,3 jaitsi da (2015ean % 0,3 igo zen).

17. taula Errenta-adierazleak eta soldata-kostuak

Kontzeptua	2014	2015	2016
Barne-produktu gordin erreala	1,4	3,2	3,2
Enplegua guztira*	1,1	3,0	2,9
Produktibitatea	0,3	0,2	0,3
Soldatakoen ordainketa	1,3	3,8	3,1
Soldatako enplegua*	1,3	3,3	3,1
Soldatako bakoitzeko ordainketa	0,0	0,5	0,0
Lan-kostu unitarioa	-0,3	0,3	-0,3

(%Δ)

(*): Kontabilitateko Nazionalako enpleguaren datuak erabili dira: Lanaldi osoko lanpostuak eta haien baliokideak.

Iturria: Guk geuk eginiko balioespena, EInen datuetatik abiatuta.

Lan-merkatua

Jarduera ekonomikoari eutsi izanari esker (barne-produktu gordinaren aurrerakada % 3,2koa izan da bai 2015ean bai 2016an), estatuko lan-merkatuak bilakaera positiboa izaten jarraitu du 2016an; okupazioak gora egin du eta langabeziak behera. Dena den, behera egin badu ere, altuegia izaten jarraitu du langabezia-tasak.

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) egindako Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, biztanleria landunaren hazkundea % 2,7koa izan da 2016an (% 3koa izan zen aurreko ekitaldian). Testuinguru horretan, biztanleria aktiboa -% 0,4 murriztu da.

Bestalde, jarduera-tasa apur bat jaitsi da (2016an % 59,2 eta 2015ean % 59,5), eta bai gizonen tasak bai emakumeenak beheranzko bilakaera izan dute; zehazki, 2016an % 65,1 izan zen gizonen jarduera-tasa, eta % 53,6koa, berriz, emakumeena (aurreko ekitaldian % 65,7 eta % 53,7 izan ziren datuak, hurrenez hurren).

Jarduera-tasak 2016an izan duen % 2,7ko aurrerakada horren (18.341.500 landun) kausa izan da jarduera-tasa sektore guztietan hazi izana, eraikuntza-sektorean izan ezik: sektore horretan gelditu egin da (aldakuntza nulua izan du). Bai lehen sektoreak bai zerbitzuek enplegu-sorreraren erritmoa sendotu dute: % 5,1 lehen sektoreak eta % 2,9 zerbitzuek (2015eko datuak % 0,1 eta % 2,6 izan ziren, hurrenez hurren); industria-sektoreak, berriz, moteldu egin du erritmo hori (2016an % 1,6 eta aurreko ekitaldian % 4,3).

**18. taula Lan-magnitude nagusien bilakaera.
Urteko batezbestekoak**

Kontzeptua	2016	2014	% Δ	
			2015	2016
Biztanleria aktiboa	22.822,7	-1,0	-0,1	-0,4
Biztanleria landuna	18.341,5	1,2	3,0	2,7
– Nek., abeltz., arrantza	774,5	-0,1	0,1	5,1
– Industria	2.522,2	1,0	4,3	1,6
– Eraikuntza	1.073,8	-3,5	8,1	0,0
– Zerbitzuak	13.970,9	1,7	2,6	2,9
Biztanleria langabea	4.481,2	-7,3	-9,9	-11,4
Langabezia-tasa*	19,6	-6,3	-9,7	-11,0

(*): Biztanleria aktiboaren langabezia-tasa, ehunekotan.

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria 2011. 2017ko ekaineko datuak). Geuk egin.

Halaber, soldatuko enpleguaren hedapen-erritmoa apur bat geldotu da (2016an % 3,1 areagotu zen, eta 2015ean % 3,4); soldatuko ez den enplegua ere zertxobait moteldu da (2016an % 0,7 eta aurreko ekitaldian % 1,1). Kontratu-motaren arabera, aldi baterako kontratua duten soldatuko kopuruaren gorakadak askoz ere indar handiagoa izan du kontratu mugagabea dutenen soldatuko kopuruak baino (% 6,8 eta % 1,8, hurrenez hurren).

Langabezia aintzat hartuta, 2016an horren beherakada areagotu egin da, -% 11,4raino (2015ean -% 9,9 izan zen ehuneko hori), eta horrela, 2014an hasitako beheranzko joerari jarraipena ematen zaio. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da 2016an Espainiako estatuko langabeak lau milioi eta erdi baino pixka bat gutxiago izan direla (2009ko datuen eta 2010ekoen tarteko kopurua). Horrek esan nahi du langabezia-tasa % 19,6raino jaitsi dela (aurreko ekitaldian % 22,1 izan zen), hala ere datu hori altuegia da, Europar Batasuneko bigarren erregistro altuena, Greziaren atzetik (Greziako langabezia-tasa % 23,6koa da, Europako Batzordearen arabera).

19. taula Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu-motaren arabera. Urteko batezbestekoak

(m pertsona eta % zenbat)

Kontzeptua	2016	2014	% Δ	
			2015	2016
Biztanleria landuna	18.341,5	1,2	3,0	2,7
Soldatakoak	15.228,2	1,5	3,4	3,1
– Sektorre pribatua	12.227,4	2,0	3,9	3,6
– Sektorre publikoa	3.000,8	-0,4	1,7	0,9
Soldatakoak ez direnak*	3.113,3	-0,4	1,1	0,7
– Enplegu-emaileak	909,4	0,6	1,3	2,4
– Autonomoak	2.083,7	-0,2	1,4	0,4
– Kooperatibistak	26,3	5,2	-7,3	15,9
– Familia-laguntza	87,7	-10,3	-2,3	-12,6
Kontratu mugagabedun sold.	11.260,3	0,4	1,9	1,8
Aldi baterako kontratudun sold.	3.968,0	5,3	8,3	6,8
Lanaldi osoko landuna	15.551,1	1,1	3,2	3,3
Lanaldi partzialeko landuna	2.790,5	1,9	1,9	-0,8

(*):Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria 2011. 2017ko ekaineko datuak). Geuk egina.

Sektorre publikoa eta interes-tasak

Administrazio publikoen guztizko defizita barne-produktu gordinaren -% 4,54ren baliokidea izan da 2016an, kreditu-erakundeei emandako laguntzak barnean hartuta. Horrek esan nahi du aurreko ekitaldian lortutako saldoa portzentajezko ia sei hamarrenetan hobetu dela (2015eko defizita: -% 5,13).

Autonomia-erkidegoen arabera egindako azterketa xehatuan ikus daiteke erkidego guztiek izan dutela saldo defizitarioa 2016an. Eskualdeko barne-produktu gordinaren araberrako defizitik handiena Murtziak izan du (-% 1,7); defizit txikiena, berriz, Kanariak (-% 0,33). EAEn, defizita -% 0,71koa izan da; beraz, portzentajezko ehunen bat baino gehiago hobetu da helburu gisa ezarrita zuen zifra (-% 0,7).

20. taula Defizit publikoa

(Barne-produktu gordinaren % zenbat)


Kontzeptua	2015	2016
Administrazio zentrala*	-2,59	-2,52
Autonomia-erkidegoak	-1,74	-0,82
Tokiko korporazioak	0,47	0,64
Gizarte Segurantza	-1,22	-1,62
Administrazio publikoak, guztira*	-5,08	-4,33
• Kreditu-erakundeei emandako laguntzak	-0,05	-0,21
Administrazio publikoak, guztira	-5,13	-4,54

(*):Finantza-laguntzarik gabe.

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa (2017ko martxoaren 30a).

Azkenik, berriz ere aipatu behar da 2016aren amaieran Europako Banku Zentralaren erreferentziazko tasa % 0an finkatu dela, martxoan erregistratutako portzentajezko -0,05 puntuko beherapenaren ondoren, eta Erreserba Federalarena % 0,75eraino igo dela, abenduan % 0,25 igo ostean.

2. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala



Iturria: EBZ, Erreserba Federala.

Aurreikuspenak

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak argitaratutako aurreikuspenen arabera, Espainiako estatuko ekonomiak % 2 baino gehiago hazten jarraituko du hurrengo urteetan, haren aurrerapen-erritmoa arian-arian motelduko da (2017an % 2,7, 2018an % 2,5 eta 2019an eta 2020an % 2,4). Dinamismo horri esker, enplegua (lanaldi osoko lanpostutan eta haien lanpostu baliokidetan neurtua) ere hazi egingo da, baina barne-produktu gordinari dagokiona baino indar txikixeagoarekin. Azkenik, langabeziatasak beheranzko joerari eutsiko dio, baina % 10etik gorakoa izaten jarraituko du 2020an oraindik ere.

21. taula Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2017)

Kontzeptua	Urte arteko aldakuntza-tasa
BARNE-PRODUKTU GORDINA eta ESKARI- AGREGATUAK	
• Azken kontsumo nazional pribatuko gastua	2,6
• Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua	0,8
• Kapital finkoaren eraketa gordina	2,8
– Barne-eskaria (barne-produktu gordinaren hazkundeari egindako ekarpena)	2,2
– Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	5,5
– Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	4,3
– Kanpo-saldoa (barne-produktu gordinaren hazkundeari egindako ekarpena)	0,5
– Barne-produktu gordina	2,7
LAN-MERKATUA	
– Enpleguaren aldakuntza ehunekotan*	2,5
– Langabezia-tasa	17,5

(*): Lanaldi osoko lanpostuak eta haien baliokideak.

Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa (2017ko apirila).

2. IKUSPEGI OROKORRA

Munduko hazkunde ekonomikoa moteldu egin den arren, euskal ekonomiaren aurrerapen-erritmoak aurreko ekitaldian baino bi hamarren gehiago egin du gora: % 3,1, 2016an, eta % 2,9, 2015ean.

22. taula Bilakaera orokorra

(Urte arteko aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016
EAE					
– Barne-produktu gordina	-2,0	-1,8	1,6	2,9	3,1
– Enplegua	-5,6	-3,2	-1,0	1,3	2,9
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	15,6	16,6	16,3	14,8	12,6
– KPI ⁽²⁾	2,7	0,6	-0,7	0,3	1,5
NAFARROA					
– Barne-produktu gordina	-1,6	-1,3	1,5	2,9	2,9
– Enplegua	-4,1	-3,5	1,7	0,7	1,2
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	16,2	17,9	15,7	13,8	12,5
– KPI ⁽²⁾	2,7	0,0	-1,2	-0,1	1,8
ESPAINIA					
– Barne-produktu gordina	-2,9	-1,7	1,4	3,2	3,2
– Enplegua	-4,3	-2,8	1,2	3,0	2,7
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	24,8	26,1	24,4	22,1	19,6
– KPI ⁽²⁾	2,9	0,3	-1,0	0,0	1,6

(1): Biztanleria aktiboaren %.

(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BA), 2011ko biztanleria-oinarria).


Egoera horretan, euroguneko ekonomiaren aldean (% 1,7 hasi zen, ELGEren arabera) euskal ekonomiak izandako bilakaera onak aurrerapen arin bat ekarri du Europako ekonomia nagusien mailarekin bat egiteko prozesuan.

EINen Eskualde Kontabilitatea begiratzen bada, Espainiako autonomia-erkidego guztiek izan dituzte hazkunde-tasa positiboak 2016an, eta aurreko ekitaldikoak baino handiagoak izan dira erkidego horietako hamarrean. Dinamismo handiena Balear Uharteetan izan da (% 3,8), eta txikiena (% 1,5), Errioxan; EINen arabera, Hego Euskal Herrian % 2,8ko hazkundera izan da.

Lan-merkatuari erreparatuz gero, EINen Biztanleria Aktiboaren gaineko Inkestaren arabera, okupazioa % 2,5 hazi da 2016an Hego Euskal Herrian (% 2,9ko hazkundera EAEn eta % 1,2ko hazkunde txiki bat Nafarroan); dinamika hori Estatuan oro har izandakoa (% 2,7 hazi zen enplegua 2016an) baino zertxobait txikiagoa izan da. Gainera, langabezia-tasak jaisteko bideari jarraitu dio erkidego guztietan: EAEn, langabezia-tasa % 14,8 zen 2015ean, eta % 12,6ra igaro da 2016an; Nafarroan, berriz, % 13,8tik

% 12,5era. Hego Euskal Herrian % 14,6tik % 12,6ra jaitsi da, eta Estatuan, % 22,1etik % 19,6ra.

3. grafikoa BPG-aren bilakaera



Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.

Prezioei dagokienez, 2016koen bilakaera ekitaldi horretako lehen hiru hiruhilekoetan petrolio-kupelak izandako beheranzko joerak baldintzatu du, bai eta kupel horren urte amaierako garestitze nabarmenak ere. Horrela, EAEn, KPIk urte arteko tasa negatiboak izan ditu otsailetik uztailean, eta gero eta positiboagoak, berriz, abuztutik abendura; antzeko dinamika izan da Nafarroan, baina kasu horretan prezioak urtarilean ere jaitsi egin ziren. Horiek horrela, pilotutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 1,5eraino igo da EAEn, eta % 1,8raino, Nafarroan (% 0,3 eta -% 0,1 2015a itxi zenean, hurrenez hurren).

Azkenik, adierazi EAeko ekonomian urtetik urterako % 2,8ko aurrerapena izan dela 2017ko lehen hiruhilekoan, eta aurreko hiruhilekoan baino ehuneko hamarren bat txikiagoa izan dela (% 2,9, 2016ko laugarren hiruhilekoan). Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2017ko maiatzean eginiko aurreikuspenen arabera, BPG-a % 2,7 haziko da ekitaldi honetan, eta hiruhilekoen profilak aurrerapen-eritmoaren egonkortzea (% 2,6 inguru) izango du ezaugarri.

23. taula Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera

Kontzeptua	2014		2015		2016	
	Hego Euskal Herria	Espainia	Hego Euskal Herria	Espainia	Hego Euskal Herria	Espainia
(aldakuntza-tasa)						
A. EKOIZPENA ETA JARDUERA						
A.1 Industria (ekoizpenak)						
Ontzigtza (T konpensatuak)	22,0	-4,3	16,4	16,2	-49,3	-42,5
Makina-erreminta (ekoizpenaren euro korranteak)	-6,3	-6,3	7,1	7,1	0,1	0,1
Eskuzko tresnak (ekoizpenaren euro korranteak)	4,7	4,7	3,5	3,5	6,0	6,0
Papera eta kartoia (tonak)	0,0	-2,4	0,4	2,6	3,4	0,4
Elektronika (euro korranteak)*	2,4	--	5,1	--	21,3	--
Industria Produkzioaren Indizea*	1,4	1,3	3,5	3,4	2,3	1,9
• Kontsumo-ondasunak	-2,2	1,7	5,2	1,4	0,2	2,1
• Bitarteko ondasunak	2,4	2,9	1,3	4,1	1,0	2,2
• Ekipamendu-ondasunak	1,6	1,0	7,4	7,4	8,7	3,4
• Energia	0,1	-1,6	1,4	0,7	-4,4	-0,9
A.2 Eraikuntza						
Amañitako etxebizitzak (kopurua)	-17,2	-16,6	-2,9	-4,9	-31,2	-13,3
Hasitako etxebizitzak (kopurua)	5,6	0,2	-2,9	33,0	66,6	28,1
Barneko zementu-salmentak (mila tona)***	11,8	0,4	-4,9	5,5	3,4	-2,9
Lizitazio ofizialak (euro korranteak)	75,0	42,6	5,6	-28,2	-22,7	-0,7
A.3 Nekazaritza-sektorea (ekoizpenak)						
Nekazaritza (euro korranteak)*	8,8	-3,3	7,9	12,4	-0,8	4,4
Abeltzaintza (euro korranteak)*	10,8	-0,8	-2,5	-0,4	8,0	0,7
Basogintza (euro korranteak)*	20,6	--	-3,7	--	-8,8	--
Guztira (euro korranteak)*	10,7	-5,3	0,6	6,8	1,9	2,9
A.4 Zerbitzuak						
Tren bidezko garraioa (merkantziak)*	0,4	--	-0,3	--	-23,7	--
Tren bidezko garraioa (bidaiariak)*	-6,1	--	-0,2	--	-0,5	--
Errepide bidezko garraioa (merkantziak)	3,7	3,0	5,8	8,2	1,5	2,8
Itsas garraioa (merkantziak)*	4,5	5,2	6,3	4,1	-3,1	0,6
Aireko garraioa (merkantziak)	12,5	6,9	9,3	4,7	11,9	11,2
Aireko garraioa (bidaiariak)	4,1	4,6	6,9	6,0	7,7	11,0
A.5 Finantza-sektorea						
Gordailu pribatuak (euro korranteak)	-2,8	0,4	2,6	-0,4	2,2	0,4
Sektore pribatuko kreditua (euro korranteak)	-8,2	-4,6	-1,0	-4,0	0,9	-4,1
B. BARNE-ESKARIA						
Autoen matrikulazioa (kopurua)	19,7	19,9	17,3	22,9	5,0	12,4
Ibilgailu industrialen matrikulazioa (kopurua)	13,2	27,8	25,5	30,8	4,2	6,1
Ekipo-ondasunen inportazioa (euro korranteak)**	3,3	14,6	34,2	21,0	8,8	6,8
Energia elektrikoaren kontsumoa (Kw/h)	--	-1,6	--	1,7	--	0,6
C. KANPO-MERKATARITZA						
Esportazioak (euro korranteak)	9,2	2,0	-0,8	4,3	-1,6	1,7
Inportazioak (euro korranteak)	7,1	5,2	0,5	3,7	-6,6	-0,4
D. PREZIOAK ETA SOLDATAK*						
Kontsumo-prezioen indizea (urteko batezbestekoa)*	0,2	-0,2	-0,3	-0,5	0,0	-0,2
Kontsumo-prezioen indizea (abe/abe)*	-0,7	-1,0	0,3	0,0	1,5	1,6
• Azpikoak	0,3	0,0	0,7	0,6	0,9	0,8
Industria Prezioen Indizea*	-1,1	-1,3	-2,6	-2,1	-3,0	-3,1
• Kontsumo-ondasunak	-0,2	-0,5	-0,6	1,1	0,7	0,2
• Bitarteko ondasunak	-0,7	-1,5	-0,8	-0,7	-2,2	-1,5
• Ekipamendu-ondasunak	-0,4	0,2	0,3	0,8	0,9	0,6
Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko*	-1,0	-0,1	-0,3	1,1	-1,1	-0,3
E. LAN-MERKATUA****						
Biztanleria aktiboa	-1,2	-1,0	-0,8	-0,1	0,2	-0,4
Biztanleria landuna	-0,3	1,2	1,1	3,0	2,5	2,7
• Lehen sektorea	-15,3	-0,1	-16,9	0,1	6,8	5,1
• Industria	-1,9	1,0	2,6	4,3	8,3	1,6
• Eraikuntza	-9,8	-3,5	1,1	8,1	-4,9	0,0
• Zerbitzuak	1,6	1,7	1,3	2,6	1,2	2,9
Biztanleria langabea	-5,3	-7,3	-10,8	-9,9	-13,5	-11,4
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	16,2	24,4	14,6	22,1	12,6	19,6
Erregistratutako kontratuak	12,6	13,1	14,5	11,1	6,5	7,6

(*):EAEko datuak. (**):EAEen, garraiorako makinien eta ekipoen inportazioa. Nafarroan, material elektriko eta makinien eta aparatuen inportazioa. (***)Iparr Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa. (****):BAI, 2011ko biztanleria-oinarria.

Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.

2.1 EKOIZPENA

2015ean hazkunde-erritmoa indartu egin zen bai EAEn, bai Nafarroan, bai eta Estatu osoan ere; 2016an, EAeko BPG-ak sendo igotzen jarraitu du (% 3,1, 2016an, eta % 2,9, aurreko ekitaldian), eta Nafarroako eta Espainiako ekonomiek aurreko ekitaldiko dinamismoari eutsi diote (% 2,9 eta % 3,2, hala 2015ean, nola 2016an, hurrenez hurren).

24. taula Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaera

(Urte arteko aldakuntza-tasa erreala)

Kontzeptua	2014	2015	2016
EAE ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	-19,8	13,4	1,6
– Industria	2,0	3,9	3,3
– Eraikuntza	-1,7	0,5	1,6
– Zerbitzuak	1,7	2,9	3,2
– Guztizkoa	1,6	2,9	3,1
NAFARROA ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	1,2	2,5	2,2
– Industria	3,0	2,9	2,3
– Eraikuntza	-3,6	1,2	0,6
– Zerbitzuak	1,5	3,2	3,6
– Guztizkoa	1,5	2,9	2,9
ESPAINIA ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	-1,6	-2,9	3,4
– Industria ⁽²⁾	1,8	5,5	2,4
– Eraikuntza	-1,2	0,2	2,5
– Zerbitzuak	1,4	2,6	3,4
– Guztizkoa	1,4	3,2	3,2

(1): Oinarrizko prezioetako Balio Erantsi Gordina, sektoreei dagokienez; merkatuko prezioetako BPGd, guztizkoari dagokienez.

(2): Ez da energia sartzen.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.

Euskadiko eta Nafarroako ekonomiek erakutsitako profila beheranzkoa izan da 2016ko hiruhilekoetan zehar. Alde horretatik, EAeko urtetik urterako hazkundeak % 3,3, % 3,2, % 3 eta % 2,9 izan dira lehenengo hiruhilekoan, bigarreanean, hirugarrenean eta laugarrenean, hurrenez hurren. Nafarroan, berriz, % 3,1, % 3, % 2,9 eta % 2,7, hurrenez hurren.

Eskaintzaren ikuspegitik, 2016an lau sektore handiak hazi egin dira, oro har, aztertutako hiru esparru geografikoetan, baina kasu batzuetan dinamismoa irabaziz, eta beste batzuetan, galduz.

Zehazki, EAeko esparruan, bai zerbitzuek, bai eraikuntzak indartu egin dute beren hazkundeak (% 3,2 eta % 1,6, 2016an, eta % 2,9 eta % 0,5, 2015ean, hurrenez hurren);

industria-sektoreak eta lehen sektoreak, berriz, eutsi egin diote hazkundeari (% 3,3 eta %1,6, 2016an, eta % 3,9 eta %13,4, 2015ean, hurrenez hurren).

Nafarroan, zerbitzuek soilik indartu dute beren hazkundera aurreko ekitaldiaren aldean (% 3,6 eta % 3,2, hurrenez hurren); industriak, lehen sektoreak eta eraikuntzak, berriz, moteldu egin dute (% 2,3, % 2,2 eta % 0,6, 2016an, eta % 2,9, % 2,5 eta % 1,2, 2015ean, hurrenez hurren).

Industria-sektoreari erreparatzen bazaio, haren ekoizpena neurtzen duen indizeak (IPI) hazkunde-erritmoa jaitsi du, bai EAEn, bai Nafarroan: % 2,3 eta % 0,7, 2016an, eta % 3,5 eta % 2,2, aurreko ekitaldian, hurrenez hurren. Hala ere, produkzio-ahalmenaren erabileraren ehunekoak zertxobait hazi da EAEn (% 81,1, 2016an, eta % 79,7, 2015ean); izan ere, esparru geografiko horretan, sektoreko enpleguaren bilakaera gorakoa izan da (% 9,7; % 2,1, Eustaten BJAren arabera). Nafarroan, industria-giroak aurreko ekitaldian bezala jarraitu du: egungo eskarien jaitsiera hazi egin da, eta aurreikusitako eskariek indar apur bat galdu dute, baina sektoreko enplegua igotzera igaro da (% 4,3, 2016an, eta -% 3,7, 2015ean).

25. taula Industria Sektorearen adierazleak

Kontzeptua	<i>(Urte arteko aldaketa-tasa)</i>		
	2014	2015	2016
EAE			
– Industria Produkzioaren Indizea (IPI) ⁽¹⁾	1,4	3,5	2,3
– Produkzio-ahalmenaren erabilera (%)	76,1	79,7	81,1
– Industria-enplegua ⁽²⁾	-2,5	5,0	9,7
– Industria-enplegua ⁽³⁾	-4,2	-2,4	2,1
NAFARROA			
– Industria Produkzioaren Indizea (IPI) ⁽¹⁾	3,9	2,2	0,7
– Industria-giroa ⁽⁴⁾	-6	2	2
– Egungo eskaerak ⁽⁴⁾	-12	-1	-2
– Aurreikusitako eskaerak ⁽⁴⁾	4	13	12
– Industria-enplegua ⁽²⁾	-0,6	-3,7	4,3

(1): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(2): EIN.

(3): BJA (Eustat).

(4): Erantzun-saldoak.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat, EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Eraikuntzari dagokionez, hazkunde txikia da nagusi sektore horren testuinguruan: EAeko esparruan, guztizko produkzio-indizeak 2016an gorako bidea hartu du (% 2,1, 2016an, eta -% 0,1, aurreko ekitaldian), eraikinak jasotzeko igoera-erritmoa indartu dela eta (% 4,4, 2016an, eta % 1,8, 2015ean), obra zibilekin lotutakoak bere jaitsiera handitu baitu (-% 11,6, 2016an, eta -% 10, aurreko ekitaldian). Bestalde, zementuaren barne-

salmentak ere igotzera igaro dira 2016an (% 3,4, 2016an, eta -% 4,9, aurreko ekitaldian); lizitazio ofizialak, berriz, bere jaitsiera -% 15,5eraino indartu du (-% 2,6, 2015ean), eta amaitutako etxebizitzak -% 35,4 erortzera igaro dira (% 11,4ko hazkundera aurreko ekitaldian). Dena dela, sektoreko enplegua % 2,9 igo da BAren arabera, eta % 1,3, BJAren arabera.

Nafarroan, zementuaren barne-salmentak hazten hasi dira berriro (% 3,4, 2016an, eta -% 4,9, 2015ean); lizitazio ofiziala, berriz, nabarmen jaistera igaro da (-% 62,4, 2016an; aurreko ekitaldian % 98,2 igo zen); bestalde, hasitako etxebizitzek beren dinamismoari eutsi diote (% 34,4 hazi dira 2016an, eta % 34,1, 2015ean), eta amaitutakoek, jaitsiera-erritmoari (-% 7,6, 2016an, eta -% 43,9, 2015ean). Hori guztia gertatu den testuinguru berean, sektoreko enplegua -% 27,2 jaistera igaro da (% 20,7ko hazkundera aurreko ekitaldian).

26. taula Eraikuntzaren Sektoreko Adierazleak

(Urte arteko aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
EAE			
- Produkzio-indizea ⁽¹⁾	-4,6	-0,1	2,1
- Etxegintza	-6,6	1,8	4,4
- Obra zibila	7,1	-10,0	-11,3
- Zementuaren barne-salmentak*	11,8	-4,9	3,4
- Lizitazio ofiziala ⁽²⁾	85,0	-2,6	-15,5
- Hasitako etxebizitzak ⁽³⁾	-4,0	-13,7	80,7
- Amaitutako etxebizitzak ⁽³⁾	-14,3	11,4	-35,4
- Enplegua ⁽⁴⁾	-11,8	-4,4	2,9
- Enplegua ⁽⁵⁾	1,5	-0,6	1,3
NAFARROA			
- Zementuaren barne-salmentak*	11,8	-4,9	3,4
- Lizitazio ofiziala ⁽²⁾	8,8	98,2	-62,4
- Hasitako etxebizitzak ⁽³⁾	68,2	34,1	34,4
- Amaitutako etxebizitzak ⁽³⁾	-24,7	-43,9	-7,6
- Enplegua ⁽⁴⁾	-2,1	20,7	-27,2

(*): Oficemen-eko (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) bazkideen zementu grisaren barneko salmentei dagokie.

(1): Eraikuntzaren koitunturazko indizea (EUSTAT). Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak. Oinarria: 2010=100.

(2): SEOPAN.

(3): Eustat eta Etxebizitza Ministerioa.

(4): EIN.

(5): BJA (Eustat).

Iturria: Eustat, EIN, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila eta Nafarroako Gobernua.

Zerbitzuei dagokienez, 2016an, oro har, indar handiagoa izan dute aurreko ekitaldian baino, baina sektorearen heterogeneotasunak aldeak eragiten ditu aztertu diren azpisektoreetako adierazleen jokoeran.

Horrela, 2016an, EAEn indartu egin da bai hoteletako ostatu-gauen, bai aire-zirkulazioko bidaiarien hazkundera (% 8,9 eta % 7,8, 2016an, eta % 8,2 eta % 6,9, 2015ean, hurrenez hurren); txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea, berriz, oso gutxi murriztu da (% 1,6, 2016an, eta % 1,7, aurreko ekitaldian), eta portuetako salgaiak jaistera igaro dira (-% 0,9, 2016an; % 6,3 igo ziren 2015ean). Horiek horrela, sektoreko enpleguak zertxobait ahuldu du igoera-erritmoa (% 0,8, 2016an, eta % 0,9, aurreko ekitaldian; eta Eustaten BJAren arabera, % 1, 2016an, eta % 2,5, 2015ean).

Nafarroan ere indartu egin da hoteletako ostatu-gauen igoera (% 7,9, 2016an, eta % 3,4, aurreko ekitaldian), bai eta ibilgailu arinen autobideko zirkulazioa ere (% 4,6 2016an, eta % 4, 2015ean); aire-zirkulazioko bidaiariak eta ibilgailu astunen autobideko zirkulazioa, aldiz, jaitsi egin dira (% 4,6 eta % 2,1, 2016an, eta % 7,2 eta % 6,3, aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Dena dela, sektoreko enpleguak, oro har, bere igoera % 2,9raino indartu du (% 2,7 aurreko ekitaldian).

27. taula Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak

(Urte arteko aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
EAE			
– Hoteletako ostatu-gauak	4,0	8,2	8,9
– Aire-zirkulazioko bidaiariak	4,8	6,9	7,8
– Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea	0,0	1,7	1,6
– Portuetako salgaiak	4,5	6,3	-0,9
– Enplegua ⁽¹⁾	0,8	0,9	0,8
– Enplegua ⁽²⁾	0,7	2,5	1,0
NAFARROA			
– Hoteletako ostatu-gauak	8,0	3,4	7,9
– Aire-zirkulazioko bidaiariak	-12,7	7,2	4,6
– Ibilgailu arinen autobideetako zirkulazioa	0,8	4,0	4,6
– Ibilgailu astunen autobideetako zirkulazioa	2,9	6,3	2,1
– Enplegua ⁽¹⁾	4,8	2,7	2,9

(1): EIN.

(2): BJA (Eustat).

Iturria: AENA, EUSTAT, EIN, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Estatistika Institutua.

2.2 ESKARIA

Barne-eskaria

EAEko barne-eskariaren hazkunde-erritmoa % 3 izateraino indartu da 2016an, aurreko ekitaldian baino bi portzentaje-hamarren gehiago; testuinguru berean, BPG-ak % 3,1 egin du gora (% 2,9 2015ean).

Barne-eskariaren osagaiei erreparatuz gero, kontsumo pribatuak aurreko ekitaldiko dinamismoari eutsi dio (% 3,1 egin du gora, bai 2015ean, bai 2016an); kontsumo publikoak, berriz, bere igoera % 2,2raino indartu du (% 1,8 2015ean), eta inbertsioa % 3,3raino (% 2,8 aurreko ekitaldian).

28. taula Barne-eskariaren adierazleak

(Urte arteko aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
EAE			
– Kontsumo pribatua	2,2	3,1	3,1
– Kontsumo publikoa	0,7	1,8	2,2
– Kapital-eraketa gordina	-0,5	2,8	3,3
– Barne-eskaria	1,4	2,8	3,0

Iturria: Eustat.

Nafarroari dagokionez, barne-eskariak aurreko ekitaldiko mailari eutsi dio (% 2,7ko hazkundera 2015ean zein 2016an); BPGa, berriz, % 2,9 igo da, urtebete lehenago bezala. Kontsumo pribatuak ez ezik, kontsumo publikoak ere sendotu egin du bere igoera (% 3,3 eta % 3,1 2016an, eta % 3,2 eta % 2,6 2015ean, hurrenez hurren); inbertsioaren igoera, berriz, moteldu egin da (% 0,6 2016an eta % 1,3 aurreko ekitaldian).

29. taula Kontsumoaren eta inbertsioaren adierazleak

(Urte arteko aldaketa- tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
EAE			
– Kontsumo-ondasunen IPIa ⁽¹⁾	-2,2	5,2	0,2
– Automobilen matrikulazioa	19,9	16,6	4,9 ⁽⁴⁾
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	13,7	27,2	3,8 ⁽⁴⁾
– KPI ⁽²⁾	-0,7	0,3	1,5
– Soldata-igoera ⁽³⁾	0,71	0,53	1,16
– Ekipo-ondasunen IPIa ⁽¹⁾	1,6	7,4	8,7
NAFARROA			
– Automobilen matrikulazioa	19,3	19,7	5,3 ⁽⁴⁾
– KPI ⁽²⁾	-1,2	-0,1	1,8
– Soldata-igoera ⁽³⁾	0,43	0,67	1,25
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	12,0	20,9	5,3 ⁽⁴⁾

(1): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(2): Aldaketa-tasa abendutik abendura.

(3): Hitzarmenetan itundua.

(4): 2016. urteko behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Kanpo-merkataritza

Euskal kanpo-merkataritzak (atzerrira) izandako bilakaera produktu energetikoen loturak baldintzatu du. Ildo horretatik, guztizko esportazioek eta inportazioek behera egin dute (-% 1,2 eta -% 8, hurrenez hurren), esportazio eta inportazio energetikoen beherakada handiak eraginda (-% 29,2 eta -% 29,5, hurrenez hurren); ez-energetikoak, berriz, zertxobait igo dira (% 2,1 eta % 0,1, hurrenez hurren).

Guztizko esportazioak 2016an 21.595,6 milioi eurora heldu dira (horietako 1.669,5 esportazio energetikoenak dira), eta inportazioak, 15.483,7 milioi eurora (3.250,3 milioi euro inportazio energetikoenak dira). Kopuru horiek lehen aipatutako % 1,2ko eta % 8ko jaitsierak dakartzate, hurrenez hurren.

Horiek horrela, merkataritza-balantzak 6.111,9 milioiko saldo positiboa izan du 2016an (5.032,2 milioi euro 2015ean), eta esportazioek inportazioen gainean izan duten estaldura-tasa % 139,5 izan da (% 129,9 aurreko ekitaldian).

30. taula Kanpo-merkataritzaren bilakaera Hego Euskal Herrian

Kontzeptua	(M eurotan)			
	2014	2015	2016*	% Δ 16/15
EAE				
- ESPORTAZIOAK guztira	22.512,6	21.867,8	21.595,6	-1,2
- Esportazio energetikoak guztira	3.075,6	2.356,5	1.669,5	-29,2
- Esportazio ez-energetikoak guztira	19.437,0	19.511,3	19.926,1	2,1
- INPORTAZIOAK guztira	17.135,6	16.835,6	15.483,7	-8,0
- Inportazio energetikoak guztira	6.255,0	4.609,0	3.250,3	-29,5
- Inportazio ez-energetikoak guztira	10.880,6	12.226,6	12.233,4	0,1
- GUZTIZKO SALDOA	5.377,0	5.032,2	6.111,9	21,5
NAFARROA				
- ESPORTAZIOAK guztira	8.141,1	8.539,7	8.338,1	-2,4
- INPORTAZIOAK guztira	4.163,4	4.578,2	4.526,4	-1,1
- GUZTIZKO SALDOA	3.977,7	3.961,5	3.811,7	-3,8

(*):Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat (Aduanen eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera), eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Eremu geografikoei erreparatuz gero, euroguneak, 2016an, euskal kanpo-sektorearen helmuga eta jatorri nagusia izaten jarraitzen du, eta ekitaldi horren esportazio guztien % 52,3 eta inportazio guztien % 49,4 hartu zituen. Ildo horretatik, Frantzia eta Alemania batuz gero, kanpo-salmenten % 32,2 eta kanpo-erosketen % 27,2 biltzen dituztela kontuan hartzea komeni da.

Salerosten diren produktuei dagokienez, esportazioen % 48,7 garraiorako makinaria eta ekipamenduak dira, eta manufakturatutako artikuluak, % 30,4; inportazioei dagokienez, berriz, atal horietakoak guztizkoaren % 28,7 eta % 23 dira, hurrenez hurren.

31. taula EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta atalen arabera

(M eurotan)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2014	2015	2016*	%	% Δ 16/15	2014	2015	2016*	%	% Δ 16/15
GUZTIRA (Guztizkoak)	22.512,6	21.867,8	21.595,6	100,0	-1,2	17.135,6	16.835,6	15.483,7	100,0	-8,0
HERRIALDEEN ARABERA (Guztizkoak)										
– Frantzia	3.517,6	3.629,6	3.583,9	16,6	-1,3	1.607,2	1.785,8	1.618,0	10,4	-9,4
– Alemania	3.106,9	3.206,4	3.360,0	15,6	4,8	1.998,4	2.386,6	2.606,8	16,8	9,2
– Italia	1.024,2	1.157,2	1.077,6	5,0	-6,9	822,1	839,9	863,7	5,6	2,8
– Erresuma Batua	1.384,5	1.416,9	1.296,7	6,0	-8,5	1.518,1	1.743,3	814,1	5,3	-53,3
– Eurogunea	11.357,4	11.140,4	11.294,1	52,3	1,4	7.218,3	7.657,8	7.651,7	49,4	-0,1
– ELGE	17.456,5	17.340,6	17.603,2	81,5	1,5	11.388,2	11.839,3	10.909,4	70,5	-7,9
– Beste helmuga batzuk	5.056,1	4.527,2	3.992,4	18,5	-11,8	5.747,4	4.996,3	4.574,3	29,5	-8,4
ATALEN ARABERA (Guztizkoak)										
– Elikagaiak eta animalia biziak	686,1	654,3	626,9	2,9	-4,2	768,3	810,1	794,4	5,1	-1,9
– Edariak eta tabakoak	208,3	224,2	242,3	1,1	8,1	19,2	16,1	11,9	0,1	-26,1
– Jatekoak ez diren material gordinak, erregaiak salbu	260,8	290,6	280,1	1,3	-3,6	1.374,0	1.269,6	923,4	6,0	-27,3
– Erregaiak eta lubrifikatzaila mineralak eta horiei lotutako produktuak	3.075,6	2.356,5	1.668,7	7,7	-29,2	6.255,0	4.609,0	3.250,3	21,0	-29,5
– Olioak, koipeak eta argizariak (animalienak nahiz landareenak)	125,3	38,2	34,0	0,2	-11,0	141,0	151,3	158,8	1,0	5,0
– Produktu kimikoak eta haiei lotutako produktuak, beste inon zehaztu gabeak	817,0	848,0	849,8	3,9	0,2	1.344,7	1.487,6	1.364,0	8,8	-8,3
– Artikulu manufakturuak, batez ere materialaren arabera sailkatuak	7.335,9	7.086,1	6.575,4	30,4	-7,2	3.454,3	3.627,6	3.568,1	23,0	-1,6
– Makineria eta garraio-ekipamendua	9.330,6	9.681,1	10.522,7	48,7	8,7	2.952,3	3.919,8	4.436,5	28,7	13,2
– Hainbat artikulu manufakturu	587,4	595,1	660,2	3,1	10,9	819,6	933,8	972,1	6,3	4,1
– NMSUren beste kontzeptu batean sailkatu gabeko salgaiak eta eragiketak	85,6	93,5	135,5	0,6	44,9	7,1	10,7	4,3	0,0	-59,8

(*):Behin-behineko datuak

Iturria: Eustat (Aduanen eta Zerga Bereziren Sailaren arabera).

Nafarroako ekonomiari erreparatuz gero, EAEn bezala, esportazioek ez ezik, inportazioek ere behera egin dute 2016an. Hau da, kanpo-salmentak 8.338,1 milioi eurokoak izan dira eta kanpo-erosketak 4.526,4 milioi eurokoak; kopuru horiek -% 2,4ko eta -% 1,1eko beherakadak eragin dituzte, hurrenez hurren. Horrela, merkataritza-balantzak 3.811,7 milioi eurora murriztu du bere saldo positiboa (3.961,5 milioi euro 2015ean), eta esportazioek inportazioen gainean izandako estaldura-tasa % 184,2 izan da (% 186,5 aurreko ekitaldian).

EAEn bezala, Europar Batasuna da (EB-28) Nafarroako kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia, kanpo-salmenten % 69,6 eta kanpo-erosketen % 79,5 biltzen baititu.

Esportazioei dagokienez, Frantziak du guztizkoaren % 16,9, eta Alemaniak hurbiletik jarraitzen dio (% 15,3); inportazioen kasuan, berriz, Alemaniak biltzen du guztizkoaren % 29,9, eta hurrengo herrialdea, alde handi samarrarekin, Frantzia da (guztizkoaren % 12).

Muga-zergen partidei dagokienez, garraio-materialak dira esportazioen % 45,3 eta inportazioen % 22,2, eta horrek, neurri handi batean, Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaera globala baldintzatu egiten du.

32. taula Nafarroako inportazioak eta esportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera

(M eurotan)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2014	2015	2016*	%	% Δ 16/15	2014	2015	2016*	%	% Δ 16/15
GUZTIRA (Guztizkoak)	8.141,1	8.539,7	8.338,1	100,0	-2,4	4.163,4	4.578,2	4.526,4	100,0	-1,1
HERRIALDEEN ARABERA (Guztizkoak)										
- Frantzia	1.418,1	1.488,8	1.406,9	16,9	-5,5	539,6	545,7	542,0	12,0	-0,7
- Alemania	1.303,0	1.385,8	1.277,8	15,3	-7,8	1.228,5	1.426,9	1.353,3	29,9	-5,2
- Italia	494,6	645,7	632,5	7,6	-2,0	250,8	286,5	277,0	6,1	-3,3
- Erresuma Batua	618,3	634,7	602,2	7,2	-5,1	164,6	163,8	149,2	3,3	-8,9
- Portugal	362,8	367,6	321,7	3,9	-12,5	208,2	255,4	249,6	5,5	-2,3
- EB-28 guztira	5.743,6	6.154,8	5.806,9	69,6	-5,7	3.346,2	3.700,8	3.596,6	79,5	-2,8
- Gainerako Europa	543,2	499,7	568,7	6,8	13,8	122,9	136,7	149,1	3,3	9,1
- Ameriketako Estatu Batuak	329,0	286,4	312,6	3,7	9,1	34,0	45,3	42,5	0,9	-6,2
- Beste helmuga batzuk	1.525,3	1.598,8	1.649,9	19,8	3,2	660,3	695,4	738,2	16,3	6,2
ATALEN ARABERA (Guztizkoak)										
- Lehen sektorea	455,7	463,5	495,5	5,9	6,9	330,3	325,3	380,2	8,4	16,9
- Nekazaritzako elikagaien ind.	512,9	538,8	549,6	6,6	2,0	203,5	217,8	236,9	5,2	8,8
- Industria kimikoa	90,1	96,7	120,7	1,4	24,8	187,9	269,8	238,3	5,3	-11,7
- Mat. plastikoak, kautxua	260,4	269,8	266,3	3,2	-1,3	281,1	287,6	280,1	6,2	-2,6
- Metal komunen manuf.	691,2	732,8	651,8	7,8	-11,1	483,1	517,8	486,7	10,8	-6,0
- Makinak, mat. elektrikoa	1.965,8	2.145,1	1.947,8	23,4	-9,2	958,5	1.328,8	1.275,1	28,2	-4,0
- Garraio-materiala	3.640,6	3.743,4	3.773,4	45,3	0,8	1.185,0	1.022,1	1.005,0	22,2	-1,7
- Gainerakoak	524,4	549,6	533,0	6,4	-3,0	534,0	609,0	624,1	13,8	2,5

(*):Behin-behineko datuak

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

2.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

Prezioek 2016an izan duten bilakaeran bi faktorek eragin dute batez ere: upel petrolioak ekitaldiaren lehenengo hiru hiruhilekoan izandako beheranzko joerak eta urtearen azken zatian izandako garestitze nabarmenak. Horrela, bada, EAEn dagokionez, KPlak urte arteko tasa negatiboak izan ditu otsailetik ekainera eta goranzko tasa positiboak abuztutik abendura; eta antzeko dinamika izan da Nafarroan ere, nahiz eta azken kasu horretan prezioek urtarilean ere atzera egin duten.

Hartan, 2016an metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 1,5eraino handitu da EAE eta % 1,8raino Nafarroan (% 0,3 eta % -0,1 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren), nahiz eta ekitaldi osoari dagokion urteko batez besteko tasa ez den batere aldatu (% 0), ez kasu batean ez bestean.

33. taula Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan

(Urte arteko aldaketa-tasa)

EAE	2014	2015	2016	NAFARROA	2014	2015	2016
KPI				KPI			
Orokorra ⁽¹⁾	0,2	-0,3	0,0	Orokorra ⁽¹⁾	-0,5	-0,6	0,0
Orokorra ⁽²⁾	-0,7	0,3	1,5	Orokorra ⁽²⁾	-1,2	-0,1	1,8
Elik. eta alkoho. gab. edariak	-0,1	2,3	0,7	Elik. eta alkoho. gab. edariak	0,4	1,7	0,8
Edari alkoholodunak, tabakoa	-0,2	1,0	0,8	Edari alkoholodunak, tabakoa	0,2	1,0	1,1
Jantziak eta oinetakoak	0,4	0,5	0,9	Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,5	0,9
Etxebizitza	0,6	-1,6	0,4	Etxebizitza	-1,9	-3,0	0,3
Etxeko tresneria	-0,1	0,3	0,8	Etxeko tresneria	-0,8	0,1	-0,3
Medikuntza	-0,2	0,9	0,7	Medikuntza	0,7	1,2	0,0
Garraioak	-5,0	-2,5	4,6	Garraioak	-5,7	-2,4	5,6
Komunikazioak	-5,6	0,5	3,3	Komunikazioak	-5,7	0,4	3,2
Aisia eta Kultura	-0,9	0,1	0,9	Aisia eta Kultura	-1,5	-0,1	1,4
Irakaskuntza	2,9	0,6	1,0	Irakaskuntza	1,8	0,9	1,2
Hotelak eta jatetxeak	0,4	0,8	1,3	Hotelak eta jatetxeak	0,6	0,7	1,9
Beste batzuk	1,4	1,8	1,8	Beste batzuk	0,5	1,6	2,1
Industria Prezioen Indizea (IPRI)				Nekazariak Jasotako Prezioen Indizea			
Orokorra	-1,1	-2,6	-3,0	Orokorra	-2,6	-16,8	-3,1
Kontsumoa	-0,2	-0,6	0,7	Nekazaritza-produktuak	-2,8	-24,8	-0,6
Ekipamendua	-0,4	0,3	0,9	Baso-produktuak	0,7	53,4	-6,2
Bitartekoak	-0,7	-0,8	-2,2	Animalia-produktuak	-2,5	-8,5	-6,0

(1): Urteko batez besteko aldaketa.

(2): Abendutik abendura.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EII.

2016ko abenduaren urte arteko analisiaren ikuspuntua berriz ere aintzat harturik eta ondasun-talde guztiei erreparaturik, bai EAEn bai Nafarroan inflaziorik handiena izan duen taldea garraioena izan da (% 4,6 eta % 5,6, hurrenez hurren), eta haren atzetik komunikazioena (% 3,3 eta % 3,2, hurrenez hurren) eta beste batzuk izendatutakoa (% 1,8 eta % 2,1, hurrenez hurren) datoz batean zein bestean. EAEn, talde guztiek tasa

positiboak izan dituzte, eta erregistrorik txikienak elikadura eta alkoholik gabeko edariek, medikuntzak (% 0,7, bietan) eta etxebizitzak (% 0,4) izan dituzte. Nafarroan, etxebizitzak eta medikuntzak hazkunderik txikienak izan dituzte beren prezioetan (% 0,3 eta aldaketarik ez, hurrenez hurren) eta etxeko tresneriaren prezioak % -0,3 egin du atzera.

Arreta EAEko prezio industrialei jarriko zaie orain. 2016an, indize orokorrak beherakada-erritmoa handitu du % -3raino (% -2,6, 2015ean), bitarteko ondasunen prezioak atzera egin baitu (% -2,2) eta ekipamendu-ondasunen eta kontsumo-ondasunen prezioak gora egin baitu (% 0,9 eta % 0,7, hurrenez hurren).

Nafarroako nekazariak jasotako prezioei dagokienez, indize orokorraren beherakada-erritmoa moderatua izan da (% -3,1 2016an, 2015eko % -16,8ren parean). Nekazaritza-produktuen (% -0,6 2016an, aurreko ekitaldiko % -24,8ren parean) eta animalia-produktuen (% -6 2016an, aurreko ekitaldiko % -8,5aren parean) erorikoari aurre egin zaiolako gertatu da hori, baso-produktuek prezioa murriztu dute eta (% -6,2 2016an, 2015eko % 53,4ren parean).

34. taula Soldata-adierazleak

Kontzeptua	2014	2015	2016
EAE			
Soldata-kostuak (urte arteko aldak. tasa)			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	-1,9	0,4	0,2
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	-1,0	-0,3	-1,1
Hitzarmenak			
– Hitzarmen kopurua	549	580	332
– Eraginpeko langileak	204.404	210.221	115.088
– Adostutako soldata-igoera	0,71	0,53	1,16
NAFARROA			
Soldata-kostuak (urte arteko aldak. tasa)			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	0,5	0,5	1,5
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	1,9	-0,1	-0,4
Hitzarmenak			
– Hitzarmen kopurua	183	207	121
– Eraginpeko langileak	118.444	100.425	95.688
– Adostutako soldata-igoera	0,43	0,67	1,25

Iturria: Lan Kostuaren Hiruhileko Inkesta (EIN) eta Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.

Azkenik, lan-kostuei dagokienez, 2016an ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostua handitu egin da bi esparru geografikoetan (% 0,2 EAEn eta % 1,5 Nafarroan) eta langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostua jaitsi egin da bietan (% -1,1 EAEn eta % -0,4 Nafarroan). Edonola ere, komeni da kontuan hartzea, ordu efektibo bakoitzeko soldata-

kostuaren hazkundera dela-eta, EAeri dagokion erregistroa moderatu egin dela (% 0,2 2016an, 2015eko % 0,4ren aldean) eta Nafarroakoa, berriz, indartu (% 1,5 2016an, aurreko ekitaldiaren % 0,5en aldean).

2.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

Lan-merkatua Euskal Autonomia Erkidegoan

Ekonomiaren dinamismo nabarmenak 2016an, bai EAEn bai Nafarroan, eta baita estatu osoan ere, enpleguaren hedapena ekarri du, eta langabeen beherakada, bai Hego Euskal Herrian bai estatuan.

2016an, Hego Euskal Herriko biztanleria aktiboa 1.337,3 mila pertsona izan ziren; bolumen horrek urte arteko areagotzea % 0,2koa izan dela esan nahi du, 1.169,3 mila landun egonik. Maila horrek urte arteko aurrerakada % 2,5ekoa izan dela eta 168 mila langabe egon direla adierazten du; alegia, -% 13,5eko beherakada egon da. Estatu osoak, bestalde, biztanleria aktiboaren -% 0,4ko atzerakada erregistratu du, baita enpleguaren % 2,7ko aurrerakada eta biztanleria langabearen -% 11,4ko beherakada ere.

Sexua kontuan hartuta, 2016an Hego Euskal Herriko biztanleria landuna hazi egin da, bai gizonezkoen artean (% 2,7) bai emakumezkoen artean (% 2,3); dinamika hori estatu osoan ere ikusi da (% 2,5ko igoera okupazioan gizonezkoen kasuan eta % 2,9 emakumezkoenean). Biztanleria langabearen beherakada, berriz, orokorra izan da bi sexuetan, bai Hego Euskal Herrian (-% 17,9 gizonezkoen kasuan; -% 8,9, emakumezkoenean) bai estatu osoan (-% 13,5 eta -% 9,2, hurrenez hurren). Horrela, bada, gizonezko aktiboek behera egin dute Hego Euskal Herrian (-% 0,2) eta estatu osoan (-% 0,9), eta emakume aktiboek gora egin dute bai Hego Euskal Herrian (% 0,7) bai estatu osoan (% 0,1).

Hego Euskal Herriko jarduera-tasa hazi egin da pixka bat, % 57,3raino, 2016an (2015ean % 57,2 hazi zen); horrenbestez, bilakaera hedakorra izan du jarduera-tasak EAEn (2016an % 56,9 eta aurreko ekitaldian % 56,7), eta uzurtu egin da, aldiz, Nafarroan (2016an % 58,5 eta aurreko ekitaldian % 58,8). Estatuan, jarduera-tasa % 59,5 izan zen 2015ean; 2016an % 59,2 izatera aldatu da (jaitسي egin da). Horrela, Hego Euskal Herriaren eta estatuaren arteko diferentziala ehuneko 1,9 puntukoa izan da 2016an.

Generoa kontuan hartuta, Hego Euskal Herriko jarduera-tasak konstante jarraitu du gizonen kasuan (2015ean % 62,8 izan zen, baita 2016an ere); emakumeen kasuan, berriz, gorakada txikia izan du (2016an % 52,2 izan zen, eta aurreko ekitaldian, berriz, % 51,9); hortaz, pixka bat jaitsi da bi tasa horien arteko diferentziala. Datu konparatiboetan, Nafarroak EAEk baino jarduera-tasa handiagoa izan du, bai gizonezkoen artean bai emakumezkoen artean. Estatu osoan, bestalde, gizonezkoen eta emakumezkoen jarduera-tasak (% 65,1 eta % 53,6, hurrenez hurren) Hego Euskal Herrikoak (% 62,8 eta % 52,2, hurrenez hurren) baino handiagoak dira.

Langabezia kontuan hartuta, Hego Euskal Herrian 168 mila pertsona langabe izan dira 2016an, eta maila horrek urte arteko -% 13,5eko beherakada ekarri du, pertsona langabeen atzerapenaren ondorioz, bai EAEn (-% 14,5) bai Nafarroan (-% 10,1). Estatuaren kasuan, pertsona langabeen urte arteko beherakada -% 11,4koa izan da.

Testuinguru horretan, langabezia-tasak beheranzko bilakaera izan du oro har. EAEn, langabezia-tasa 2015ean % 14,6 izatetik 2016an % 12,6 izatera aldatu da; izan ere, langabezia-tasa murriztu egin da bai EAEn (2016an, % 12,6 izan zen, eta aurreko ekitaldian, berriz, % 14,8) bai Nafarroan (2016an, % 12,5 izan zen, eta aurreko ekitaldian, berriz, % 13,8). Halaber, estatuko langabezia-tasak ere behera egin du (2015ean % 22,1 izatetik 2016an % 19,6 izatera aldatu zen), nahiz eta estatuko erregistroak Europako bigarren altuena izaten jarraitzen duen, Greziari dagokionaren ondoren.

35. taula Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia

(urteko batez bestekoak, milakotan)

Eremua		2015			2016		
		Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
EAE	Poten. aktiboak	871,7	941,0	1.812,7	869,7	942,1	1.811,8
	Aktiboak	544,1	484,2	1.028,3	544,3	487,5	1.031,7
	Landunak	463,2	413,2	876,4	478,4	423,4	901,8
	Langabeak	80,9	71,1	151,9	65,8	64,1	129,9
	Jarduera-tasa	62,4	51,5	56,7	62,6	51,7	56,9
	Langabezia-tasa	14,9	14,7	14,8	12,1	13,1	12,6
	Erregistratutako langabezia*	70,4	79,6	150,0	62,4	73,8	136,2
Nafarroa	Poten. aktiboak	257,6	264,0	521,5	257,5	264,6	522,1
	Aktiboak	165,0	141,6	306,7	163,3	142,4	305,6
	Landunak	144,1	120,2	264,3	145,4	122,1	267,5
	Langabeak	20,9	21,5	42,4	17,8	20,3	38,1
	Jarduera-tasa	64,1	53,6	58,8	63,4	53,8	58,5
	Langabezia-tasa	12,7	15,2	13,8	10,9	14,3	12,5
	Erregistratutako langabezia*	20,1	23,1	43,1	18,0	22,0	40,0
Hego Euskal Herria	Poten. aktiboak	1.129,3	1.205,0	2.334,2	1.127,2	1.206,7	2.333,9
	Aktiboak	709,1	625,8	1.335,0	707,6	629,9	1.337,3
	Landunak	607,3	533,4	1.140,7	623,8	545,5	1.169,3
	Langabeak	101,8	92,6	194,3	83,6	84,4	168,0
	Jarduera-tasa	62,8	51,9	57,2	62,8	52,2	57,3
	Langabezia-tasa	14,4	14,8	14,6	11,8	13,4	12,6
	Erregistratutako langabezia*	90,4	102,7	193,2	80,4	95,8	176,2
Espainia	Poten. aktiboak	18.753,2	19.744,3	38.497,6	18.754,0	19.777,5	38.531,5
	Aktiboak	12.319,6	10.602,4	22.922,0	12.213,8	10.608,9	22.822,7
	Landunak	9.760,3	8.105,7	17.866,0	10.000,8	8.340,8	18.341,5
	Langabeak	2.559,3	2.496,7	5.056,0	2.213,0	2.268,2	4.481,2
	Jarduera-tasa	65,7	53,7	59,5	65,1	53,6	59,2
	Langabezia-tasa	20,8	23,5	22,1	18,1	21,4	19,6
	Erregistratutako langabezia*	1.875,2	2.218,3	4.093,5	1.642,3	2.060,7	3.703,0

(*):Abendua.

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria 2011. 2017ko maiatzeko datuak) eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Langabezia-tasa uzkuertzeko dinamika orokorra izan da bi sexuetan, bai EAEn eta Nafarroan (eta horrenbestez, Hego Euskal Herri osoan), bai estatu osoan. Zehazki, Hego Euskal Herrian gizonen langabezia-tasa % 11,8ra jaitsi da, eta emakumeena, berriz, % 13,4ra (2015an % 14,4 eta % 14,8 izan ziren datu horiek, hurrenez hurren); estatuan, oster, gizonen langabezia-tasa % 18,1era jaitsi zen, eta emakumeena, berriz, % 21,4ra (2015an % 20,8 eta % 23,5 izan ziren datu horiek, hurrenez hurren). Aztertutako eremu geografiko guztietan emakumeen langabezia-tasa gizonena baino handiagoa izan da.

Behin honaino iritsita, aurten ere gogora ekartzekoa da langabezia Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako langabeziaren ikuspegitik ere azter daitekeela, eta

kontuan hartzekoa da kasu jakin honetan aurkeztutako informazioa abenduari dagokiola, eta ez ekitaldi osoari. Hori horrela, iturri horrekin, 2016ko abenduan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Hego Euskal Herriko bulegoetan erregistratutakoaren arabera, langabezian 176,2 mila pertsona egon dira, eta horrek urte arteko jaitsiera -% 8,8koa izan dela esan nahi du, zehazki, 136,2 mila langabe egon dira EAEn, eta 40 mila langabe, berriz, Nafarroan; maila horiek aurreko ekitaldian lortutakoak baino -% 9,2 eta -% 7,2 txikiagoak izan dira, hurrenez hurren. Estatu osoaren kasuan, 2016ko abenduan erregistratutako langabezia 3.703 mila pertsonakoa izan da; horrek urte arteko beherakada -% 9,5ekoa izan dela esan nahi du.

36. taula Langabezia-tasa, adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak

Eremua	Urtea	16-19	20-24	25-54	55 eta gehiago	Guztizkoa (%)
EAE	2014	52,9	44,2	16,1	9,2	16,3
	2015	53,8	38,6	14,5	8,7	14,8
	2016	56,3	31,5	12,0	9,4	12,6
Nafarroa	2014	75,0	39,1	14,5	9,6	15,7
	2015	51,9	35,2	13,2	8,2	13,8
	2016	36,7	33,3	11,4	9,2	12,5
Hego Euskal Herria	2014	61,4	42,8	15,8	9,3	16,2
	2015	53,2	37,8	14,2	8,6	14,6
	2016	50,0	32,0	11,9	9,4	12,6
Espainia	2014	68,6	50,3	22,8	19,3	24,4
	2015	67,2	44,6	20,6	17,9	22,1
	2016	60,0	41,4	18,2	16,4	19,6

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria 2011. 2017ko maiatzeko datuak).

Biztanleria aktiboari buruzko inkesta berriro kontuan hartuta (urteko batez besteko datuak), langabezia-tasaren analisiak, adin-tarteen arabera, agerian uzten ditu taldeen artean dauden desberdintasun handiak; tasarik handiena gazteenei dagokie. Horrela, 2016an, 16 eta 19 urte bitarteko pertsonen % 50eko langabezia-tasa izan dute Hego Euskal Herrian; 20 eta 24 urte bitartekoek, berriz, % 32koa; 25 eta 54 urte bitartekoek, bestalde, % 11,9koa; 55 urte eta hortik gorakoek, azkenik, % 9,4koa.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, Hego Euskal Herriko langabezia-tasak beheranzko bilakaera izan du adin-tarte guztietan, 55 urte eta hortik gorakoen adin-tartean izan ezik: gazteenen kasuan, langabezia-tasa 2015ean % 53,2 izatetik 2016an % 50 izatera aldatu da; 20 eta 24 urte bitartekoek kasuan, aldiz, % 37,8tik % 32ra; 25 eta 54 urte bitartekoek kasuan, azkenik, % 14,2tik % 11,9ra. Alderantziz, adin handienekoen kasuan, 2015ean % 8,6 izatetik 2016an % 9,4 izatera aldatu da.

Halaber, estatuan ere langabezia-tasarik altuena gazteenen artean erregistratu da 2016an (% 60); izan ere, adin-tarte guztietan langabezia-tasa jaitsi egin da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

37. taula Enpleguaren bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera. Urteko batezbestekoak

(m pertsona)

Eremua	Urtea	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
EAE	2014	12,3	174,7	50,1	628,3
	2015	11,2	183,4	47,9	633,9
	2016	12,5	201,1	49,3	638,9
Nafarroa	2014	12,6	66,9	14,0	169,0
	2015	9,5	64,4	16,9	173,5
	2016	9,6	67,2	12,3	178,5
Hego Euskal Herria	2014	24,9	241,6	64,1	797,3
	2015	20,7	247,8	64,8	807,4
	2016	22,1	268,3	61,6	817,4
Espainia	2014	735,8	2.379,9	993,5	13.234,9
	2015	736,8	2.482,3	1.073,7	13.573,3
	2016	774,5	2.522,2	1.073,8	13.970,9

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria 2011. 2017ko maiatzeko datuak). (EJSN-09).

Enpleguak Hego Euskal Herrian izan duen bilakaera sektorialari dagokionez, eraikuntzan baino ez da murriztu 2016an okupazio-maila (-% 4,9), eta handitu egin da, aldiz, industria-sektorean (% 8,3), lehen sektorean (% 6,8) eta zerbitzuetan (% 1,2). Zerbitzuen sektoreak 817,4 mila landun izan ditu; horrela, Hego Euskal Herriko guztizko enpleguaren % 69,6 sektore horri dagokio, eta gehiena EAEn dago. Horren ondoren, industria dago, 268,3 mila landunekin (guztizkoaren % 22,9); gero, eraikuntza, 61,6 mila landunekin (guztizkoaren % 5,3); eta azkenik, lehen sektorea, 22,1 mila landunekin (garrantzi erlatiboa: % 1,9).

Estatu osoan, eraikuntza-sektoreak enplegu-bolumen konstanteari eutsi dio 2016an (urte arteko aldakuntza nulua); gainerako sektoreetan, berriz, handitu egin da, oro har: lehen sektorean % 5,1; zerbitzuetan % 2,9; industrian % 1,6.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuak kontuan hartuta, 2016an horiek hazi egin dira aintzat hartu diren eremu geografiko guztietan. Horrela, ekitaldi horretan Hego Euskal Herrian erregistratutako 1.284.322 kontratuak urte arteko % 6,5eko gorakada ekarri dute (% 6,8 EAEn, % 5,5 Nafarroan), eta estatuan inskribatutako 19.978.954 kontratuak % 7,6ko hedapena erakusten dute.

Kontratu-motagatik, Hego Euskal Herrian kontratazio mugagabea aldi baterako kontratazioa baino intentsitate handiagoz hazi zen (% 10,2 eta % 6,2, hurrenez hurren);

estatuan ere fenomeno bera gertatu zen (kontratu mugagabeak % 13,5 areagotu ziren, eta aldi baterako kontratuak, berriz, % 7).

38. taula EEZPren bulegoetan erregistratutako kontratuak

Eremua	Urtea	Mugagabeak			Aldi baterakoak			Guztizkoa	KONTRATUAK, GUZTIRA
		Mugagabea	Konbertsioak	Guztizkoa	Obra eta zerbitzua	Behin-behinekoak	Gainera-koak		
EAE	2014	38.377	14.066	52.443	230.324	297.338	179.044	706.706	759.149
	2015	42.890	17.147	60.037	252.493	353.862	200.863	807.218	867.255
	2016	44.459	21.071	65.530	262.062	393.796	205.211	861.069	926.599
Nafarroa	2014	10.581	5.078	15.659	68.085	124.113	86.122	278.320	293.979
	2015	10.777	5.962	16.739	76.452	144.796	101.011	322.259	338.998
	2016	11.764	7.277	19.041	80.576	157.230	100.876	338.682	357.723
Hego Euskal Herria	2014	48.958	19.144	68.102	298.409	421.451	265.166	985.026	1.053.128
	2015	53.667	23.109	76.776	328.945	498.658	301.874	1.129.477	1.206.253
	2016	56.223	28.348	84.571	342.638	551.026	306.087	1.199.751	1.284.322
Espainia	2014	935.822	414.509	1.350.331	6.680.679	6.883.223	1.812.856	15.376.758	16.727.089
	2015	1.030.460	478.705	1.509.165	7.334.750	7.722.400	2.009.965	17.067.115	18.576.280
	2016	1.131.236	582.026	1.713.262	7.715.112	8.641.593	1.908.987	18.265.692	19.978.954

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Gizarte- eta lan-giroari dagozkiola, 2016an hitzarmen gutxiago negoziatu dira aurreko ekitaldian baino, aintzat hartutako hiru eremuetan (EAE, Nafarroa eta estatua), eta hitzarmen horiek pertsona gutxiago hartu dituzte eraginpean. Zehazki, 2016an negoziatutako hitzarmenen kopuruan egondako beherakadak -% 42,8koak izan dira EAEn, -% 41,5ekoak Nafarroan eta -% 39,4koak estatuan.

39. taula Hitzarmen kolektiboak eta grebak

Eremua	Urtea	Hitzarmen kolektiboak			Grebak			Jardun gabeko lanaldiak
		Kop.	Eraginpean dauden lang.	Hitzartutako soldata-gorakada	Kop.	Lang. parte-hartz.	Lang. greba bakoitzeko	
EAE	2014	549	204.404	0,71	192	15.375	80	54.655
	2015	580	210.221	0,53	154	10.847	70	18.862
	2016	332	115.088	1,16	150	13.579	91	59.095
Nafarroa	2014	183	118.444	0,43	52	2.977	57	12.269
	2015	207	100.425	0,67	38	1.930	51	10.721
	2016	121	95.688	1,25	47	4.264	91	18.881
Espainia	2014	5.185	10.304.700	0,50	777	217.047	279	620.568
	2015	5.642	10.227.278	0,71	615	170.528	277	497.483
	2016	3.419	8.293.615	1,09	641	183.120	286	388.912

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. 2017ko maiatzeko datuak.

2016an, lan-gatazkaren bilakaera heterogeneoa izan da aztertutako hiru eremu geografikoetan. Zehazki, greba-kopuruak behera egin du EAEn aurreko ekitaldiarekin

alderatuta (% 2,6), eta bai parte-hartzaileen kopuruak bai jardun gabeko lanaldien kopuruak igo egin dira (% 25,2 eta % 213,3, hurrenez hurren); Nafarroan, berriz, kopuru horiek gora egin dute (% 23,7, % 120,9 eta % 76,1, hurrenez hurren); estatuko datuei dagokienez, greba-kopuruak eta grebetako parte-hartzaileen kopuruak hazi egin dira (% 4,2 eta % 7,4, hurrenez hurren), baina jardun gabeko lanaldiek atzerakada izan dute (-% 21,8).

Biztanleria

2015ean, Hego Euskal Herriko urte arteko biztanleria-aldakuntza nulua izan da (% 0), EAEko eta Nafarroako biztanleriak ia ez baitira ezer ere aldatu aurreko ekitaldiarekin alderatuta (urte arteko aldakuntza-tasak % 0 izan dira bi eremu geografiko horietan ere). 2015ean, Hego Euskal Herriko biztanleria 2.829.733 pertsonakoa izan da; zehazki, EAEk 2.189.257 biztanle izan ditu; Nafarroak, berriz, 640.476. Estatuko guztizko biztanleriari dagokionez, 46.624.382 pertsonakoa izan da 2015ean; horrenbestez, urte arteko -% 0,3ko atzerakada izan du.

Bestalde, 2015ean 24.856 jaiotza gertatu dira Hego Euskal Herrian; hau da, aurreko ekitaldiko zifra baino -% 2,8 txikiagoa izan da; heriotzei dagokienez, berriz, 27.191 gertatu dira (aurreko ekitaldiko zifra baino % 5,9 handiagoa). Ondorioz, saldo begetatiboa negatiboa izan da, -2.335 pertsonakoa, eta, horrela, eten egin da 2014an izan zen hazkunde begetatibo positiboen joera.

40. taula Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2015

Eremua	Jaiotzak	Heriotzak	Hazkunde begetatiboa	Jaiotza-tasa (%)	Heriotza-tasa (%)
Araba	3.158	2.766	392	9,8	8,5
Bizkaia	9.330	11.812	-2.482	8,1	10,3
Gipuzkoa	6.361	6.933	-572	8,9	9,7
EAE	18.849	21.511	-2.662	8,6	9,8
Nafarroa	6.007	5.680	327	9,4	8,9
Hego Euskal Herria	24.856	27.191	-2.335	8,8	9,6
Espainia	420.290	422.568	-2.278	9,0	9,1

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2016ko abenduko datuak.

Testuinguru honetan, Hego Euskal Herriko jaiotza-tasak gora egin du pixka bat (2015ean % 8,8 eta 2014an % 9); heriotza-tasak, aldiz, gora egin du (2015ean % 9,6 eta 2014an % 9,1); estatu osoak jaiotza-tasa pixka bat altuagoa izan du (% 9) eta heriotza-tasa baxuagoa (% 9,1).

Ezkontzei dagokienez, 2015ean 9.861 ezkontza gertatu ziren Hego Euskal Herrian (urte arteko % 2,8ko hazkuntza); eta estatu osoan ere ezkontza-kopuruak gora egin zuen, baina neurri handiagoan, % 3,7an (2015ean, 165.172; 2014an, 159.279).

41. taula Hego Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera

Urtea	Biztanleria	Ezkontzak	Jaiotzak	Jaiotza-tasa (‰)	Heriotzak	Heriotza-tasa (‰)	Hazkunde begetatiboa	Migrazio-saldoa
2005	2.718.318	12.227	25.847	9,5	24.613	9,1	1.234	-3.384
2006	2.735.558	11.921	26.577	9,7	23.459	8,6	3.118	-4.147
2007	2.747.736	11.767	27.189	9,9	24.414	8,9	2.775	-1.715
2008	2.777.489	11.720	28.339	10,2	24.725	8,9	3.614	2.481
2009	2.802.753	10.985	27.749	9,9	24.761	8,8	2.988	3.543
2010	2.815.263	10.665	27.948	9,9	24.344	8,6	3.064	3.882
2011	2.826.657	10.304	27.902	9,9	24.990	8,8	2.912	5.702
2012	2.837.659	10.171	27.264	9,6	25.657	9,0	1.607	4.764
2013	2.836.159	9.286	25.191	8,9	25.043	8,8	148	3.469
2014	2.829.775	9.595	25.562	9,0	25.677	9,1	-115	5.103
2015	2.829.733	9.861	24.856	8,8	27.191	9,6	-2.335	4.031

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). Migrazio-mugimenduak (EIN). 2016ko abenduko datuak.

Azkenik, 2015ean Hego Euskal Herriak migrazio-saldo positiboa erregistratu duela nabarmendu behar da, 4.031 pertsonakoa, immigrazio-kopuru handiagoa egon delako emigrazio-kopurua baino. Zehazki, EAEk migrazio-saldo positiboa izan du, 2.773 pertsonakoa, eta Nafarroak, 1.258 pertsonakoa.



2. INDUSTRIA

16

1. IKUSPEGI OROKORRA

Egoera orokorra ona den honetan, Euskal Herriko industria-sektorearen jarduerak berriro egin du gora 2016an eta, horrela, aurreko urteetan hasitako goranzko dinamikari eutsi dio, nahiz eta hazkunde-erritmoa pixka bat mantsotu den aurreko ekitaldiaren aldean.

Halaber, eremu geografikoei erreparatuz gero, industria-jarduera gehiago areagotu da EAEn Nafarroan baino. Zehazki, 2016an, balio erantsi gordin sektorialak % 3,3ko gorakada erregistratu zuen EAEn (2015ean, % 3,9), eta % 2,3koa Nafarroan (2015ean, % 2,9). Bai EAEn bai Nafarroan, industriak urtean zehar goranzko joera erakutsi du: % 4,8, % 2,4, % 2,9 eta % 3,0 lehenengo hiru hilekotik laugarrenera EAEn; eta % 2,2, % 2,3, % 2,4 eta % 2,1 Nafarroan. Aipatu behar da Nafarroan 2016an hautemandako industria-jardueraren hobekuntza pixka bat txikiagoa izan dela, Estatu osoan izandakoa baino (% 2,4); EAEn kasuan, berriz, hobekuntza hori Estatuko batezbestekoa baino nabarmen handiagoa izan da.

Industria-enpleguaren joerari dagokionez, eta Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, 2016an % 9,7ko hobekuntza izan da EAEn (% 2,1, Biztanleria Jardueraren Arabera -BJA-); Nafarroan, berriz, % 4,3ko gorakada izan da (2015ean, -% 3,7), eta Estatuan % 1,6koa (2015ean, % 4,3). Beraz, EAEn eta Nafarroan nabarmen handiagoa izan da Estatu osoan baino.

Aurreko urtean bezala, 2016an erregistratutako jardueraren hobekuntza euskal industria-enpresen emaitzen kontuan ere hauteman da, eta errentagarritasunen gorakada antzeman da berriro.

Produkzio-adierazleak

Industria-jardueraren beste adierazle batzuk kontuan hartuta, Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) EAEn % 2,3ko gorakada izan du 2016an (2015ean, % 3,5). Nafarroan ere gorakada erregistratu du (% 0,7), baina 2015ean (% 2,2) baino baxuagoa. Bestalde, Estatuko IPIk ere hobera egin du, kasu honetan % 1,9 (2015ean, % 3,4). Beraz, industria-produkzioen indizeek 2016an hobekuntza izan dute, baina aurreko ekitaldian izandakoa baino txikiagoa.

42. taula Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera

Urtea	EAE		
	IPI(*)	Nafarroa IPI(*)	Estatua IPI(*)
2009	-21,4	-20,3	-15,8
2010	1,8	6,4	0,8
2011	4,1	-2,1	-1,6
2012	-5,9	-8,0	-6,7
2013	-3,1	-1,6	-1,6
2014	1,4	3,9	1,3
2015	3,5	2,2	3,4
2016	2,3	0,7	1,9

(*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.

Iturria: Geuk egina, Eustaten, Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI), EINen eta Iberdrolaren datuetatik abiatuta.

43. taula Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen helburu ekonomikoen arabera

Urtea	Bitarteko ondasunak		Ekipamendu-ondasunak		Kontsumo-ondasunak		Energia	
	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa
2009	-25,9	-30,1	-22,6	-25,2	-16,1	-6,4	-6,4	-6,5
2010	7,1	2,4	-3,2	21,6	0,6	-6,5	-5,4	18,8
2011	5,8	-2,4	11,2	-1,2	-0,1	5,9	-7,6	-30,8
2012	-7,4	-6,7	-6,2	-10,3	-4,1	-4,9	-2,8	-7,1
2013	-2,5	-4,6	-3,2	3,3	-5,1	-0,2	-2,5	-6,8
2014	2,4	10,0	1,6	3,4	-2,2	3,2	0,1	-6,0
2015	1,3	-0,8	7,4	4,9	5,2	2,4	1,4	6,9
2016	1,0	1,1	8,7	-1,3	0,2	-1,8	-4,4	12,3

(*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.

Iturria: Geuk egina, Eustaten eta Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) datuetatik abiatuta.

Ondasun-motak aintzat hartuta, EAEn IPIk kopuru positiboak izan ditu helburu ekonomiko gehienetan: % 1,0 bitarteko ondasunetan, % 8,7 ekipamendu-ondasunetan, eta % 0,2 kontsumo-ondasunetan; energian, berriz, -% 4,4ko beherakada izan da. Nafarroan, bitarteko ondasunek (% 1,1) eta batik bat energiak (% 12,3) datu positiboak izan dituzte, baina ekipamendu-ondasunek (-% 1,3) eta kontsumo-ondasunek (-% 1,8) datu negatiboak izan dituzte.

EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera jarduera-arloak kontuan hartuta, 2016an nabarmenak dira garraio-materialen (% 16,6) eta informatikako eta elektronikako produktuen (% 10,1) gorakada; igoera hori txikiagoa izan da arlo hauetan: altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 5,8), farmaziako produktuak (% 5,5), kautxua eta

plastikoak (% 3,4), makineria eta ekipoa (% 2,6), industria kimikoa (% 2,3), elikagaien, edarien eta tabakoaren industria (% 2,2), zura, papera eta arte grafikoak (% 0,8) eta metalurgia (% 0,7). Aitzitik, aipagarria da erauzketa-industrietan izandako beherakada (-% 16,8); beste arlo hauetan, berriz, jaitsiera txikiagoa izan da: material eta ekipo elektrikoak (-% 5,9), energia elektrikoa, gasa eta lurruna (-% 5,2), ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza (-% 1,9) eta koke-fabrikak eta petrolio-finketa (-% 0,7).

44. taula EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-arloka*

Kontzeptua	2014	2015	2016 (%)
Erauzketa-industriak	10,0	-6,3	-16,8
Elikagaien, edarien eta tabakoaren ind.	3,9	1,3	2,2
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	5,1	-1,6	-1,9
Zura, papera eta arte grafikoak	5,8	6,5	0,8
Koke-fabrikak eta petrolio-finketa	16,4	5,2	-0,7
Industria kimikoa	4,9	5,0	2,3
Farmaziako produktuak	7,1	-6,3	5,5
Kautxua eta plastikoak	-0,3	-0,1	3,4
Metalurgia	2,2	1,3	0,7
Informatikako eta elektronikako produk.	7,0	15,7	10,1
Material eta ekipo elektrikoak	-7,9	-0,5	-5,9
Makineria eta ekipoa	1,3	6,9	2,6
Garraio-materiala	0,3	3,8	16,6
Altzariak eta beste manufaktura-industria batzuk	-0,1	22,3	5,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-3,3	0,3	-5,2

(*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.

Iturria: Eustat.

45. taula Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-arloka

Kontzeptua	2014	2015	2016 (%)
Nekazaritzako elikagaien industria	0,4	0,3	2,0
Metalurgia eta produktu metalikoak	11,1	3,8	-1,9
Papera, zura eta altzariak	-12,5	4,3	6,5
Garraio-materiala	6,1	1,5	-2,0
Beste manufaktura-industria batzuk	6,1	-0,4	0,4

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).

Nafarroaren kasuan, Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera jarduera-arloka heterogeneoa izan da 2016an, eta aipagarria da papera, zura eta altzarietan izandako igoera (% 6,5); igoera txikiagoa izan da nekazaritzako elikagaien industrian (% 2) eta beste manufaktura-industria batzuetan (% 0,4); beherakada gertatu da garraio-materialetan (-% 2) nahiz metalurgia eta produktu metalikoetan (-% 1,9).

Enpresa-emaitzak

Aurretik esan bezala, 2016an izandako industria-jardueraren hobekuntza zuzenean islatu da euskal industria-enpresen emaitzen kontuaren hobekuntzan, eta errentagarritasunen hazkunde argia antzeman da; horrela, bada, krisiaren aurreko urteetan erregistratutako mailetara hurbiltzen ari da.

Hain zuzen ere, azken urteetan aztertutako euskal industria-enpresa nagusien laginari dagozkion mozkinen/salmenten eta mozkinen/berezko funtsen ratioak (zergen aurretik kalkulatu dira) 2016an % 9,0 eta % 16,3 izan dira, hurrenez hurren, eta bi kasu horietan tasak 2015ean erregistratutakoak baino altuagoak izan dira (% 7,7 eta % 14,6); hortaz, 2013an hasitako goranzko joerari eutsi zaio.


46. taula Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako

Ratioak	2012	2013	2014	2015	2016
Bitarteko kontsumoak/salmentak	57,6	55,8	56,4	56,7	56,8
Langileen kostuak/salmentak	20,4	21,2	21,5	20,8	20,2
Finantza-karga garbia/salmentak	2,4	2,8	1,3	1,6	1,3
Mozkinak/salmentak	-0,6	3,8	6,8	7,7	9,0
Mozkinak/berezko funtsak	-1,2	7,4	12,0	14,6	16,3
Cash flow/salmentak	2,8	7,9	8,2	10,2	9,6
Salmentak/langileak (m euro)	187,0	174,6	186,6	196,8	204,4

Iturria: CNMV eta geuk egina.

Testuinguru horretan, 2016an bitarteko kontsumoen ehunekoa pixka bat igo da salmenta osoekiko (2016an % 56,8 eta 2015ean % 56,7), eta beherakada txikia egon da langileen kostuen ehunekoa (2016an % 20,2 eta 2015ean % 20,8). Finantza-karga garbiak, bestalde, beherakada txikia izan du (2016an % 1,3, eta 2015ean % 1,6). Bestalde, ibilgetu garbiaren aldakuntza inbertsioaren bilakaeraren adierazle gisa erabiltzen bada, 2016an % 9,8ko gorakada ikusten da (2015ean % 4,3ko gorakada erregistratu zen).

4. grafikoa Industria-errentagarritasuna



Iturria: Geuk egina.

Oro har, euskal industria-enpresa nagusien laginaren jardueraren emaitzek izan duten bilakaerari buruz aurretik aipatutakoa berretsi egiten da, Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren (HBZ) emaitzak aztertzean¹; informazio horrek, nahiz eta Estatu osoari buruzkoa den, euskal enpresek 2016ko ekitaldi honetan izandako joeretara hurbiltzeko aukera ematen du.

Illo horretatik, Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren (HBZ) informazioak garbi erakusten du 2016an ere jarraitu zuela jardueraren hazkundera. Horrela, enpresen lagin horretan, balio erantsi gordinak (BEG) % 4,1 egin zuen gora, termino nominaletan, aurreko urtearen aldean, baina gorakada hori 2015ekoa (% 6,2) baino txikiagoa izan da. Dezelerazio hori azaltzeko, petrolio-finketako azpisektorearen eraginari erreparatu behar zaio batez ere; izan ere, aurreko ekitaldian aparteko aurrerapena erakutsi zuen. Sektorekako banaketak soberakin horren gorakada orokorrak erakusten ditu. Jardueraren hazkunderako joerak aukera eman zuen 2016an enpleguaren hazkundera ere indarra hartzeko, eta % 1,1 egin zuen gora (2015ean, % 1,3).

¹ Espainiako 914 enpresa ez-finantzariok bidalitako 2016ko lau hiruhilekoko datuetan oinarritutako laginaren emaitzak dira (lagina aldatu egiten da urtero, eta manufaktura-industriak du ordezkari handiena); enpresa ez-finantzarioen sektorearen balio erantsi gordinaren % 13,3 osatzen dute enpresa horiek.

47. taula Emaizten kontua. Urtetik urterako bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)

OINARRIAK	Hiruhilekoko Balantzeen Zentzala(*)		
	I-IV 14/ I-IV 13	I-IV 15/ I-IV 14	I-IV 16/ I-IV 15
Enpresa-kopurua/Nazioko guztizko estaldura	888/%13,3	984/%14,1	914/%13,3
1. Produkzioaren balioa (diru-laguntzak barne)	0,0	-2,0	-2,3
Negoio-zifraren zenbateko garbia eta ustiapenaren beste diru-sarrera batzuk	1,9	-2,6	-3,7
2. Bitarteko kontsumoak (tributuak barne)	0,2	-5,4	-5,3
Erosketa garbiak	0,9	-9,2	-4,2
Beste ustiapen-gastu batzuk	0,3	4,2	-5,0
S.1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2)	-0,4	6,2	4,1
3. Langile-gastuak	1,0	2,2	1,0
S.2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S.1.-3)	-1,9	10,8	7,3
4. Diru-sarrera finantzarioak	-28,6	-9,8	16,0
5. Finantza-gastuak	-8,1	-9,2	-9,4
6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak	-3,6	0,2	0,1
S.3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S.2 + 4 -5 -6)	-17,5	18,4	23,8
7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak	-	-	-
8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak	39,7	-85,5	29,5
9. Mozkinen gaineko zergak	-	-	-
S.4. EKITALDIAREN EMAITZA (S.3 + 7 + 8 -9)	140,2	-51,6	200,7
EKITALDIAREN EMAITZA / BEG (S.4 / S.1)	24,3	11,3	32,2
ERRENTAGARRITASUNAK			
R.1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik)	5,2	5,3	6,1
R.2. Jasotako finantz. interesak, kostua duten besteren baliabideekiko	3,3	3,0	2,7
R.3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik)	6,8	7,1	8,6
R.4. Diferentzia: errentagarritasuna - finantza-kostua (R.1. - R.2.)	1,9	2,3	3,3

(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.

Iturria: Espainiako Bankua.

Ohiko emaitza garbiak hazkunde-erritmo handiari eutsi dio 2016an. Hazkunde horren oinarrian, jardueraren goranzko jokabidea, langile-gastuei eta amortizazioei eustea, eta finantza-sarreraren eta -gastuen bilakaera ona egon dira; guztiak ere, interes-tasek behera egin duten testuinguru batean. Ohiko soberakina nabarmen hazi da, eta, horrekin batera, partida ez-errepikariaren bilakaerak eragin gehigarri positiboa izan du, mozkinen gaineko zergarekin lotutako gastuaren gorakadarekin hein batean konpentsatuta. Horren guztiaren ondorioz, azken emaitza hirukoiztu egin da aurreko ekitaldiaren aldean. BEGren gaineko portzentajezko terminoetan, soberakin horrek % 32,2 egin zuen gora 2016an (2015ean, % 11,3).

Testuinguru horretan, ohiko errentagarritasunaren ratioek hazkundearen bideari jarraitu diote. Zehazki, aktibo garbiaren ohiko errentagarritasunak gora egin du 2016an % 6,1era iritsi arte (2015ean, % 5,3) eta baliabide propioen ohiko errentagarritasuna % 8,6ra iritsi da (2015ean, % 7,1), zorraren kostuaren beste murrizketa bat gertatu den testuinguru batean.

2. ENERGIA

Parisko Akordioa arrakastaz inplementatzeko, 2016ko azaroaren 7tik 8ra Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko Aldeen Konferentzia (COP-22) egin zen Marrakexen. Parisko Akordioa 2020an aplikatzekoa da, Kyotoko Protokoloaren indarraldia amaitzen denean. Akordio hori lehen klima-akordio unibertsala izateaz gain, juridikoki loteslea ere bada herrialde guztientzat. Parisko Akordioako testuak berak dioenaren arabera, akordioaren helburua "klima-aldaketaren mehatxuaren aurkako mundu-erantzuna indartzea da, garapen iraunkorren eta pobrezia desagerrarazteko ahaleginaren testuinguruan". Horretarako, gobernuek hau adostu dute:

- Munduaren batez besteko tenperaturaren igoerari, epe luzera, industriaurreko mailetatik oso gora joaten ez uztea (2 °C baino gutxiagoko igoera).
- Igoera 1,5 °C-ra mugatzea, arriskuak eta klima-aldaketaren eragina nabarmen murrizteko.
- Isuri globalak lehenbailehen jartzea gehieneko mailan edo handik behera, garapen bidean dauden herrialdeetan prozesua luzeagoa izango dela onartuta ere.
- Ondoren, murrizketa azkarrak aplikatzea, eskura dauden irizpide zientifiko onenetan oinarrituta.

Dena dela, Parisko Akordioak -195 herrialdek sinatu zuten eta historikotzat hartzen da klima-aldaketak munduan dituen ondorioen aurkako borrokan- indarra galdu du 2017ko ekainaren 1ean Donald Trumpek AEB akordio horretatik irtengo dela adierazi eta gero. Munduko lehen potentzia Akordiotik atera dela-eta, nazioarteko komunitatea kezkatuta agertu da, askorentzat hori izan baita inoiz lortutako ingurumen-lorpenik garrantzitsuena.

Hori esanda, eta EBko energia-politikari dagokionez, hauek dira oraindik ere bete nahi diren hiru helburu nagusiak: hornikuntzaren segurtasuna, lehiakortasuna eta iraunkortasuna. Horretarako, klimaren eta energiaren arloko 2030era arteko jarduketaren esparruaren baitan, EBk etorkizunean landu beharreko politikei buruzko eztabaidei ekitea proposatzen du, honako gai hauek kontuan hartuta, besteak beste:

- Hemendik 2050era bitartean, berotegi-efektuko gasen igorpenak % 80-95 artean murriztea, 1990eko maila abiapuntutzat hartuta.
- Energiaren prezio altuak eta EBk etorkizuneko prezioen gorakadarekiko (bereziki gasarena eta petrolioarena) duen ahultasun ekonomikoa.
- EBren mendekotasuna energia-inportazioekiko, askotan politikoki ezegonkorak diren eremuetatik datozenak.

- Energia-azpiegiturak ordeztzeko eta hobetzeko beharra, bai eta inbertitzaile posibleentzat araudi-esparru egonkor bat ezartzekoa ere.
- EBk 2030erako berotegi-efektuko gasen igorpenak murrizteko helburu bati buruzko akordio bat lortzeko beharra, klima-aldaketari buruzko beste nazioarteko akordio baterako hurrengo negoziazioetarako ekarpen gisa.

Bestetik, aurreko urteetan bezala, indarrean jarraitzen du 2008an EBk klima-aldaketaren eta energiaren alorrean erabakitako politika integratuak, 2020rako asmo handiko helburu batzuk eta 2030erako eta 2050erako helburu berriak barne.

Hiru hauek dira 2020rako neurrien helburu nagusiak:

- Berotegi-efektuko gasen igorpenak % 20 murriztea, 1990eko mailak abiapuntu hartuta.
- EBko energiaren % 20 berriztagarria izatea.
- Energia-eraginkortasuna % 20 hobetzea.

Hiru hauek dira 2030erako funtsezko helburuak:

- Berotegi-efektuko gasen igorpenak gutxienez % 40 murriztea, 1990eko mailak abiapuntu hartuta.
- Gutxienez energia berriztagarrien % 27ko kuota lortzea.
- Energia-eraginkortasuna % 27 hobetzea.

2050ari dagokionez, ekonomia hipokarbonikoranzko ibilbide-orriak hau ezartzen du:

- 2050erako, EBk bere igorpenak % 80-95 artean murriztu beharko ditu, 1990eko mailak abiapuntu hartuta.
- Horretarako, lehenengo % 40 murriztea lortu beharko du 2030erako, eta % 60 2040rako.

Helburu horiek lortzeko beharrezkoa da sektore guztiek parte hartzea. Trantsizio hori, adituen arabera, bideragarria eta ekonomikoki gauzatzeko modukoa da.

2.1 EAE-KO ENERGIA-BALANTZEA

EAEko energia-balantzea aztertuko da orain. Hasteko, 2016ko daturik ez dagoela eskuragarri adierazi behar da, eta, beraz, jarraian landuko den informazioa 2015ekoa izango da. Hori garbi utzi ondoren, Energiaren Euskal Erakundea (EEE) –Euskadiko energia-agentzia, alegia– da jarraian aurkeztuko den energia-balantzea egitearen

arduraduna. EAEn energia-balantzea Eurostat metodologiari jarraikiz kalkulatu da, eta energia-mota guztien jarraipen zehatza erakusten du, jatorrizko erauzketa edo inportazioarekin hasi eta eraldaketa eta kontsumoarekin bukatuta. Hala, balantzea bi ataletan zatitzen da. Lehen atalean (1.-5. puntuak), iturri primarioen energia-hornidura jasotzen da, bai erauzketa bidez lortutakoa (1. Energia primarioaren produkzioa), bai inportatutakoa (2. Guztizko sarrerak). Zenbateko horien guztizkoa –izakinen mugimenduak (3), esportazioek (4) eta itsas garraioak (5) doitu – bat dator barne-kontsumorako erabilgarri dagoen zenbatekoarekin (6. puntua = 1+2+3-4-5). Balantzearen bigarren zatiak energiaren eraldaketa-prozesuei eta azken kontsumorako erabilgarri dagoen energiari (12 = 6-7+8+9-10-11) egiten die erreferentzia, konbertsio-prozesuen (7 eta 8), elkartrukeen (9), energia-sektorearen beraren kontsumoaren (10) eta galeren (11) ondoren. Kontsumorako erabilgarri dagoen energiari (12) azken kontsumo ez-energetikoa (13) kendu ondoren lortuko da azken kontsumo energetikoa (14).

48. taula EAEko energia-balantzea, 2015

(m ptb)

Sektorea	Ikatza eta deribatuak	Petrolio eta deribatuak	Gas naturala	Energia deribatuak	Energia berriztagarriak	Energia elektrikoa	Guztira
1. Energia primarioaren produkzioa	0,0	0,0	0,0	28,0	403,0	0,0	432,0
2. Guztizko sarrerak	22,0	8.269,0	1.774,0	0,0	51,0	892,0	11.008,0
3. Stocken mugimendua	0,0	158,0	132,0	0,0	0,0	0,0	290,0
4. Guztizko irteerak	-23,0	5.682,0	-231,0	0,0	0,0	0,0	5.428,0
5. Bunkerrak (itsas garraioa)	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
*6. Barne-kontsumo gordinerako erabilgarria	44,0	2.745,0	2.137,0	28,0	454,0	892,0	6.301,0
7. Eraldatzen ari diren sarrerak	0,0	8.992,0	763,0	11,0	125,0	0,0	9.891,0
7.1 Zentral termoelektrikoak	0,0	0,0	490,0	0,0	43,0	0,0	533,0
7.2 Kogenerazioa	0,0	6,0	272,0	11,0	82,0	0,0	371,0
7.3 Koke-fabrikak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
7.4 Findegiak	0,0	8.986,0	0,0	0,0	0,0	0,0	8.986,0
8. Eraldatze-irteerak	0,0	8.851,0	0,0	1,0	0,0	461,0	9.313,0
8.1 Zentral termoelektrikoak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	247,0	247,0
8.2 Kogenerazioa	0,0	0,0	0,0	1,0	0,0	214,0	214,0
8.3 Koke-fabrikak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
8.4 Findegiak	0,0	8.851,0	0,0	0,0	0,0	0,0	8.851,0
9. Trukeak	0,0	0,0	0,0	0,0	-69,0	69,0	0,0
10. Energia-sektorearen kontsumoa	0,0	332,0	84,0	0,0	0,0	88,0	504,0
11. Garraio- eta banaketa-galerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	46,0	46,0
**12. Azken kontsumorako erabilgarria	44,0	2.272,0	1.290,0	18,0	260,0	1.289,0	5.173,0
13. Azken kontsumo ez-energetikoa	0,0	139,0	0,0	0,0	0,0	0,0	139,0
***14. Azken kontsumo energetikoa	44,0	2.133,0	1.290,0	18,0	260,0	1.289,0	5.034,0

* 6=1+2+3-4-5

** 12=6-7+8+9-10-11

***14=12-13

Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

EAEEn, 2015ean, joera-aldaketa gertatu da energiaren azken kontsumoan, kontsumoa % 1 igo baita, zenbait urtetan beheranzko bilakaera izan ondoren. Horrenbestez, 5.034 mila ptb kontsumitu dira (2013ko kontsumoaren oso antzekoa). Barne-kontsumo gordinak ere antzeko bilakaera izan du (% 1,5 igo da), eta 2015ean guztira 6.301 mila ptb kontsumitu dira, 2014ko % 2,5eko jaitsieratik urrun.


49. taula Azken kontsumoa EAEEn, energia-motaren arabera

Sektorea	2012	2013	2014	2015	% Δ 15/14
Ikatza eta deribatuak	51,4	47,1	44,8	44,0	-1,8
Petrolio eta deribatuak	2.016,9	2.003,8	2.016,8	2.133,0	5,8
Gas naturala	1.444,6	1.418,0	1.324,9	1.290,0	-2,6
Energia deribatuak	0,5	14,7	15,8	18,0	13,9
Energia berriztagarriak	302,5	272,8	301,9	260,0	-13,9
Energia elektrikoa	1.316,5	1.291,9	1.279,0	1.289,0	0,8
Guztira	5.132,4	5.048,3	4.983,2	5.034,0	1,0

Iturria: EEE. Geuk egina.

Energia-kontsumoaren maparen egiturari dagokionez, ez dago aldaketa handirik 2014ko egoerarekin alderatuz gero, energia berriztagarrietan izan ezik; horietan, beherakada esanguratsua gertatu baita. Energiaren esparruan, petrolioak eta haren deribatuak jarraitzen dute nagusi izaten, eta gero eta pisu espezifiko handiagoa dute (% 42,4 izatera iritsi dira), 2015ean % 5,8 igo baitira. Horien atzetik gas naturala eta energia elektrikoa dira garrantzitsuenak: biek % 25,6ko kuota dute, baina lehena % 2,6 jaitsi da, eta bigarrena, berriz, zertxobait igo da (% 0,8). Energia berriztagarrietan (% 5,2ko kuota), aurreko urtean izandako bilakaeraren aurkakoa gertatu da, balantzea negatiboa izan baita (-% 13,9). % 1eko kuota baino txikiagoa (% 0,9) dute ikatzak eta haren deribatuak, eta % 1,8 jaitsi dira; bestalde, kuota txikiena (% 0,4) duen partidak (hau da, energia deribatuak) % 13,9ko hazkundera izan du.

5. grafikoa Azken kontsumoa EAEn, energia-motaren arabera (m ptb)



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

50. taula Azken kontsumoa EAEn, sektoreen arabera

Sektorea	2012	2013	2014	2015	% Δ 15/14
Lehen sektorea	82,5	78,0	69,4	70,0	0,9
Industria	2.169,2	2.102,2	2.074,1	2.016,0	-2,8
Garraioa	1.822,4	1.846,9	1.862,1	1.925,0	3,4
Zerbitzuak	457,1	438,7	427,8	445,0	4,0
Bizitegia	601,3	582,4	549,9	578,0	5,1
Guztira	5.132,5	5.048,3	4.983,2	5.034,0	1,0

Iturria: EEE. Geuk egina.

Sektoreen arabera energia-kontsumoari erreparaturaz gero, industria da energia gehien kontsumitzen duen sektorea (% 40), eta ekitaldi honetan baino ez dira jaitsi sektore horretako balioak (-% 2,8), aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero; jaitziera hori jardura siderurgikoak eragin du, gehienbat. Garraioaren sektoreak antzeko kuota du (% 38,2), baina haren kontsumoaren bilakaera kontrakoa izan da, % 3,4 egin baitu gora. Bizitegi-sektorean (% 11,5eko kuota) izan da gorakada handiena, sektore horretako energia-kontsumoa % 5,1 igo baita, 2014ko balioekin alderatuz gero. Azkenik, energia-kontsumoaren mapa zerbitzuen sektoreak eta lehen sektoreak osatzen dute (% 8,8ko eta % 1,4ko kuota, hurrenez hurren); horietan ere hazkundeak izan dira, baina aldea egon da bien hazkundearen indarrean (% 4 eta % 0,9, hurrenez hurren).

Aurreko txostenetan adierazten den bezala, Euskadiko Energia Estrategia 2030 planak gidatuko du euskal energia-politika hurrengo urteetan (2016-2030). Energiaren Euskal Erakundeak argitaratutako informazioaren arabera, estrategia hori epe luzeagorako ikuspegi baten barnean sartzen da. Helburua gero eta energia-sistema iraunkorragoa lortzea da, lehiakortasuna, hornikuntzaren segurtasuna eta karbono gutxiko baldintzetan.

Beraz, hauek dira, zehatzago esanda, 2030erako ezarritako helburuak:

- 2016-2030 aldirako, urtean 1.250.000 ptb aurreztea energia primarioan; horrek % 17ko aurrezkia ekarriko luke 2030ean, eta aldi horretan intentsitate energetikoa % 33 hobetuko litzateke.
- Energia berriztagarrien aprobetxamendua % 126 sendotzea, 2030. urtean 966.000 ptb lortzeko; izan ere, horrek berekin ekarriko luke berriztagarriek azken kontsumoaren % 21eko kuota izatea.
- Euskal administrazio publikoaren ereduzko konpromisoa sustatzea, bere instalazioetako energia-kontsumoa 10 urtean % 25 murrizteko, bai eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak ezartzeko administrazioen eraikinetako % 25etan. Horrez gain, ibilgailu alternatiboak erabili beharko dituzte ibilgailuen parkeetan eta zerbitzu publikorako flotetan.
- Energia alternatiboen % 25eko kuotara iristea errepide bidezko garraioan, eta petrolioarekiko pixkanakako desloturari eta ibilgailu iraunkoragoen erabilerari garrantzia ematea.
- Kogenerazioak eta berriztagarriek sortzen duten elektrizitate-kuota handitzea, 2015ean % 20 izatetik 2030ean % 40 izatera igarotzeko.
- Euskal enpresen, zentro teknologikoen eta zientzia-eragileen sarearen lehiakortasuna sendotzea, ikerketarako, garapen teknologikorako eta industria-garapenerako lehentasunezko 9 arlo sustatuz energiaren esparruan, Euskadiko espezializazio adimendunerako RIS3 strategiaren ildotik.
- Klima-aldaketa arintzen laguntzea, neurri energetikoen bidez urtean berotegi-efektuko gasen 3 Mt murriztuz. Horrek BEGen energia-emisioak % 35 murriztea ekarriko du, 2005ekoekin alderatuta.

2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA

Atal honetan, Iberdrolak eta Unesak (Industria Elektriakoaren Espainiako Elkarte) emandako datuak 2016koak dira, baina behin-behinekoak. Estatuari dagokionez, energia-kontsumoa 238.053 milioi kWh-koa izan da. Horrek aurreko urtearekin alderatuz gero % 0,6 igo dela esan nahi du; izan ere, aurreko urteko produkzio garbia 262.105 milioi

kWh-koa izan zen, eta % 2,2 jaitsi zen. Hego Euskal Herriko bilakaera antzekoa izan da, kontsumoa arin igo baita (% 0,5); produkzioa, berriz, jaitsi egin da (-% 5,9). Zehazki, 2016ko ekitaldian 7.743 milioi kWh kontsumitu dira guztira, eta 1.060 milioi kWh produzitu dira.

Unesaren arabera, 2016an erabilgarri egon den energia gordina 238.053 milioi kWh-koa izan da. Emaitza hori produkzio gordinari (262.105 milioi kWh) ponpaketa-kontsumoak (4.819 milioi kWh) eta garraioan eta banaketan izandako galerak (26.900 milioi kWh) kentzetik eta nazioarteko saldoa, 2016an positiboa izan dena (7.667 milioi kWh, hain zuzen), gehitzetik sortzen da.

Estatuko energia-produkzio garbia xehetasun handiagoz aztertuz gero, energia termoelektrikoak izandako jaitsiera azpimarratzekoa da. Energia-mota hori nabarmen izan zen nagusi aurreko urteetako produkzio-mapan (% 33ko kuota aurreko ekitaldian), eta 2016an guztizkoaren % 28 izatera iritsi da, bere balioak % 17 jaitsi baitira. Beheranzko bilakaera hori ikatzaren produkzio-jardueraren jaitsierak eragin du, batez ere; ziklo konbinatueta eta fuel-gasean, berriz, aldaketa oso gutxi izan dira. Berriztagarriak eta hondakinetatik sortutakoak pixka bat jaitsi dira (-% 0,7), eta, produkzio handienekoen artean, bigarren energia-mota gisa indartu dira (% 24,5). Energia termoelektriko nuklearrak (% 21,4tik hurbil dagoen kuota) % 2,5eko hazkundera izan du, eta hazkunde hori urrun dago energia hidroelektrikoan izandakotik; izan ere, azken horrek izan du urte arteko aldakuntza onena (% 25,5), eta % 15etik hurbil dago bere kuota. Azkenik, kogenerazioak eta hondakinen tratamenduak (% 11,1eko kuota) hazkunde txikia izan dute produkzioan (% 1,5).

Adierazi diren aldaketei erreparaturaz gero, energia-produkzioaren egituran aldaketa esanguratsuak gertatu dira, aurreko ekitaldiarekin alderaturaz gero. Energia nuklearrak lehen energia-iturria izaten jarraitzen du (56.099 milioi kWh eta kuotaren % 21,4); energia eolikoak jarraitzen dio (47.708 milioi kWh eta kuota guztiaren % 18,2); eta, ondoren, energia hidroelektrikoak (39.169 milioi kWh eta produkzioaren % 14,9aren arduraduna). Ikatza laugarren posturaino atzeratu da (bigarrena, 2015ean) eta 37.474 milioi kWh-ko produkzioa izan du (guztizkoaren % 14,3); gero ziklo konbinatuak eta kogenerazioko eta hondakin-tratamenduko zikloak datoz (% 11,2 eta % 11,1, hurrenez hurren); azken bi horien produkzioa 29.200 milioi kWh-koa izan da gutxi gorabehera. Kuotaren % 5 baino gutxiago dute eguzki-energiaren produkzioak, fuel-gasak eta gainerako berriztagarriek (% 5eko, % 2,6ko eta % 1,3ko kuota, hurrenez hurren).

Euskal sektore elektrikoari erreparatuz gero, eta Iberdrolak emandako informazioaren arabera, energia-mota guztietan produkzio-jaitsierak izan dira, mini hidraulikoetan izan ezik, horietan hazkunde nabarmena izan baita. Kogenerazioarekin hasita, % 40ko kuotara hurbiltzen da, eta energia-iturri nagusia izaten jarraitzen du, bere jarduera % 3,5 jaitsi den arren. Energia eolikoan, berriz, % 2,2ko jaitsiera gertatu da, baina bigarren lekura igaro da (% 30,1), energia hidraulikoan izandako jaitsieraren ondorioz (-% 12,8), % 28,9ko kuotarekin gelditu dena. Azkenik, mini hidraulikoek dute produkzio-mapako kuota txikiena (% 1,1), baina haien bilakaeran izan da gorakada handiena, % 12,4 hazi baitira. Azpimarra dezagun Hego Euskal Herrian ez dela energia termikorik produzitzen 2013. urtetik aurrera. Horrela, bada, jaitsierak nagusi diren testuinguru batean, 2016an % 5,9 egin du behera produkzioaren guztizkoak.

51. taula Energia elektrikoaren produkzioa eta eskaria Hego Euskal Herrian
(M kWh)

Urtea	Guztizko produkzioa					Guztira: (1+2+3+4+5) 6	Guztizko kontsumoa 7	Autogenerazioa %-tan (6/7) x 100
	Hidraulikoa 1	Termikoa 2	Eolikoa 3	Mini hidraulikoa 4	Kogenerazioa 5			
2010	331,8	2.578,0	342,7	15,2	408,3	3.675,9	21.428,4	17,15
2011	235,6	1.310,6	334,6	11,5	451,7	2.344,0	21.064,5	11,13
2012	264,6	1.922,9	323,2	11,8	443,5	2.966,1	19.698,9	15,06
2013	477,5	745,6	336,6	13,1	435,9	2.008,7	8.409,8	23,88
2014	321,0	0	328,5	12,4	350,7	1.012,5	7.583,7	13,35
2015	351,3	0	326,2	10,5	438,0	1.126,2	7.707,5	14,61
2016	306,3	0	319,1	11,8	422,8	1.060,0	7.742,7	13,69

Iturria: Iberdrola. Geuk egina.

Hego Euskal Herriko energia elektrikoaren kontsumoari dagokionez, eutsi egin zaio 2015ean hasitako neurrizko hazkunderari: % 0,5 hazi da 2016an, eta 7.742,8 milioi kWh kontsumitu dira. Horrenbestez, 2016ko autogenerazio-tasa % 13,69 da; aurreko ekitaldikoa, berriz, % 14,61 izan zen.

52. taula Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldeka

Lurraldea	2013	2014	2015	2016	(M kWh) % Δ 16/15
Araba	1.126,5	972,1	1.062,8	1.090,0	2,6
Bizkaia	1.997,0	3.016,8	2.794,8	2.917,3	4,4
Gipuzkoa	3.161,1	1.905,0	2.032,1	1.949,7	-4,1
EAE	6.284,6	5.893,9	5.889,7	5.957,0	1,1
Nafarroa	2.125,2	1.689,8	1.817,8	1.785,7	-1,8
Hego Euskal Herria ⁽¹⁾	8.409,8	7.583,7	7.707,5	7.742,8	0,5
Espainia ⁽²⁾	236.225,0	233.392	236.553	238.053 ^(*)	0,6

(*): Behin-behineko datuak

(1): Fakturatutako energia elektrikoa. Iberdrolaz aparteko banatzaileak ez dira aintzat hartu, ezta Iberdrolaren kontsumo propioa ere.

(2): Energia elektrikoaren kontsumo garbia.

Iturria: Iberdrola eta Unesa.

Hego Euskal Herriko kontsumo-datuak kontuan hartuz gero, bilakaera aldatu egiten da eremu geografikoen arabera. Alde batetik, beherazko bilakaera izan du Gipuzkoako eta Nafarroako energia-kontsumoak, eta goranzkoa, berriz, Bizkaikoak eta Arabakoak. Zehazki, Bizkaian eta Araban –kuota handiena du lehenak (% 37,7), eta txikiena, bigarrenak (% 14,1)– hazkundeak izan dira (% 4,4 eta % 2,6, hurrenez hurren); Gipuzkoan eta Nafarroan, berriz, jaitsierak izan dira (% 4,1 eta % 1,8, hurrenez hurren), eta azken bi horiek guztizkoan izan duten kuota oso antzekoa izan da (% 25,2 eta % 23,1, hurrenez hurren).

Kapituluaeren ondorio gisa, Iberdrola taldearen 2016ko zifra nagusiak ikus daitezke (170 urte baino gehiagoko ibilbidea duen enpresa da Iberdrola).

Enpresak argitaratutako informazioaren arabera, 2016an Iberdrola taldeak bere irabazi garbia % 11,7 hobetu du eta 2.705 milioi eurokoa izan da; horri, neurri handi batean, Ameriketako Estatu Batuetako negozioak izan duen bilakaera onak lagundu dio. Halaber, taldearen ustiapen-irabazi gordina (Ebitda) % 5,5 hobetu da, eta 7.807,7 milioi euroraino igo da. Inbertsioen esparrura konpainiak 4.264,3 milioi bideratu ditu 2016ko ekitaldian zehar, eta horrek aurreko ekitaldiko kopurua % 32,3 haztea ekarri du.

Beste behin, 2016an ere goranzko joera ikusten da Iberdrolaren jarduerak Euskadin izandako eragin ekonomikoan. 2016an, Iberdrolak 1.887 milioi euroko eragin ekonomikoa izan zuen (1.520 milioi eurokoa, 2015ean), eta 900 milioi euroko erosketak egin zizkien 650 euskal enpresa hornitzailei baino gehiagori (700 milioi eurokoak, 2015ean); besteak beste, Gamesa, Elecnor, Ormazabal, ZIV, Arteche, Tamoin, EDS Ingeniería y Montajes eta Ibermática. Enpleguari dagokionez, Iberdrolak 2.100 langile inguru ditu plantillan Hego



Euskal Herrian, eta soldatetarako eta langileekin lotutako beste ordainketa batzuetarako 119 milioi euro inguru behar izaten ditu.

Egoera horrek nabarmen hobetu ditu konpainiaren perspektibak; horrela, gorantz zuzendu dira 2016-2020 eperako aurreikuspenak, eta aldi hori amaitzen denerako 3.500 milioi euroko irabaziak izatea espero da, % 7,5 hazita urtero, batez beste. Halaber, 1.000 milioi euro igo da inbertsioetara bideratutako zuzkidura (25.000 milioi euro, azkenean); inbertsio horiek AEBko energia berriztagarriaren instalazioak handitzeko izango dira, batez ere.

3. SIDERURGIA

3.1 IKUSPEGI OROKORRA

Siderurgia-sektoreak eta, oro har, munduko ekonomiak zailtasunak dituen arren, altzairua eguneroko eta funtsezko material bihurtu da, haren erresistentziari, moldakortasunari, malgutasunari eta iraunkortasunari esker. Bestalde, inbertsioak eta produktu hori hobetzeko berrikuntza-bilaketa direla eta, sektoreak etorkizunean hazkundea izango duela aurreikusten da.

Altzairuak munduan duen erronka nagusietako bat ekonomia zirkulatzailerik bat ezartzea da, altzairua murriztu, berrerabili, birziklatu eta birfabrikatu ahal izateko. Hori da World Steel Association¹ elkarteak 2016an abiatutako "Altzairua – material iraunkorra ekonomia zirkularrean" kanpainaren helburu nagusietako bat.

Langileen segurtasunari eta ongizateari dagokionez, World Steel Association elkarteak, Safety and Health Recognition Programme 2016 egitasmoa ezarri du. Programaren printzipioetan, alderdi hauek sartzen dira: laneko istripu edo gaixotasun oro eragotz daiteke eta eragotzi behar dira; zuzendaritzari dagokio langileen segurtasunaren eta osasunaren gaineko ardura; pertsonen konpromisoa eta gaitasuna funtsezkoak dira; segurtasunez lan egitea lan-baldintza bat da; segurtasunak eta osasunak negozioaren emaitzak hobetzen laguntzen dute; eta, azkenik, segurtasunaren eta osasunaren arloko hobekuntzak negozioaren arlo guztietan integratu behar dira.

Ingurumenarekin lotutako alderdietan, munduko siderurgia-sektorea karbono dioxidoko isuriak murrizteko ahaleginak egiten ari da, berrikuntza teknologikoak ezartzearen bidez. Horrez gain, industria global bat sortzeko ahalegina egiten ari da, lehiatzeko merkatua izanik, baina bidezkoa, etorkizunean inbertsioak erakartzeko eta lan-aukerak eskaintzeko modukoa.

World Steel Association elkarteak emandako datuen arabera, altzairuaren ekoizpenak zein kontsumoak bilakaera positiboak izan dituzte. Hain zuzen, altzairu gordinaren munduko ekoizpena 1.629,6 milioi tonakoa izan da (% 0,6ko gorakada txikia iazko balioekiko), eta altzairuaren kontsumoak (1.515 milioi tona) % 1 egin du gora aurreko ekitalditik.

¹ World Steel Association: Altzairuaren Munduko Erakundea

Altzairuaren ekoizpenean nagusi diren herrialdeen bilakaerari erreparatuz gero, herrialde garatuek (hor sartzen dira Mendebaldeko Europa, Estatu Batuak, Kanada eta Japonia) 377 milioi tona ekoitzi dituzte aurtan, hazkunde txikiarekin (% 0,3). Halaber, Latinoamerikako eta Asiako herrialde emerjenteen bilakaera positiboa nabarmentzea garrantzitsua da (% 0,7), bai eta Txinarena ere (% 0,6). Txinak, hain zuzen, 808,4 milioi tona ekoitzi ditu eta herrialde horri munduko altzairu-ekoizpenaren proportziorik handiena dagokio (% 49,6).

Europako herrialdeei dagokienez, rankingean aztertutako europar herrialdeetatik Italia izan da altzairuaren ekoizpena handitu duen bakarra (% 6,4 aurreko urteko ekoizpenaren aldean). Bestalde, Erresuma Batuak beherakadarik handiena izan du (-% 30,3). Espainiak % 8,1eko beherakada izan du, Frantziak -% 4koa eta Alemaniak -% 1,4koa.


53. taula Altzairu gordinaren ekoizpena

Herrialdea	2015			2016		
	M Tm	Δ %	%	M Tm	Δ %	%
AEB eta Kanada	91,3	-9,5	5,6	91,1	-0,2	5,6
Japonia	105,1	-5,1	6,5	104,8	-0,3	6,4
Txina	803,8	-2,3	49,6	808,4	0,6	49,6
India	89,0	1,9	5,5	95,6	7,4	5,9
Alemania	42,7	-0,5	2,6	42,1	-1,4	2,6
Italia	22,0	-7,2	1,4	23,4	6,4	1,4
Frantzia	15,0	-6,8	0,9	14,4	-4,0	0,9
Erresuma Batua	10,9	-9,9	0,7	7,6	-30,3	0,5
Espainia	14,8	4,2	0,9	13,6	-8,1	0,8
EB-28	160,9	-1,7	9,9	156,5	-2,7	9,6
Mundu osoa	1.620,0	-3,0	100,0	1.629,6	0,6	100,0

Iturria: World Steel Association (lehen IISI).

Dena dela, altzairu gordinaren ekoizpenean herrialde batzuek eta besteek izan dituzten gorabeherak gorabehera, aurreko urteko datuen aldean, ez da aldaketarik egon multzo nagusien kuotan. Hain zuzen ere, Ipar Amerikak, Japoniak eta EB-28k osatutako multzoak altzairu gordinaren munduko ekoizpenaren ia laurdena ekoitzi du (% 23,1), Ekialdeko Europak % 7,6, eta ekonomia emerjenteek, berriz, % 69,3.

6. grafikoa Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena



Iturria: World Steel Association.

Siderurgia-sektorearen nazioarteko egoeraren analisia amaitzeko, siderurgia-produktuen munduko kontsumoari dagokionez, munduan 1.515 milioi tona altzairu kontsumitu dira (urtetik urterako % leko gorakada). Aurreko ekitaldiaren aldean kontsumoa murriztu duten herrialdeak AEB eta Kanada, Italia eta Japonia izan dira (-% 2,4, -% 1,6 eta -% 1,3, hurrenez hurren). Aldiz, altzairu-kontsumoa handitu duten herrialde nagusiak India (% 4,1), Alemania (% 2,5) eta Frantzia (% 2,4) izan dira. Espainian, berriz, ez da aldaketarik egon 2015eko altzairu-kontsumoaren aldean, eta rankingeko herrialdeetatik horrelako bilakaera izaten bakarra izan da.

54. taula Siderurgia-produktuen kontsumoa

	2015			2016		
	M Tm	Δ %	%	M Tm	Δ %	%
AEB eta Kanada	109,4	-10,9	7,3	106,8	-2,4	7,0
Japonia	63,0	-6,9	4,2	62,2	-1,3	4,1
Txina	672,3	-5,4	44,8	681,0	1,3	45,0
India	80,2	5,7	5,3	83,5	4,1	5,5
Alemania	39,3	-0,8	2,6	40,3	2,5	2,7
Italia	24,6	11,8	1,6	24,2	-1,6	1,6
Frantzia	12,7	1,6	0,8	13,0	2,4	0,9
Erresuma Batua	10,5	-1,9	0,7	10,7	1,9	0,7
Espainia	12,6	8,6	0,8	12,6	0,0	0,8
EB-28	154,0	3,3	10,3	157,4	2,2	10,4
Mundu osoa	1.500,5	-2,9	100,0	1.515,0	1,0	100,0

Iturria: World Steel Association.

3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

2016a urte atipikoa izan da Espainiako siderurgia-sektorerako. Ekitaldian, besteak beste, eragina izan dute alderdi hauek: lehengaien prezioak zertxobait berreskuratu direla, bai eta petrolioarena ere, nahiz eta maila historiko baxuak izaten jarraitzen duten. Halaber, politikak eragina izan du Espainiako siderurgian, eragin negatiboa, Espainian gobernuaren eratzeko hainbesteko atzerapena izatearen ondorioz. Azkenik, EBko agintariek defentsa komertzialerako espedienteak abiatu zituztela aipatu behar da, inportazio desleialen aurka.

Dena dela, 2015. urtean adierazle guztiek bilakaera positiboa izan arren, Espainiako siderurgia-sektoreko lau magnitude nagusitatik hiruk beherakada izan dute azken ekitaldian. Hala, Espainiako inportazioak kenduta (urtetik urterako % 5,1eko gorakada), altzairuaren ekoizpenak, esportazioek eta ageriko kontsumoak beherakadak izan dituzte (-% 8,5, -% 2,8 eta -% 1,2, hurrenez hurren).

55. taula Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*

(mila Tm)


Urtea	Produkzioa	Esportazioa	Inportazioa	Ageriko kontsumoa
2009	14.341	8.562	7.075	7.979
2010	16.317	9.901	9.153	13.848
2011	15.548	10.198	9.063	13.183
2012	13.649	9.936	7.833	10.728
2013	14.294	9.978	7.634	10.924
2014	14.280	9.969	8.307	11.599
2015	14.889	9.592	8.994	12.747
2016	13.627	9.322	9.453	12.592

()*: Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritza, berriz, siderurgia-produktu guztiei.

Iturria: Unesid.

Siderurgiaren adierazle nagusiak termino absolututan aztertuz gero, ekoizpena 13.627 mila tonara arte jaitsi dela ikusten da (ekoizpenik txikiena 2008ko krisitik). Ageriko kontsumoari dagokionez, gorakadak izan ziren 2015. urtera arte, aurreko hiru urteetan, baina 2016ko ekitaldian, beherakada izan da, eta 12.592 mila tona kontsumitu dira. Esportazioek behera egin dute, eta inportazioek, berriz, gora; beraz, lehen aldiz, altzairu gehiago inportatu da esportatu baino (9.453 mila tona eta 9.322 mila tona, hurrenez hurren).

7. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak



Iturria: Unesid.

Siderurgia-sektoreko enpleguari dagokionez, bost urtez desbiderapen negatiboak izan ostean –kostuak arintzeko doikuntzak egin behar izan dira, krisi ekonomikoaren ondorioz–, 2016an, siderurgia-sektoreko enpleguaren adierazleak gorakada izan du, eta 23.209 langilek jarduten dute sektorean (% 3,8ko gorakada aurreko ekitaldiaren aldean; 845 langile gehiago termino absolututan).

Azkenik, inportatutako lehengai nagusien kontsumoari dagokionez, koke bihur daitekeen harriatzak soilik izan du gorakada aurten (% 2,8), eta burdin meak eta, batik bat, txatarrak, beherakada handiak izan dituzte (urtetik urterako -% 5,8ko eta -% 22,8ko aldakuntza, hurrenez hurren), pisu erlatibo handiena duten lehengaiak izanda. Lehengai horien tonako prezioari dagokionez, kontsumoaren arloan bezala, koke bihur daitekeen harriatzaren prezioak soilik egin du gora, 2015eko prezioen aldean: % 3,2ko gorakada izan du, eta tonako 106,2 euroko prezioa izan du. Txatarraren prezioa 226,1 euro/tona izan da (-% 22,9ko beherakada 2015eko prezioaren aldean), eta burdin mearena, berriz, 49,1 euro/tona (-% 4,4ko beherakada aurreko ekitalditik). Dena den, lehengai bakoitzaren kontsumo- eta prezio-aldakuntzak antzekoak izan direla aipatu behar da.

56. taula Inportatutako lehengaiak

Urtea	Koke bihur daitekeen harrikatza		Burdin mea eta pellet-ak		Txatarra	
	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)
2007	3.682	91,0	5.719	48,0	6.317	344,0
2008	3.371	147,0	6.328	69,0	7.408	342,0
2009	2.058	133,0	3.951	62,0	4.654	211,0
2010	2.984	161,0	6.707	87,0	6.186	311,0
2011	2.610	215,0	5.373	129,0	5.271	390,0
2012	2.492	176,0	5.220	100,0	4.747	375,0
2013	2.528	129,0	6.259	103,0	4.925	318,0
2014	1.632	105,0	5.699	75,0	4.928	330,0
2015	1.720	102,9	6.378	51,4	5.145	293,3
2016	1.768	106,2	6.010	49,1	3.970	226,1
% Hazk. 15-16	2,8	3,2	-5,8	-4,4	-22,8	-22,9

Iturria: Unesid.

Unesid elkarteak siderurgia-sektorean ahalik eta zerbitzurik onena emateko lanean jarraitzen du. Oso lehia handiko merkaturia da sektore horrena, eta batzuetan, "desleiala" ere bai. PLATEAri (Plataforma Tecnológica Española de Acero) dagokionez, urtea konplikaturia izan da, eta bere jardura murriztu behar izan du, "Gobernuaren aurrekontu-murrizketen ondorioz, plataformetarako laguntzak blokeatu baitzituen".

Hala eta guztiz ere, partzuergoak sortzeko babes-taldeekin eta lantaldeekin jarraitu dute. Besteak beste, siderurgia-prozesuetako gainberotze-labeen teknologia hobetzeko HORUS ikerketa-proiektuari emandako babesa aipatu behar da.

Bestalde, enpleguari dagokionez, ia ez dago enplegu-erregulazioko espedienterik, baina ez da ahaztu behar sektorean 5.000 lanpostutik gora galdu direla krisia hasi zenetik. Azkenik, lan-istripuei dagokienez, baja eragin duten lan-istripuen maiztasun-indizea 13,6 izan da, 2015ean baino bi puntu gehiago, sektoreko ekoizpen-jardura handitzearen ondorioz.

3.3 EUSKAL SIDERURGIA

Euskal siderurgia-sektorean, nazioartekoan eta Estatukoan bezala, eragina izan dute lehengaien eta petrolioaren prezioek. Lehen aipatu dugunez, nolabaiteko susperraldia sumatu arren, minimo historikoak izaten jarraitzen dute. Egoera hori dela eta, munduan dagoen lehia handiarekin batera, 2016a urte zaila izan da sektoreko euskal enpresen ustez.

8. grafikoa Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena



Iturria: Geuk egina.

EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritzaren bilakaerari erreparatuz gero, 2016an siderurgia-sektoreko inportazioetan zein esportazioetan beherakada handiak izan direla ikusten da, aurreko bi urteetan zifra baikorragoak izan arren. Inportazioak 3.375 mila tona izan dira (-% 26,6ko beherakada 2015eko inportazioen aldean), eta haien prezioa, berriz, 1.467,3 milioi euro (-% 21,9 aurreko ekitaldiarekiko). Hori dela eta, batez

besteko prezioa 434,7 mila euro izan da (aurreko ekitalditik gorakada izan duen adierazle bakarra).

Esportazioei dagokienez, inportazioek baino beherakada txikiagoa izan dute. 2.436,7 mila tona esportatu dira eta haien prezioa 1.406 milioi euro izan da (hau da, % 13,3ko eta % 19,4ko beherakadak, hurrenez hurren, 2015eko datuen aldean). Hala, batez besteko prezioa 577 mila euro izan da.

57. taula EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza

Urtea	Inportazioak		Esportazioak	
	m Tm	M euro	m Tm	M euro
2007	7.091,1	2.928,6	2.101,7	2.060,6
2008	6.287,6	3.052,3	2.734,6	2.468,0
2009	3.556,5	1.189,7	2.509,6	1.290,2
2010	5.394,5	2.057,1	2.990,0	1.964,9
2011	4.154,7	2.292,8	2.813,2	2.219,8
2012	3.371,8	1.829,7	2.348,5	1.843,6
2013	4.085,3	1.856,8	2.340,8	1.690,9
2014	4.330,5	1.951,4	2.791,9	1.852,9
2015	4.595,9	1.879,8	2.810,3	1.745,3
2016	3.375,0	1.467,3	2.436,7	1.406,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Ekonomia Saila eta Eustat.

EAEko siderurgia-jarduerari buruzko datu hauek Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Industria Kontuetan emandako informazioarekin osatu dira. Estatistika-sailkapena ezin dela zuzenean alderatu kapitulu honetan jasotakoarekin kontuan izatea garrantzitsua da; izan ere, batetik, Eustatek egiten duen A-86 sailkapena dago, eta bestetik, merkataritza- eta/edo produktu-sailkapena, siderurgia integralari, ez integralari, altzairu bereziei eta soldadurarik gabeko hodiei dagokiena.

Eskuratutako azken datuen arabera (2015. urtekoak), burdinarekin egiten ez den siderurgiak eta metalurgiak, galdaketak, eta forjaketak eta estanzazioak BEG-ari egindako ekarpena 1.430 milioi eurokoa izan zen 2015ean; hau da, % 7ko beherakada izan zen 2014tik. Metalezko eraikuntzak, ingeniarietza mekanikoak eta metalezko artikuluek euskal BEG-ari egindako ekarpena 2.290 milioi eurokoa izan da, aurreko ekitaldian baino % 3,2 gehiago. Beraz, siderurgiaren sektorearen kuota eta BEG-ari egiten dion ekarpena % 27,5koa da. Sektorearekin lotutako enpleguari dagokionez, 66.324 langile daude (2014an baino % 0,9 gehiago).

58. taula Siderurgia-jarduerak EAEko industriari eginiko ekarpena

(M eurotan)

Kontzeptua	BEG			Enplegua		
	2013	2014	2015	2013	2014	2015
Burdinarekin egiten ez den siderurgia eta metalurgia	646	680	596	10.787	10.530	10.222
Galdaketa	423	441	411	7.206	7.009	6.643
Metalezko eraikuntza	432	419	427	10.038	9.663	9.785
Forjaketa eta estanzazioa	379	416	423	5.689	6.342	6.473
Ingeniaritza mekanikoa	896	938	992	17.202	17.849	18.498
Metalezko artikulua	877	861	870	15.054	14.370	14.703
Multzo siderometalurgikoa guztira	3.652	3.756	3.720	65.976	65.763	66.324
Industria	12.950	13.102	13.543	195.633	192.387	194.458
Partaidetza (%)						
– Siderurgia/Industria	5,0	5,2	4,4	5,5	5,5	5,3
– Siderometalurgia/Industria	28,2	28,7	27,5	33,7	34,2	34,1

Iturria: Industria Kontuak (Eustat).

Altzairu arrunta eta altzairu bereziak

EAEko altzairuko ageriko kontsumoari dagokionez, 2016an, 12.592 mila tonakoa izan da. Aurreko hiru ekitaldietan gorakadak izan ziren, baina aurtengoan % 1,2ko jaitsiera izan da 2015. urteko kontsumoaren aldean (155 mila tona gutxiago, termino absolututan). Analisi sakonagoa eginez gero, eta EAEko kontsumoa amaitutako produktu-moten arabera aztertuta, produktu luze eta estalien kontsumoak eta produktu luze amaituen kontsumoak soilik egin dutela gora ikusten da (% 4 eta % 0,1, hurrenez hurren). Lingoteen eta amaitugabeen kontsumoak (-% 23,6) eta produktu luze beroenak (-% 4,2), berriz, beherakadak izan dituzte 2015eko datuen aldean.

59. taula Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera

(m Tm)

Produktuak	Ageriko kontsumoa			
	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Amaitutako produktu-motaren arabera*				
– Lingoteak eta amaitugabeak	666	531	406	-23,6
– Produktu luze amaituak	3.827	4.027	4.032	0,1
– Produktu luze beroak	2.605	3.239	3.103	-4,2
– Prod. luze hotz eta estaliak	4.498	4.849	5.044	4,0
Altzairua guztira	11.599	12.747	12.592	-1,2

(*): Altzairu arruntak eta bereziak barne.

Iturria: Unesid.

Beroan ijeztutako produktuen ekoizpenari dagokionez, 2016an bilakaera negatiboa izan da 2015. urtearekiko. Beroan ijeztutako produktu luzeen ekoizpena 8.698 mila tonakoa

izan da, eta urtetik urterako % 4ko beherakada izan da. Beroan ijeztutako produktu lauen ekoizpena, berriz, 4.600 mila tonakoa izan da (urtetik urterako % 3ko beherakada).

Beroan ijeztutako produktu luzeei dagokienez, beherakada produktu-mota hauetan izandako beherakadaren ondorioa izan da: trenbideetarako materialak (-% 40,1), hormigoirako biribilak (-% 8,9), beste profil komertzial batzuk (-% 6,6) eta alanbre-burdin biribildua (-% 2,6). Gorakada bakarra egiturazko profiletan izan da (% 4), baina ez da nahikoa izan produktu luzeen guztizkoa positiboa izateko.

60. taula Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena*

(m Tm)

Produktuak	Produkzioa			
	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena*	8.978	9.059	8.698	-4,0
– Trenbideetarako materiala	276	294	176	-40,1
– Egiturazko profilak	2.272	2.567	2.669	4,0
– Alanbre-burdin biribildua	2.735	2.671	2.600	-2,6
– Hormigoirako biribilak	2.042	1.841	1.677	-8,9
– Beste profil komertzial batzuk	1.653	1.686	1.575	-6,6
Beroan ijeztutako produktu lauk	4.605	4.744	4.600	-3,0

() Bi altzairu-kalitateak barne: altzairu arrunta eta altzairu berezia.*

Iturria: Unesid.

CIE Automotive

CIE Automotive enpresa euskal siderurgia-sektoreko enpresa adierazgarria da, eta haren jarduera nagusia produktu lauk ekoiztea da. CIE Automotive 2002an sortu zen, Afora (Acerías y Forjas de Azkoitia) eta Egaña enpresek bat egin zutenean. Bere jardueraren xede nagusia automobilgintzako osagaien eta azpimultzoen fabrikazioan erreferentziatzko talde bilakatzea da. Enpresaren esanetan, hauek dira gainerako enpresetatik bereizten duten ezaugarriak: multilokalizazioa, eskaintza multiteknologikoa, kudeaketa deszentralizatua –balioa sortzen du–, dibertsifikazio komertziala, eta inbertsio-diziplina eta errentagarritasun-eskakizunak (hori 2020rako jarritako helburuetan ikusi da). Enpresa bost kontinentetan dago presente, zehazki, Amerikan (Brasil, AEB, Mexiko, Guatemala, Honduras, Argentina, Txile, Peru eta Kolonbia), Europan (Espainia, Portugal, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Danimarka, Txekiar Errepublika, Lituania, Errumania, Errusia eta Polonia), Asian (Txina eta India), Afrikan (Maroko eta Hegoafrika) eta Ozeanian (Australia).

Jarduera honako segmentu hauetan gauzatzen du: plastikoa (15 fabrika), aluminioa (9 fabrika), mekanizazioa (27 fabrika), estanzazioa (19 fabrika), forjaketa (18 fabrika), galdaketa (3 fabrika), konpositeak (2 fabrika) eta sabai-sistema (5 fabrika).

2016an, CIE Automotive enpresaren finantza-parametro nagusiak ez dira 2015ekoak bezain nabarmenak izan, baina hala ere, posible garbia eta fakturazioa aurreko ekitaldian baino handiagoak izan dira (% 25,8 eta % 9,4, hurrenez hurren).

2015ean Mahindrearekin aliantza eginez hasitako dibertsifikazio geografikoaren estrategia jarraituz, bi operazio korporatibo handi egin dira 2016ean. Batetik, Grupo Amaya Telleria taldea sartu da enpresan, eta horri esker, aluminiozko injekzioko eta mekanizazioko teknologietan ekoizteko ahalmena areagotu da funtsezko zenbait merkatutan, hala nola Mexikon, Brasilen, eta Erdialdeko eta Ekialdeko Europan. Bestetik, Bill Forge Private Limited (India) enpresa erosi da, eta horrek taldeak Asiarekin duen konpromisoa sendotzen du, eta urrats handia da forjaketaren sektorean mundu-mailako eragile garrantzitsu bat sortzeko.

2016an, CIE Automotive enpresak 2016-2020 Plan Estrategikoa aurkeztu zuen, eta hor, helburu hauek adierazi zituen: *“bost urteko epean 2015eko posible garbia bikoiztea, hazkunde organikoaren bidez, 250 milioi euroko muga gainditzea 2020an, eta aldi horretan akzionistei 300 milioi eurotik gora ordaintzeko aukera izatea”*.

Soldadurarik gabeko hodiak

Unesiden 2016ko ekitaldiari buruz eskuragarri dauden azken datuen arabera, soldadurarik gabeko hodiaren kanpo-merkataritzari dagokionez, EAEn esportazioek behera egin dute aurreko ekitaldiaren aldean (-% 13,7) eta inportazioek, berriz, gora egin dute (% 3).

61. taula Soldadurarik gabeko hodiaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritzaren

(m Tm)

Urtea	(1) Barne-kontsumoa	(2) Esportazioa	(3) Inportazioa	(4) Ekoizpena	3/1 (%)	2/4 (%)
2007	296	253	245	305	82,6	83,1
2008	294	304	248	316	84,5	96,1
2009	149	167	122	160	81,4	104,1
2010	--	212	144	248	--	85,3
2011	--	290	161	279	--	103,9
2012	--	267	152	254	--	105,1
2013	--	230	109	d.e.	--	--
2014	--	282	124	d.e.	--	--
2015	--	234	118	d.e.	--	--
2016	--	202	122	d.e.	--	--

d.e.: ez dago datuik.

Iturria: Unesid.

Soldadurarik gabeko hodian analisia jarraitzeko, esportazioak jomugako herrialdeen arabera aztertuko dira. Arlo horretan, EB-28ren garrantzia nabarmena da, material-mota horretako esportazioen % 43,1 eremu horretako herrialdeetara egiten baitira. Bigarren postuan, AEB dago (esportazioen % 16,4), baina 2015. urtearen aldean beherakadarik handiena izan duen herrialdea izan da (-% 53,3). Bestalde, Txinarako esportazioek izan dute gorakada handiena (% 275,5eko gorakada 2015. urtearekiko). Europako herrialdeei dagokienez, Frantziarako eta Herbehereetarako salmentek soilik izan dute hazkundera (% 53,3 eta % 53,6, hurrenez hurren). Beherakada handienak, berriz, Belgikarako eta Portugalerako salmentetan izan dira (-% 42,7 eta -% 21,1, hurrenez hurren).

62. taula Soldadurarik gabeko hodian esportazioak, helmugako herrialdeen arabera

	<i>(m Tm)</i>				
Eremua	2014	2015	2016	%	% Δ 16/15
Ameriketako Estatu Batuak	88,6	57,7	27,0	16,4	-53,3
Frantzia	14,7	12,1	18,6	11,3	53,3
Alemania	20,7	19,3	16,5	10,0	-14,2
Italia	20,9	19,6	16,4	9,9	-16,6
Txina	4,8	3,5	13,3	8,1	275,5
Saudi Arabia	6,2	4,7	6,7	4,1	41,8
Hego Korea	12,6	9,6	6,7	4,1	-30,3
Herbehereak	5,6	2,9	4,4	2,7	53,6
Singapur	8,8	4,0	4,2	2,6	5,6
Arabiar Emirerri Batuak	4,5	4,2	3,9	2,4	-6,1
Erresuma Batua	5,4	4,2	3,9	2,3	-7,0
Iran	2,4	6,2	3,6	2,2	-41,3
Qatar	3,9	2,0	3,4	2,1	73,8
Belgika	2,5	4,4	2,5	1,5	-42,7
Portugal	3,4	3,1	2,5	1,5	-21,1
EB-28 guztira	80,4	72,5	70,9	43,1	-2,2
Mundu osoa	244,2	194,9	164,6	100,0	-15,5

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren kanpo-merkataritzako estatistikak.

Tubacex

Aurreko ekitaldian gertatu den moduan, lehengaien eta petrolioaren prezioen beherakadak sektorean eragina izaten jarraitzen du, eta salmentak (494 milioi euro guztira) % 7,4 jaitsi dira aurreko urtearen aldean. Mozkin garbia, berriz, 0,5 milioi eurokoa izan da (aurreko ekitaldian, 8,4 milioi eurokoa izan zen). EBITDA, berriz, 34,9 milioi eurokoa izan da.


2016an, aldaketa eta inbertsio garrantzitsuak izan dira Tubacexen. Izan ere, enpresak bere posizioa sendotu du Irango merkatuan,aldi baterako enpresa-elkarte bat (*joint venture*) sortu du Awaji Materia Japoniako enpresarekin, eta Fundación Tubacex fundazioa sortu du, enpresak presentzia duen eskualdeetan prestakuntzaren, gizarte-

eraldaketaren eta gizarte-ekintzaren arloetan jarduteko. Egin diren inbertsioetatik honako hauek nabarmentzen dira: forjatzeko prentsa bat erosi da ACERALAVArako –helburu nagusia premium produktuatarako behar den forjaketa-ahalmena handitzea da–; produktu unbilikaletarako Austriako lantegian beste soldadura-lerro bat (hirugarrena) izateko inbertsioa egin da –Austriako filialak balio erantsi handiko produktuetan gero eta gehiago jardutearen ondorioz–; *Shoot peening*eko beste makina bat (bigarrena) erosi da Kantabriako lantegirako; eta Italian teknologia berriak garatzeko inbertsio berriak egin dira.

Enpleguari dagokionez, Tubacex taldeak 2.217 langile zituen plantillan 2016aren amaieran, eta horietatik % 53,4k Espainiatik kanpo jarduten dute.

Azkenik, Tubacexen salmenten banaketa geografikoari dagokionez, aurreko urteko joerari eutsi zaio: Europan saldu da gehien, baina apurka-apurka, Europari dagokion zenbatekoa txikitzen ari da, enpresaren posizioa Asiako merkatuan sendotzearen ondorioz, urtetik urtera gero eta gehiago saltzen baita eremu horretan.

9. grafikoa Grupo Tubacex taldearen 2016ko salmenten banaketa geografikoa



Iturria: Tubacex Taldea.

Tubos Reunidos

2016an, Tubos Reunidos enpresak negozio-salerosketako enpresa-jarduera garrantzitsua izan du, bere automozio-negozioa Alemaniako Mubea taldeari saldu baitio, aurrerantzean enpresaren jarduera nagusian buru-belarri aritzeko. Jarduera hori

indartzeko, AEBko Rotary Drilling Tools enpresa erosi dute, AEBn bere posizioa sendotzeko, eta horrez gain, lantegi berri bat ireki dute Araban, Japoniako Marubeni Itochu Steel bere bazkidearekin batera.

Dena den, petrolio-prezioetan izandako aldaketen eraginez gain, Tubos Reunidosen emaitzak ez dira positiboak izan, baina epe luzean inbertsio horiek emaitza onak emango dituztela espero da. 2016an, negozio-zifra 194.928 mila eurora jaitsi da (% 29,9ko jaitsiera 2015eko zifratik), eta emaitza garbia ere 2015ekoa baino txikiagoa izan da (-50.174 mila euro).

63. taula Negozio-arloak eta enpresa-unitateak. Tubos Reunidos taldea. 2016

Negozio-arloak	Unitateak/establezimenduak
Soldadurarik gabeko hodiak	Tubos Reunidos Industrial (Amurrio, Araba) Productos Tubulares (Trapagaran, Bizkaia) Acecsa (Iruñea, Nafarroa)
Banaketa	Grupo Almesa (Almesa-Procalsa). Nazio-mailan jarduten du. TR América (Houston, Estatu Batuak) TR Beijing Office (Pekin, Txina) TR Francia (Metz, Frantzia) TR Italia (Milan, Italia) TR Jakarta (Cilandak-Jakarta, Indonesia) TR Dubai Office (Dubai) Madrid (Madril, Espainia) TR Cuba (Habana Vieja, Kuba) TR Mexico (Mexiko) TR Colombia (Kolonbia)

Iturria: Urteko txostena-Jardueren memoria. Tubos Reunidos taldea.

64. taula Fabrikatutako produktuak, merkatuaren eta industria-sektorearen arabera. Tubos Reunidos taldea. 2016

Merkatuak	Produktuak
Petrolio eta gasa	Presio-hoditeria eta eroanbideak Petroliorako eta gaserako zulaketetarako hodiak.
Kimika eta petrokimika	Eroanbideetarako hoditeria Galdara eta labeetarako hoditeria
Mekanika, eraikuntza eta ingeniari-tza	Hodi piloteak eta mikropiloteak Eraikuntzarako hoditeria Doitasunezko hodi mekanikoa Presiorako eta nekerako hodiak
Energia-sorrera eta beroaren transferentzia	Beroan ijeztutako hodiak Hotzean tenkatutako hodiak Errifle-hodiak "U" urkillak, hodi hegotuak, adarkatuak...
Arbastuak	Hotzean tenkatutakoak Hotzean eraldatutakoak

Iturria: Urteko txostena-Jardueren memoria. Tubos Reunidos taldea.

4. ONTZIGINTZA

4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Munduko ekonomia izaten ari den hazkunde moderatuaren antzera, 2016an itsas merkataritza % 2,7 hazi da, eta handiagoa izan da milioi tonetan garraioaren hazkundera (% 3,2). Alde horretatik, nabarmendu behar da petrolio gordina merkatu egin dela aurreko ekitaldiarekin alderatuta (upelak 43,3 dolar balio zuen 2016an, eta 2015ean 52,2 dolar), eta horrek itsas merkataritzaren jarduera sustatu du.

Itsasontzi berrien mundu mailako kontratazioari dagokionez, 2016an -% 74,4 jaitsi da, pisu hileko 28,6 milioi tonara arte, hau da, azken hogeitun urteetan izandako kopururik txikiena; entregak, ordea, % 3,8 egin dute gora, pisu hileko 100,8 milioi tonara arte.

65. taula Munduko merkataritza-ontzidia

Urtea	Tonak	% Δ
1990	398,6	--
1995	451,1	--
2000	515,4	--
2005	601,7	16,7
2010	840,6	39,7
2011	910,1	8,3
2012	991,2	8,9
2013	1.027,0	3,6
2014	1.067,1	3,9
2015	1.107,8	3,8
2016	1.148,0	3,6

(*): EGT (Erregistro Gordineko Tona) 1995era arte, GT (Erregistroko Tonaje Gordina) 2000tik aurrera.
Iturria: ANAVE.

Mundu mailako merkataritzako ontzidiari erreparaturaz gero, 2016an 1.148 milioi tona gordin lortu ditu; horrek esan nahi du urtetik urtera % 3,6 hazi dela, aurreko hiru ekitaldien antzera (2015ean % 3,8; 2014an % 3,9 eta 2013an % 3,6).

Ontzidiaren jatorrizko herrialdeen arabera, aurreko urteetan bezala, 2016an ere Panama da protagonista nagusia, mundu osoko merkataritzako ontzidiaren % 18,5 hartzen baitu. Atzetik ditu, tarte handi samarrarekin, Liberia eta Marshall Uharteak, biek % 10etik gorako kuotak dituztela (% 11,1 eta % 10,1, hurrenez hurren). Europar Batasunaren eremuan, Malta nabarmentzen da, mundu mailako merkataritzako ontzidiaren % 5,5 hartzen baitu. Atzetik ditu Grezia (% 3,6), Erresuma Batua (% 2,6) eta Zipre (% 1,8).

66. taula Munduko merkataritza-ontzidia, jatorrizko herrialdearen arabera

Herrialdea	2014		2015		2016		% Δ 16/15
	MGT	%	MGT	%	MGT	%	
Panama	214,2	20,1	212,9	19,2	212,3	18,5	-0,3
Liberia	123,1	11,5	123,5	11,1	127,7	11,1	3,4
Marshall Uharteak	91,4	8,6	105,4	9,5	115,8	10,1	9,9
Hong Kong	85,5	8,0	92,2	8,3	101,8	8,9	10,4
Singapur	67,8	6,4	75,2	6,8	79,0	6,9	5,0
Malta	49,4	4,6	55,9	5,0	63,3	5,5	13,2
Bahamak	48,0	4,5	49,8	4,5	53,6	4,7	7,7
Txina	41,0	3,8	42,2	3,8	41,7	3,6	-1,1
Grezia	41,7	3,9	42,3	3,8	41,2	3,6	-2,7
Erresuma Batua	32,0	3,0	30,0	2,7	29,8	2,6	-0,5
Japonia	18,9	1,8	20,2	1,8	21,7	1,9	7,6
Zipre	20,3	1,9	20,3	1,8	20,5	1,8	1,2
Italia	17,5	1,6	15,6	1,4	15,4	1,3	-1,0
Danimarka	12,1	1,1	14,2	1,3	15,1	1,3	6,3
Norvegia	14,1	1,3	13,6	1,2	14,0	1,2	3,0
Indonesia	10,9	1,0	11,4	1,0	12,4	1,1	9,1
Hego Korea	11,3	1,1	11,4	1,0	10,8	0,9	-5,3
Bermuda	10,5	1,0	10,5	0,9	9,9	0,9	-5,5
Alemania	12,1	1,1	10,8	1,0	9,9	0,9	-8,5
India	8,3	0,8	8,2	0,7	8,7	0,8	6,4
Estatu Batuak	8,5	0,8	8,5	0,8	8,2	0,7	-3,8
Portugal	4,5	0,4	4,5	0,4	8,1	0,7	79,8
Holanda	7,7	0,7	7,7	0,7	7,2	0,6	-6,7
Frantzia	5,3	0,5	5,3	0,5	5,4	0,5	2,4
Belgika	3,8	0,4	5,1	0,5	4,7	0,4	-8,1
Suedia	2,6	0,2	2,6	0,2	2,5	0,2	-4,3
Espainia	2,3	0,2	2,1	0,2	2,1	0,2	-1,0
Luxenburgo	2,8	0,3	2,4	0,2	2,0	0,2	-17,6
Finlandia	1,6	0,1	1,6	0,1	1,6	0,1	-1,8
Kroazia	1,3	0,1	1,3	0,1	1,3	0,1	-3,8
Beste herrialde batzuk	86,0	8,1	91,6	8,3	100,3	8,7	9,5
EB-15 guztira	143,4	13,4	144,4	13,0	145,1	12,6	0,5
EB-28 guztira	215,5	20,2	222,9	20,1	231,2	20,1	3,7
Mundu osoa	1.067,1	100,0	1.107,8	100,0	1.148,0	100,0	3,6

Iturria: ANAVE.

Itsasontzi-mota aztertuz gero, aurreko urteetan bezala, 2016an solteko gaien itsasontziak izan dira nagusi mundu mailako merkataritzako ontzidian: ontzidi osoaren % 36,1 hartzen dute. Horien atzetik daude petrolio-ontziak (% 21,3), edukiontziak garraiatzeko itsasontziak (% 18,8) eta merkataritzako beste ontzi batzuk (% 13).

Aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero, solteko gaien itsasontziek izan dute gorakadarik handiena (% 8,9) 2016an. Dena dela, aintzat hartu behar da itsasontzi-mota horiek munduko merkataritza-ontzidiaren % 5 baino ez direla.

67. taula Munduko merkataritza-ontzidia, itsasontzi-motaren arabera

Itsasontzi-mota	2013	2014	2015	2016
Petrolio-ontziak	235,7	239,8	240,0	244,6
Gasa garraiatzekoak	50,3	52,6	56,3	61,3
Solteko gaien ontziak	364,9	386,8	405,4	415,0
Kargaontziak	62,0	62,7	62,7	63,0
Edukiontzia garraiatzekoak	179,4	188,1	200,3	215,5
Beste merkataritza-ontzi batzuk	134,8	137,1	141,6	148,7
Merkataritzako ontziak guztira	1.027,0	1.067,1	1.107,8	1.148,0

(MGT)

Iturria: ANAVE.

Azkenik, adierazi behar da 2016an ia ez dela aldatu munduko merkataritzako ontzidiaren batez besteko adina (17,7 urte 2016an, eta 17,5 urte aurreko ekitaldian). Hozkailu-kargaontziak dira zaharrenak (28,3 urte) eta, berrienak, solteko gaien itsasontziak (9,6 urte).

4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN

Nazioartean itsasontzi berrien kontratazioan 2016. urtean izandako beherakada nabarmenaren ildotik (-% 74,4), itsasontzi horien Estatuko ekoizpenak ere behera egin du ekitaldi horretan (-% 42,5), 103 mila tona konpentsatu¹ izan arte; horrek 2015ean izandako gorakada txikia (% 16,2) eten du. Ekoizpen-faseei dagokienez, hasitako tonajea eta uretaratutako tonajea jaitsi egin dira (-% 70 eta -% 39,1, hurrenez hurren), baina entregatutako tonajeak gora egin du (% 25,3).

¹ Atal honetako informazioa tona konpentsatuetan dago emanda, kontrakoa adierazten denean izan ezik.

68. taula Espainiako itsasontzi-ekoizpena

(mCGT)⁽¹⁾

Urtea	Tonaje haztatua ⁽²⁾	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	Entregatutako tonajea	Konpentsazio-koefizientea ⁽³⁾
2007	366	460	327	348	0,70
2008	404	469	401	343	0,79
2009	351	291	413	287	0,69
2010	237	74	258	358	0,71
2011	175	121	132	318	0,63
2012	107	86	124	93	0,55
2013	161	153	161	169	0,48
2014	154	181	137	159	0,43
2015	179	280	169	99	0,92
2016	103	84	103	124	0,48

(1): CGT: tona gordin konpentsatuak. Erregistroko tonaje gordin konpentsatuaren neurria, tona gordinekin erlazioan tona, itsasontzi-mota eta-neurri bakoitzerako koefiziente baten bidez. Koefiziente horrek eraikitze konplexutasuna hartzen du aintzat, itsasontzia egiteko erabilitako lanordua oinarri hartuta.

(2): Tonaje haztatua = (Hasitako tonajea + 2 Uretaratutako tonajea + Entregatutako tonajea)/4.

(3): Ratioa (tona gordinak/tona gordin konpentsatuak).

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Espainiako ontziolen eskabide-zorroa aztertuz gero, 2016. urtean 468 mila tona erregistratu dira; horrek esan nahi du urtetik urterako % 2ko gorakada izan dela, eta hazi egin dela Estatuko zorroa (% 22,2), baina esportazioak jaitsi egin direla (-% 10,1). Horrela, beraz, barne-merkatuak sendotu egin du bere pisu erlatiboa guztizko zorroarekiko (2016an, % 45; 2015ean, % 37).

69. taula Eskabide-zorroa urte-amaieran

Urtea	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztizkoa mCGT
	mCGT	%	mCGT	%	
2007	306	29	748	71	1.054
2008	268	25	785	75	1.053
2009	200	25	615	75	815
2010	109	20	441	80	550
2011	13	6	222	94	235
2012	15	5	298	95	313
2013	21	8	238	92	259
2014	19	7	271	93	290
2015	171	37	288	63	459
2016	209	45	259	55	468

Iturria: Geuk egina, Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Beraz, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eskabide-zorroaren tonajea handiagoa izan da, Estatuko zorroan tonaje handiagoa zegoelako (2016an 209 mila tona, eta 2015ean, 171 mila tona), baina kanpo-zorroak behera egin du (259 mila tona 2016an, eta 288 mila tona 2015ean) eta zorroan zeuden itsasontzi-kopuruak behera egin du kasu bietan (23

itsasontzi 2016an, eta 26 2015ean, barne-merkatuari dagokionez; 37 itsasontzi 2016an, eta 39 2015ean, kanpo-merkatuari dagokionez).

70. taula Eskabide-zorrea itsasontzi-motaren arabera, urte-amaieran (2016)

Itsasontzi-mota	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztizkoa	
	Itsasontzi-kop.	CGT:	Itsasontzi-kop.	CGT:	Itsasontzi-kop.	CGT:
Petrolio gordina garraiatzekoak	5	124.780	0	0	5	124.780
Petrolio- eta kimika-produktuak	0	0	0	0	0	0
Kargaontziak	1	4.511	0	0	1	4.511
Hozkailu-ontziak	0	0	0	0	0	0
Ferryak	1	48.500	1	19.289	2	67.789
Bidaiari-ontziak	0	0	1	5.279	1	5.279
Arrantza-ontziak	2	3.163	9	51.121	11	54.284
Beste itsasontzi batzuk	14	27.825	26	183.362	40	211.187
Guztizkoa	23	208.779	37	259.051	60	467.830

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Itsasontzi-motari dagokionez, 2016ko barne-merkatuko eskabide-zorrea honako hauek osatzen dute: beste itsasontzi batzuk izeneko atalean sailkatutako hamalau ontzik, petrolio gordina garraiatzeko bost ontzik, bi arrantza-ontzik, karga orokorrerako ontzi batek eta ferry batek. Esportazioen eskabide-zorroan honako hauek daude: beste itsasontzi batzuk atalean sailkatutako hogeita sei ontzi, bederatzi arrantza-ontzi, bidaiari-ontzi bat eta ferry bat.

Azkenik, aipatu behar da Iberdrolak, 2016ko irailean, 120 milioi dolarretik gorako kontratu bat esleitu diola Navantiari, East Anglia One itsas parke eolikoa eraikitzeke proiektuan. Instalazio hori Ingalaterrako uretan egongo da eta 714 megawatteko potentzia (MW) izango du. Gainera, energia berriztagarrien alorrean Espainian egin den proiekturik handiena da. Zehazki, Navantiak jacket motako azken belaunaldiko 34 zimendu egingo ditu (Feneko ontzian, Coruñan), eta haren bazkide Windar enpresak (Avilésko instalazioetan) zimenduei dagozkien piloteak eraikiko ditu. Hori dela eta, Navantiako presidentek haxe adierazi du: *“kontratu honen bidez, Navantia erreferente bihurtzen da sektore eolikoan, eta jarraipena ematen dio sektore horretan duen presentziari. Gainera, proiektu horretan duen partaidetza areagotzea espero du, Feneko ontzian jacket gehiago eraikiz eta parke eoliko horren azpiestazioa eraikitzeke kontratua lortuz”*.

4.3 ONTZIGINTZA EUSKADIN

Estatuan izandako beherakadaren antzera, ontzigintzaren euskal sektorearen ekoizpenak ere behera egin du 2016an; hain zuzen ere, 23 milioi tona gordin ekoizti dira, alegia, urtetik urterako $-45,2\%$ ko murrizketa izan da (2015ean $55,6\%$ ko igoera izan zen).

Ekoizpen-faseak aintzat hartuz, hasitako tonajea eta uretaratutako tonajea jaitsi egin dira 2016. urtean ($-83,1\%$ eta $-25,7\%$, hurrenez hurren), baina entregatutako tonajeak gora egin du ($47,4\%$).

71. taula Ontzigintza Euskadin

Urtea	Tonaje haztatua	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	(mGT)	
				Entregatutako tonajea	
2007	64	80	29	116	
2008	69	104	71	31	
2009	81	73	95	60	
2010	59	5	64	103	
2011	37	51	21	57	
2012	35	16	49	23	
2013	28	17	19	55	
2014	27	36	24	23	
2015	42	77	35	19	
2016	23	13	26	28	

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Halaber, tonaje konpentsatuari erreparatuta, Euskadiko ontzigintzaren ekoizpenak behera egin du 2016an ($-49,3\%$), eta txikiagotu egin da Estatuko guztizkoarekiko (2016an Estatuko guztizkoaren 34% ; 2015ean, 40%).

72. taula Ontzigintzaren ekoizpena Euskadin. Partaidetza Estatuan.
Tonaje konpentsatua


Kontzeptua	2015		2016	
	mCGT	% Espainiaren eremuaren	mCGT	% Espainiaren eremuaren
Tonaje haztatua	71	40	36	34
Hasitako tonajea	96	34	27	32
Uretaratutako tonajea	70	41	35	34
Entregatutako tonajea	48	49	46	37

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Tonaje konpentsatua aztertuz gero, hiru ekoizpen-faseek egin dute behera 2016an: behera egin dute hasitako tonajeak ($-71,9\%$), uretaratutakoak (-50%) eta

entregatutakoak (-% 4,2). Gainera, beherakada horiek Estatuan izandakoak baino handiagoak izan direla kontuan hartuz, Euskadik Estatuko guztizkoan duen partaidetzak behera egin du hiru kasuetan: entregatutako tonajea, 2015ean % 49, eta 2016an % 37; uretaratutako tonajea, % 41etik % 34ra; eta hasitako tonajea, % 34tik % 32ra.

10. grafikoa Ontzigtzako eskabide-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT)



Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Euskadiko ontziolen eskabide-zorroari dagokionez, 2016an % 8,8ko igoera izan du, eta 161 mila tona konpentsaturekin amaitu du ekitaldia.

73. taula Eskabide-zorroa Euskadin

Urtea	mCGT
2007	240
2008	271
2009	201
2010	173
2011	89
2012	114
2013	100
2014	119
2015	148
2016	161

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Euskadiko ontzigintza-enpresen egoerari erreparatuz gero, azpimarratu behar da, lehenik eta behin, Sestaoko La Naval enpresaren egoera kritikoa txosten hau egin denean (2017ko uztaila), kapital-ekarpen baten premia handia baitu, likidazio-prozesuan ez sartzeko. Azken urteetan metatutako galerek enpresaren baliabideak kontsumitu dituzte, eta bankuen kreditu-lerroak agortu. Gainera, diruzaintzako tentsioek eraginda, enpresak zenbait kontratari ez die ordaindu, orain eraikitzen ari diren lau ontzien zati kritikoen eraikuntzaz arduratzen diren kontratei, batez ere. Horrenbestez, kapital-zabalkuntza eta bezero berriak bilatzea premia larriak bihurtu dira.

74. taula Enpresa bakoitzaren eskabide-zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak

(CGT unitateak)

Enpresa	Eskabide-zorroa		Amaitutako itsasontziak		Hasitako itsasontziak	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Astilleros Murueta	15.972	5.084	19.254	10.888	7.136	3.392
Astilleros Balenciaga	18.512	14.519	8.002	14.001	18.512	10.008
Astilleros Zamakona	29.067	26.909	20.972	2.158	4.313	13.961
CNN Sestao	84.472	114.100	0	18.872	65.600	0

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Euskadiko ontziola txikienei dagokienez, Astilleros Murueta ontziolak, 2016ko urtearen amaieran, *Green Cádiz* ontzia uretaratu zuen, hornidura-lanak egiteko eta hondakinak biltzeko. Itsasontzi horrek 2.600 metro kubikoko edukiera duten karga-andelak ditu, eta portuetan egin beharreko lanak egiteko berariaz diseinatutako eta eraikitako lehena da. Astilleros Balenciaga ontziolaren kasuan, nabarmendu behar da ontziola horretan, 1921ean eratu zenetik, eraikitako ontzi luzeena entregatu zutela 2016ko urriaren amaieran: *Telmo* merkataritza-ontzia. Itsasontzi hori eraikitzeko, 34 milioi euroko

inbertsioa egin da, eta Europako eta mundu mailako ingurumen-araudiak eskatzen dituen azken aurrerapenak ditu. Gainera, ihes-keak iragazten dituen eta, beraz, gehiegizko sufre oxidoa ezabatzen duen Estatuko lehen kargaontzia da. Astilleros Zamakona ontziolari dagokionez, aipagarria da Grupo Boludak azken belaunaldiko hamar atoiontzi eraikitzeke enkargatu diola 2016aren hasieran. Atoiontzi modelo berria (AVT: Avance Voith Tractor) Robert Allan kanadarraren arkitektura-estudioak diseinatu du, eta atoiontziaren ezaugarriak eta potentzia optimizatzen eta kontrol-postua hobetzen saiatu dira.

Kapitulu hau amaitzeko, adierazi beharra dago Euskal Herriko Itsas Foroaren batzar nagusian zer nabarmendu duten: 2016an petrolioaren prezio baxuek "oil&gas" merkatua zigortu dute, baina, hala ere, Euskadiko ontziolek garaiz erreakzionatu dute espezializazioa, nazioartekotzea eta merkatu-hobien dibertsifikazioa landuz, eta kontratuak lortu dituzte hainbat sektoretan: arrantza eta akuikultura, bidaiari-garraioa eta offshore eolikoa (azken horrek ez du oraindik "oil&gas"aren galera guztiak xurgatzen). Alde horretatik, duela gutxi aurkeztutako Euskadiko ontzigintzaren sektorearentzako 4.0 Plan Gidariaren xedea euskal ontzigintzak berrikuntzaren alde egitea eta fabrikazio aurreratuaren funtsezko kontzeptuak lortzeko behar den bilakaera lortzea da. Etorkizunari begira, Euskal Herriko Itsas Foroak fakturazioaren eta enpleguaren % 2,5 inguruko hazkundea aurreikusten du 2017rako.

5. AUTOMOBILGINTZA

2016ko ekitaldian, nazioarteko produkzio-jarduerak % 4,5eko igoera izan zuen, eta 95 milioi ibilgailu inguru muntatu ziren urte horretan mundu osoan. Aipatu behar da automobilgintza, krisiaren urte txarrenetan izan ezik, gai izan dela bere produkzio-mailei eusteko edo haiek handitzeko, eta, gainera, sektore estrategikoa da herrialde askotan. Ikuspegi geografikotik, bilakaera bloke ekonomikoen arabera aztertuz gero, NAFTAko herrialdeek krisiaren ondorio kaltegarri latzak 2008-2009 biurtekoan pairatu zituzten, baina laster berreskuratu zuten hazkundearen bidea, eta, 2016an, 18.165.870 unitate fabrikatu zituzten, aurreko ekitaldian baino % 1,2 gehiago. European, berriz, susperraldira heltzeko aldia luzeagoa izan zen, ez baitzen 2014ra arte lortu, eta azken urtean, % 3ko hazkundera izan da. 2016an, EB-27n 18.809.265 ibilgailu ekoitzi ziren, eta horietatik, EB-15eko herrialdeek fabrikatu zituzten % 80 inguru. Asia-Ozeaniari dagokionez, ibilgailuen fabrikazioa etengabe hazi da azken hamarkada honetan, eta hazkunde handia izan du 2016an ere (% 7,6), guztira 51.521.214 ibilgailu ekoitzirik. Hego Amerikari dagokionez, azken aldiko joera ez da oso ona, jardueraren % 10,6ko uzkuradura izan baita azken ekitaldian, guztira, 2,7 milioi unitate inguru ekoitzirik. Azkenik, Afrikan, milioi bat ibilgailu baino gutxiago ekoitzi dira, eta etengabeko gorabeherak dira kontinente horren bereizgarria, azken ekitaldian, hain zuzen, hazkundera egonik (% 7,9).

Herrialde ekoizle nagusien jardueraren analisi xehatua eginez gero, oro har, 2016an, produkzio-mapan neurrizko gorakadak daudela ikusten da. Adierazpen hori, ordea, ezin zaio aplikatu Txinari, munduko potentzia nagusiari, bi digituko (% 14,5) hazkundera izan baitu (bakarra izan da munduan). Espainiako automobilgintzari dagokionez, zortzigarrena izan da beste behin munduko ibilgailu-ekoizleen artean, eta bigarrena, berriz, Europako artean, eta, gainera, posizio nabarmena du ibilgailu komertzialen fabrikazioan, arlo horretan nagusi izan baita European.

Nazioartean, matrikulazioei dagokienez, haien hazkundera ekoizpen-hazkundearen ia berdina izan zen (% 4,7 eta % 4,5, hurrenez hurren), eta munduan, 93,8 milioi ibilgailu matrikulatu ziren urte osoan. Munduko merkataritza-jardueraren erdia Asia-Ozeania-Ekialde Hurbila blokeak egin du; Amerikak merkataritza-jardueraren % 27,2; Europak, % 21,5; eta, azkenik, Afrikak, % 1,4. Aipatu behar da Txina alderdi horretan ere nabarmentzen dela, munduko matrikulazioen ia herena herrialde horretan egiten baitira.

5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Munduko produkzio-jarduerak hobera egin badu ere, bilakaera desberdinak daude herrialde batetik bestera, eta hazkundera nagusi bada ere, 2015ean izandakoa baino txikiagoa da, oro har. Europan, EB-15ek eta EB-27k pareko bilakaera izan dutela kontuan izanik (% 3 inguruko hazkundera), Alemania dago rankingeko lehen postuan, alde handiz. Alemania, hain zuzen, Europako ibilgailu-ekoizle nagusia da: hazkundera arina izan du (% 0,5) eta 6,1 milioi ibilgailu ekoitzi ditu urtean. Espainia dago bigarren, 2,9 milioi unitate ekoitzirik eta produkzioak % 5,8ko hazkundera izanik. Frantziaren bilakaera Espainiarenaren antzekoa izan da, % 5,6ko hazkundera izan du, hirugarren postuan dago, eta 2 milioi ibilgailu baino zertxobait gehiago ekoitzi dira herrialdean. Erresuma Batuak eta Italiak antzeko bilakaera izan dute, % 8 inguruko hazkundera izan baitute, baina Erresuma Batuak ibilgailu gehiago ekoitzi ditu Italiak baino (1,8 milioi eta 1 milioi ibilgailu, hurrenez hurren). Belgikak beste herrialde horiek baino zifra askoz txikiagoak ditu, eta beherakada izan du ekoizpen-jardueran, baina aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa (-% 2,4 eta -% 20,8, hurrenez hurren).

Amerikaren analisia eginez gero, NAFTA eremuko (Estatu Batuak, Mexiko eta Kanada) bi herrialdetan ekoizpen-jarduera ez dela ia batere aldatzen eta hirugarrenean hazkundera izaten duela. Lehenik eta behin, AEBn 12.198.137 milioi ibilgailu ekoitzi dira urtean, eta hazkundera ia hutsala izan da (% 0,8). Mexikok antzeko portaera izan du (% 0,9ko hazkundera), baina AEBn ekoizten den ibilgailu-kopuruaren herena ekoizten da Mexikon. Kanadan, ordea, ekoizpenak hazkundera izan du (% 3,8) eta 2 milioi ibilgailutik gora ekoitzi dira herrialde horretan. Dinamismo-galera horren ondorioz, multzo osoaren kuotak behera egin du; hau da, 2015ean, Amerikan ekoizpenaren % 20 egiten zen, eta ekitaldi honetan, puntu portzentual bateko jaitsiera izan da (% 19).

Asiako herrialdeei buruzko analisiari dagokionez, Txina izan da, beste urte batez, munduko ibilgailu-ekoizle nagusia (2009tik du postu hori). 28.118.794 ibilgailu ekoitzi dira Txinan; hau da, ibilgailu guztien % 29,6. Aurreko ekitaldian izandako urtetik urterako aldakuntza txikia ikusita (% 3,3), pentsa zitekeen Txinako jarduera geldotzen hasia zela, baina ekitaldi honetako hazkunderak (% 14,5) teoria hori zapuztu egin du. Japoniaren kasuan (hirugarren postuan dago munduko ekoizleen artean), ordea, badirudi ekoizpen-erritmoa geldotzen ari dela (-% 0,8; 9.204.590 ibilgailu ekoitzirik 2016an). Indiak eta Hego Koreak antzeko ehunekoak dituzte (% 4,5), baina alderantzizko bilakaera izan dute: Indiak % 7,9ko gorakada izan du, eta Hego Koreak, berriz, proportzio bereko jaitsiera. Thailandian ia 2 milioi ibilgailu ekoitzi dira, eta Indonesian, berriz, milioi bat ibilgailu baino zertxobait gehiago. Gainerako herrialde ekoizleek zifra horietatik oso behera daude.



Dena dela, herrialde horien guztien, eta batik bat Txinaren, jarduera dela eta, Asia-Ozeania blokeak munduko fabrikazioaren % 54,2 egiten du.

Gainerako blokeei dagokienez, Afrikan Maroko eta Hegoafrika ekoizle nagusiak izanik, ekoizpenaren % 1 egin da, % 7,9ko gorakada izanda; eta Hego Amerikak % 2,8ko kuota du, Brasilen ekoizpen-jardueraren eraginagatik, neurri handi batean, baina kontinente horretako jarduerak % 10,6ko beherakada izan du.

Matrikulazioen atalean, Txina dago, ezbairik gabe, munduko sailkapenaren buruan: 28 milioi unitate matrikulatu dira han. AEB da bigarren, 17,9 milioi ibilgailu saldurik, eta Japonia, berriz, hirugarren, ia 5 milioi ibilgailurekin. Alemania dago laugarren, eta India bosgarren, oso gutxira (bi herrialde horietan, 3,7 milioi ibilgailu inguru matrikulatu dira), eta gero, Erresuma Batua, matrikulazio-kopurua zertxobait txikiagoa izanik (3,1 milioi). 2 milioi ibilgailutik gora, Frantzia, Brasil eta Italia daude, eta haien atzetik, herrialde dezente daude Turkiak matrikulatutako milioi bat eta Kanadaren bi milioi ibilgailuren artean. Espainian 1.347.344 ibilgailu matrikulatu dira, eta aurten 15. postuan sailkatu da, Iranek Espainiaren kopurua gainditu baitu.

Etorkizunerako perspektibei dagokienez, Automobil Ekoizleen Nazioarteko Erakundeak (OICA) argitaratutako informazioaren arabera, 2017rako, ibilgailuen munduko ekoizpenak gora egitea eta 96 milioi unitatera heltzea aurreikusten da; hau da, % 2 eta % 3 bitarteko hazkundea izatea. Nolanahi ere, OICAK hazkunderako mehatxu hauek aipatzen ditu: alde batetik, produktua garestitzen duten lege-estandarrak eta arauak, eta, bestetik, merkataritza askerako hesiak aldaketa teknologiko, ingurumen legedi edo krisia bezalako faktoreen aurretik. *“Automobilgintzaren benetako etsaia, merkatu globaleko merkataritza askearen aurkako mehatxuak dira”*; nabarmendu zuen ekoizleen munduko patronalaren presidente Matthias Wissmann-ek.

75. taula Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa

(unitateak)

HERRIALDEA	Kontzeptua	2015	2016	% Δ 16/15
Alemania	Produkzioa	6.033.364	6.062.562	0,5
	Matrikulazioa	3.539.825	3.708.867	4,8
Frantzia	Produkzioa	1.972.000	2.082.000	5,6
	Matrikulazioa	2.345.092	2.478.472	5,7
Espainia	Produkzioa	2.733.201	2.891.922	5,8
	Matrikulazioa	1.214.212	1.347.344	11,0
Erresuma Batua	Produkzioa	1.682.156	1.816.622	8,0
	Matrikulazioa	3.061.406	3.123.755	2,0
Italia	Produkzioa	1.014.223	1.103.516	8,8
	Matrikulazioa	1.726.079	2.050.292	18,8
Belgika	Produkzioa	409.253	399.427	-2,4
	Matrikulazioa	571.524	617.854	8,1
EB-15	Produkzioa	14.416.319	14.897.724	3,3
	Matrikulazioa ⁽¹⁾	15.223.766	16.145.220	6,1
Txekiar Errepublika	Produkzioa	1.246.533	1.349.896	8,3
	Matrikulazioa	260.070	291.008	11,9
EB-27	Produkzioa	18.254.326	18.809.265	3,0
	Matrikulazioa ⁽²⁾	16.454.281	17.568.449	6,8
Errusia	Produkzioa	1.378.246	1.303.989	-5,4
	Matrikulazioa	1.440.923	1.404.464	-2,5
Estatu Batuak	Produkzioa	12.105.988	12.198.137	0,8
	Matrikulazioa	17.845.624	17.865.773	0,1
Mexiko	Produkzioa	3.565.218	3.597.462	0,9
	Matrikulazioa	1.389.474	1.647.723	18,6
Brasil	Produkzioa	2.429.421	2.156.356	-11,2
	Matrikulazioa	2.568.976	2.050.321	-20,2
Kanada	Produkzioa	2.283.307	2.370.271	3,8
	Matrikulazioa	1.939.517	1.983.745	2,3
Japonia	Produkzioa	9.278.238	9.204.590	-0,8
	Matrikulazioa	5.046.510	4.970.260	-1,5
India	Produkzioa	4.160.585	4.488.965	7,9
	Matrikulazioa	3.424.836	3.669.277	7,1
Thailandia	Produkzioa	1.909.398	1.944.417	1,8
	Matrikulazioa	799.632	768.788	-3,9
Hego Korea	Produkzioa	4.555.957	4.228.509	-7,2
	Matrikulazioa	1.833.786	1.823.041	-0,6
Txina	Produkzioa	24.567.250	28.118.794	14,5
	Matrikulazioa	24.661.602	28.028.175	13,7

(1): EB-15 + EFTA eta (2): EB-28 + EFTA
Iturria: ANFAC eta OICA.

5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Espainiako automobilgintzarako, 2016. urtea oso ona izan da: sektoreak duela urte batzuk egindako aurreikuspenak gainditu ditu eta 2,89 milioi ibilgailu ekoitzi dira. Urtetik urterako hazkundea nabarmena izan da (% 5,8), Europako herrialde gehienena baino handiagoa, eta Espainiako industria sendotu egin da Europako ekoizleen artean: bigarren izaten jarraitzen du, eta ekoizpenaren arloan Frantziarekiko eta Italiarekiko galdutako aldea berreskuratu du.

Bilakaera on hori Espainiako lurraldean kokatutako 17 ekoizpen-lantegiek eragin dute, haietan, 9 ekoizlek jarduten dute eta 43 modelo fabrikatzen dira (20 modelo Espainian soilik ekoitzirik). Espainian ekoizten diren marka guztien fakturazioa 62.000 milioi euro ingurukoa da, eta automobilgintzarako osagaien sektorea kontuan hartzen bada, zenbateko hori 95.000 milioi eurora arte igotzen da (bien artean, BPG-aren % 8,6).

Halaber, sektore horrek kanpo-merkataritzan duen garrantzia ere aipatu behar da, ekoizpenaren zati handi bat esportatu egiten baita. Beraz, 2016an, esportazioen balioa 37.700 milioi eurotik gorakoa izan da, eta inoiz izandako saldo positiborik handiena izan du (18.400 milioi euro). Horrez gain, 2016an, merkataritza-balantze onena izan duen sektorea izan da, eta Espainiaren esportazioen % 19,4 da.

76. taula Espainiako automobilgintzaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza

Azpisektorea	Produkzioa			Esportazioak			Matrikulazioak		
	2015	2016	%Δ	2015	2016	%Δ	2015	2016	%Δ
Autoak	2.202.348	2.313.391	5,0	1.893.724	2.011.248	6,2	1.034.232	1.147.009 ^(*)	10,9
Lur orotakoak	16.632	46.726	180,9	16.181	44.773	176,7	--	--	--
Ibilgailu komertzial arinak eta furgoiak	456.093	466.766	2,3	331.478	348.144	5,0	154.765	172.106	11,2
Ibilgailu industrialak	58.128	65.039	11,9	32.349	28.236	-12,7	22.435	24.705	10,1
Autobusak	0	0	0	--	--	--	2.780	3.527	26,8
Guztira	2.733.201	2.891.922	5,8	2.273.732	2.432.401	7,0	1.214.212	1.347.344	11,0

(*): Turismoen matrikulazioen zifretan lur orotako matrikulazioak ere sartzen dira.

Iturria: ANFAC.

Sektoreko adierazle nagusiak sakon aztertuz eta datuei erreparatuz gero, lehenik eta behin, salbuespen bakar bat dagoela ikusten da urtetik urterako hazkundeak nagusi diren egoera batean. Ibilgailuen ekoizpenari dagokionez, lehen aipatu dugunez, ekitaldian, ia 2,9 milioi unitate ekoitzi dira, ANFACek 2012an aurkeztutako Plan 3 millones planean aurreikusitakoa baino gehiago. Ekoizpenean, % 5,8ko hazkundea izan da, eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, ibilgailu-segmentu guztiek parte hartu dute hazkunde horretan; hau da, autoek % 5eko gorakadarekin, ibilgailu industrialek % 12arekin,

ibilgailu komertzial arinek eta furguiek % 2,3arekin eta, azkenik, lur orotakoek % 180,9ko hazkunde izugarriarekin. Noski, autoen ekoizpena guztizkoaren % 80 denez, segmentu horren portaerak eragin handia du emaitza orokorren bilakaeran.

Esportazioei erreparaturaz gero, 2016an esportazioen bolumenak % 7ko hazkundera izan duela ikusten da. Hauek dira hazkunde horren oinarriak: batetik, luzaroan jardun den merkatuetan salmentak sendotzea, eta, bestetik, sektoreko enpresek merkatu berriak etengabe bilatzea herrialdeko produktuetarako. EB-15etik kanporako salmentek esportazio guztien multzoan lortu duten proportzioak merkatuen dibertsifikazioa erakusten du. Hain zuzen ere, Europatik kanporako salmentak merkataritza-jardueraren % 12,1 ziren 2009an, eta % 25era arte igo dira 2016an. Ibilgailu-motaren arabera, autoek, salmenten ehuneko handiena izanik, % 6,2ko hazkundera izan dute 2016an; ibilgailu komertzial arinek eta furguiek, % 5koa; eta lur orotakoek, berriz, % 176,7ko hazkunde esponentziala. Beste muturrean, atzerriarekiko merkataritza-fluxuen beherakada izanik (-% 12,7), ibilgailu industrialak daude, pisu espezifikorik txikiena segmentu horrek duelarik.

Matrikulazioei dagokienez, 2016ko ekitaldia oso ona izan da, segmentu guztietan izan baita gorakada, hazkunde orokorra % 11koa izanik. Matrikulazioen % 85 autoenak izan dira (% 10,9ko hazkundera egon da). Aipatu behar da, aurreko urteetan gertatu den bezala, Plan Pive berri bat martxan jartzea izan dela hazkunde hori eragin duten faktoreetako bat. Hori partikularren erosketetan islatzen da: urteko lehen seihilekoan, Plan Pive hori oraindik indarrean zela, bi digituko hazkundera zuten, eta geroago, geldotuz joan dira, hori bereziki nabarmena izanik azken hiruhilekoan. Testuinguru horretan, ibilgailu industrialek eta ibilgailu komertzial arinek autoen joera bera izan dute eta % 10 inguruko hazkundera lortu dute (24.705 eta 172.106 unitatera iritsi dira, hurrenez hurren). Alde horretatik, 2016an izandako susperraldi ekonomikoa mesedegarria izan da ibilgailu-mota horietarako, eta haien matrikulazioetan, ibilgailu industrialen kasuan batik bat, zenbait sektoreren portaera ekonomikoak eragin handia izan du. Halaber, antzeko egoera hautematen da autobusen segmentuan: turismo-jarduera zenbat eta handiagoa izan, orduan eta aukera handiagoak daude flota berritzeko; beraz, matrikulazio-perspektibak baikorrak dira.

77. taula Autoen matrikulazioa, marken arabera

Marka nagusiak	2015	2016	(unitateak) %Δ
Volkswagen	88.300	89.012	0,8
Seat	77.529	77.643	0,1
Seat-Volkswagen taldea	165.829	166.655	0,5
Peugeot	76.314	83.524	9,4
Citroën	58.855	60.607	3,0
PSA taldea^(*)	135.169	144.131	6,6
Renault	77.087	90.504	17,4
Opel	76.470	89.383	16,9
Ford	64.327	60.114	-6,5
Nissan	55.313	57.087	3,2
Toyota	49.120	55.672	13,3
KIA	45.028	53.412	18,6
Audi	44.062	51.655	17,2
Hyundai	44.154	50.912	13,1
Fiat	37.764	48.866	29,4
Mercedes	39.058	47.065	20,5
Dacia	45.241	44.599	-1,4
B.M.W	35.927	44.365	23,5
Gainerako markak	119.683	142.589	19,1
Guztira	1.034.232	1.147.009	10,9

(*): Peugeot eta Citroën.
Iturria: DGT eta ANFAC.

Marken araberako analisia eginez gero, lehenik eta behin, aipatu behar da Volkswageneke, herrialdeko marka nagusien artean jarraitzen duen arren, hazkunde-erritmo geldoagoa duela, eta haren merkatu-kuota erlatiboak behera egin duela (2015ean, % 8,5, eta 2016an, berriz, % 7,8). 2015ean diesel-ibilgailuen isurien manipulazioaren inguruan sortutako eskandalua izan daiteke salmentak geldotzearen kausetako bat, lehen postutik (2015) hirugarrenera (2016) jaitsi baita. Hori esanda, Renault da merkatuko marka liderra (90.504 matrikulazio), eta Opel da bigarren, oso gertu (89.383 unitate), biek oso bilakaera ona erakutsirik (% 17,4ko eta % 16,9ko hazkundera, hurrenez hurren), eta azkenik, Volkswagen dago (89.012 matrikulazio). Seat da laugarren hazkunde txiki batekin eta 77.643 unitate salduta, eta haren atzetik Citroën eta Ford daude, antzeko salmentak dituztela (60.000 matrikulazio inguru). Hala ere, Citroënek % 3ko hazkundera izan duen bitartean, Fordek, Dacia-rekin batera beherakada izan duten marka bakarrak izan dira (-% 6,5 eta -%1,4, hurrenez hurren). Nissanen portaera alde batera utzita (salmenten hazkunde txikia izan du, % 3,2koa) beste gainerako marken multzoak hazkunde handiak izan dituzte, bi digitukoak marka denek, eta marka bakoitzak herrialdeko merkatuan duen kuota zertxobait aldatu du. Ekitaldi honetan, Seat-Volkswagenen kuota % 16tik % 14,5era jaitsi da, eta PSA taldearena, berriz, % 13,1etik % 12,6ra. Automobilgintza sektorean beste erosketak-eragiketak bat egon dela aipatu behar da: 2017ko martxoan, PSAk Opel/Vauxhall filiala erosi zion General Motors-i. Eragiketak horrek eragina izango du datorren urtean, marka bakoitzari dagokion kuotan.

78. taula Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak

Herrialdea	(unitateak)		
	2015	2016	%Δ
Alemania	383.242	425.718	11,1
Frantzia	392.143	421.423	7,5
Erresuma Batua	363.499	348.199	-4,2
Italia	202.107	241.505	19,5
Turkia	114.546	135.035	17,9
Belgika	76.205	92.846	21,8
Herbehereak	69.876	65.797	-5,8
Austria	51.397	61.718	20,1
Polonia	44.323	52.314	18,0
Portugal	36.286	41.691	14,9
10 herrialde nagusiak, guztira	1.733.624	1.886.246	8,8
Gainerakoak	540.108	546.155	1,1
Esportazioak guztira	2.273.732	2.432.401	7,0

Iturria: ANFAC.

Esportazioen arloan, banaketa geografikoari dagokionez, herrialdeko produktuen jomuga diren 10 herrialde nagusien kuota ez da ia batere aldatu. Herrialde horietara egiten dira, hain zuzen, esportazioen % 77,5. Hau da, 10 herrialdek 1.886.246 ibilgailu erosi dizkiote Espainiako industriari, aurreko ekitaldian baino % 8,8 gehiago. Bilakaera positibo horretan, zenbait salbuespen daude: Herbehereak (-% 5,8) eta, batik bat, multzo osoan duen eraginagatik, Erresuma Batua (-% 4,7). Datuak sakon aztertuz gero, Frantzia, ohi bezala, Espainiako industriaren merkataritza-bazkide nagusietako bat dela ikusten da, nahiz eta 2016an Alemaniak lehen postua kendu dion. Bi herrialde horietarako (Frantzia eta Alemania) esportazioen bolumena oso antzekoa da, baina rankingaren buruan izandako aldaketaren arrazoa da Alemaniaren urtetik urterako bilakaera hobea izan dela Frantziarena baino (% 11,1 eta % 7,5, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, herrialde horietako bakoitzaren pisu espezifikoa aipatu behar da (% 17,5 eta % 17,3), Espainiako esportazioen % 35 hartzen baitute bien artean. Erresuma Batua, antzeko kuotarekin (% 14,3), merkataritza-aliatu garrantzitsua da herrialde horretarako esportazioetan beherakada izan arren (-% 4,2ko beherakada izan da) eta haren etorkizunak nolabaiteko zalantzak sortzen ditu, Espainiako industria kezkatuta baitago Erresuma Batuekiko merkataritza-harremanak Brexitaren ostean izango duen bilakaeragatik. Hurrengo hiru herrialdeek (Italia, Turkia eta Belgika), berriz, gorakada interesgarriak izan dituzte (% 19,5, % 17,9 eta % 21,8, hurrenez hurren), eta Espainiaren merkataritza-fluxuen % 9,9, % 5,6 eta % 3,8 dagozkie. 2016an, zenbait herrialdeetara, inoizko salmenta handienak egin direla aipatu behar da, hala nola Turkia, Israel, Mexiko, Txile, Polonia, Suitza, Japonia eta Kanadara, eta horrek agerian uzten du merkatu berrietan sartzeko Espainiako industriak duen ahalmena.

79. taula Automobilgintza-sektorearen esportazioak eta inportazioak

(M euro)

Ibilgailuak	Europar Batasunaren barruko esportazioak eta entregak			Europar Batasunaren barruko inportazioak eta erosketak			Esportazio-inportazioen saldoa		
	2015	2016	%Δ	2015	2016	%Δ	2015	2016	%Δ
Autoak	29.071	31.210	7,4	14.504	16.336	12,6	14.566	14.874	2,1
Kamioiak	4.931	6.194	25,6	2.385	2.681	12,4	2.545	3.513	38,0
Ibilgailu bereziak	77	33	-57,2	56	56,2	0,6	22	-23	-206,9
Autobusak	233	269	15,5	170	248	45,9	63	21	-67,0
Guztira	34.312	37.707	9,9	17.116	19.321	12,9	17.196	18.385	6,9

Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia.

Analisia jarraituz, kanpo-merkataritzako adierazle nagusiei dagokienez, 2016an zifra historikoak berriz lortu direla aipatu behar da, eta esportazio-saldoak 18.300 milioi euroko muga gainditu duela. Portaera on horretan, kamioiek eta, batik bat, autoek izan dute eragina; ibilgailu bereziek eta autobusek, berriz, balio negatiboak izan dituzte. Alderdi horretan, autoen ekarpena nabarmendu behar da, 2016an 14.874 milioi euroko merkataritza-superabita sortu baitute. Beraz, Europar Batasunaren barruko esportazioen eta entregen atalean, 2016an, % 9,9ko gorakada izan da partida horretan, eta ekitaldiko balioa 37.700 milioi eurotik gorakoa izan da. Ibilgailu-motaren arabera, gorakadak nagusi diren testuinguru horretan, ibilgailu bereziak dira salbuespen bakarra, aurreko ekitaldian izandako jardueraren erdia izan baitute. Kamioien balioek, aldiz, gorakada handiak izan dituzte 2015eko datuen aldean (% 25,6), bai eta autobusek ere (% 15,5), autoek ("produktu izarra") % 7,4ko hazkundea izan duten testuinguruan (haien esportazioen balioa 31.210 milioi eurokoa izan da). Inportazioen atalean, adierazle guztiek hazkundeak erakusten dituzte, neurri handiagoan edo txikiagoan, nabarmenena autobusena izanik (% 45,9). Autoek eta kamioiek antzeko bilakaera izan dute (% 12 inguruko hazkundea), autoen ekarpena askoz handiagoa izanik, eta ibilgailu berezien balioak egonkorrak izan dira. Oro har hartuta, 2016an, inportazioen balioa 19.321 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino % 12,9 gehiago.

2017rako aurreikuspenei dagokienez, ekoizpenaren arloan, herrialdeko industriak 3 milioi ibilgailu inguru ekoiztiko dituela aurreikusten da. Merkatuari dagokionez, 2017rako aurreikuspenak 1,45 milioi ibilgailu matrikulatuko direla (2016an baino % 7,8 gehiago) eta hazkundea izaten jarraituko dela 2018an 1,51 milioi inguru ibilgailu matrikulatuta iritsi arte.

Automobilgintza-ekoizleen ezaugarri nagusiak eta bilakaera aztertu ondoren, jarraian, sektore lagungarriaren magnitude nagusiak aztertuko dira. Jakina denez, automobilgintzarako osagaien sektorea oso garrantzitsua da automobilgintzaren

industrirako, ibilgailuen balioaren % 75 baino gehiago baitagokio. Sektore globala da, lehiakortasun handikoa, eta bezeroekiko hurbiltasuna lortzen saiatzen da, bai hurbiltasun geografikoa, bai bezeroen beharrekiko hurbiltasuna, azken produkturako ahalik eta balio erantsi handiena sortzeko.

Sernautok⁽¹⁾ argitaratutako informazioaren arabera, Espainiako sektore laguntzailea 1.000 enpresak baino gehiagok osatzen dute, eta 212.000 langileko zuzeneko enplegua sortzen dute (2015ean baino 8.000 gehiago), edota 343.500 langile, zeharkako enplegua kontuan hartzen bada. Enpresen jardueraren zati handi bat esportaziorako da: enpresek 35 herrialdetan baino gehiagotan dute presentzia eta fakturazioaren % 57 atzerriko salmentek sortzen dute (% 80, esportatutako ibilgailuetan instalatutako osagaiak kontuan hartzen badira). Zalantzarik gabe, sektore estrategikoa da, fakturazioa 34.000 milioi eurotik gorakoa izan da, 2015 ekitaldiarekiko % 6,3ko igoera izan duelako. Ekitaldi honetan, herrialdeko merkatuak bilakaerarik onena izan du, jatorrizko ekipoen azpisektoreak bultzatuta batik bat. Herrialdeko merkatuko salmentak, beraz, 14.500 milioi eurokoak izan dira, 2015ean baino % 10,7 gehiago. Salmenta horietatik, jatorrizko ekipoen salmentak izan dira nagusi (guztizkoaren % 66,2), eta, horrez gain, hazkunde handiagoa izan dute ordezkoko piezen salmentek baino (% 12,9 eta % 6,5, hurrenez hurren).

80. taula **Espainiako automobilgintzarako ekipoen eta osagaien industriaren kopuru nagusiak**

<i>(M euro)</i>			
KONTZEPTUA	2015	2016	%Δ 16/15
Fakturazioa	32.000	34.000	6,3
Merkatu nazionalako salmentak	13.100	14.500	10,7
- Jatorrizko ekipoa	8.500	9.600	12,9
- Ordezko piezak	4.600	4.900	6,5
Esportazioak	18.900	19.500	3,2
Inbertsioak	1.850	2.000	8,1
Inbertsioak I+G+Bn	1.200	1.350	12,5
Enplegua (langile-kopurua)	204.000	212.000	3,9

Iturria: Sernauto.

Esportazioei dagokienez, 2016an, kanpo-merkatuetarako salmentek % 3,2ko hazkundera izan dute, aurreko urteetan baino zertxobait txikiagoa, eta 19.500 milioi eurora iritsi dira.

Gainerako adierazleak kontuan hartuta, sektoreak, azken ekitaldi honetan, inbertsioaren alde egiten jarraitzen duela nabarmena da. 2016an, fakturazioaren % 4 erabili da I+G+Bko jardueratarako (1.350 milioi euro balio absolututan), eta hazkunde nabarmena

¹ Automobilgintzarako Ekipoen eta Osagaien Espainiako Ekoizleen Elkarteak

dago aurreko ekitaldiko balioen aldean (% 12,5). Zenbateko horri sektore laguntzaileak enpresen ekoizpen-ahalmenak areagotzeko eta hobetzeko erabiltzen duen 2.000 milioi euroko diru-kopurua gehitu behar zaio, eta horrek argi eta garbi erakusten du sektoreak berrikuntzarekiko duen konpromisoa.

Patronalak argitaratutako informazioaren arabera, etorkizunerako perspektibei dagokienez, barne-eskariaren etorkizuneko portaerak sortzen ditu zalantza handienak, joera protekzionisten eta Brexitaren -Erresuma Batua Espainiako ekoizleen ohiko merkatuetako bat izanik- gaineratik. Dena dela, Sernautok 2017an sektorearen fakturazioa % 5 eta kontratazioa % 3 haziko direla aurreikusten du.

5.3 AUTOMOBILGINTZAREN INDUSTRIA HORNITZAILEA EAE-N

ACICAEK¹ emandako datuen arabera, 2016ko ekitaldia oso ona izan da EAEko automobilgintzaren industria hornitzailearentzat, salmenta-errekorra izan baitu. Urte horretan lortutako zifra onek agerian uzten dute sektorearen osasun ona, eta nolabaiteko baikortasuna sortzen dute 2017ko ekitaldirako. Izan ere, oro har ekonomiarako aurreikusten den hazkundearen gaineratik hasiko dela aurreikusten da. Oro har, euskal sektorearen fakturazioa EAEko BPG-aren % 24 baino gehiago da, herrialdeko automobilgintzarako osagaien sektorearen ia erdia.

Sektoreari buruzko informazioa sakon aztertuz gero, 300 enpresa inguruk osatzen dutela ikusten da, eta 263 ekoizpen-lantegi dituztela 29 herrialdetan, bai merkatu emerjenteetan, bai ohiko merkatuetan. Automobilgintzaren industria hornitzaileak etengabeko hazkundera izan du 2010etik, eta 2016an, fakturazio historikoa izan du, 16.454 milioi eurokoa. Zenbateko horrek % 9,7ko igoera adierazten du, 2015ean izandakoaren antzekoa (% 9,1), hazkunde txikiagoko urte batzuen ostean. Enpleguak ere joera positibo hori du, eta sektorean aritzen diren langileen kopuruak gora egin du, 1.436 pertsona gehiago, guztira 38.019 langilerekin. Zenbateko horiei euskal enpresa hornitzaileek Euskal Herritik kanpo sortzen dituzten lanpostuak (40.000tik gora) gehitu behar zaizkie.

Halaber, enpresa-ehun garrantzitsu eta bizi horretaz gain, EAEko industria-lantegi handiena dagoela aipatu behar da, Mercedes Benz Vitoria. Bertan, 5.000 pertsona inguruk egiten dute lan, eta, joera orokorarekin bat, ekoizpen-errekorrak izan dituzte ekitaldi honetan. Urte honetan, Mercedes Benz Vitoria lantegian 135.000 ibilgailu

¹ Euskadiko Automozio Klusterra

muntatu dituzte (bi modeloak, Vito eta Clase C, batuta), aurreko ekitaldian baino % 30 gehiago. Ekitaldi oso ona izan dute eta horrek oso eragin positiboa izan du industria laguntzailean eta industrian, oro har.


81. taula EAEko automobilgintzaren sektore hornitzailearen bilakaera

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016
Fakturazioa (M eurotan)	12.421	13.071	13.747	15.004	16.454
Enplegua (pertsona-kopurua)	35.376	34.851	36.093	36.583	38.019

Iturria: ACICAE.

Sektoreko datuekin jarraituz, I+G+Bri dagokionez, 2016an, enpresek fakturazioaren % 2,7 inbertitu dute, eta enpresa-taldean eta multinazionalen kasuan adierazle horren balioa % 7ra iristen da.


11. grafikoa Sektoreko fakturazioaren bilakaera



Iturria: ACICAE.

Halaber, merkatu-egiturari dagokionez, ohiko joerarekin bat, salmenten % 60 ibilgailuen ekoizleetara bideratzen dira, % 38 lehen mailako hornitzaileetara eta % 2 ordezkotzat merkatara. Salmenten helmugari dagokionez, sektoreak esportaziorako oso joera handia du, eta fakturazioaren % 88 kanpo-merkatuetarako da: merkataritza-fluxuen % 41,5 EB-27ko herrialdeen artean egiten dira, eta % 47,1, berriz, Europar Batasuneko mugetatik kanpo.

12. grafikoa Sektoreko ekoizpenaren helmugako merkatuak*



(*): Grafikoa jasotako informazioa ACICAEko bazkide diren enpresei dagokie bakarrik.

Iturria: ACICAE.

Kapitulua amaitzeko, ACICAEko arduradunek etorkizunari buruz esandakoa aipatuko da: "sektoreak hazkundera izaten ari du mundu osoan, eta lehiakorragoak izateko eta merkatu-kuota eskuratzeko hori baliatzen ari gara". Alde horretatik, sektorearen jarduerak bi ekitalditan hazkundera nabarmenak izan ondoren, 2017an goranzko joera hori sendotzea espero da, baina igoera azken biurteko honetan baino txikiagoa izan daitekeela ere aipatzen da.

6. MAKINA-TRESNAK

6.1 MUNDUKO EGOERA

2016. urtean gorakada txiki bat izan da makina-tresnen mundu mailako ekoizpenean (% 1,2), eta 73.000 milioi euroko langa gainditu da. Hazkunde apal hori, hala ere, ekoizpen-errekor berria ezartzeko nahikoa da, 2012an lortutako balio handienak gainditu egin baitira (72.530 milioi euro). Beraz, badirudi magnitude sektorial nagusien susperraldia baiesten dela, azken hirurtekoan aldeko bilakaera izan baita, eta horrek arnasaldia ematen dio sektoreari, zenbait urte ziurtasunik gabe igaro ondoren.

Hala ere, ekoizpen-datuak aztertuz gero, herrialde guztiek ekoizpen-jarduera sustatzen ez dutela lagundu garbi ondorioztatzen da. 2016ko ekitaldian, beraz, oso bilakaera-joera desberdinak izan dira. AEBren jarduera nabarmendu da, hazkunde handia izan baitu ekoizpen-mailan (% 28,8) eta, horri esker, bi posizio egin du gora munduko rankingean, laugarren postua lortuz. Bolumenari dagokionez, Txina da lider ukalezina ekoizpen-mapan (guztizkoaren % 28,3), eta Espainia munduko makina-tresnen bederatzigarren ekoizlea da, ekoizpenaren urtetik urterako aldaketa txikia izan duelarik.

Datuetan sakonduz gero, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta, makina-tresnen fabrikazioari dagokionez munduko erreferenteak 10 herrialde berberak direla egiazta daiteke. Txina dago munduko sailkapenaren buruan (20.688 milioi euro), eta, haren atzetik, Alemania-Japonia binomioa (11.000 milioi euro bakoitzak). 2016an, Alemaniak jarduera-gorakada txiki-txikia izan duenez (% 0,4), rankingaren bigarren postua kendu dio berriz ere Japoniari; izan ere, Japoniak uzkurdua nabarmena izan du ekoiztutako bolumenetan (-% 9,6). Hala ere, hiru herrialde horietan munduan fabrikatzen diren 10 makina-tresnetatik 6 egiten dira. Makina-tresnen ekoizle nagusien mapan, beste herrialde batzuek proportzio apalagoak dituzte, baina ekoizpen-arloan garrantzitsuak hauek dira: AEBk 5.342 milioi euroko ekoizpena du eta laugarren postuan dago; Italia bosgarrena da, 4.989 milioi euroko ekoizpenarekin. Hurrengo herrialde garrantzitsuak Asiakoak dira, Hego Korea eta Taiwan, alegia, 3.900 milioi euroko eta 3.370 milioi euroko ekoizpenarekin, hurrenez hurren. Ondoren, Suitza dago, 2.699 milioi euroko ekoizpenarekin, eta bederatzigarren postuan Espainia, Austria atzetik duela.

Kontsumoari dagokionez, Asiako erraldoiak makina-tresnen kontsumitzaile nagusia izatea lortu du berriro: 24.884 milioi euroko kontsumoa eta munduko kontsumoaren % 34arekin. Ekoizpenaren alorrean gertatu den bezala, AEB da taldeko herrialderik dinamikoena: urtetik urterako bi digituko hazkundera izan duen bakarra (% 18,1) da, eta

7.841 milioi euroko inbertsioa egin du. Alemania hirugarren dago eta % 7,4ko hazkundea izan du kontsumoan, harik eta 6.159 milioi eurora iritsi arte; haren atzetik Japonia dago, % 6,8ko hazkundearekin eta 5.588 milioi euroko kontsumoarekin. Antzeko bolumenekin baina bilakaera-jokaera desberdinekin, alde batetik, Hego Korea dago (3.171,9 milioi euro eta % 8,4ko uzkurdura), eta bestetik, Italia (% 6,4ko gorakada jardueran eta 3.009,4 milioi euroko kontsumoa). 1.000 milioi euroko langaren gaintik zenbait herrialde daude, hala nola India, Taiwan eta Frantzia. Eta kopuru txikiagoekin, Suitza, Espainia eta Austria; lehenengo biek mugimendu gutxi izan dituzte 2015aren aldean, eta azkenak % 6,9ko jaitsiera izan du.

82. taula Makina-tresnen mundu mailako ekoizpena, merkataritza eta kontsumoa

(M eurotan)

Herrialdea	2016 ^(*)			
	Ekoizpena	Esportazioak	Inportazioak	Kontsumoa
Txina	20.688,4	2.619,9	6.775,7	24.844,2
Alemania	11.248,0	7.588,7	2.499,6	6.158,9
Japonia	10.998,7	6.205,3	794,3	5.587,7
Estatu Batuak	5.341,6	1.499,8	3.998,9	7.840,7
Italia	4.959,1	3.099,5	1.149,8	3.009,4
Hego Korea	3.900,1	1.824,9	1.096,8	3.171,9
Taiwan	3.369,8	2.616,9	652,3	1.405,1
Suitza	2.699,5	2.299,6	549,9	949,9
Espainia	941,4	835,1	477,4	583,7
Austria	817,9	668,9	385,9	534,9
Frantzia	720,6	524,9	898,8	1.094,5
India	704,1	47,6	846,7	1.503,2
Gainerako herrialdeak	6.751,2	6.129,7	15.834,7	16.456,2
Guztizkoa	73.140,3	35.960,8	35.960,8	73.140,3

(*): Kalkuluak.

Iturria: AFM

Munduko merkataritzari erreparatuz gero, Alemania da makina-tresnen munduko lehen esportatzailea (7.588,7 milioi euro) eta, haren atzetik, Japonia dago (6.205,3 milioi euro). Italia hirugarren dago (3.099,5 milioi euro) eta, haren atzetik, Txina-Taiwan tandemak, oso antzeko esportazio-bolumenak dituztela (2.620 milioi euro inguru bakoitzak). Beraz, esportazioen % 61 bost herrialde horietan sortzen dira, eta Alemaniak kanpo-jardueraren % 21,1 sortzen du. Halaber, jaitsierak nagusitu badira ere, Espainiak eta Austriak, bederatzigarren eta hamargarren postuetan, taldeko hazkunde bakarrak lortu dituztela nabarmendu behar da, hau da, % 8,2 eta % 6,4, hurrenez hurren.

Inportazioei dagokienez, Txina, AEB eta Alemania makina-tresnen bolumen handiena inportatzen duten herrialdeak dira, inportazio guztien % 40 inguruko merkatu-kuota baitute hiruren artean. Italia eta Hego Korea ere inportatzaile garrantzitsuak dira, 1.000

milioi euro baino gehiagoko inportazioak baitituzte. Inportazioen bilakaerari dagokionez, esportazioetan ez bezala, 2016ko ekitaldian herrialdeek oso mugimendu desberdinak izan dituzte. Nabarmenenak Espainiaren (% 14,5) eta Austriaren (% 8) gorakadak izan dira, eta Italiak, Hego Koreak eta Txinak izandako uzkurdurak, denak ere % 13 ingurukoak.

Nazioarteko atalarekin amaitzeko, eta Europako herrialdeei dagokienez, CECIMO¹ erakundeak 2017rako aurreikuspenei buruz argitaratutako informazioaren arabera, sektorearen kopuru nagusiek hobera egingo dute merkatuen susperraldiari esker, baina globalizazioaren aurkako mugimendu gero eta handiagoak, Erresuma Batuen desanexioak eta Trump-en gobernuak har ditzaken neurriek, besteak beste, moteldu egin ditzakete sektorearen hazkunde-aurreikuspenak.

6.2 MAKINA-TRESNAK EUSKADIN

Makina-tresnetako fabrikatzaile nazionalak 941 milioi euroko ekoizpena izan dute 2016ko ekitaldian, iaz baino % 0,1 gehiago; beraz, Estatuko industria hirugarren postuan dago European eta, bederatzigarren postuan munduan. Posizio hori bikaina bada ere, urtea zail samarra izan da sektorearentzat. Alde batetik, garrantzitsuak izan ohi diren kanpoko merkatu batzuek bizitasun txikia izan dute, eta bestetik, bertako merkatuak beharakada izan dute, sektorearen emaitzak murriztuz.

¹ European Association of The Machine Tool Industries.

83. taula Makina-erremintako sektorearen aldagai nagusien bilakaera espainiar estatuan


Kontzeptua	<i>(m eurotan)</i>			
	2014	2015	2016	%Δ 16/15
1. Ekoizpena	877.710	940.170	941.440	0,1
2. Barne-salmentak	100.530	168.330	106.320	-36,8
3. Esportazioak	777.190	771.840	835.120	8,2
4. Inportazioak	330.610	416.790	477.410	14,5
5. Barne-kontsumoa	431.140	585.120	583.730	-0,2
6. Esportazioaren proportzioa = 3/1	88,5	82,1	88,7	60,7
7. Inportazioaren proportzioa = 4/5	76,7	71,2	81,8	-61,2

Iturria: AFM

Azterketan sakonduz gero eta sektorearen aldagai nagusien bilakaera aintzat hartuta, 2016. urtea gorabeheratsua izan dela esan daiteke. Testuinguru horretan, ekoizpen-mailak ia ez dira aldatu, kanporako salmentak igo egin dira, barne-eskaria moteldu egin da eta inportazioek gora egin dute nabarmen. Hain zuzen ere, esportazioen bilakaera oso ona izan da, ohikoa den bezala, salmenten kopuru handiena sortu dute (% 88,7) eta aurreko ekitaldiaren balioak hobetu dituzte (% 8,2). Barne-salmentek, ordea, bestelako dinamika izan dute; izan ere, aurreko biurtekoan izandako joera ona hautsi, eta beherakada nabarmena izan dute (-% 36,8), sektorearen adierazleak kolokan jarritz. Halaber, ekitaldi honetan Eusko Jaurlaritzak "Renove-Makineria" programaren bidez makinak erostea sustatu duela adierazi beharra dago-8 milioi euroko aurrekontua-. Baina ekimen hori ez da nahikoa izan barne-salmentek 2014an hasitako hazkunderari eusteko.

Inportazioei dagokienez, berriz, hazkundera izan da (% 14,5), eta 477 milioi euroko langa gainditu da. Inportazioek azken urteetan izan duten gorakada handia adierazi beharra dago; izan ere, krisiaren aurreko balioak berreskuratu dituzte. Dena dela, barne-kontsumoa gelditu egin da (-% 0,2) eta barne-merkatua moteltzen ari da. Horrenbestez, inportazioen proportzioak (inportazioak/barne-kontsumoa) eta esportazioenak (esportazioak/ekoizpena) aurreko ekitaldian lortutako indizeak nabarmen gainditu dituzte (% 81,8 eta % 88,7, hurrenez hurren).

13. grafikoa Makina-tresnen sektoreko merkataritza-balantza



Iturria: AFM

84. taula Makina-tresnen ekoizpenaren banaketa Espainian, makina-moten arabera

(m eurotan)

Makina-tresna motak	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Tornuak	138.180	156.210	153.950	-1,4
Fresatzeko makinak	146.910	164.890	139.060	-15,7
Makina bereziak eta transfer makinak	94.090	79.450	96.660	21,7
Arteztzeko makinak	65.240	53.610	73.300	36,7
Mekanizazio-zentroak	53.970	55.180	58.580	6,2
Prozesu fisiko-kimikoen makinak	19.250	23.820	24.830	4,2
Mandrinatzeko makinak	10.260	17.820	19.900	11,7
Zulatzeko makinak	15.450	20.900	15.420	-26,2
Zerrak eta trontzatzeko makinak	5.080	6.440	4.960	-23,0
Beste harroketa-makina batzuk	29.140	24.400	25.320	3,8
Harroketa M-T guztira	577.570	602.720	611.980	1,5
Prentsa mekanikoak	153.400	166.760	109.730	-34,2
Prentsa hidraulikoak	12.160	19.620	63.680	224,6
Zizailatzeko makinak	52.950	39.180	37.320	-4,7
Kurbatzeko, tolesteko eta lautzeko makinak	30.630	31.060	32.190	3,6
Puntzonatzeko edo hozkatzeko makinak	15.670	12.170	14.570	19,7
Beste deformazio-makina batzuk	35.330	68.660	72.060	5,0
Deformazio M-T guztira	300.140	337.450	329.460	-2,4
Makina-tresnak guztira	877.710	940.170	941.440	0,1

Iturria: AFM

Azterketa ekoizpen-ataletik hasita, harroketa-azpisektoretik zehazki, ekitaldian guztira 611.980 milaka euroko ekoizpena izan da, 2015eko ekitaldian baino % 1,5 gehiago. Goranzko mugimendu txiki horri esker azpisektorea osatzen duten makinaren bilakaerak oso desberdinak direla sumatu daiteke. Azterketa garrantzi handiena duten makinetatik hasita -hala nola tornuak eta fresatzeko makinak-, ekoizpena azken ekitaldian biek murriztu dutela argi ikusten da (-% 1,4 eta -% 15,7, hurrenez hurren). Horren ondorioz, fresatzeko makinak bigarren postuan ageri dira, nahiz eta Estatuko industriaren produktu nagusia izan ohi den. Bi makina-moten artean harroketa-ekoizpenaren ia % 50 hartzen dutela kontuan hartzekoa da, eta ekoizpen guztiaren % 30a. Gainerako makinak atzerago daude, eta makina bereziek eta transfer makinek, artezteko makinek eta mekanizazio-zentroek harroketa-taldeari ekarpen nabarmena egiten diotela aipagarria da (% 15,8, % 12 eta % 9,6, hurrenez hurren); gainera, denek bilakaera positiboa izan dute.

Deformazio bidezko makinei dagokienez, urte osoko ekoizpena 2015ekoa baino txikiagoa da (-% 2,4). Ekitaldiko joera nagusia gorakada izan bada ere, prentsa mekanikoen ekoizpenak nabarmen egin du behera (-%34,2) -nahiz eta kuota erlatibo handiena izan: % 11,7-, baita zizailatzeko makinaren ekoizpenak ere (-% 5). Bi ekoizpen horien ondorioz, balantzak behera egin du. Automobilgintza-sektorearen inbertsioei esker azken ekitaldi honetan prentsa hidraulikoen ekoizpenak hazkunde esponentziala (% 224,6) izan badu ere, atzerakada horiek konpentsatzeko ez da nahikoa izan.

85. taula **Espainiako makina-tresnen esportazioak herrialdeka**

(m eurotan)

Herrialdea	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Alemania	87.130	80.070	108.050	34,9
Txina	154.490	51.340	96.630	88,2
Mexiko	40.110	46.650	77.820	66,8
Portugal	41.210	51.310	72.310	40,9
Italia	30.990	51.070	68.570	34,3
Estatu Batuak	54.460	97.050	65.480	-32,5
Frantzia	42.470	45.060	51.270	13,8
Polonia	13.310	35.270	34.300	-2,8
Erresuma Batua	40.720	48.750	24.310	-50,1
Suedia	9.120	11.060	15.680	41,8
India	28.830	20.390	15.250	-25,2
Errusia	26.750	22.090	14.240	-35,5
Hungaria	3.930	4.290	13.700	219,3
Hegoafrika	360	1.930	11.940	518,7
Brasil	31.710	33.080	11.790	-64,4
Eslovakia	4.470	7.950	11.670	46,8
Gainerako herrialdeak	167.130	164.480	142.110	-13,6
Guztizkoa	777.190	771.840	835.120	8,2

Iturria: AFM

Azterketa herrialdeen ikuspegi batetik jarraituz gero, Espainiako makina-tresnen bezero nagusia Alemania da. Izan ere, Alemaniak % 12,9ko partaidetza du eta merkataritza-jarduera dezente handitu du (% 34,9), Txina bigarren postuan utzirik % 11,6ko partaidetzarekin. Hala ere, Asiako erraldoia indarberrituta ageri da nazioarteko agertokian, hazkunde nabarmena izan baitu (% 88,2), 2015ean izan zuen atzerakadaren ondoren. Mexikok eta Portugalek antzeko balioak dituzte eta hirugarren eta laugarren daude. Italiak osatzen du Estatuko makina-tresnen esportazioen bost merkatu nagusien zerrenda. Kontzentrazio geografikoari dagokionez, bost herrialde horietara egindako esportazioak esportazio guztien % 50,7 direla aipa daiteke, eta aurreko ekitaldiko kuota (% 36,3) erruz gainditzen dutela, denek hazkunde nabarmenak baitituzte. Balantzaren beste aldean, zenbait merkatuk beherakadak izan dituzte Espainiarekiko merkataritza-fluxuetan, eta, horien artean, AEBrena da garrantzitsuen (-% 32,5), aintzat hartuz gero Estatuko esportazio-mapari egin dion ekarpenaren galera 2015 (% 12,6) eta 2016 (% 7,8) artean.

86. taula Makina-tresna moten arabeko esportazioak

Makina-tresna motak	<i>(m eurotan)</i>			
	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Fresatzeko makinak	140.900	164.750	130.010	-21,1
Tornuak	115.120	114.910	118.590	3,2
Makina bereziak eta transfer makinak	90.650	70.160	81.530	16,2
Artezteko makinak	53.710	46.520	74.710	60,6
Mekanizazio-zentroak	53.260	48.850	47.820	-2,1
Prozesu fisiko-kimikoen makinak	18.810	20.950	23.980	14,5
Mandrinatzeko makinak	9.320	17.540	11.490	-34,5
Zulatzeko makinak	8.000	11.430	11.240	-1,7
Zerrak eta trontzatzeko makinak	4.930	4.810	4.070	-15,4
Beste harroketa-makina batzuk	28.920	44.060	51.940	17,9
Harroketa M-T guztira	523.590	543.980	555.380	2,1
Prensa mekanikoak	109.320	104.740	83.090	-20,7
Prensa hidraulikoak	11.580	19.130	49.300	157,7
Kurbatzeko, tolesteko eta lautzeko makinak	29.680	24.410	32.300	32,3
Zizailatzeko makinak	52.230	34.420	28.140	-18,2
Puntzonatzeko edo hozkatzeko makinak	15.640	10.750	13.680	27,3
Beste deformazio-makina batzuk	35.150	34.410	73.230	112,8
Deformazio M-T guztira	253.600	227.860	279.740	22,8
Makina-tresnak guztira	777.190	771.840	835.120	8,2

Iturria: AFM

Ekoiaren alorrean gertatutakoaren antzera, esportazioaren atalean oso bilakaera desberdinak izan dira makina-moten arabera. Harroketa-azpisektorea osatzen duten makinaren artean, beherakada handienak mandrinatzeko makinek (-% 34,5), zerrek eta trontzatzeko makinek (-% 15,4) eta fresatzeko makinek (-% 21,1) izan dituzte; azken horiek bereziki garrantzitsuak dira, esportazio-maparen liderrak baitira. Bestalde, aurreko ekitaldian baino emaitza hobekak lortu dituzte artezteko makinek (% 60,6), prozesu

fisiko-kimikoetako makinek (% 14,5), makina bereziek eta transfer makinek (% 16,2) eta, azkenik, esportazio-bolumen handiena duen bigarren produktuak, hau da, tornuek (% 3,2). Horrenbestez, harroketa-azpisektoreak 555.380 milaka euroko esportazioa izan du, esportazio guztien % 66,5, eta urtea esportazio-balantze positiboarekin amaitu du (% 2,1).

Deformazio bidezko makina-tresnen esportazioen jokaera aztertuz gero, datuei azaletik begiratuta hazkondeak gehiago direla garbi ikusten da, eta batzuk oso nabarmenak izan direla. Zehazki, prentsa hidraulikoen (% 157,7) eta beste deformazio-makina batzuen (% 112,8) hazkonde esponenzialak gailendu dira; testuinguru horretan, bilakaera positiboa izan dute kurbatzeko, tolesteko eta lautzeko makinek (% 32,3), baita puntzonatzeko edo hozkatzeko makinek ere (% 27,3). Salbuespen dira prentsa mekanikoak (-% 20,7) eta zizailatzeko makinak (-% 18,2), beheranzko mugimenduak izan baitituzte. Horrenbestez, multzo honek 279.740 milaka euroko esportazioak izan ditu ekitaldi honetan; hau da, 2015ean baino % 22,8 gehiago.

87. taula Espainiako makina-tresnen inportazioak herrialdeka

(m eurotan)

Herrialdea	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Alemania	90.780	98.070	99.320	1,3
Italia	57.000	61.520	73.150	18,9
Japonia	27.700	43.030	61.540	43,0
Belgika	20.510	38.590	43.240	12,0
Taiwan	23.380	33.440	35.100	5,0
Suitza	17.740	17.670	24.640	39,4
Txina	17.640	20.760	23.290	12,2
Hego Korea	7.590	15.870	19.900	25,4
Frantzia	11.860	16.380	18.320	11,8
Erresuma Batua	13.310	18.730	17.030	-9,1
Turkia	5.480	9.450	12.820	35,7
Austria	6.160	3.590	7.650	113,1
Estatu Batuak	7.010	3.920	6.940	77,0
India	6.480	7.810	6.350	-18,7
Txekiar Errepublika	1.030	3.310	6.180	86,7
Beste batzuk	16.940	24.650	21.940	-11,0
Guztizkoa	330.610	416.790	477.410	14,5

Iturria: AFM

Inportazioei erreparaturuz gero, 2015aren aldean % 14,5 hazi dira. Inportatzaileen taula osatzen duten herrialdeen joera nagusia hazkondea izan da, baina, hala ere, Erresuma Batuak eta Indiak beherakadak izan dituzte (-% 9,1 eta -% 18,7, hurrenez hurren). Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, zenbait herrialdek balioen gorakada nabarmena izan dute, hala nola Austriak (%113,1), AEBk (%77) eta Txekiar Errepublikak (% 86,7). Antzeko jokaera izan dute, baina intentsitate txikiagoz, gainerako herrialdeek, gehienbat Japoniak

(% 43), Suitzak (% 39,4) eta Turkiak (% 35,7). Alemaniaren bilakaera txikiagoa izan da (% 1,3), baina, hala ere, munduko rankingaren buruan dago, Italia eta Japoniarekin batera; izan ere, hiruren artean inportazioen bolumenaren % 50 inguru biltzen dute.

Kapitulua amaitzeko, eta AFM erakundeak argitaratutako informazioa aintzat hartuta, 2017rako aurreikuspenak nahiko baikorrak dira, fakturazioa % 5 inguru haztea espero baita. Baikortasun horren oinarrian, deformazio-azpisektorearen eskarien kopuru handiak daude, automobilgintzaren inbertsio-bolumen handiak eraginda. Alde horretatik, hazkunde hori gauzatzeko lagunduko lukeen beste aldagai bat Renove Plana Estatu osoan abian jartzea izango litzateke, eta ez Euskadin soilik; izan ere, neurri horrek asko lagunduko luke beherakada izan duen barneko merkatua berreskuratzen.

7. ESKU-ERREMINTA

Eskuin (Burdindegia eta industria-hornikuntzaren klusterra) 2016ko maiatzean AFMn (Fabrikazio Aurreratuaren Klusterra) sartu zen; kluster horretan 320 industria-enpresa daude. Lankidetzeta horri esker, Eskuineko 23 enpresek abantaila asko dituzte; besteak beste, sektorearen erronka nagusiei aurre egiteko hobeto kokatuta egotea. Erronka horietako bat produktu nazionala kalitatezko produktu gisa kokatzeko beharra da, inportatutako produktu merkeago eta kalitate txarragoko beste batzuei aurre egitearren; beste erronka batzuek digitalizazioarekin, produkzio-prozesuak hobetzearekin, produktuen berrikuntzarekin, sektore-marketingarekin eta abarrekin dute zerikusia.

Sektoreko magnitude nagusien bilakaeran sakonduz gero, lehen hurbilketa batek datuen jokaeraren bilakaera oso positiboak erakusten ditu, enpleguaren atalean izan ezik, azken arlo horretan zifrek behera egin baitute zertxobait. Zehazki, produkzioa 338,4 milioi eurokoa izan da, eta horrek % 6ko igoera dakar aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero; igoera horretan, bai barne-salmenten (168.734 mila euro), bai esportazioen (169.627 mila euro) ekarpena antzekoa da.

88. taula Sektoreko magnitude nagusien bilakaera

<i>(m euro)</i>			
Kontzeptua	2015	2016	% 16/15
Ekoizpena	319.295	338.361	6,0
Barne-salmentak	157.648	168.734	7,0
-Industria	79.289	85.564	7,9
-Eraikuntza	65.190	70.453	8,1
-Nekazaritza	13.170	12.717	-3,4
Esportazioak	161.647	169.627	4,9
Enplegua (pertsona kop.)	1.953	1.900	-2,7

Iturria: Eskuin -Burdindegia eta industria-hornikuntzaren klusterra-.

Azterketa hasteko, etxeko edo barneko merkatuari begiratuko zaio. 2016ko ekitaldian, esku-erreminten barne-salmentak nabarmen hazi dira: % 7ko gorakada ikusten da urte arteko aldakuntzan. Ildo horretatik, fabrikatzaile nazionalen salmenten xede diren hiru sektoreetan krisiaren ondorioak izugarri antzeman direla azpimarratzea garrantzitsua da, eta horrek, normala denez, gutxitu egin ditu sektoreko emaitzak urte batzuetan. 2016ko egoera, ordea, bestelakoa da; oraindik goizegi da behin betiko errekupeazio ekonomikoaz hitz egiteko, baina errekupeazio-aztarnak ikusten dira ekonomian eta industria-jardueran, eta horrek erreminta-erosketak bultzatu ditu. Horrenbestez, industriara eta eraikuntzara bideratutako salmentak aurreko urtekoak baino dezente handiagoak izan dira (% 8, gutxi gorabehera), eta, gainera, bi segmentu horietan izan dira

sartze-tasa handienak (% 50,7 eta % 41,8). Nekazaritza-sektorearen parte-hartzea, aldiz, askoz txikiagoa izan da (% 7,5), eta 2015ean baino merkataritza-jarduera eskasagoa izan du (-% 3,4).

Gainera, kanpo-merkataritza –gero eta garrantzi handiagoa du– gehitu zaie etxeko salmenten emaitza onei; horrek ekitaldiari oso ona izaten lagundu dio, sektorearen joera esportatzailea dela eta. 2016an, esportazioen bilakaeraren dinamismoa barne-salmentena baino txikiagoa izan da (% 4,9 eta % 7, hurrenez hurren), baina argi utzi behar da esportazioek azken urteetan hazkunde-ibilbide jarraituari eustea lortu dutela; eta, beraz, produktu nazionalak kanpoko merkatuetan harrera ona duela agerikoa da, besteak beste kalitate ona duelako eta legedi guztia zorrotz betetzen duelako. Horrela, azken hamarkada hauetan, esportazioen garrantzia barne-merkatuaren garrantziarekin berdintzen joan da, eta, 2016an, esku-erremintaren produkzioaren erdia atzerriko merkatuetarako izan da.

89. taula **Esportazioen banaketa, eremu geografikoen arabera**

Eremua	2015	2016
Europar Batasuna	65,5	68,2
Amerika	13,7	11,8
Ekialde Hurbila	9,0	8,5
Afrika	3,7	3,4
Asia eta Ozeania	4,1	3,8
Errusia eta Ekialdeko Europa	3,2	3,6
Gainerakoak	0,8	0,7
Guztira	100,0	100,0

(%)

Iturria: Eskuin —Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterra—.

Eremu geografikoei erreparatuz gero, EBk hartzen ditu esportazio gehienak (guztizkoaren % 68,2), eta 2,7 ehuneko hazi dira 2015etik. Europako esparruan, erreminta-industriak honako herrialde hauekin duen merkataritza-jarduera azpimarratzekoa da: Frantzia (11,1 milioi euro), Portugal (10,8 milioi euro) eta Suedia (7,5 milioi euro). Hiru herrialde horiek Europarekin egiten diren merkataritza-fluxuen % 22,2, % 21,5 eta % 15 hartzen dituzte, hurrenez hurren; fluxu horiek, guztira, 50,2 milioi eurokoak dira. Mugimendu oso handiei dagokienez, Polonia nabarmentzen da. Izan ere, era esponentzian ugaritu ditu fabrikatzaile nazionalen egindako erosketak: Poloniaren inportazio-bolumenak 800 mila eurokoak izan ziren 2015ean, eta 3,8 milioi izatera igaro dira 2016an.

Europako mugetatik kanpo merkataritza-jardueraren % 31,8 sortzen da (hau da, 41,4 milioi euro), enpresek merkatuen dibertsifikazioan egindako etengabeko ahaleginei esker. Amerika da, beraz, esportazio nazionalen bigarren helmuga (% 11,8); Ekialde

Hurbila, hirugarrena (% 8,5), eta antzeko garrantziarekin (% 3,5 gutxi gorabehera) Afrikak, Asia-Ozeaniak, Errusiak eta Ekialdeko Errusiak jarraitzen diete aurrekoei. EBtik kanpoko merkatu nagusiak, garrantziaren arabera ordenatuta, hauek dira: AEB eta Kuba (8,2 milioi euro eta 6,8 milioi euro, hurrenez hurren), eta Peru eta Maroko (2 milioi inguru biak). Azken bi horietan, igoera nabarmena izan da (% 177,7 eta % 37,1). Halaber, leku nabarmena dute Mexikok (1,9 milioi euro) eta Turkiak (1,5 milioi euro). Testuinguru horretan, eta aipatutako bi hazkunde handiez gain, zenbait herrialdetara egindako salmentak ere dezente hazi dira, hala nola Argentinara, Dominikar Errepublikara eta Aljeriara egindakoak.

90. taula Inportazioaren banaketa, eremu geografikoen arabera

Eremua	2015	2016
EB	57,3	53,6
EBtik kanpora	42,7	46,4
Guztira	100	100

(%)

Iturria: Eskuin –Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterra–.

Inportazioen jokaera aztertuz, Europar Batasunari dagozkion inportazioak zertxobait gutxitu dira (-% 1,3), 2015eko inportazioekin alderatuz gero: 2016an 65,8 milioi izan dira, eta hori inportatutako guztizko balioaren % 53,6 da. Europako inportatzaileen mapan Alemania da garrantzitsuen: bere inportazio-bolumena 26 milioi eurotik gorakoa da, eta % 40,2ko kuota du. Frantzia bigarren lekuan finkatu da (14,4 milioi eta % 21,9ko parte-hartzea), Italiaren aurretik (8,5 milioi euro eta % 13ko partaidetza). Jokaeran izandako bilakaerari dagokionez, Suedia (2,8 milioi euro eta % 86,2ko hazkundera) eta Belgika (2,2 milioi euro eta % 18ko hazkundera) nabarmentzen dira beren dinamismoagatik; gainera, inportatzaileen sailkapenean leku garrantzitsuak dituzte (bosgarren eta zazpigarren lekua, hurrenez hurren).

EBtik kanpoko inportazioei dagokienez, inportazio nazionalaren jatorrizko merkatu nagusia Txinak izaten jarraitzen du, eta 33 milioi euroko muga gainditu du. AEBk (10,5 milioi euro) 2015eko bere balioak (3,6 milioi euro) hirukoiztu ditu, eta bigarren postuan finkatu da; podioa Taiwanek osatzen du (ia 7 milioi euro). EBtik kanpoko inportazioen esparruan, AEBri buruz goian aipatutakoaz gain, Norvegiatik, Brasiletik eta Hego Afrikatik datozen partidak hazi dira gehien. 2016an, 57 milioi izan dira guztira Europakoak ez diren herrialdeetako inportazioak.

Atal hau amaitzeko, sektorearen adierazgarri diren enpresa garrantzitsuenetako biren datu interesgarri batzuk aipatuko dira jarraian. IZAR Cutting Tools enpresarekin hasita,

ebaketa-erreminten fabrikazioan liderra da enpresa hori, eta, argitaratu dituen datuen arabera, 2016ko fakturazioa 26 milioitik gorakoa izan da (bigarren urtez jarraian % 10etik gorako hazkundera). Hazkunde horren oinarrian, batetik, merkatu nazionalan izandako jokaera bikaina dago (IZAR bere segmentuko lider gisa finkatu da), eta, bestetik, kanpoko merkatuetan izandakoa, ibilbide luzea baitu esparru horretan (80 herrialdetan baino gehiagotan dago). Enpresaren salmenten helmuga-merkatu nagusiak Frantzia, Alemania eta AEB dira, baina gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dira beste herrialde batzuk, hala nola Txina, Errusia eta Afrikako iparraldeko beste zenbait herrialde. Etorkizun hurbilari begira, IZARek 1,5 milioi euro inbertitzea aurreikusten du, eta 4.0 industria-fabrikazio aurreratua garatzearen aldeko apustu sendoa egin du (errealitate birtualeko erremintak eta *big data* sartzea), bere produkzio-prozesuak optimizatze aldera.

Beste alde batetik, EGA Master goi-mailako kalitateko esku-erreminten Arabako multinazionala da, ehun pertsona baino gehiagoko plantilla duena. Orain dela gutxi, beste sari bat eman diote enpresa horri; oraingo honetan, Quality Innovation Award Euskalit izenekoa, produktuen garapen berritzaileagatik. Azaldu den bezala, sari hori enpresak jasotako beste askori gehitu zaio: esaterako, kudeaketagatik, nazioartera zabaltzeagatik, ibilbideagatik, integrazioagatik edo euskara sustatu eta garatzeagatik jasotako sariak. EGA Masterrek 1990ean ekin zion bere ibilbideari, eta gaur egun erreferentzia da mundu osoan, kontuan izan behar baita enpresak bere fakturazioaren % 90 baino gehiago 150 herrialdetara baino gehiagotara esportatzen duela. EGA Masterren beste ezaugarri bat berrikuntzarako duen ahalmen handia da: 200 produktu baino gehiago ditu patentatuta, eta enpresaren baliabideen ia % 6 I+G+Bko proiektuetarako erabiltzen dira. Horren erakusgarri da EGA Masterrek egin berri duen bi milioi euroko inbertsioa. Enpresaren iturrien arabera, inbertsio horren helburua *"prozesuak eta ahalmen logistikoa hobetzea da, proposatutako hazkundera aurre egiteko; hazkunde horiek berrikuntzan beste jauzi bat egitea bilatzen dute (...) teknologia berriak eskaintzen dizkiguten aukerak ikertzen ari gara jadanik, hala nola manufaktura gehigarria eta nanoteknologia"*.

Etorkizuneko itxaropenei dagokienez, sektoreak baikortasunez hasi du 2017. urtea, eta, txikia izanda ere, sektoreko magnitude nagusietan hazkundera aurreikusten da. Dirudienez, adierazle guztiek ekonomiaren eta industria-produkzioaren hazkunde jarraitua adierazten dute, eta enpresak aurreikuspen onak egiten ari dira (eskabide-zorroa mantentzea edo haztea), baina 2017. urteak nolabaiteko zalantzak ere sortzen ditu; hori dela eta, aurreikuspenak baikorrak dira, baina zuhurrak ere bai.

8. PAPERA

8.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkartearen (ASPAPPEL) informazioaren arabera –Confederation of European Paper Industries-en (CEPI) datuetatik abiatuta–, 2016an eremu horretan paperaren eta kartoiaren ekoizpena 90.895 mila tonakoa izan da, eta bolumen hori dela eta, aurreko ekitaldiarekiko aldakuntza nulua da. Hala, 2011n hasitako beheranzko joera amaitu da.

91. taula Paperaren eta kartoiaren produkzioa (CEPIko kideak)

Urtea	m Tm	% Δ
2011	93.557	-3,2
2012	92.081	-1,6
2013	91.128	-1,0
2014	90.949	-0,2
2015	90.872	-0,1
2016 (*)	90.895	0,0

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Paperaren ekoizpenaren eskualde-banaketa aintzat hartuta, eta, kasu honetan, informazioa 2015eko ekitaldiari buruzkoa dela kontuan hartuta, CEPI osatzen duten herrialdeen multzoari paperaren munduko ekoizpenaren % 22,3 dagokio; kuota hori askoz txikiagoa da Asiarena baino (% 46,1; Asia munduko ekoizlerik handiena da), baina zertxobait handiagoa Ipar Amerikarena baino (munduko ekoizpen guztiaren % 20,4).

2016ko ekitaldiko datuei berriz erreparatuz gero, CEPIren esparruan, paperaren esportazioek zertxobait behera egin dutela ikusten da (-% 0,3), eta kontsumoak eta, batik bat, inportazioek gora egin dutela (% 0,3 eta % 4,5, hurrenez hurren). Esportazioei dagokienez, 19.138 mila tona esportatu dira: Latinoamerikarako esportazioek behera egin dute (-% 12,6), bai eta, neurri txikiagoan, Europako eta munduko gainerako herrialdeetarakoek ere (-%0,2 eta -%0,1, hurrenez hurren). Ipar Amerikarako esportazioek, berriz, gora egin dute (% 8,8), bai eta, neurri txikiagoan, Asiarako esportazioek ere (% 0,1). Kontsumoari dagokionez, 77.400 mila tonakoa izan da, eta inportazioak, berriz, 5.607 mila tonakoak, eta jatorri guztietatik ekarritakoek gora egin dute; munduko gainerako herrialdeen multzotik eta Latinoamerikatik etorritakoek salbu (-% 8,7 eta -% 4,7, hurrenez hurren).

Horrela, bada, paperaren arloan, CEPI osatzen duten herrialdeetako merkataritza-balantzak saldo positiboa izan du, 13.531 mila tonakoa, -% 2,1 gutxiago aurreko ekitaldian baino (2015ean, 13.827 mila tonako superabita izan zen).

92. taula Paperaren eta kartoiaren produkzioa, herrialdeka

Herrialdea	<i>(m tona)</i>	
	2015*	Gutzizkoaren %
Alemania	22.608	5,5
Austria	4.965	1,2
Belgika	2.123	0,5
Bulgaria	257	0,1
Danimarka	64	0,0
Espainia	6.195	1,5
Finlandia	10.319	2,5
Frantzia	7.984	2,0
Grezia	280	0,1
Hungaria	739	0,2
Italia	9.015	2,2
Herbehereak	2.643	0,6
Polonia	4.367	1,1
Portugal	2.228	0,5
Erresuma Batua	3.969	1,0
Txekiar Errepublika	740	0,2
Eslovakia	763	0,2
Suedia	10.163	2,5
Norvegia	981	0,2
Suitza	1.280	0,3
Brasil	10.357	2,5
Kanada	10.321	2,5
Txina	109.193	26,8
Ameriketako Estatu Batuak	72.671	17,8
India	11.236	2,8
Japonia	26.227	6,4
Errusia	8.051	2,0
Munduko guztikoa**	407.991	100,0

(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2015. urterako informazioa baino ez dago.

(**): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak.

Orearen ekoizpenari dagokionez, CEPIko herrialdeen eremu osoan, 37.232 mila tona ekoitzi dira 2016an, eta urtetik urtera % 2,7ko igoera egon da. Eskualde geografikoaren arabera azterketa eginez gero, informazioa 2015eko ekitaldikoa dela kontuan hartuta, CEPIko kideek munduko ore-ekoizpenaren % 20,3 egiten dute, Ipar Amerikak eta Asiak baino gutxiago (munduko guztizko ekoizpenaren % 36 eta % 22,2, hurrenez hurren).

93. taula Ore-produkzioa, herrialdeen arabera

(m tona)

Herrialdea	2015*	Gutzizkoaren %
Alemania	2.555	1,4
Austria	1.361	0,8
Belgika	492	0,3
Bulgaria	198	0,1
Danimarka	0	0,0
Espainia	1.641	0,9
Finlandia	10.301	5,8
Frantzia	1.606	0,9
Grezia	0	0,0
Hungaria	0	0,0
Italia	386	0,2
Herbehereak	94	0,1
Polonia	1.048	0,6
Portugal	2.565	1,4
Erresuma Batua	205	0,1
Txekiar Errepublika	431	0,2
Eslovakia	635	0,4
Suedia	11.197	6,3
Norvegia	751	0,4
Suitza	133	0,1
Brasil	17.370	9,7
Kanada	16.552	9,3
Txina	9.934	5,6
Ameriketako Estatu Batuak	47.760	26,7
India	1.797	1,0
Japonia	8.679	4,9
Errusia	7.542	4,2
Munduko guztikoa**	178.601	100,0

():* Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2015. urterako informazioa baino ez dago.

*(**):* Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak.

8.2 SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPEn arabera, 2016an, 6.218,6 mila tona paper eta kartoi ekoitzi dira Estatuan, eta urtetik urterako % 0,4ko hazkunde txikia izan da, CEPIko herrialdeen eremuko emaitzen parean, nolabait, ez baitute igoyerarik izatea lortu.


Halaber, paperaren inportazioek (3.256 mila tona), esportazioek (2.830,1 mila tona) eta ageriko kontsumoak (6.644,5 mila tona) gora egin dute (% 1,5, % 1,2 eta % 0,6, hurrenez hurren). Gauzak horrela, Espainiako paperaren sektorearen merkataritza-balantzaren saldo negatiboa handitu egin da, eta -425,9 mila tonara iritsi da (2015ean, -412,1 mila tonakoa izan zen).

94. taula Paperaren eta kartoiaren produkzioa eta kontsumoa. Espainiako guztizkoa

Urtea	Produkzioa	Inportazioa	Esportazioa	Ageriko kontsumoa
2007	6.713,3	3.763,3	2.769,6	7.707,1
2008	6.414,3	3.815,9	2.964,6	7.265,6
2009	5.679,2	3.323,2	2.809,8	6.192,4
2010	6.193,4	3.316,9	3.062,4	6.447,9
2011	6.202,6	3.180,4	2.955,3	6.427,7
2012	6.176,7	2.938,2	2.957,0	6.157,9
2013	6.181,5	2.950,8	3.047,4	6.084,9
2014	6.035,7	3.136,7	2.915,1	6.257,4
2015	6.195,2	3.208,3	2.796,2	6.607,3
2016	6.218,6	3.256,0	2.830,1	6.644,5

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

14. grafikoa Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian



Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

2016an ere, aurreko ekitaldietan bezala, EB da Estatuaren merkataritza-bazkide nagusia, eremu horrekin egiten baitira inportazioen % 88,2 eta esportazioen % 61,2. Zehazki, Frantziari eta Finlandiari egiten zaizkio kanpo-erosketen % 18 eta % 17,5, hurrenez hurren, eta Portugalera eta Frantziara egiten dira kanporako salmenten % 20,7 eta % 18,8, hurrenez hurren.

Paper-motei dagokienez, beste paper batzuen zein beste ontzi eta enbalaje batzuen ekoizpenak gora egin dute aurreko ekitaldiaren aldean (% 11,6 eta % 5,7, hurrenez

hurren), eta kartoi iztukatuarenak, paper higieniko eta sanitarioenak, prentsarako eta inprimaketarako paperarenak, eta uhin-kartoiarenak, berriz, behera egin dute (-% 2,8, -% 2,4, -% 0,7 eta -% 0,6, hurrenez hurren).

95. taula **Produkzioa eta kontsumoa, paper-motaren arabera**

(m Tm)

Mota	Produkzioa		Inportazioa		Esportazioa		Ageriko kontsumoa	
	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15
Prentsa eta inpresioa eta idazketa	1.377,1	-0,7	1.219,7	-4,8	1.215,3	2,2	1.831,5	-6,6
Higienikoak eta sanitarioak	723,3	-2,4	153,5	13,6	168,8	-10,9	708,1	3,1
Uhin-kartoirako	2.879,7	-0,6	958,0	-0,4	874,0	-0,9	2.963,8	-0,5
– Uhinetakako	1.333,5	7,2	344,7	4,1	358,5	4,7	1.319,7	7,1
– Test Liner eta Kraft Liner	1.121,3	-8,2	585,3	-0,3	445,5	-5,4	1.261,2	-5,7
– Bikoak eta larruak	424,9	-1,6	28,0	-36,1	70,0	2,2	382,9	-6,0
Kartoi iztukatua	266,8	-2,8	526,2	4,5	130,5	-0,9	662,5	2,5
Beste ontzi eta enbalaje batzuk	493,3	5,7	296,6	9,4	343,6	7,8	446,3	6,5
Beste paper batzuk	478,3	11,6	102,0	84,0	97,9	14,1	482,4	21,1
Papera eta kartoa, guztira	6.218,6	0,4	3.256,0	1,5	2.830,1	1,2	6.644,5	0,6

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Paper-orearen azpisektorea aztertuz gero, 2016an ekoizpena % 2,2 handitu dela ikusten da (1.676,5 mila tonara iritsi da). Esportazioek (928,5 mila tona) eta inportazioek (1.165,8 mila tona) ere gora egin dute (% 9,2ko eta % 0,6ko gorakada, hurrenez hurren). Ageriko kontsumoak (1.913,8 mila tona), berriz, behera egin du (-% 1,8).

Dinamika hori dela eta, 2016an, Estatuko paper-orearen merkataritza-balantzaren saldo defizitarioa geldotu egin da, -237,3 mila tonara jaitsi baita (2015ean ere saldo negatiboa izan zen, -308,4 mila tonakoa), estaldura-tasa % 79,6 izanik (aurreko ekitaldian, % 73,4).

Ore-motari dagokionez, ore mekaniko eta kimikoa da nagusi ekoizpenean (guztizkoaren % 98,6), bai eta esportazio/inportazioetan eta ageriko kontsumoan ere. Magnitude guztiek gorakada izan dute, ageriko kontsumoak (1.861,5 mila tona) izan ezik, -% 1,5 jaitsi baita. Hain zuzen, ekoizpenak (1.652,9 mila tona) % 2,3ko gorakada izan du; esportazioek (910,9 mila tona), % 9,4koa; eta inportazioek (1.119,5 mila tona), berriz, % 1,2koa.

Berreskuratutako paperari dagokionez, 2016an, haren ageriko kontsumoa 5.195,9 mila tonakoa izan da, urtetik urterako hazkunde txikia izanik (% 0,3).

96. taula **Produkzioa eta kontsumoa ore-motaren arabera**

(m Tm)

Mota	Produkzioa		Inportazioa		Esportazioa		Ageriko kontsumoa	
	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15
Ore mekanikoa eta kimikoa	1.652,9	2,3	1.119,5	1,2	910,9	9,4	1.861,5	-1,5
Erdikimikoa eta beste batzuk	23,6	-4,8	46,4	-12,2	17,6	2,1	52,4	-13,3
Ore birjinak, guztira	1.676,5	2,2	1.165,8	0,6	928,5	9,2	1.913,8	-1,8
Paper zaharra (ageriko bilketa)	4.710,3	3,1	1.638,3	0,7	1.152,8	13,7	5.195,9	0,3

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Txosten honen aurreko edizioetan egindako lanarekin bat, jarraian, berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko da, adierazle hauek kontuan hartuta: ageriko bilketaren tasa (hau da, paper zaharraren ekoizpena / paperaren eta kartoiaren kontsumoa), 2016an, % 70,9 izan zen, eta 2015ean, berriz, % 69,1koa; erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa / paperaren eta kartoiaren ekoizpena), % 83,6koa izan zen 2015ean eta 2016an; eta birziklatze-tasa (paper zaharraren kontsumoa / paperaren eta kartoiaren kontsumoa), % 78,2koa izan zen 2016an, eta % 78,4koa, berriz, aurreko ekitaldian.

Estatuko datuak CEPIko herrialdeen datuekin alderatuz gero, Espainiako paper-sektoreak ekoizpenaren arloan antzeko portaera izan duela ikusten da (hazkunde txikia, % 0,4koa; CEPIren eremuan, berriz, ez da aldakuntzarik izan); esportazioetan portaera zertxobait hobea izan du (% 1,2ko gorakada Estatuan eta -% 0,3ko beherakada CEPIren eremuan), eta inportazioetan, berriz, hazkunde txikiagoa izan da (Estatuan % 1,5 eta CEPIren eremuan % 4,5).

8.3 SEKTOREA EAEn

EAEko paper-sektoreak Estatuakoak baino dinamismo handiagoa izan du 2016an: % 3,4ko hazkundera izan du, eta paperaren eta kartoiaren ekoizpena 1.458,1 mila tonakoa izan da. Horrela, Estatuan, oro har, hazkundera txikiagoa izan denez, euskal paper-sektoreak kuota handiagoa eskuratu du Espainiako ekoizpen osoan (guztizkoaren % 23,4koa izan da 2016an; 2015ean, berriz, % 22,8koa izan zen).

97. taula **Paperaren eta orearen produkzioa EAEn**

(m Tm)

Kontzeptua	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Papera eta kartoia, guztira	1.403,5	1.409,5	1.458,1	3,4
Orea, guztira	497,0	494,6	487,0	-1,5

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Oreari dagokionez, EAEn, Estatuan eta CEPIren eremuan ez bezala (bi eremu horietan ekoizpenak gora egin du), ekoizpenak (487 mila tona) -% 1,5eko beherakada izan du 2016an; beraz, EAEn herrialdeko ekoizpenean dagokion kuotak ere zertxobait behera egin du, % 30,1etik (2015) % 29ra (2016).

Kanpo-merkataritzari dagokionez, eta kasu zehatz honetan analisirako diru-kopuruak erabiltzen direla kontuan hartuta, 2016an, EAEnko paperaren eta orearen esportazioek gora egin dute (% 2,5), eta inportazioek, berriz, behera (-% 0,4) Alde horretatik, sektorearen kanpo-salmentak 831.287 mila eurokoak izan dira, eta atzerriko erosketak, berriz, 490.742 mila eurokoak. Hori dela eta, merkataritzaz superabita 340.545 mila eurora iritsi da (2015ean, 318.206 mila eurokoa zen).

98. taula Paperaren sektoreko enpresa nagusiak EAEn

Enpresak	Kokapena	Produktzioa
Sarriopapel y Celulosa, S.A.	Leitza, Uranga	Inpresiorako eta idazketarako papera eta ore
Indarkia S.L.- Ezten FCR.	Aranguren, Artziniega	Tisu papera
Papresa	Errenteria	Prensa-papera
Smurfit Kappa Nervión	Iurreta	Orea, kraft papera
Smurfit Kappa Navarra	Zangoza, Cordovilla	Orea, Kraft papera, uhin-kartoia eta zakuak
Sca Hygiene Spain	Allo	Tisu papera
Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga (Iberpapel)	Hernani	Orea eta inpresio eta idazketarako papera
Munksjö Paper DECOR, S.A.	Tolosa	Ijezketarako oinarri-papera
Papelera del Oria	Zizurkil	Inpresio eta idazketarako papera
Papelera del Ebro	Viana	Papera eta uhin-kartoia
Bertako	Uharte	Papera eta uhin-kartoia
Newark San Andrés, S.L.	Atarrabia	Uhin-kartoia
Papelera de Amaroz	Legorreta	Inpresio eta idazketarako papera

Iturria: Ekoizpenaren Sustapena. "Las 2.500 mayores empresas españolas", eta enpresen memoriak.

Sektoreko magnitude nagusiak aztertu ondoren, jarraian sektoreak EAEn duen enpresa-panoramaren bilakaerari buruzko ohar laburra egingo da, txosten hau egitean eskuragarri izan den informazioa kontuan hartuta.

Lehenik eta behin, Papresa enpresa aztertuko da, Grupo Industrial Alfonso Gallardo taldeko enpresa. Errenterian dago kokatuta eta prentsa-paperearen fabrikatzaile nagusia da Estatuan: 2016an, 135,2 milioi euroko salmentak izan ditu, aurreko ekitaldian baino % 10 gehiago. Hori dela eta, paper-fabrika horrek 6,3 milioi euroko mozkinak lortu du (zergen aurretik); aurreko ekitaldian, berriz, -1,5 milioi euroko galerak izan zituen (zergen aurretik).

Smurfit Kappa Nervión enpresari dagokionez (Iurretan dago), ez dago 2016ko daturik, eta Kraft paperaren eta orearen azpisektoreetan jarduten duela gogoratu behar da eta 118 milioi euroko salmentak izan zituela 2015ean (urtetik urterako -% 2,6ko beherakada

izanik), eta 4 milioi euroko mozkina lortu zuela (zergen aurretik), aurreko ekitaldian lortutakoa baino askoz txikiagoa (2014an, 13,2 milioi euroko mozkina lortu zuen, zergen aurretik).

Smurfit Kappa Navarrari dagokionez, honako hauek fabrikatzen ditu: orea, paper bihurtzeko Kraft Liner, Test Liner, zakuetarako Kraft eta enbalajerako Kraft, eta uhin-kartoa, enbalajeetarako kutzak egiteko. Geroagoko informaziorik lortu ez denez, 2015ean Cordovillako fabrikak 35 milioi euro inguruko fakturazioa izan zuela gogoratuko da; hau da, aurreko ekitaldian baino % 7 gehiago.

Inpresioaren eta idazketaren azpisektorea dela eta, Sarriopapel y Celulosa S.A. enpresa nabarmendu behar da (Leitzan dago), bai eta Gipuzkoako paper-fabriken multzoa ere (Zikuñaga, Munksjö Paper DECOR, S.A. eta Papelera del Oria, besteak beste), horiek kuota garrantzitsua baitute azpisektoreko Estatuko ekoizpenean. Sarriopapel y Celulosa, S.A. enpresari dagokionez, Lecta taldekoa da, eta zehazki, Torraspapel, S.A. enpresakoa. Enpresa horrek 766 milioi euroko salmentak izan ditu 2016an, aurreko ekitaldian baino -% 2,5 gutxiago. Hori horrela, Torraspapel, S.A. enpresak, bere galerak, -4,8 milioira arte jaistera lortu du, 2015ean -11,3 milioi euroko galerak izan eta gero.

Azkenik, etxeko paperen eta paper higienikoen azpisektoreari dagokionez, Suediako SCA multinazionalak Allon (Nafarroa) duen lantegiak lanbide-heziketa dualeko programa bat martxan jarri duela 2016an azpimarratu behar da, Lizarrako politeknikoarekin batera, espezializaziora bideratua, talentu gazteak erakarri eta trebatzeko. Hala, *Young Talent* programaren bidez, proiektuak Lanbide Heziketako zein unibertsitate-graduetako ikasleak espezializatzeko helburua du, enpresaren benetako premien arabera.

9. KAUTXUA

9.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Munduan hazkunde ekonomiko neurritsua izan den arren, kautxuaren kontsumoa % 2,8 handitu da 2016. urtean, harik eta 27.536 mila tonatara iritsi arte, International Rubber Study Group taldeak eman duen informazioaren arabera. Kautxuaren produkzioak, ordea, ez du horrelako bizkortasunik erakutsi (% 1,7 hazi da), eta 27.223 mila tonako emaitza izan du; hori horrela, kautxuaren stockak, munduan, -312 mila tonako saldo negatiboa ageri du (-13 mila tonako defizita izan zen aurreko urtean).

Kautxu motari begiratuta, ekoiztako kantitateak baino handiagoak izan dira kautxu naturalaren eta kautxu sintetikoaren kontsumoak, eta ondorioz, stock negatiboa osatu da bi kasuetan: -198 eta -114 mila tona, hurrenez hurren.

99. taula Kautxu naturalaren eta sintetikoaren kontsumoa munduan

(m Tm)

Eremua	Kautxu naturala			Kautxu sintetikoa			Guztira		
	2015	2016	% Δ 16/15	2015	2016	% Δ 16/15	2015	2016	% Δ 16/15
Asia/Pazifikoa	8.835	9.226	4,4	7.939	8.226	3,6	16.774	17.452	4,0
EMEA*	1.597	1.665	4,3	3.633	3.684	1,4	5.230	5.349	2,3
Amerika	1.709	1.709	0,0	3.072	3.026	-1,5	4.781	4.735	-1,0
Guztira	12.140	12.600	3,8	14.644	14.936	2,0	26.784	27.536	2,8

(*):EMEA: Europa, Ekialde Ertaina eta Afrika.

Iturria: International Rubber Study Group.

Eremu geografikoei begiratuta, kautxuaren kontsumoak gora egin du Asia/Pazifikoan (% 4), eta Europa, Ekialde Ertain eta Afrikan (% 2,3), baina behera egin du Amerikan (-% 1). Eremu horietan gauzatzen da munduko kautxu-kontsumoaren % 63,4, % 19,4 eta % 17,2, hurrenez hurren.

9.2 KAUTXUA TRANSFORMATZEKO SEKTOREA ESPAINIAN¹ ETA EAE-N

Nazioartean gertatu denaren ildo beretik, kautxuzko produktu eraldatuen ekoizpenak gora egin du 2016an Espainian, eta handitu egin da, era berean, haren ageriko kontsumoa.

¹ Sektoreak egiten duen lanaren zati handi bat, eta bereziki pneumatikoen azpisektorekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten da, beraz, analisia EAEko egoeraren adierazgarria da (Euskal Autonomia Erkidegoan pneumatikoen alorretik kanpoko enpresa eraldatzaileen % 15 daude, eta horrez gainera, Michelin enpresak lantegiak ditu Gipuzkoan eta Araban, eta Bridgestone-Firestone enpresak lantegi bat du Bizkaian).

Zehazki, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalak emandako informazioak produkzioa, 2016an eta estatuan, 814.712 tonakoa izan dela adierazten du; hau da, ekoizpen-bolumenaren igoera % 2,5koa izan da. Kontsumo agerikoa, berriz, 694.319 tonakoa izan da, 2015ekoa baino % 2,4 handiagoa.

Bestalde, sektorearen fakturazioak -% 0,7 egin du behera, 4.811,4 milioi eurokoa izan baita 2016an. Horren arrazoia pneumatikoen eta birkautxutatzearen azpisektorean salmentek behera egin dutela da (-2,7%); aitzitik, gora egin dute pieza teknikoaren salmentek (% 4,2).

Produktzioa % 2,5 handitu da sektorean eta enplegua, berriz, % 0,4. Hori horrela, produktibitatea % 2 handitu da, harik eta 37,3 tonatara iritsi arte langile bakoitzeko, 2016an.

Hori horrela, automobilgintzako sektoreak kautxuaren industria eraldatzailean izan duen garrantzi handia kontuan hartuta, kapitulu honen amaieran (pneumatikoen eta birkautxutuaren azpisektoreari eskainitako epigrafearen esparruan), haren analisi berezia eta laburra egin dela azpimarratu behar da, aurreko txostenetan egin den bezala.

100. taula Kautxua eraldatzeko sektorearen oinarrizko datuak⁽¹⁾ Espainian

Kontzeptua	2015	2016	% Δ 16/15
1. Ekoizpena	795.142	814.712	2,5
2. Kontsumo agerikoa	678.241	694.319	2,4
3. Esportazioa	737.269	754.024	2,3
4. Inportazioa	620.368	633.631	2,1
5. Saldo komertziala	116.901	120.393	3,0
6. Esportazioaren batez besteko prezioa ⁽²⁾	3,99	3,83	-4,0
7. Inportazioaren batez besteko prezioa ⁽²⁾	4,17	4,05	-3,1
8. Esportazioa/Ekoizpena (%)	92,7	92,6	-0,2
9. Inportazioa/Kontsumo agerikoa (%)	91,5	91,3	-0,2
10. Enplegua	21.760	21.850	0,4
11. Produktibitatea (1/10) ⁽³⁾	36,5	37,3	2,0

(1): Honako hauek barne: CNAE 22.11 (pneumatikoak eta birkautxutua) eta CNAE 22.19 (kautxuaren beste produktu batzuk: kautxuzko eta latexko pieza teknikoak).

(2): Euro/kg.

(3): Tm/Emplegatu/urte.

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Kanpo-merkataritzari begiratuta, eta, zehazki, bolumenari, 2016an gora egin dute kautxu eraldatuaren kanpo-salmentek eta -erosketek. Alde horretatik, esportazioak % 2,3 handitu dira, 754.024 tonatara iritsi arte, eta inportazioak, berriz, % 2,1 handitu dira,

633.631 tonatara iritsi arte. Hori horrela, superabit komertziala, bolumenari begiratura, % 3 igo da, harik eta 120.393 tonatara iritsi arte.

101. taula Kautxu eraldatuaren kanpo-merkataritzako datuak, azpisektoreka

(Tm)

Produktua	Esportazioak			Inportazioak			Saldoa		
	2015	2016	% Δ 16/15	2015	2016	% Δ 16/15	2015	2016	% Δ 16/15
Pneumatikoak eta birkautxutuak	591.549	602.610	1,9	446.352	453.226	1,5	145.197	149.384	2,9
Pieza teknikoak	145.720	151.414	3,9	174.016	180.405	3,7	-28.296	-28.991	2,5
Guztira	737.269	754.024	2,3	620.368	633.631	2,1	116.901	120.393	3,0

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Hala ere, diru-zenbatekoei begiratura, esportazioek eta inportazioek behera egin dute 2016an (-% 1,9 eta -% 1, hurrenez hurren), eta superabit komertzialak -% 8,1 egin du behera.

Azpisektoreak eta horiek hartutako bolumena kontuan hartuta, zenbaki hobeak izan ditu pieza teknikoaren azpisektoreak, pneumatikoen eta birkautxutuen sektoreak baino, bai kanpo-salmenten ikuspegitik, bai kanpo-erosketen aldetik: % 3,9ko eta % 3,7ko igoerak batetik, eta % 1,9koa eta % 1,5koa, bestetik.

Edonola ere, diru-zenbatekoei begiratura, gora egin dute pieza teknikoaren esportazioek eta inportazioek (% 2,8 eta % 1,5, hurrenez hurren), eta behera pneumatikoen eta birkautxutuen azpisektorekoek (-% 4,1 eta -% 2,6, hurrenez hurren).

102. taula Kautxu eraldatuaren kanpo-merkataritzako datuak, azpisektoreka

(M eurotan)

Produktua	Esportazioak			Inportazioak			Saldoa		
	2015	2016	% Δ 16/15	2015	2016	% Δ 16/15	2015	2016	% Δ 16/15
Pneumatikoak eta birkautxutuak	1.998,9	1.917,4	-4,1	1.599,6	1.558,5	-2,6	399,2	358,9	-10,1
Pieza teknikoak	943,5	970,3	2,8	989,9	1.004,8	1,5	-46,4	-34,5	-25,6
Guztira	2.942,4	2.887,6	-1,9	2.589,5	2.563,3	-1,0	352,8	324,4	-8,1

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Analisia kautxua EAEn eraldatzen duen sektorera zuzenduz gero, eta Eustat erakundeak kautxuarekin eta plastikoarekin darabilen Industria Ekoizpeneko Indizeak adierazten duena aintzat hartuta, ikusten da indize horrek % 3,4 egin duela gora 2016an (aurreko urtean -% 0,1 izan zen bere bilakaera).

Kanpo-merkataritzako eragiketei begiratuta, kautxuaren eta harekin egindako manufakturen esportazioek % 0,3ko igoera apala izan dute 2016an eta 1.133.794 mila euroko zenbatekora iritsi dira. Esportazioek, berriz, % 3,1 egin dute gora eta 439.904 mila euroko zenbatekora iritsi dira; hori horrela, merkataritza-balantzako saldo positiboa -% 1,3 murriztu da, harik eta 693.890 milioi eurotako zenbatekoa iritsi arte.

EAEko datuek ematen duten informazioa eta estatu osoko datuak erkatuz gero, euskal kanpo-merkataritzaren diru-zenbatekoek erakusten duten kuotak, estatuko zenbateko osoarekiko, igoera apal bat izan duela ikusten da, bai esportazioen alorrean (guztizkoaren % 39,3 izan da 2016an, eta % 38,4 izan zen 2015ean), bai inportazioenean (guztizkoaren % 17,2 izan zen 2016an, eta % 16,5 izan zen aurreko urtean).

9.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTUEN AZPISEKTOREA

Analisia pneumatikoen eta birkautxutuen sektorera mugatuz gero, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalaren datuek 2016an azpisektore horren produkzioa 612.802 tonakoa izan dela adierazten dute, eta kontsumo agerikoa, berriz, 463.418 tonakoa. Horrek urtetik urtera % 1,8ko eta % 1,5eko igoerak izan dituztela, hurrenez hurren, esan nahi du.

Bestalde, 602.610 tonako esportazioak eta 453.226 tonako inportazioak egin dira; gainera, kanpo-salmentek % 1,9 egin dute gora eta kanpo-erosketek % 1,5. Hori horrela, joera esportatzailea % 98,3koa izan da, eta inportatzailea, berriz, % 97,8koa.

103. taula Pneumatikoen eta birkautxutuen ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza

Kontzeptua	2015	2016	% Δ 16/15
1. Ekoizpena	601.883	612.802	1,8
2. Esportazioak	591.549	602.610	1,9
3. Inportazioak	446.352	453.226	1,5
4. Kontsumo agerikoa	456.686	463.418	1,5
5. 2/1 x 100	98,3	98,3	0,1
6. 3/4 x 100	97,7	97,8	0,1

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Kautxuaren eta automobilen sektoreen artean dagoen lotura handia ikusita, azken sektore hori aztertzea komeni da. Alde horretatik, Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak (ANFAC) emandako datuek 2016an ibilgailuen matrikulazioek gora egin dutela adierazten dute (1.347.347 unitate), baita esportazioek

(2.432.401 unitate) eta ekoizpenek ere (2.891.922 unitate); hori horrela, % 11ko, % 7ko eta % 5,8ko igoerak izan dituzte urtetik urtera, hurrenez hurren.

104. taula Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian

(unitateak)

Kontzeptua	Ekoizpena			Esportazioak			Matrikulazioak ⁽¹⁾		
	2015	2016	% Δ 16/15	2015	2016	% Δ 16/15	2015	2016	% Δ 16/15
Turismoak	2.202.348	2.313.391	5,0	1.893.724	2.011.248	6,2	1.034.232	1.147.009	10,9
Industria-ibilgailuak ⁽²⁾	530.853	578.531	9,0	380.008	421.153	10,8	177.200	196.811	11,1
Autobusak eta autokarrak	0	0	--	0	0	--	2.780	3.527	26,9
Guztira	2.733.201	2.891.922	5,8	2.273.732	2.432.401	7,0	1.214.212	1.347.347	11,0

(1): Matrikulazioaren kontzeptua barne-salmentarena baino zabalagoa da; saldu gabe edo stockean dauden ibilgailuak ere barne daude. Turismoen matrikulazioen zifrak ere lur orotako ibilgailuen matrikulazioak hartzen ditu barne.

(2): Honako hauek barne hartzen ditu: pick-upa, traktokamioiak, industria-ibilgailu arinak eta astunak, furgonetak eta merkataritza-ibilgailu arinak.

Iturria: ANFAC.

Azkenik, txosten honen beste urte batzuetako analisietan egin den moduan, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden pneumatiko-fabrikatzaile nagusien gaineko azterketa laburra egingo dugu: Michelin eta Bridgestone.

Horietako lehenak, Michelin enpresak, bi lantegi ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, Arabako Araian bata (zentro logistikoa da, berez) eta Gipuzkoako Lasarten bestea. Enpresa talde osoak 1.667 milioi euroko irabaziak izan ditu 2016an, hau da, aurreko urtean izandakoak baino % 4 handiagoak, eta emaitza operatiboaren hobekuntza izan da hobekuntza horren arrazoi nagusia, salmentek behera egin baitute. Euskal Autonomia Erkidegoari begiratuta, nabarmendu behar da Gasteizko lantegiaren berrogeita hamargarren urteurrena ospatu dela 2016an. Estatuko lantegi handiena da Gasteizkoa, estatu osoan egiten den produkzioaren % 50 inguru fabrikatzen baita bertan, eta, gaur egun, ibilgailuen eta herri-lanetarako eta meatzaritzarako makinien pneumatikoak egiten ditu.

Bridgestone enpresak, berriz, lantegi bat du Basaurin, eta nabarmentzekoa da 2017an aurkeztutako Bridgestone Hispania 2018-2020 Plangintza Estrategikoa, izan ere, 73 milioi euroko inbertsioa hartuko du, integrazio digitala bultzatzeko, prozesuak hobetzeko eta/edo produktu berriak garatzeko.

10. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA¹

10.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Informazioaren Teknologien Europako Behatokiaren (EITO) arabera, IKTen mundu-mailako merkatuan salmentak %2,1 handitu ziren 2016an, 3,1 bilioi euroko zifrara iritsi arte, ekitaldi horren hasieran egindako estimazioak hobetuz.

Lehenik informazioaren teknologiei erreparatuz, 2016an hazkunde orokorraren bultzatzaile nagusiak izaten jarraitu dute, munduan 1,3 bilioi euroko fakturazioa lortuta, softwarearen azpisegmentuko bultzada bereziki sendoa izanik.

Telekomunikazioei dagokienez, 2016an mundu-mailako salmentak %1,5 handitu ziren, eta 1,8 bilioi euroraino iritsi ziren; nabarmentzekoa da aurreko ekitaldian ez bezala telekomunikazioetako zerbitzuak izan zirela hazkundearen bultzatzaileak eta ez telekomunikazioetako azpiegiturak. Hain zuzen ere, 2016an %0,9 baino ez zen handitu, aurreko urteetan bi digituko handitzeak izan ondoren.

Geografikoki, IKT merkatuetako aurrerapen-erritmo handiena nabarmendu Indiak duela behar da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta dezente moteldu bada ere: %4,7 2016an eta %11,9 2015ean. Ondoren, Estatu Batuak daude, IKT merkatua %3,2 handituta, dinamismoari dagokion bigarren lekua Txinari kenduta.

Etorkizunera begira, kontuan hartuta Estatu Batuek IKT merkatu globalean duten garrantzia, herrialde horretako gobernu-aldaketak maila nazionalean eta nazioartean izan dezakeen eraginak kezka sortzen du.

¹ Sektorea aipatzen denean, oro har sektore horren barruko jarduera elektronikoinformatiko eta telekomunikazioko jarduera guztiak sartzen dira, eta telekomunikazio-zerbitzuen operadore/hornitzaile handiak ez dira sartzen.

10.2 SEKTOREA ESPAINIAN¹

Elektronikaren, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien, Telekomunikazioen eta Eduki Digitalen Enpresen Sektore Anitzeko Elkartearen (AMETIC) arabera, informazioaren teknologien Estatuko hipersektorea 23.441 milioi eurora iritsi zen 2016an, hirugarren urtez jarraian gora eginda. Horrek urtetik urterako aurrerapena % 3,3koa izan zela esan nahi du. Sektoreak kontuan hartuta, *zerbitzuak* eta *softwarea* hazi egin dira, eta *hardwareak* atzera egin du.

Hain zuzen ere, 2016an informazioaren teknologiek lotutako zerbitzuen salmentak 15.963 milioi eurotan kokatu ziren (sektoreko guztizkoa hartuz), aurreko ekitaldian baino %5,2 handiagoa, estatuko ekonomia berreskuratzeak eta aurreko urteetan bertan behera utzitako inbertsio-planak berriro abiarazteak bultzatuta. Horri dagokionez, eraldaketa digitalaren proiektuak sektorea bultzatzen hari direla nabarmendu behar da.

Aldi berean, *softwarearen* sektorearen salmentak handitu egin ziren 2016an, gutxiago handitu baziren ere (%3,6); salmentak 3.099 milioi eurora iritsi ziren, produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzera bideratutako aplikazioek bultzatuta. Gainera, lizentzien erregularizazioarekin lotutako erosketek nolabaiteko bultzadari eutsi zioten, 2015ean sartutako arauen erreformaren ondoren (lege-arrisku handiagoa).

Aitzitik, *hardware* atalak 4.379 milioi euroko negozio-bolumenari eutsi zion 2016an, eta zifra horrek urte arteko -%3,4ko murrizketa adierazten du, ekipoen bizitza aktiboa luzatzeak eta cloud eta smartphoneetan oinarritutako soluzioetara desbideratzeak eraginda.

Etorkizunera begira, bereziki gobernuak argitaratu beharreko Plan Digital Berriak izango duen inpaktua aipatu behar da, bai eta Administrazio Publikoen eraldaketa digitaleko proiektuena ere.

¹ Atal honen oinarria Elektronikaren, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien, Telekomunikazioen eta Eduki Digitalen Enpresen Sektore Anitzeko Elkarteari (AMETIC) buruzko informazioa da. AMETICek, 2011. urtean, ia 2.000 bazkide zituen, eta horietatik 300 banako enpresak ziren eta, gainerakoa, zenbait erakunde eta enpresa-talde, elektronikarekin, informazioaren teknologiaren eta telekomunikazioen sektorearekin lotutako jarduerak egiten dituztenak.

10.3 SEKTOREA EAE-N¹

Aurreko bi ekitaldian erregistratutako jaitsieren ondoren, 2016an Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkarteko (GAIA) bazkideen kopurua handitu egin zen, eta 254 enpresa elkartu zenbatu ziren; 2015ean 243 ziren.

105. taula **Sektore elektronikoinformatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpresen bilakaera EAEn**

Urtea	Enpresak
2007	217
2008	231
2009	240
2010	265
2011	267
2012	260
2013	265
2014	245
2015	243
2016	254

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Sektoreen araberako ekoizpenari dagokionez, 2014an eta 2015ean izandako hazkundeekin jarraituz (%2,4 eta %5,1 hurrenez hurren), 2016an nabarmen handitu zen (%21,3), 3.530 milioi euro arte, euskal eremuan sektorea berreskuratzen ari dela berretsiz.

106. taula **Sektore elektronikoinformatikoaren eta telekomunikazioen arloko ekoizpenaren bilakaera EAEn**

Urtea	Ekoizpena M eurotan	Δ %
2007	3.032,0	22,0
2008	3.315,0	9,3
2009	3.060,0	-7,7
2010	2.994,9	-2,1
2011	2.911,0	-2,8
2012	2.742,0	-5,8
2013	2.702,1	-1,5
2014	2.768,0	2,4
2015	2.909,0	5,1
2016	3.530,0	21,3

Iturria: GAIA. Geuk egina.

¹ Atal hau Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkarteko (GAIA) emandako informazioan oinarritzen da. Elkarteko kide diren enpresei dagokie eta EAEn sektore horren adierazgarri dira.

Sektoreko esportazioei dagokienez, 2016an 1.179,6 milioi eurora iritsi ziren, aurreko ekitaldian lortutako maila baino %5,6 handiagoa, aurreko ekitaldiarekiko aurrerapenaren eritmoaren intentsitatea ia-ia bikoiztuta (%3 izan zen 2015ean).

Hala, ekoizpena esportazioak baino gehiago handitu zenez, sektoreko esportazioen tasak (esportatutako ekoizpen-portzentajea) bost ehuneko egin zuen behera: %33,4, 2016an, eta % 38,4, 2015ean.

107. taula Sektore elektronikoinformatikoaren eta telekomunikazioen arloko esportazioen bilakaera EAEn

Urtea	Esportazioak (M euro)	Δ %	Esportazioak/ Ekoizpena
2007	702,0	2,9	23,2
2008	749,0	6,7	22,6
2009	765,0	2,1	25,0
2010	850,0	11,1	28,4
2011	943,0	10,9	32,4
2012	1.053,0	11,7	38,4
2013	1.076,8	2,3	39,8
2014	1.084,2	0,7	39,2
2015	1.117,0	3,0	38,4
2016	1.179,6	5,6	33,4

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Sektoreko enpleguari dagokionez, sektorean agertutako dinamismoarekin bat, 2016an %4 handitu zen eta 11.447 pertsona landunera iritsi zen, aurreko ekitaldian erregistratutako gorakada berretsiz (%4,2 2015ean).

Dena dela, denbora-ikuspegi zabalago batetik (2007-2016 aldia), sektorearekin lotutako enpleguaren maila 2008an lortutako okupazioaren bolumen maximotik urrun dagoela ikusten da (12.053 landun ekitaldi hartan).

108. taula Sektore elektronikoinformatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpleguaren bilakaera EAEn

Urtea	Enpleguak	Δ %
2007	11.058	8,9
2008	12.053	9,0
2009	12.000	-0,4
2010	11.400	-5,0
2011	11.410	0,1
2012	10.807	-5,3
2013	10.797	-0,1
2014	10.564	-2,2
2015	11.007	4,2
2016	11.447	4,0

Iturria: GAIA. Geuk egina.

I+Gko inbertsioari dagokionez, 2016an GAIako kideek 111 milioi euro bideratu zituzten helburu horretarako (sektorearen fakturazioaren %3,1), urte arteko -%1,8 atzera eginda.

Azkenik, adierazi beharrekoa da 2017an GAIako (Elektronikaren, Informatikaren eta Telekomunikazioen euskal klusterra) eta AVIC (Euskal Enpresen Ingeniaritza eta Aholkularitza Elkartea) klusterren integrazioa egin dela, 18.000 pertsonari baino gehiagori enplegua ematen dion megasektore bat osatuz, eta 4.800 milioi euro inguruko negoziozifra duena, Euskadiko eraldaketa digitaleko funtsezko pieza bat izateko asmoarekin sortua.

11. ERAIKUNTZA

Krisi ekonomikoak urte asko iraun ondoren, eraikuntza-sektoreak susperraldi-sintoma garbirik erakutsi gabe jarraitzen du. 2016an, joera mistoa hauteman da sektore-adierazle nagusien bilakaeran: etxebizitza libreak suspertu egin dira, baina obra publikoaren kontratazioak behera nabarmen egin duenez, zementu-fabrikak egoera zailean daude. Obra zibilak, zementu-konsumitzaile handiak, asko murriztu du bere jarduera, neurri batean 2016an gertatu den Gobernuaren behin-behinekotasunagatik, eta urrundu egin da susperralditik. Bizitegi-merkatuak dinamismo handiagoa erakutsi arren, nolabaiteko hazkundea hasitako etxebizitzek soilik adierazi dute, eta amaitutako etxebizitzek 2015ean izandakoak baino balio txikiagoak izan dituzte. Horrenbestez, eraikuntzak BPG-ari egiten dion ekarpena oso urruti dago krisiaren aurreko balioetatik (% 10 inguru), ekitaldi honetan % 5,6 izan baita.

109. taula Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Espainia	
	2015	2016	2015	2016
Enplegua	1,1	-4,9	8,1	0,01
Zementuaren barne-salmentak (*)	-4,9	3,4	5,5	-2,9
Amaitutako etxebizitzak	-2,9	-31,2	-4,9	-13,3
Hasitako etxebizitzak	-2,9	66,6	33,0	28,1
Lizitazio ofiziala	5,6	-22,7	-28,2	-0,7

(*): *Oficemeneko enpresa elkartuek Iparraldeko Eremuan (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) egindako zementu grisaren barne-salmentak (zakuak eta solteko salmenta) dira.*

(**): *Txostena egin denean ez dago hasitako etxebizitza libreei buruzko daturik.*

Iturria: geuk egina, ElNen, Seopanen eta Oficemenen datuetan oinarrituta.

Hori kontuan hartuta, magnitude sektorial nagusiei erreparatuz gero, 2016an bilakaera negatiboak positiboak baino gehiago izan direla garbi ikusten da. Zehazki, enpleguari dagokionez, Hego Euskal Herrian % 4,9ko uzkurdua ikusten da, baina Espainian aurreko ekitaldiko ia balio berean jarraitzen du (% 0,01eko gorakada). Beraz, aurreko ekitaldiko goranzko joera gelditu egin da; izan ere, 2015ean gorakada txikia izan zen bi lurraldeetan (% 1,1 Hego Euskal Herrian, eta % 8,1 Espainian), eta aurreikusitako hazkunde-zikloa ez da oraindik gauzatu. Zementuaren barne-salmentei dagokionez, eta Oficemen⁽¹⁾ erakundeak emandako datuen arabera, Iparraldeko Eremuan (Aragoi, Errioxa, EAE eta Nafarroako datuak) salmentek gora egin dute (% 3,4); Estatuan, ordea, salmenten ia % 3ko uzkurdua izan da. Beheranzko mugimendu horren oinarrian obra zibilaren beherakada handia dago, merkatu horrek zementuaren eskariaren % 60 inguru hartzen

¹ Espainiako Zementu Fabrikatzaileen Elkarteak.

baitu. Lizitazio ofizialei dagokienez, Hego Euskal Herrian aurreko biurtekoan nolabaiteko dinamismoa hauteman arren, 2016an oso egoera ahula ikusten da, lizitazioen kopuruak % 22,7 behera egin baitu. Estatu osoan, lizitazioek beherakada txikia izan dute (-% 0,7), baina murrizketa metatu dute berriz ere, aurreko ekitaldikoa handiagoa izan zela kontuan hartuta (-% 28,2). Testuinguru horretan, Hego Euskal Herrian nahiz Espainian amaitutako etxebizitzaren ehunekoek behera egin dute nabarmen (-% 31,2 eta -% 13,3, hurrenez hurren). Hasitako etxebizitzaren ehunekoek, berriz, gora egin dute nabarmen lurralde bietan (% 66,6 eta % 28,1, hurrenez hurren); hori horrela, etxebizitza libreen bilakaera bikainak sustatzen du jarduera hori Hego Euskal Herrian.

110. taula **Eraikuntzaren Koiunturako Indizea (EKI).**

Kontzeptua	(% Δ)		
	2014	2015	2016*
Landunen indizea	-5,6	-1,7	-0,7
Produkzio-indizea	-4,6	-0,1	2,1
Eraikingintza	-6,6	1,8	4,4
Obra zibila	7,1	-10,0	-11,3

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Koiunturako Indizea (EKI).

EAEko Eraikuntzaren Koiunturako Indizea aztertuz gero, bilakaera-joera ez oso homogeenoa hautematen dira adierazitako adierazleetan. Izan ere, bi adierazle bilakaera positiboak dituzte, baina beste biek bilakaera negatiboak. Badirudi landunen indizearen beherakada geldotu dela (-% 0,7), aurreko urteekiko jaitsiera arindu baita (2015ean, -% 1,7, eta 2014an, berriz, -% 5,6). Ez ordea obra zibilarena, antzeko jaitsierak izan baititu 2015ean eta 2016an (-% 10 eta -% 11,3, hurrenez hurren). Aldakuntza positiboak izan dituzte produkzio-indizeak eta eraikingintzak. Produkzio-indizeak % 2,1eko igoera izan du, zenbait ekitaldi negatibo izan ondoren, eta eraikingintzak, berriz, lau indizeetatik bilakaerarik onena izan du eta % 4,4ko igoera izan du 2015. urtearen aldean.

111. taula Lizitazio ofizialaren banaketa administrazio zentralaren, Autonomikoaren eta Tokikoaren artean
(M euro)

Eremua	2015				2016 ^(*)			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	6,6	60,2	46,1	112,9	3,4	83,5	105,0	191,8
Bizkaia	121,8	190,5	237,1	549,3	163,2	124,9	168,6	456,7
Gipuzkoa	292,1	52,5	105,3	449,9	20,8	43,6	226,4	290,8
EAE	420,4	303,2	388,5	1.112,2	187,3	252,0	500,0	939,3
Nafarroa	58,7	118,8	23,2	200,8	3,0	39,1	33,5	75,5
Hego Euskal Herria	479,1	422,1	411,8	1.313,0	190,2	291,2	533,5	1.014,9
Espainia	4.296,1	2.539,6	2.559,4	9.395,1	3.147,4	2.882,3	3.303,3	9.333,1

(): Behin-behineko datuak*
Iturria: Seopan.

Azterketa sakontzeko, lizitazio ofizialen bilakaerari erreparatuz gero, Estatu osoari dagokionez, ekitaldi honetan 2015ean izandako beherakada (-% 28,2) geldotu egin dela (-% 0,7) ikusten da, eta 2016ko lizitazioen bolumena (9.333,1 milioi euro) 2015eko bolumenaren ia berdina dela. Hego Euskal Herriari dagokionez, ekitaldi honetan, 2015ean ez bezala (inbertsioak % 5,6ko igoera izan zuen), lizitazioak beherakada nabarmena izan du (-% 22,7) eta haren bolumena 1.014,9 milioi eurora jaitsi da (2015ean, 1.313 milioi eurokoa izan zen). Jaitsiera hori Bizkaiko (-% 16,9), Gipuzkoako (-% 35,4) eta batik bat Nafarroako (-% 62,4) emaitzek eragin dute, Araba izan baita atal horretan igoera izan duen lurralde bakarra (% 69,9).

Lizitazio-organo bakoitzak estatu mailan herrialdeko lizitazio-mapan izan duen eragina aztertuz gero, Tokiko Administrazioen eta Administrazio Autonomikoen presentzia sendotu dela ikusten da (% 29,1 eta %13,5, hurrenez hurren) eta Administrazio Zentralarena, berriz, jaitsi egin dela (-% 26,7). Horren ondorioz, erakunde horien presentzia orekatu egiten da (% 35,4, % 30,9 eta % 33,7, hurrenez hurren). Análisi hori Hego Euskal Herriaren ikuspegitik eginez gero, asko aldatzen da. Tokiko Administrazioen lizitazio-bolumena 533,5 milioi eurokoa izan da, eta haren bilakaera Estatuko Tokiko Administrazioan izandako bilakaeraren ia berdina izan da (% 29,6ko igoera), baina Hego Euskal Herrian, proportzio handiagoa dagokio lizitazioen bolumen osoan (% 52,6). Administrazio Autonomikoa lizitazio-bolumenari dagokionez bigarren indarra da (291,2 milioi euro inbertituta eta bolumenaren % 28,7), eta % 31ko jaitsiera izan du lizitatutako bolumenetan. Hala ere, Administrazio Zentralak izan du inbertsio-beherakadarik handiena, 2016ko ekitaldian 2015eko ekitaldiaren erdia baino gutxiago inbertitu baita (-% 60,3ko beherakada, lizitazio-bolumenaren % 18,7 izanik). Dena dela, lizitazio-erakunde bakoitzaren ekarpena asko aldatu da 2015. urtearen aldean, non erakunde

bakoitzaren pisua orekatuagoa zen, erakunde bakoitza lizitazio-jardueraren heren bat inguru izanik.

112. taula Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2016)

Eremua	%				Δ% 16/15			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	1,8	43,5	54,7	100,0	-48,5	38,7	127,8	69,9
Bizkaia	35,7	27,3	36,9	100,0	34,0	-34,4	-28,9	-16,9
Gipuzkoa	7,1	15,0	77,9	100,0	-92,9	-17,0	115,0	-35,4
EAE	19,9	26,8	53,2	100,0	-55,4	-16,9	28,7	-15,5
Nafarroa	3,9	51,8	44,3	100,0	-94,9	-67,1	44,4	-62,4
Hego Euskal Herria	18,7	28,7	52,6	100,0	-60,3	-31,0	29,6	-22,7
Espainia	33,7	30,9	35,4	100,0	-26,7	13,5	29,1	-0,7

Iturria: Seopan.

Informazioa lurralde historikoen arabera xehatuz gero, ikusten da Araba izan dela aurreko ekitaldiaren aldean emaitza hobekien dituen probintzia bakarra (% 69,9), eta 2016ean, 191,8 milioi euro kudeatu ditu lizitazioetan. Bultzada nabarmen horren eragilea Tokiko Administrazioaren hazkunde esponenziala izan da (% 127,8), Administrazio Autonomikoaren igoerarekin batera (% 38,7), eta bien artean, ia lizitazio-bolumen osoa bereganatu dute (% 54,7 eta % 43,5, hurrenez hurren). Testuinguru horretan, ia hutsala da Administrazio Zentralaren ekarpena (% 1,8), beharrezko joera izanik. Lizitazio-organo bakoitzari dagokion proportzioaren desoreka nabarmen hori ez da Bizkaian gertatzen, lurralde horretan antzeko proportzioa baitute lizitazio-erakunde guztiek. Bizkaian, 456,7 milioi euro inbertitu dira 2016an (-% 16,9), eta gainerako euskal probintzietan ez bezala, Administrazio Zentralaren lizitazio-bolumenak gora egin du (% 34), eta Tokiko Administrazioaren eta Administrazio Autonomikoen lizitazio-bolumenak, berriz, behera egin dute (-% 28,9 eta -% 34,4, hurrenez hurren). Gipuzkoan, 290,8 milioi euro bideratu dira lizitazioetara (2015ean baino % 35,4 gutxiago), eta Tokiko Administrazioaren portaera ona (% 115eko igoera) ez da nahikoa izan Administrazio Autonomikoaren eta, batez ere, Administrazio Zentralaren beharrezko konpentsatzeko (-% 17 eta -% 92,9, hurrenez hurren). Hori guztia dela eta, Tokiko Administrazioa dago lizitazio-organoen buruan (% 77,9ko pisu espezifiko; 2015ean, Administrazio Zentrala zegoen buruan). Nafarroari dagokionez, Foru Erkidegoak du multzoko bilakaerarik txarrena (-% 62,4), eta lizitazio-bolumena 75,5 milioi eurora jaitsi da (2015ean, 200,8 milioi euro izan ziren). Lurralde horretan, Tokiko Administrazioak % 44,4ko igoera izan du aurreko ekitaldiko balioen aldean, baina beste bi lizitazio-organoen ekarpenak beherakada nabarmena izan dute: Administrazio Autonomikoak % 67,1koa, eta Administrazio Zentralak, berriz, % 94,9koa. Hala eta guztiz ere, lizitazioaren proportziorik handiena Administrazio Autonomikoari dagokio, lizitazio-bolumenaren ia erdia egin baitu (% 51,8). Haren atzetik,

gertu, Tokiko Administrazioa dago (% 44,3), eta, azkenik, proportzio txiki batekin, Administrazio Zentrala (% 3,9). Estatuko lizitazioari dagokionez, Tokiko Administrazioak eta Administrazioa Autonomikoak bilakaera positiboa izan dute (% 29,1 eta % 13,5, hurrenez hurren), eta Administrazio Zentralak, berriz, % 26,7ko beherakada izan du, baina, oro har hartuta, administrazioek lizitazio-bolumenean duten proportzioa nahiko homogeneoa da.

113. taula Lizitazio ofiziala, obra-moten arabera (2016)

Obra-mota	Hego Euskal Herria			Espainia		
	M euro	Δ % 16/15	%	M euro	Δ % 16/15	%
Etxebizitzak	39,1	-43,5	3,9	224,1	5,9	2,4
Gizarte-ekipamendua	178,7	12,0	17,6	1.625,9	21,3	17,4
Gainerako eraikuntza	131,6	4,9	13,0	1.417,5	-0,8	15,2
Eraikuntza guztira	349,4	-1,4	34,4	3.267,5	9,6	35,0
Garraioak	383,9	-41,5	37,8	3.755,7	-2,6	40,2
Urbanizazioak	179,8	41,7	17,7	1.151,1	5,0	12,3
Hidraulikoak	81,8	-47,1	8,1	957,4	-21,7	10,3
Ingurumena	20,0	-6,5	2,0	201,3	-16,2	2,2
Obra zibila guztira	665,5	-30,6	65,6	6.065,5	-5,4	65,0
GUZTIRA	1.014,9	-22,7	100,0	9.333,1	-0,7	100,0


Iturria: Seopan.

Lizitazioen jatorria aztertu ondoren, 2016ko ekitaldian inbertsioen erabilerak izan duen bilakaera azalduko da. Estatuan, bilakaera desberdina izan da segmentuen arabera; hau da, eraikuntzan (% 35eko proportzioa du), lizitazio-jarduerak gora egin du (% 9,6), eta obra zibilean (% 65a, lizitazio-bolumenaren zatirik handiena dagokio) berriz, % 5,4ko jaitsiera egon da. Hori horrela, eraikuntzaren alorrean, gizarte-ekipamenduan (% 17,4ko pisu espezifiko) lizitazio-jardueraren igoera nabarmena egon da (% 21,3). Etxebizitzaren arloak proportzio txikia izan du guztizkoan (% 2,4), eta hor ere igoera izan da, baina txikiagoa (% 5,9). Gainerako eraikuntzaren arloan, berriz, % 15,2ko proportzioa izanik, jaitsiera txikia izan da 2015eko datuen aldean (-% 0,8). Obra zibilarri dagokionez, azpisektore horretan, lizitazio-jardueraren jaitsiera egon da berriz, eta lizitazio ofizialaren % 65 dagokio (2015ean, % 68,3 izan zen, eta 2014an, berriz, % 70,8). Urbanizazioen azpisektoreari dagokionez, aurrekontuetan gora egitea lortu dute (% 5), jaitsierak nagusi diren testuinguru batean. Hain zuzen, obra hidraulikoetan (-% 21,7), ingurumenean (-% 16,2) eta garraioetan (-% 2,6, zertxobait txikiagoa) jaitsiera egon da. Hala ere, lizitazio ofizialaren baliorik handienak Garraioeko kapituluaren erabiltzen dira, guztizkoaren % 40,2arekin.

Analisi bera Hego Euskal Herrirako eginez gero, 2016an beherakada handiak izan direla ikusten da, eta sortzen den egoera Estatukoa baino okerragoa dela. Eraikuntzaren

azpisektoreari dagokionez, 349,4 milioi euro lizitatu dira guztira, eta, bi azpisektoretan igoera izan arren, azpisektore osoaren emaitza negatiboa izan da ekitaldian (-%1,4). Aipatutako bi igoerak gizarte-ekipamenduetan (% 12) eta gainerako eraikingintzan (% 4,9) izan dira, eta azpisektore horiek lizitazio-bolumen osoan izan duten proportzioak % 17,6 eta % 13 izan dira, hurrenez hurren, baina etxebizitzetan izandako beherakada (-% 43,5) konpentsatzeko ez dira nahikoak izan. Beherakada horren ondorioz, etxebizitzek lizitazio-bolumen osoan duten proportzioa oso txikia izan da (% 3,9), eta eraikingintzaren azpisektorearen guztizko emaitza negatiboa izan da. Obra zibilaren azpisektoreari dagokionez, urbanizazioen azpisektoreko lizitazio-jardueraren dinamismoa nabarmendu behar da, hazkunde handia izan baitu (% 41,7), inbertsioak izugarri jaitsi diren testuinguruan (-% 47,1 obra hidraulikoetan, eta -% 41,5 garraioetan). Ingurumeneko obrek ere beheranzko joera izan dute, baina txikiagoa (-% 6,5). Beraz, lizitazio-bolumena 665,5 milioi eurokoa izanda (lizitazioek % 30,6ko jaitsiera izanik), azpisektorearen proportzioa jaitsi egin da, 2015ean % 73 izatetik % 65,6ra 2016ean.

15. grafikoa Lizitazio ofiziala



Iturria: Seopan.

114. taula Hasitako eta amaitutako etxebizitzak (*)

(etxebizitzaren kopurua)

Eremua	Kontzeptua	Hasitako etxebizitzak				Amaitutako etxebizitzak			
		2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
Araba	Babestuak	0	20	15	41	515	679	0	35
	Libreak	129	79	201	278	400	389	184	144
Bizkaia	Babestuak	1.405	1.020	760	576	630	969	1.537	1.127
	Libreak	1.086	1.102	750	1.715	1.893	1.159	1.965	914
Gipuzkoa	Babestuak	395	456	306	714	697	792	420	567
	Libreak	814	1.000	1.143	2.414	1.701	1.012	1.462	811
EAE	Babestuak	1.800	1.496	1.081	1.331	1.842	2.440	1.957	1.729
	Libreak	2.029	2.181	2.094	4.407	3.994	2.560	3.611	1.869
Nafarroa	Babestuak	141	406	329	214	1.446	1.165	425	348
	Libreak	478	636	1.068	1.664	878	591	560	562
Hego Euskal Herria	Babestuak	1.941	1.902	1.410	1.545	3.288	3.605	2.382	2.077
	Libreak	2.507	2.817	3.162	6.071	4.872	3.151	4.171	2.431
Espainia	Babestuak	6.489	5.898	5.306	6.787	17.059	15.046	7.931	7.118
	Libreak	29.232	32.120	45.259	57.979	43.230	35.226	39.891	34.351

(*): 2017/07/12ko datuak.


Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzaren Sustapen eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernua. EIN.

Hego Euskal Herrian hasitako eta amaitutako etxebizitzari buruzko analisia eginez gero, ikusten da 2016an bilakaera-portaera desberdinak daudela: hasitako etxebizitzaren kopuruak gora egin du (etxebizitza libreen bultzadari esker), baina amaitutako etxebizitzaren kopuruak behera egin du, asko. 2016an, 7.616 etxebizitza hasi dira (2015ean baino % 66,6 gehiago), etxebizitza libreen bilakaera onari esker, neurri handi batean (6.071 etxebizitza libre hasi dira, eta babestutako 1.545). Bilakaera positibo horrez gain, emaitza positiboak izan dira babes ofizialeko etxebizitzaren arloan Araban eta Gipuzkoan (% 173,3ko eta % 133,3ko igoera, hurrenez hurren), baina beherakadak izan dira Bizkaian (-% 24,2) eta Nafarroan (-% 35). Etxebizitza pribatuen arloan, hazkunde handiak izan dira lau lurraldeetan: Bizkaian eta Gipuzkoan izan dituzte handienak (% 128,7 eta % 111,2, hurrenez hurren), baina Arabako (% 38,3) eta Nafarroako (% 55,8) emaitzak ere oso onak izan dira. Interesgarria da aipatzea hasitako etxebizitzari dagokienez Hego Euskal Herrian Gipuzkoa dela nagusi (babestutako 714 etxebizitza eta 2.414 etxebizitza libre). Espainian, hasitako etxebizitza libreak eta babestutako etxebizitzek antzeko bilakaera badute ere (% 28go igoera, gutxi gorabehera), etxebizitza libreak (57.979 unitate) askoz gehiago dira babestutako etxebizitzak baino (6.787 unitate).

Amaitutako etxebizitzaren analisiari dagokionez, lehen hurbilketa batek 2016ko datuek bilakaera positiborik ez dutela erakusten dute. Hain zuzen ere, 2016ko abenduaren 31rako amaitutako etxebizitzaren stockak jaitsiera nabarmena du 2015ko datuaren

aldean, bai estatu osoan (-% 13,3), bai Hego Euskal Herrian (-% 31,2); non jaitsiera egon den aztertutako lurralde guztietan. Zehazki, etxebizitza-motaren arabera, babestutako etxebizitzetan izan dira urteko bi igoera bakarrak, bat Gipuzkoan (% 35) eta bestea Araban (35 etxebizitza 2016an; 2015ean, ez zen inolako jarduerarik egon alor horretan). Bizkaian eta Nafarroan, berriz, jaitsiera egon da amaitutako babestutako etxebizitzaren erroldan (% 26,7ko eta % 18,1eko jaitsiera, hurrenez hurren), eta Hego Euskal Herrirako kopuru osoa 2.077 etxebizitzakoa izan da, % 12,8 gutxiago aurreko ekitaldian baino. Estatuan, babestutako 7.118 etxebizitza amaitu dira, eta bilakaera Hego Euskal Herrikoaren antzekoa izan da; hau da, % 10,3 gutxiago. Amaitutako etxebizitza libreei buruzko datuen azterketa egitean, aztertutako eremu geografiko guztietan 2015eko datuen aldean jaitsiera egon dela ikusten da, neurri handiagoan edo txikiagoan. Bizkaia dago jaitsiera horien buruan, amaitutako etxebizitza libreen stock handiena baitu (914), bai eta multzoko jaitsiera handiena ere (-% 53,5). Haren atzetik Gipuzkoa dago, antzeko portaera izanik (-% 44,5), eta ondoren, Araba (-% 21,7). Hori dela eta, Hego Euskal Herrian 2.431 etxebizitza libre amaitu dira 2016an; hau da, 2015ean baino % 41,7 gutxiago. Estatu osoan, berriz, 34.351 etxebizitza libre amaitu dira, aurreko urtean baino % 13,9 gutxiago.

16. grafikoa Amaitutako etxebizitza-kopurua



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernu. EIN.

115. taula Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn*

Urtea	Birgaitutako etxebizitza-kopurua	Emandako diru-laguntzak (euro)	Batez besteko zenbatekoa
2015	12.510	14.575.218	1.165,09
2016	12.655	15.780.000	1.246,94
Δ % 16/15	1,2	8,3	7,0

(*): Diru-laguntza lortu duten birgaitutako eraikinen eta etxebizitzaren kopurua.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

EAEko birgaitutako etxebizitzetarako buruzko informazioa kontuan hartuta, aztertutako adierazle guztiek hobekuntzak izan dituzte aurreko ekitaldiaren aldean. 2015ean alderantziz gertatu zen, adierazle guztiek behera egin baitzuten. Zehazki, lehen adierazleak (birgaitutako etxebizitzaren kopuruak) % 1,2ko hazkundea izan du, hau da, 145 etxebizitza gehiago, guztizko kopurua 12.655 izanik. Halaber, emandako diru-laguntzek % 8,3ko igoera izan dute, 2016an kudeatutako zenbatekoa 15.780.000 eurokoa izanik. Hori guztia dela eta, batez besteko zenbatekoa 1.247 eurokoa izan da; hau da, % 7 gehiago 2015ean baino.

116. taula Eraikuntzako langileak

Eremua	(m pertsonak)			
	2014	2015	2016	Δ % 16/15
Araba	7,1	3,9	3,2	-18,5
Bizkaia	28,1	28,7	30,3	5,7
Gipuzkoa	14,9	15,3	15,7	2,9
EAE	50,1	47,9	49,3	2,9
Nafarroa	14,0	16,9	12,3	-27,2
Hego Euskal Herria	64,1	64,8	61,6	-4,9
Espainia	993,5	1.073,7	1.073,8	0,01


Iturria: EHN. Biztanleria aktiboaren inkesta (2011ko oinarria).

Azkenik, eraikuntzaren sektorearen egoerari buruzko informazioa ematen duen beste adierazle bat landunen kopurua da. EHNen biztanleria aktiboari buruzko azken inkestaren datuen arabera, estatuan ez da apenas aldaketarik egon biztanleria landunean (% 0,01), eta 1.073,8 mila pertsonak jarduten dute sektorean. Hego Euskal Herrian, Araban eta Nafarroan izandako emaitza negatiboen ondorioz (-% 18,5 eta -% 27,2, hurrenez hurren), 2016ko ekitaldiko emaitza negatiboa izan da eta landunen kopuruak % 4,9ko jaitsiera izan du. Hori horrela, Bizkaiak (% 5,7) eta Gipuzkoak (% 2,9) izandako urtetik urterako aldakuntza onuragarriak ez dira nahikoak izan Arabaren eta Nafarroaren beherakadak konpentsatzeko, eta 2016an, 61,6 mila pertsonak jardun dute Hego Euskal Herriko eraikuntzan (3,2 mila pertsona gutxiago).

Sektorearen etorkizun hurbilari dagokionez, 2017an, bizitegi-merkatuak gora egiten jarraituko duela aurreikusten da. Inbertsio publikoak, eta zehazki, obra zibilak sortzen dute ziurgabetasunik handiena, eta horrek zementu-sektorearen egoera konplikatzen du.

Dena dela, hurrengo ekitaldian sektoreko zifren susperraldi desberdina izango dela aurreikusten da, eta 2018tik aurrera sektorea berrorekatu egingo dela, non bizitegi-merkatuak goranzko joera izaten jarraituko duela espero den eta, batik bat, obra zibilak hobera egingo duela, azken urteotan oso bilakaera ahula izan baitu.

17. grafikoa Eraikuntzako langileak



Iturria: EIN. Biztanleria aktiboaren inkesta (2011ko oinarria).

12. EKONOMIA- ETA FINANTZA-ANALISI SEKTORIALA

12.1 SARRERA

Kapitulu honetan, finantza-analisiaren tresna klasikoetako bi (ratio bidezko analisia, eta funtsen iturrien eta erabileren egoera-orria) aplikatuko zaizkie Euskal Herriko industria-sektoreei. Horretarako sektore bakoitzeko kontabilitateko egoera-orriek –balantzeek eta emaitza-kontuek– beharrezkoa den informazioa osatzen dute.

Sarrera hau alde batera utzita, kapitulua hiru atal handitan egituratuta dago. Lehen metodologikoa da, eta erabilitako oinarritzko informazioa dago zehaztuta bertan, bai eta ratioen piramidearen aplikazioan jarraitutako irizpideak ere. Bigarren atalean, ratioen piramideak aztertzen da, eta hirugarrenean, berriz, funtsen iturrien eta erabileren egoera-orria. Horrela, beraz, Euskal Herriko industria-sektoreen ekonomia- eta finantza-analisi bat egin da (Estatu osoarekiko sektore arteko konparazioan eta konparazio sektorialean sakonduta), eta piramideko ratio nagusiak eta batez besteko inbertsio-diruzaintzak (cash-flow libreak) hartu dira erreferentzia gisa. Halaber, sektoreetako ratioen piramideak eta funtsen iturri eta erabileren egoera-orriak erantsi dira (Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak)

12.2 METODOLOGIA

Datu-bankua

Adierazi den moduan, piramideak egiteko kontabilitateko oinarritzko egoera-orriak behar dira: aztertu beharreko sektore guztien balantzeak eta emaitza-kontuak. Horretarako, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak bildutako informazioa -enpresa laguntzaileek betetako galde-sortetan oinarrituta- erabili da datu-base gisa, Euskal Herriari (eskaera espezifikoa egin da egoitza EAEn edo Nafarroan duten enpresetarako) zein Estatu osoari dagokionez (Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak berak landutako urteko txostenetako informazioa erabili da). Horri esker, geroago landu ahal izateko moduko informazio homoginoa lortzen da.

Testuinguru horretan, kontuan hartu behar da, lehenik eta behin, Balantzeen Zentralean eskuragarri dagoen azken informazioa t-2 urtekoa dela (halaber, datu-base bakoitzak dagokion urteko eta aurreko urteko informazioa eskaintzen du). Hortaz, abiapuntuko informazioak urtebeteko atzerapena dauka txosten honi dagokion ekitaldiarekiko. Zehazki, txosten hau egiteko azken datu-base eskuragarria 2015ekoa da, eta 2014. eta 2015. urteei buruzko informazioa ematen du.

Industria-jardueraren sektorizazioari dagokionez, Balantzeen Zentralaren CB-52 sailkapen berriari jarraitu zaio industria-sektoreei buruzko informazio-eskaera egiteko. Sailkapen hori, bestalde, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) kontuan hartuta eguneratu da. Zehazki, honako desagregazio sektorial hau da (19 sektore):

- Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak
- Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik
- Papergintza
- Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa
- Koke-fabrikak eta petrolio-finketa
- Industria kimikoa
- Farmazia-produktuen fabrikazioa
- Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa
- Beste produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa
- Metalurgia: burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa
- Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoen izan ezik
- Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
- Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa
- Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa
- Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa
- Bestelako garraio-materialen fabrikazioa
- Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk
- Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa

2015eko datu-basean, adierazitako 19 sektore horietako 15-i buruzko informazioa dago eskuragarri Euskal Herrirako (honako sektore hauei buruzko informazioa falta da, estatistika-sekretua dela-eta, sektore bateko 5 enpresa laguntzaile baino gutxiago izateagatik: Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik; Koke-fabrikak eta petrolio-finketa; eta Bestelako garraio-materialen fabrikazioa). 2014. urtean, berriz, 14 sektoreri buruzko

informazioa zegoen eskuragarri (2015. urtearekin konparatuta, 2014an, ez zegoen sektore hauei buruzko informaziorik: Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa eta Farmazia-produktuen fabrikazioa). Horrela, beraz, industria osoko agregatua lortzeko, dagokion urtean Euskal Herrirako zein Estatu osorako eskuragarri dauden sektoreen batura egiten da.

Azkenik, sektore bakoitzerako agregatutako egoera-orriak lortzeko oinarri izan den informazioa eskaini duten enpresek beren borondatez informazio hori eman dutela adierazi beharra dago. Beraz, datu-baseak iraungo duenik eta egindako analisiak sektore osoari buruzko inferentziaren bat egiteko balio estatistikoa izango duenik ez du ezerk bermatzen.

Ratioen piramidea¹

Abiapuntuko datuak: balantzea eta emaitza-kontua

Piramidea egiteko abiapuntuko informazioa kontabilitateko oinarritzko egoera-orriek osatzen dute: emaitza-kontuak eta balantzeak. Egingo den aplikazioa kontuan hartuta informazio hori oso era sinplifikatuan ematen da. Izan ere, helburua aztertutako sektore guztien ikuspegi orokorra eskaintzea da. Analisi sakonago bat egiteko eta ondorio sakonagoak lortzeko, desagregazio-maila handiagoko informazioa behar da, bai eta xehetasun handiagoko edukiak ere.

Emaitza-kontuari dagokionez, honako koadro honetan agertzen den eskema erabiliko da:

+	Ustiapeneko ohiko diru-sarrerak	V
-	Kostu aldakor operatiboak, ordainketarekin	CV
-	Kostu finko operatiboak, ordainketarekin	CF
-	Amortizazioak (eta, oro har, ordainketarik gabeko kostu operatiboak)	AM
-	Interesak	I
±	Ezohiko emaitzak	RE
-	Sozietateen gaineko zerga	IS
=	Mozkin garbia	BN

Balantzeari dagokionez, kostu esplizitua duten kanpoko funtsak eta ondare garbia bereziko dira pasiboaren barruan (2007ko Kontabilitate Plan Orokorraren arabera). Aktiboaren barruan, honako hauek aztertuko dira: aktibo finkoa (aktibo ez-korrontea), batetik, eta aktibo zirkulatzaila garbia (aktibo korronte garbia), bestetik –hau da, aktibo

¹ Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (1999): "Algunas reflexiones y novedades acerca de la pirámide de ratios", *Boletín de Estudios Económicos*, 167 zk., 1999ko abuztua, 329.-359. or.

zirkulatzaila, honako hauek kenduta: berezko pasiboak (negozioaren operatibak berak sortutako pasiboak, hala nola Administrazioarekin amortizatzeko geratzen diren saldoak) eta kostu implizitua duten pasiboak (hala nola hornitzaileekin amortizatzeko geratzen diren saldoak; saldo horien kostua azkar ordaintzeagatik deskontu gisa kalkula liteke, finantzatzeari uko eginez gero)–. Honako taula honetan ikus daiteke hori guztia.

AKTIBO ZIRKULATZAILE GARBIA	EPE LABURRERAKO KANPOKO FUNTSAK, KOSTU ESPLIZITUAREKIN
	EPE LUZERAKO KANPOKO FUNTSAK
AKTIBO FINKOA	ONDARE GARBIA

Proposatutako ratioen piramidea aurkeztu aurretik, kontzeptu interesgarri batzuk azalduko dira.

Leverage operatiboa

Mozkin operatiboaren (finantza-kostuak eta zergak kontuan hartu gabe) eta "saldutako euroko marjina gordinaren" arteko erlazioa adierazten du. Erabiliko den formulaziora iristeko, nomenklatura gehigarria behar da:

MB = Marjina gordina. Ohiko diru-sarreraren eta kostu aldakorren arteko diferentzia (amortizazioa kostu finkotzat hartuko da):

$$MB = V - CV$$

MBP = Saldutako euroko marjina gordina. Marjina gordinaren eta salmenten zifraren arteko zatidura. Salmentako euro bakoitzak kostu aldakorrak soilik estaliz uzten duen marjina adierazten du:

$$MBP = \frac{MB}{V}$$

BAII = Interesen eta zergen aurreko mozkin. Ohiko diru-sarreraren eta kostu operatiboaren (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) diferentzia konparatzearen emaitza da:

$$BAII = V - CV - CF - AM = MB - (CF + AM)$$

VPM = Itopuntuko salmentak. Kostu operatiboak (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) estaltzeko beharrezkoa den salmenta-zifra da, eta bat dator $BAll = 0$ emaitza lortzeko salmenta-kantitatearekin. Kostu aldakorrak salmentekiko linealak direla jotzen bada (MBP salmenta-mailarekiko independentea izanik), honako hau dago:

$$BAll = 0 = MB - (CF + AM)$$

$$MB = (CF + AM)$$

$$\frac{MB}{V} \cdot V = MBP \cdot V = (CF + AM)$$

$$V = VPM = \frac{CF + AM}{MBP}$$

Eta, era horretan, leverage operatiboaren formulaziora iritsiko zen:

$$BAll = MB - (CF + AM) = \frac{MB}{V} \cdot V - MBP \cdot VPM = MBP \cdot V - MBP \cdot VPM$$

$$BAll = MBP \cdot (V - VPM)$$

Hortaz, saldutako euroko marjina gordina handitzea lortzen bada (kostu finko konstante batzuekin), interesen eta zergen aurreko mozkina handitzea lortzen da (palanka-efektua).

Leverage finantzarioa

Funts propioetan inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasunaren, aktiboaren errendimenduaren, kanpoko funtsen kostuaren eta zorpetzearen arteko erlazioa adierazten du. Formulazio matematikoa egiteko, kontzeptu batzuk definitu behar dira:

$t =$ Zerga-tasa

$BAlIdl =$ Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina.

$$BAlIdl = BAll \cdot (1 - t) = (V - CV - CF - AM) \cdot (1 - t)$$

Bestalde, ekitaldian aparteko emaitzarik ez dagoela jota¹, BAIdI-ari zergen interes garbiak mozkin garbia kenduta lortzen da:

$$BN = BAIdI - I \cdot (1 - t)$$

Ondoren, leverage finantzarioaren formulazioan agertuko diren hiru ratio definituko dira:

$r =$ Errendimendu operatiboa. Aktiboan inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errentagarritasun garbia da, nola finantzatzen den kontuan hartu gabe. Aktiboa, aktibo zirkulatzailerik gabien eta aktibo finkoaren baturarekin bat datorrela kontuan hartu behar da:

$$r = \frac{BAIdI}{ACN + AF}$$

$i =$ Kanpoko finantzaketaren kostu garbia, kostu esplizituarekin. Kanpoko funtsen hornitzaileek eskatutako errendimendua da, dagozkien interesen ordainketak sozietateen gaineko zergan eragiten duen zerga-aurrezpena kenduta:

$$i = \frac{I(1-t)}{FACP + FALP} = \frac{I(1-t)}{FA}^2$$

$e =$ Ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errendimendu ekonomikoa.

$$e = \frac{BN}{PN}$$

Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, leverage finantzarioaren formulazioa osa daiteke. Hona hemen adierazpena:


$$e = r + (r - i) \frac{FACP + FALP}{PN} = r + (r - i) \frac{FA}{PN}$$

$e =$ Errendimendu operatiboa + Leverage finantzarioa

Ondorengo laukian, sektore bakoitzerako aplikazio praktikoan erabiliko den ratioen oinarritzko piramidea ikus daiteke.

¹ Geroago azalduko da aparteko emaitzen inguruko problematika.

² Sinplifikatzeko, FACPre eta FALPre baturari FA deitu zaiola kontuan hartu behar da. Nolanahi ere, FACPak epe laburrerako kanpoko funtsen guztizkoa ez duela biltzen gogorarazi beharra dago, kostu esplizitua duten epe laburrerako kanpoko funtsak baizik.




Goi-erpinen, ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasuna agertzen da, eta aktiboaren errendimenduaren eta leverage finantzarioaren batura gisa deskonposatuta dago. Ondoren, batugai horiek nola osatzen diren azaltzen du adar bakoitzak. Ikus daitekeenez, aktiboa eta pasiboa, hots, inbertsioa eta finantzaketa bereiztean datza piramidearen filosofia. Azken batean, "r" ratioak aktiboaren errendimendua neurtzen du, finantzatzeko modua (hau da, finantza-egitura) kontuan hartu gabe, eta eskuineko adarrak, berriz, finantzaketak ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errendimenduari leverage finantzarioaren bidez egiten dion ekarpena kalkulatu du.

Gai gehigarri bat aipatu beharra dago: piramidearen analisisian ezohiko emaitzei emango zaien tratamendua. Normalean, enpresei aplikatutako analisisian, emaitza horien errekurrentzia aztertzen da. Emaitzak errekurrenteak eta, beraz, neurri batean aurreikusteko modukoak badira, "r" mailan txerta daitezke piramidean, aktiboaren errendimendu bakarra kalkulaturik, ala bi kalkulaturik: ohiko errendimendua eta ezohikoa.

Dena dela, analisi sektorialari begira eta emaitzak errekurrenteak diren ala ez zehazteko ezintasuna dela-eta, atal honen amaieran erantsitako laukian irudikatutako irtenbideari jarraituko zaio sektore bakoitzean. Lauki horretan, "e" mailan txertatzen dira, eta ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko hiru errentagarritasun-mota bereizten dira: ohikoa (e1), berezko ezohikoa (e2) eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa (e3). Garbi dago azken adar hori kontuan hartzearen arrazoia: maila agregatutan, zerga sektorialen (T) zifrek e1 ratioa distortsiona dezakete (hau da, sektorearen berezko negozioari lotutako errentagarritasuna adierazten duena). Horregatik, % 28,5eko batez besteko zerga-tasa komun bat hartu da sektore guztietarako, eta zerga horrekiko diferentziak e3 adarrera eramanez dira.

Kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietarako ratioen piramideak erantsi dira, Euskal Herrirako zein Estatu osorako, eta 2014. eta 2015. urteetarako. Dena dela, operatibitate-arrazoiak direla-eta, piramideko ratioerik garrantzitsuenak hautatu dira hurrengo atalean, berezko ekonomia- eta finantza-analisi sektorialari buruzkoan.

Zehazki, ondare garbiaren errentagarritasun-ratioak (e) hautatu dira Euskal Herriko industria-sektoreen analisirako, ohikoak (e1) zein ezohikoak (e2 eta e3). Ondoren, ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren osagaien analisi xehatua egin da; hau da, aktibo garbiaren errentagarritasunarena (r, eta haren osagaiak: $BAID/V$ eta $V/(AF+ACN)$) eta leverage finantzarioarena $((r-i) \times (FA/PN))$ eta horren osagaiena: (r-i) eta FA/PN). Azkenik, Euskal Herriko eta Estatuoko industria-sektoreen arteko konparaziorako, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) eta haren osagaiak hautatu dira: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa $((r-i) \times (FA/PN))$.



Funtsen iturri eta erabileren egoera-orria¹

Ratioen piramidearen bidez, analisi ekonomikoa mozkinen oinarrituta egiten da, baina analisirako bigarren tresnak finantza-alderdia du ardatz, hau da, kutxaren edo funtsen fluxuen ikuspegia. Ondorengo taulan, funtsen iturri eta erabileren egoera-orriaren aurkezpen orokorra erakusten da. Ikus daitekeenez, funtsen iturri eta erabileren egoera-orria hiru kontzepturen kalkuluan oinarrituta dago:

- TINV: t urteko Inbertsio Diruzaintza, sektoreko aktiboak –haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe– liberatzen duen euro-kopuruarekin bat datorrena. Ezagunagoa da “free cash–flow” izen anglosaxoiaz. Erraz kalkulatu da; ohiko eragiketetan (GFO) sortutako euroei ezohiko eragiketetan (GFE) sortutakoak gehitu behar zaizkie, eta, ondoren, aktibo zirkulatuak garbian eta ibilgetuan egindako inbertsioak kendu.
- TFA: t urteko Kanpoko Funtsen Diruzaintza. Sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondoriozko funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten du.
- TPN: t urteko Ondare Garbiaren Diruzaintza; aurrekoaren kontzeptu berdina da, baina ondare garbiari aplikatua.

Hiru kontzeptuen baturak –urte jakin baterako– zero izan behar du. Azken batean, aktiboak euroak liberatzen dituenean (TINV>0) kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek eraman dutelako liberatzen dira. Aktiboak berez bere premiei erantzuterik izan ez badu, kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek dagokion dirua jarri beharko dute. Azken batean, zero balioa finantza-orekaren sinonimoa da, eta inoiz ez da interpretatu behar sektorearen osasun-adierazgarri gisa.

Jarduera-sektoreetarako proposatutako eskema orokorra aplikatzeko, ratioen piramidean zerga agregatuen zifrei emandako tratamendua hartu behar da kontuan. Horrela, beraz, % 28,5eko tasa orokorra dagoela joko da, eta jasandakoarekiko diferentziak aldi izandako funtsen ezohiko sorkuntzara eramango dira. Halaber, TPNa diferentziaren bidez kalkulatu dela adierazi beharra dago, abiapuntuko informazioak ez baitu aukerarik ematen beste era batean egiteko.

¹ Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (2002): “El estado de fuentes y empleos de fondos: una herramienta imprescindible en el análisis financiero”, *Harvard – Deusto Finanzas & Contabilidad*, 49 zk., iraila-urria, 2002, 18.-28. or.

	+ V_t	Ohiko salmentak
	- C_t	Kostu operatiboak, ordainketarekin
	- AM_t	Amortizazioa
	= $BAll_t$	Interesen eta zergen aurreko mozkinak
	* $(1-t)$	Zerga-eragina ($t = \text{zerga-tasa} = 0,285$)
	= $BAIdI_t$	Interesen aurreko eta zergen osteko mozkinak
	+ AM_t	Amortizazioa
	- IF_t	Alegiazko diru-sarrerak (ustiapenerako diru-laguntzak + ibilgetu-lanak)
	+ GFO_t	Funtsen sorkuntza operatiboa
	+ RE_t	Ezohiko emaitzak
	* $(1-t)$	Zerga-eragina ($t = 0,285$)
	= $REdI_t$	Zergen osteko ezohiko emaitzak
	+ EF_t	Zerga-eragina: $(0,285 - t \text{ efektiboa}) * \text{zergen aurreko mozkinak}$
	+ GFE_t	Funtsen ezohiko sorkuntza
	+ ACN_{t-1}	Hasierako aktibo zirkulatzailer garbia
	- ACN_t	Amaierako aktibo zirkulatzailer garbia
	- ΔACN_t	Aktibo zirkulatzailer garbian izandako gehikuntza
	- INV_t	Aktibo finkoko inbertsioa (ΔAF garbia + $AM - \text{ibilgetu-lanak}$)
+ $TINV_t$		Diruzaintza-fluxua, inbertsio-erabakiak
	+ $EFA_t - AFA_t$	Kostua duten kanpoko funtsen jaulkipena, amortizazioa kenduta
	+ I_t	Kanpoko funtsen interesak
	* $(1-t)$	Zerga-eragina ($t = 0,285$)
	- $(1-t) * I_t$	Funtsen detrakzioa interesen ondorioz
+ TFA_t		Diruzaintza-fluxua, kanpoko funtsekin finantzatzeko erabakiak
+ TPN_t		Diruzaintza-fluxua, ondare garbiarekin finantzatzeko erabakiak ($\Delta PN - BN + \text{ustiapenerako diru-laguntzak}$)
= 0		= 0

Bestalde, arestian adierazi denez, gerta liteke sektore bati buruzko informazioa osatzen duten enpresen lagina iraunkorra ez izatea. Horregatik, eta zenbait urtetarako serie homogeneo bat sortzeko helburuarekin, sektore bakoitzeko batez besteko funtsen iturri eta erabileren egoera-orriak aurkeztuko dira ondoren. Batezbestekoak kalkulatzeko, kontzeptu desberdinen eta lagina osatzen duten enpresa-kopuruen arteko zatiketa egin behar da.

Kasu honetan, aztertutako industria-sektore guztietarako funtsen iturri eta erabileren egoera-orriak ere erantsi dira kapituluaren amaieran, Euskal Herrirako zein Estatu osorako, eta 2014. eta 2015. urtetarako. Dena dela, operatibitate-arrazoia direla-eta, baliorik garrantzitsuenak ($TINV$, TFA eta TPN) hautatu dira azken atalean, funts sektorialen iturri eta erabileren egoera-orrien analisiari buruzkoan.

117. taula Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralaren enpresa laguntzaileen kopurua

SEKTOREA	Euskal Herria	Estatua
	2015	2015
Nekazaritzako elikagaiak	28	426
Papera	7	69
Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa	6	76
Kimika	8	158
Farmazia-produktuak	5	58
Kautxua eta plastikoa	14	123
Mineral ez-metalikoak	8	109
Metalurgia	23	83
Produktu metalikoak	51	266
Produktu informatikoak	8	39
Material eta ekipo elektrikoak	16	80
Makineria eta ekipoak	32	173
Motordun ibilgailuak	19	101
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	9	98
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	8	63
Industria, guztira	242	1.922

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

12.3 RATIOEN PIRAMIDEA

2015eko ekitaldirako azken datu eskuragarriak kontuan hartuta, eta lehenik eta behin ondare garbiaren errentagarritasunari (e) dagokionez, alde esanguratsuak daude Euskal Herrian aztertutako industria-sektoreen artean. Zehazki, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- 2015ean ondare garbiaren errentagarritasunik handiena izan duten sektoreak honako hauek izan dira: Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 20,2), Farmazia-produktuak (% 20,0), Kautxua eta plastikoa (% 16,7) eta Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 12,4).
- Beste sektore hauek industria osoaren batezbestekoa (% 7,6) baino ondare garbiaren errentagarritasun handiagoa izan dute, baina ez aurrekoek bezain handia: Nekazaritzako elikagaiak (% 11,6), Papera (% 10,1), Motordun ibilgailuak (% 9,8), Makineria eta ekipoak (% 9,7), Produktu metalikoak (% 9,3), Arte grafikoak (% 8,8) eta Material eta ekipo elektrikoak (% 8,7).
- Azkenik, batezbestekotik beherako ondare garbiaren errentagarritasuna izan dute gainerako sektoreek: Produktu informatikoak (-% 0,6), Metalurgia (-% 3,5), Mineral ez-metalikoak (-% 8,1) eta Kimika (-% 22,5).

Ondare garbiaren errentagarritasun horren analisi desagregatuak, ohikoa (e1), berezko ezohikoa (e2) eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa (e3) bereizita, 2015eko ekitaldiko honako alderdi hauek azpimarratzeko aukera ematen du:

- Oro har, eta espero zenez, ondare garbiaren errentagarritasuna ohiko errentagarritasunean oinarrituta dago batik bat. Ezohiko errentagarritasuna (e2 eta e3), berriz, osagarria da batez ere.
- Edonola ere, alde batetik, sektore hauetan ondare garbiaren errentagarritasun berez ezohikoa (e2) negatiboa izan dela azpimarratu beharra dago: Kimika (-% 36,0), Material eta ekipo elektrikoak (-% 9,3), Motordun ibilgailuak (-% 1,9), Papera (-% 0,3), Produktu metalikoak (-% 0,3) eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (-% 0,3); lehenbiziko hirurak batezbestekotik (-% 1,0) behera daude. Bestetik, sektore hauek maila positiboa lortu dutela adierazi beharra dago: Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 7,8), Kautxua eta plastikoa (% 3,7), Produktu informatikoak (% 3,1), Mineral ez-metalikoak (% 1,3), Arte grafikoak (% 0,7), Nekazaritzako elikagaiak (% 0,6), Makineria eta ekipoak (% 0,3), Metalurgia (% 0,2) eta Farmazia-produktuak (% 0,1).
- Halaber, sektore hauetan zerga-eraginari lotutako ondare garbiaren ezohiko errentagarritasun (e3) handia (% 1,2ko batez bestekoa baino handiagoa) lortu dutela kontuan hatu behar da: Kautxua eta plastikoa (% 4,1), Farmazia-produktuak (% 2,7), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 2,7), Material eta ekipo elektrikoak (% 1,8), Makineria eta ekipoak (% 1,7), Kimika (% 1,6), Arte grafikoak (% 1,6), Nekazaritzako elikagaiak (% 1,6), Produktu metalikoak (% 1,5), eta Papera (% 1,5).

118. taula Ondare garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	e (%)		e1 (%)		e2 (%)		e3 (%)	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015
Nekazaritzako elikagaiak	9,6	11,6	7,8	9,3	0,1	0,6	1,7	1,6
Papera	4,5	10,1	4,4	8,9	0,2	-0,3	-0,1	1,5
Arte grafikoak	--	8,8	--	6,5	--	0,7	--	1,6
Kimika	16,5	-22,5	9,1	11,9	5,2	-36,0	2,3	1,6
Farmazia-produktuak	--	20,0	--	17,3	--	0,1	--	2,7
Kautxua eta plastikoa	13,7	16,7	10,7	8,9	-0,3	3,7	3,3	4,1
Mineral ez-metalikoak	-4,4	-8,1	-4,3	-5,4	1,1	1,3	-1,2	-3,9
Metalurgia	-11,0	-3,5	-5,5	-3,7	-1,5	0,2	-4,0	0,1
Produktu metalikoak	7,1	9,3	6,4	8,1	0,2	-0,3	0,5	1,5
Produktu informatikoak	-6,0	-0,6	-1,5	-1,7	-5,8	3,1	1,3	-2,1
Material eta ekipo elektrikoak	14,0	8,7	13,5	16,3	-1,2	-9,3	1,6	1,8
Makineria eta ekipoak	5,6	9,7	6,4	7,6	-0,3	0,3	-0,4	1,7
Motordun ibilgailuak	11,5	9,8	11,1	10,7	-0,1	-1,9	0,5	1,0
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	5,4	12,4	4,8	1,9	0,7	7,8	0,0	2,7
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	27,2	20,2	28,6	20,3	0,0	-0,3	-1,4	0,2
Industria, guztira	6,3	7,6	5,8	7,4	-0,3	-1,0	0,8	1,2

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Ondare garbiaren errentagarritasuna (e) aztertu ondoren –ohikoa (e1) zein ezohikoa (e2 eta e3)–, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) zehazten duten osagaien analisi sakonagoa egingo da; hau da, aktibo garbiaren errentagarritasunaren (r) eta leverage finantzarioaren ((r-i) x (FA/PN)) analisia.

119. taula Aktibo garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	r (%)		BAIdl / V (%)		V / (AF + ACN)	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015
Nekazaritzako elikagaiak	4,9	7,5	4,8	5,9	1,006	1,273
Papera	4,0	8,3	3,2	5,6	1,240	1,483
Arte grafikoak	--	5,4	--	5,8	--	0,942
Kimika	6,8	9,4	4,2	5,5	1,625	1,702
Farmazia-produktuak	--	15,1	--	13,6	--	1,114
Kautxua eta plastikoa	8,6	7,2	6,1	5,5	1,414	1,320
Mineral ez-metalikoak	0,4	0,6	1,1	2,2	0,325	0,264
Metalurgia	0,1	-1,2	0,1	-0,8	1,677	1,468
Produktu metalikoak	4,7	5,5	2,8	4,7	1,658	1,157
Produktu informatikoak	1,3	1,0	2,3	1,0	0,571	1,012
Material eta ekipo elektrikoak	7,7	6,5	5,3	5,9	1,446	1,093
Makineria eta ekipoak	5,1	6,5	4,8	4,0	1,049	1,596
Motordun ibilgailuak	9,4	7,9	2,9	2,9	3,256	2,727
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	4,6	1,9	4,3	1,9	1,064	0,957
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	21,3	13,1	4,2	3,6	5,136	3,665
Industria, guztira	4,3	5,4	3,3	3,9	1,293	1,387

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Aktibo garbiaren errentagarritasunari (r) dagokionez, honako alderdi hauek aipa daitezke 2015. urterako aztertutako Euskal Herriko industria-sektoreetan:

- 2015. urtean, oro har, aktibo garbiaren errentagarritasuna funts propioen errentagarritasunaren osagai nagusia izan da berriz, leverage finantzarioak eragin txikiagoa baitu. Izan ere, ekitaldi horretan, leverage finantzarioak maila negatiboa izan du sektore batzuetan (alderdi hori geroago aztertuko da zehatzago, osagai hori aztertzerakoan).
- Alde horretatik, 2015ean, sektore hauek izan zuten aktibo garbiaren errentagarritasunik handienak: Farmazia-produktuak (% 15,1), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 13,1), Kimika (% 9,4), Papera (% 8,3), Motordun ibilgailuak (% 7,9), Nekazaritzako elikagaiak (% 7,5), Kautxua eta plastikoa (% 7,2), Material eta ekipo elektrikoak (% 6,5), Makineria eta ekipoa (% 6,5), Produktu metalikoak (% 5,5), eta, industriako batez besteko errentagarritasun berdina izanik (% 4,3), Arte grafikoen sektorea. Batezbestekotik beherako aktibo garbiaren errentagarritasuna izan duten sektoreak honako hauek izan dira: Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 1,9), Produktu informatikoak (% 1,0), Mineral ez-metalikoak (% 0,6) eta Metalurgia (-% 1,2)

- Aktibo garbiaren errentagarritasuna zehazten duten osagaiak kontuan hartuta, eta lehenik eta behin BAId/V ratioa (interesaren aurreko eta zergen osteko mozkinaren proportzioa ustiapeneko ohiko diru-sarrerekiko) aztertuta, honako sektore hauetan lortutako maila handia adierazi beharra dago: Farmazia-produktuak (% 13,6), Nekazaritzako elikagaiak (% 5,9), Material eta ekipo elektrikoak (% 5,9) eta Arte grafikoak (% 5,8). Industria osoaren batezbestekoaren (% 3,9) azpitik, berriz, honako sektore hauek daude: Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 3,6), Motordun ibilgailuak (% 2,9), Mineral ez-metalikoak (% 2,2), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 1,9), Produktu informatikoak (% 1,0) eta Metalurgia (-% 0,8).
- Ustiapeneko ohiko diru-sarreraren eta aktibo garbiaren arteko erlazioa neurtzen duen $V/(AF+ACN)$ ratioari dagokionez, honako sektore hauetan lortutako maila handia azpimarratu behar da: Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (3,665) eta Motordun ibilgailuak (2,727); biak batezbestekoaren (1,387) gainetik daude argi eta garbi. Gainerako sektoreak beste muturrean daude, eta ezaugarri horri dagokionez, Mineral ez-metalikoen (0,264), Arte grafikoen (0,942) eta Altzariak eta beste manufaktura batzuen (0,957) sektoreak nabarmentzen dira, batezbestekotik oso behera baitaude.

120. taula Leverage finantzarioa Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	$(r - i) \times (FA / PN) (\%)$		$(r - i)$		FA / PN (%)	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015
Nekazaritzako elikagaiak	2,9	1,8	0,037	0,063	77,2	28,9
Papera	0,5	0,6	0,026	0,073	18,1	7,7
Arte grafikoak	--	1,1	--	0,042	--	25,4
Kimika	2,3	2,5	0,058	0,060	39,1	41,8
Farmazia-produktuak	--	2,2	--	0,132	--	16,6
Kautxua eta plastikoak	2,2	1,7	0,072	0,058	30,1	28,9
Mineral ez-metalikoak	-4,7	-6,0	-0,035	-0,029	135,3	207,8
Metalurgia	-5,7	-2,5	-0,029	-0,037	194,3	66,6
Produktu metalikoak	1,7	2,6	0,023	0,034	75,7	77,2
Produktu informatikoak	-2,8	-2,6	-0,010	-0,051	287,3	51,6
Material eta ekipo elektrikoak	5,8	9,8	0,047	0,049	124,3	201,2
Makineria eta ekipoak	1,4	1,2	0,024	0,038	57,0	31,2
Motordun ibilgailuak	1,7	2,8	0,067	0,062	25,9	44,8
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	0,1	0,1	0,007	0,002	22,2	33,9
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	7,2	7,2	0,194	0,121	37,3	59,7
Industria, guztira	1,5	2,0	0,017	0,031	87,8	66,3

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Leverage finantzarioaren analisiari dagokionez $((r - i) \times (FA / PN))$, 2015. urtean honako alderdi hauek azpimarra daitezke Euskal Herriko industria-sektoreetan:

- Lehen aipatu da leverage finantzarioak, oro har, aktibo garbiaren errentagarritasunak baino proportzio txikiagoa duela ondare garbiaren errentagarritasunean. Alde horretatik, azpimarratu beharra dago honako sektore hauetan lortutako maila handia: Material eta ekipo elektrikoak (% 9,8), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 7,2), Motordun ibilgailuak (% 2,8), Produktu metalikoak (% 2,6), Kimika (% 2,5) eta Farmazia-produktuak (% 2,2); guztiek gainditu dute industria osoaren batezbestekoa (% 2,0). Beste sektore hauek, berriz, batezbestekoaren azpitiko balioak izan dituzte, negatiboak gainera: Mineral ez-metalikoak (-% 6,0), Produktu informatikoak (-% 2,6) eta Metalurgia (-% 2,5).
- Leverage finantzarioa zehazten duten osagaiei erreparatuta, eta aktibo garbiaren errentagarritasunaren eta kostu esplizitua duen kanpoko finantzaketaren kostu garbiaren ($r-1$) arteko diferentziarekin aztertuta, honako sektore hauetan lortutako maila handia azpimarratu beharra dago: Farmazia-produktuak (0,132) eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,121); guztiak industria osoaren batezbestekoaren (0,031) gainetik daude. Balio negatiboekin eta batezbestekoaren azpitik, berriz, honako sektore hauek daude: Mineral ez-metalikoak (-0,029), Metalurgia (-0,037) eta Produktu informatikoak (-0,051).
- Zorpetze-maila neurtzen duen FA/PN ratioari (hots, kanpoko funtsek ondare garbian duten proportzioari) dagokionez, honako sektore hauetako maila azpimarratu beharra dago: Mineral ez-metalikoak (% 207,8), Material eta ekipo elektrikoak (% 201,2), Produktu metalikoak (% 77,2) eta Metalurgia (% 66,6). Beste muturrean, hauek izan dira zorpetze-mailarik txikieneko sektoreak: Papera (% 7,7), Farmazia-produktuak (% 16,6), Arte grafikoak (% 25,4), Kautxua eta plastikoa (% 28,9), Nekazaritzako elikagaiak (% 28,9), eta Makineria eta ekipoa (% 31,2). Nolanahi ere, adierazi beharra dago sektore gehienak (11, zehazki) batezbestekoaren (% 66,3) azpitik daudela zorpetzeari dagokionez

121. taula Euskal Herriko industria-sektoreen eta Estatuko arteko konparazioa, 2015


SEKTOREA	e1 (%)		r (%)		(r - i) x (FA / PN) (%)	
	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua
Nekazaritzako elikagaiak	9,3	9,2	7,5	6,0	1,8	3,2
Papera	8,9	8,8	8,3	7,2	0,6	1,7
Arte grafikoak	6,5	3,4	5,4	3,2	1,1	0,2
Kimika	11,9	11,5	9,4	8,4	2,5	3,1
Farmazia-produktuak	17,3	10,6	15,1	7,8	2,2	2,8
Kautxua eta plastikoa	8,9	19,8	7,2	12,5	1,7	7,3
Mineral ez-metalikoak	-5,4	2,2	0,6	2,3	-6,0	-0,1
Metalurgia	-3,7	3,9	-1,2	3,2	-2,5	0,7
Produktu metalikoak	8,1	10,0	5,5	7,0	2,6	3,0
Produktu informatikoak	-1,7	4,3	1,0	4,2	-2,6	0,1
Material eta ekipo elektrikoak	16,3	13,1	6,5	7,3	9,8	5,8
Makineria eta ekipoak	7,6	19,0	6,5	13,9	1,2	5,1
Motordun ibilgailuak	10,7	12,3	7,9	7,8	2,8	4,4
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	1,9	6,7	1,9	5,6	0,1	1,1
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	20,3	17,2	13,1	12,7	7,2	4,5
Industria, guztira	7,4	9,5	5,4	6,6	2,0	2,9

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Azkenik, Euskal Herriko industria-sektoreen ekonomia- eta finantza-egoeraren eta Estatuko industria-sektorearen egoeraren arteko konparazioari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:


- 2015ean, sektore hauetan, funts propioen ohiko errentagarritasuna (e1) handiagoa izan da Euskal Herrian Estatuan baino: Farmazia-produktuak, Arte grafikoak, Material eta ekipo elektrikoak, Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa, Kimika, Nekazaritzako elikagaiak eta Papera. Gainerako sektoreetan, berriz, alderantziz gertatu da.
- Aktibo garbiaren errentagarritasunari dagokionez, sektore hauetan errentagarritasuna handiagoa izan da Euskal Herrian Estatu osoan baino: Farmazia-produktuak, Arte grafikoak, Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa, Kimika, Nekazaritzako elikagaiak, Papera eta Motordun ibilgailuak. Leverage finantzarioari dagokionez, Estatuan baino handiagoa izan da Euskal Herrian sektore hauetan: Arte grafikoak, Material eta ekipo elektrikoak, eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa.

18. grafikoa Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta haren osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2015



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

19. grafikoa Euskal Herriko industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren (e1) eta Estatu osokoaren arteko konparazioa, 2015



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

12.4 FUNTSEN ITURRI ETA ERABILEREN EGOERA-ORRIA

2015eko ekitaldirako azken datu eskuragarrien arabera, eta lehenik eta behin inbertsio-diruzaintza (TINV) kontuan hartuta (hau da, aktiboak -haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe- liberatzen dituen euroekin bat datorrena eta "free cash-flow" izenarekin ezagutzen dena), alde esanguratsuak daude Euskal Herrian aztertutako industria-sektoreen artean. Zehazki, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- 2015. urtean inbertsio-diruzaintzarik handiena izan duen sektorea Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak izan da (21,55 milioi euro enpresa bakoitzeko), eta, horren atzetik, honako hauek: Papera (7,41), Kautxua eta plastikoa

(5,81) eta Produktu mineral ez-metalikoak (5,32); lau kasuetan, industria osoaren batezbestekoa (2,68 milioi enpresa bakoitzeko) baino askoz handiagoa izan da.

- Industria osoaren batezbestekoaren azpitik, baina balio positiboekin, honako sektore hauek daude: Produktu metalikoak (0,61), Arte grafikoak (0,58), Farmazia-produktuak (0,47) eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,22). Honako hauek, berriz, balio negatiboak izan dituzte eta industria osoaren batezbestekoaren oso azpitik egon dira: Altzariak eta beste manufaktura batzuk (-0,28) eta, batez ere, Material eta ekipo elektrikoak (-2,45).

122. taula Euskal Herriko industria-sektoreetako funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro)*

SEKTOREA	TINV		TFA		TPN	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015
Nekazaritzako elikagaiak	5,20	4,38	-3,76	-2,32	-1,44	-2,07
Papera	5,74	7,41	-3,50	-1,54	-2,23	-5,87
Arte grafikoak	--	0,58	--	0,21	--	-0,79
Kimika	0,89	1,48	-0,56	-4,49	-0,33	3,01
Farmazia-produktuak	--	0,47	--	1,27	--	-1,74
Kautxua eta plastikoa	6,24	5,81	-0,72	-1,31	-5,52	-4,50
Mineral ez-metalikoak	-3,45	5,32	16,25	-4,26	-12,79	-1,06
Metalurgia	0,96	4,40	-0,58	-10,79	-0,38	6,39
Produktu metalikoak	0,72	0,61	-0,27	-0,15	-0,45	-0,46
Produktu informatikoak	-4,99	21,55	3,78	-19,41	1,22	-2,13
Material eta ekipo elektrikoak	24,21	-2,45	-32,36	2,80	8,15	-0,35
Makineria eta ekipoak	0,39	1,20	-0,09	-1,15	-0,29	-0,05
Motordun ibilgailuak	5,33	1,58	0,89	4,66	-6,22	-6,23
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	-0,03	-0,28	0,06	0,10	-0,02	0,19
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	-0,09	0,22	-0,12	0,55	0,21	-0,77
Industria, guztira	3,77	2,68	-1,64	-1,92	-2,13	-0,76

(*): Batezbesteko sektorialak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) dagokionez (sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondoriozko funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten du), honako alderdi hauek azpimarratu behar dira 2015. urtean:

- Saldorik handiena izan duten sektoreak honako hauek izan dira: Motordun ibilgailuak (4,66 milioi euro enpresa bakoitzeko), Material eta ekipo elektrikoak (2,80), Farmazia-produktuak (1,27) eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,55). Lau sektore horiek industria osoaren batez besteko baliotik (-1,92 milioi enpresa bakoitzeko) gora egon dira, argi eta arbi. Halaber, Arte grafikoen (0,21) eta Altzariak eta beste manufaktura batzuen (0,10) sektoreak aipatu behar dira, saldo positiboa izan baitute.

- Saldo negatiboarekin, baina batez besteko balioaren gaineratik, sektore hauek egon dira: Produktu metalikoak (-0,15 milioi euro enpresa bakoitzeko), Makineria eta ekipoa (-1,15), Kautxua eta plastikoak (-1,31), eta Papera (-1,54). Batez besteko balioaren oso azpitik, balio negatiboekin ere, sektore hauek daude: Metalurgia (-10,79) eta Produktu informatikoak (-19,41).

Azkenik, ondare garbiaren diruzaintzari dagokionez (TPN; sektorearen eta ondare garbiaren hornitzaileen arteko erlazioaren ondoriozko sarreren eta irteeren arteko aldeak adierazten ditu), honako alderdi hauek azpimarratu behar dira 2015. urtean:

- Saldorik handiena izan duten sektoreak Metalurgia (6,39 milioi euro enpresa bakoitzeko) eta Kimika (3,01 milioi euro enpresa bakoitzeko) izan dira; alde handia atera diete gainerako sektoreei, eta industria osoaren batezbestekoaren (-0,76 milioi euro enpresa bakoitzeko) gaineratik egon dira, argi eta garbi.
- Azpimarratu beharra dago beste sektore batek soilik izan duela saldo positiboa: Altzariak eta beste manufaktura batzuk (0,19 milioi euro enpresa bakoitzeko). Gainerakoek saldo negatiboak izan dituzte, eta bereziki honako hauek azpimarratu behar dira: Kautxua eta plastikoa (-4,50 milioi euro enpresa bakoitzeko), Papera (-5,87) eta Motordun ibilgailuak (-6,23).

123. taula Euskal Herriko industria-sektoreen eta Estatuko arteko konparazioa, 2015

(M euro)*

SEKTOREA	TINV		TFA		TPN	
	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua
Nekazaritzako elikagaiak	4,38	3,71	-2,32	-1,68	-2,07	-2,03
Papera	7,41	6,34	-1,54	0,89	-5,87	-7,23
Arte grafikoak	0,58	-0,46	0,21	-0,02	-0,79	0,48
Kimika	1,48	2,78	-4,49	-2,69	3,01	-0,08
Farmazia-produktuak	0,47	9,31	1,27	0,52	-1,74	-9,83
Kautxua eta plastikoa	5,81	3,82	-1,31	-0,05	-4,50	-3,78
Mineral ez-metalikoak	5,32	5,14	-4,26	-5,02	-1,06	-0,12
Metalurgia	4,40	3,73	-10,79	-4,85	6,39	1,12
Produktu metalikoak	0,61	1,24	-0,15	-0,67	-0,46	-0,57
Produktu informatikoak	21,55	4,56	-19,41	-4,05	-2,13	-0,51
Material eta ekipo elektrikoak	-2,45	2,71	2,80	-5,77	-0,35	3,06
Makineria eta ekipoak	1,20	2,20	-1,15	-0,67	-0,05	-1,53
Motordun ibilgailuak	1,58	4,17	4,66	-1,27	-6,23	-2,89
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	-0,28	1,19	0,10	0,27	0,19	-1,47
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	0,22	0,75	0,55	-0,31	-0,77	-0,44
Industria, guztira	2,68	3,12	-1,92	-1,58	-0,76	-1,53

(*): Batezbesteko sektorialak.


Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Euskal Herriko industria-sektoreetako funtsen iturri eta erabileren egoera-orriaren eta Estatukoaren arteko konparazioari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira 2015. urtean:

- 2015. urtean, sektore gehienek (Arte grafikoak, Material eta ekipo elektrikoak, eta Altzariak eta beste manufaktura batzuk izan ezik) inbertsio-diruzaintza (TINV) positiboa izan dute. Nekazaritzako elikagaiak, Papera, Arte grafikoak, Kautxua eta plastikoa, Mineral ez-metalikoak, Metalurgia, eta Produktu informatikoak sektoreek inbertsio-diruzaintza handiagoa izan dute Euskal Herrian Estatu osoan baino. Aztertutako gainerako sektoreetan, berriz, alderantziz gertatu da.
- Kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) dagokionez, Euskal Herriko sektore hauek Estatuko sektoreek baino balio handiagoak izan dituzte: Arte grafikoak, Farmazia-produktuak, Mineral ez-metalikoak, Produktu metalikoak, Material eta ekipo elektrikoak, Motordun ibilgailuak, eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa.
- Azkenik, ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, antzeko zerbait gertatzen da, eta Euskal Herriko sektoreen erdietan, gutxi gorabehera, handiagoa da ondare garbiaren diruzaintzaren balioa Estatuan baino. Nolanahi ere, azpimarratu behar da Metalurgia (6,39 milioi euro enpresa bakoitzeko), Kimika (3,01) eta Altzariak eta beste manufaktura batzuk (0,19) sektoreek soilik dutela ondare garbiaren diruzaintzako balio positiboa. Gainerako sektoreetan, berriz, alderantziz gertatzen da.

20. grafikoa Funtzen iturri eta erabileren egoera-orria Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2015

(M euro)*




(*): Batezbesteko sektorialak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

21. grafikoa Euskal Herriko industria-sektoreetako inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxuaren eta Estatu osokoaren arteko konparazioa, 2015

(M euro)*




(*): Batezbesteko sektorialak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




124. taula Elikagaien, edarien eta tabakoaren industrien sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


125. taula Paperaren industriaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




126. taula Arte grafikoan eta grabatutako euskarrien erreproduktzioaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

127. taula Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

128. taula Farmazia-produktuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


129. taula Kautxuaren eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




130. taula Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


131. taula Metalurgiaren (burdinazko eta altzairuzko produktuen, eta ferroaleazioen fabrikazioa) sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




132. taula Produktu metalikoen fabrikazioaren (makineriarena eta ekipoena izan ezik) sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk...

133. taula Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

134. taula Material eta ekipu elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


135. taula Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




136. taula Ibilgailu motordunen, atoi eta erdi-atoiaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


137. taula Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




138. taula Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

139. taula Industria osoko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

140. taula Elikagaien, edariaren eta tabakoaren industriaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	85,66	46,79	81,97	83,04
- C_t	77,32	41,49	73,20	74,75
- AM_t	2,53	1,44	2,50	2,40
= BAI_t	5,81	3,86	6,26	5,90
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAIdI_t$	4,15	2,76	4,48	4,22
+ AM_t	2,53	1,44	2,50	2,40
- IF_t	0,12	0,13	0,12	0,12
+ GFOT	6,56	4,07	6,86	6,49
+ RE_t	0,09	0,25	0,26	-0,12
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdI_t$	0,06	0,18	0,19	-0,08
+ EF_t	0,81	0,47	0,19	0,34
+ GFET	0,87	0,64	0,37	0,25
+ $ACNt-1$	38,16	15,73	17,82	15,06
- $ACNt$	37,47	14,18	16,15	16,56
- $\Delta ACNt$	-0,69	-1,55	-1,67	1,50
- $INVt$	2,92	1,89	2,09	1,53
+ $TINVt$	5,20	4,38	6,82	3,71
+ $EFAt - AFAt$	-3,33	-2,21	-1,64	-1,00
+ I_t	0,59	0,14	1,12	0,96
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * I_t$	0,42	0,10	0,80	0,69
+ TFA_t	-3,76	-2,32	-2,44	-1,68
+ $TPNt$	-1,44	-2,07	-4,38	-2,03
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

141. taula Paperaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	68,20	84,80	82,74	82,30
- C_t	61,37	74,04	73,89	70,08
- AM_t	3,77	4,12	3,54	3,26
= $BAll_t$	3,06	6,64	5,31	8,96
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAl_d_t	2,19	4,75	3,79	6,40
+ AM_t	3,77	4,12	3,54	3,26
- IF_t	0,20	0,43	0,21	0,19
+ GFOT	5,76	8,44	7,12	9,48
+ RE_t	0,13	-0,20	-1,15	-0,74
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE_d_t	0,10	-0,14	-0,82	-0,53
+ EFT	-0,05	0,80	-0,17	0,13
+ GFET	0,05	0,66	-0,99	-0,40
+ ACN_t-1	20,80	17,91	25,24	23,03
- ACN_t	20,50	20,56	25,78	23,41
- ΔACN_t	-0,30	2,64	0,54	0,38
- INV_t	0,37	-0,96	0,63	2,36
+ $TINV_t$	5,74	7,41	4,96	6,34
+ $EFA_t - AFA_t$	-3,39	-1,50	-1,52	2,40
+ It	0,16	0,06	1,50	2,11
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,12	0,04	1,07	1,51
+ TFA_t	-3,50	-1,54	-2,59	0,89
+ TPN_t	-2,23	-5,87	-2,37	-7,23
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

142. taula Arte grafikoaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	-	12,85	-	12,16
- C_t	-	10,96	-	10,84
- AM_t	-	0,86	-	0,72
= $BAll_t$	-	1,03	-	0,59
* $(1-t)$	-	0,715	-	0,715
= BAl_d_t	-	0,74	-	0,42
+ AM_t	-	0,86	-	0,72
- IF_t	-	0,00	-	0,03
+ GFOT	-	1,59	-	1,11
+ RE_t	-	0,11	-	0,10
* $(1-t)$	-	0,715	-	0,715
= RE_d_t	-	0,08	-	0,07
+ EFT	-	0,17	-	0,05
+ GFET	-	0,25	-	0,12
+ ACN_{t-1}	-	3,27	-	5,72
- ACN_t	-	2,82	-	6,47
- ΔACN_t	-	-0,45	-	0,75
- INV_t	-	1,72	-	0,95
+ $TINV_t$	-	0,58	-	-0,46
+ $EFA_t - AFA_t$	-	0,25	-	0,03
+ It	-	0,05	-	0,07
* $(1-t)$	-	0,715	-	0,715
- $(1-t) * It$	-	0,03	-	0,05
+ TFA_t	-	0,21	-	-0,02
+ TPN_t	-	-0,79	-	0,48
= 0	-	0,00	-	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

143. taula Industria kimikoaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-oria

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	31,96	33,58	151,99	129,48
- C_t	28,48	29,86	140,68	116,21
- AM_t	1,61	1,13	3,19	2,87
= BAI_t	1,87	2,59	8,12	10,40
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAId_t$	1,34	1,85	5,81	7,44
+ AM_t	1,61	1,13	3,19	2,87
- IF_t	0,04	0,04	0,25	0,21
+ GFO_t	2,90	2,94	8,75	10,09
+ RE_t	1,02	-7,00	-1,64	-1,70
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= REd_t	0,73	-5,00	-1,17	-1,22
+ EFT	0,32	0,22	0,46	0,20
+ $GFET$	1,06	-4,78	-0,71	-1,01
+ ACN_{t-1}	7,30	7,86	26,73	23,16
- ACN_t	9,44	10,55	26,99	24,68
- ΔACN_t	2,14	2,69	0,25	1,52
- INV_t	0,93	-6,01	1,10	4,78
+ $TINV_t$	0,89	1,48	6,69	2,78
+ $EFA_t - AFA_t$	-0,50	-4,29	-3,32	-2,14
+ It	0,08	0,28	0,70	0,78
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,05	0,20	0,50	0,56
+ $TFAT$	-0,56	-4,49	-3,82	-2,69
+ TPN_t	-0,33	3,01	-2,87	-0,08
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

144. taula Farmazia-produktuen fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V _t	-	125,32	-	153,73
- C _t	-	96,97	-	131,49
- AM _t	-	4,60	-	5,52
= BAIt _t	-	23,76	-	16,72
* (1-t)	-	0,715	-	0,715
= BAIdI _t	-	16,99	-	11,95
+ AM _t	-	4,60	-	5,52
- IF _t	-	0,13	-	1,10
+ GFOT	-	21,46	-	16,38
+ RE _t	-	0,08	-	-0,33
* (1-t)	-	0,715	-	0,715
= REdIt	-	0,06	-	-0,23
+EF _t	-	2,58	-	1,12
+ GFET	-	2,63	-	0,89
+ ACNt-1	-	34,62	-	59,18
- ACNt	-	52,11	-	62,85
- ΔACNt	-	17,49	-	3,66
- INVt	-	6,14	-	4,30
+ TINVt	-	0,47	-	9,31
+ EFAt - AFAt	-	1,57	-	1,31
+ It	-	0,41	-	1,11
* (1-t)	-	0,715	-	0,715
- (1-t) * It	-	0,30	-	0,79
+ TFAt	-	1,27	-	0,52
+ TPNt	-	-1,74	-	-9,83
= 0	-	0,00	-	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

145. taula Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	109,33	89,78	56,63	63,54
- C_t	94,77	78,24	48,95	55,72
- AM_t	5,29	4,67	2,32	2,46
= $BAll_t$	9,27	6,87	5,36	5,36
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAld_t$	6,63	4,91	3,83	3,83
+ AM_t	5,29	4,67	2,32	2,46
- IF_t	0,15	0,21	0,20	0,26
+ $GFOt$	11,77	9,37	5,96	6,03
+ REt	-0,29	2,73	-0,33	0,04
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdIt$	-0,21	1,95	-0,24	0,03
+ Eft	1,96	2,18	0,11	0,27
+ $GFEt$	1,75	4,14	-0,13	0,30
+ $ACNt-1$	10,99	9,99	10,72	11,35
- $ACNt$	10,55	11,40	12,52	11,04
- $\Delta ACNt$	-0,45	1,41	1,80	-0,30
- $INVt$	7,72	6,29	2,66	2,81
+ $TINVt$	6,24	5,81	1,37	3,82
+ $EFAt - AFAt$	-0,47	-1,09	0,11	0,15
+ It	0,35	0,31	0,40	0,27
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,25	0,22	0,29	0,19
+ $TFAt$	-0,72	-1,31	-0,18	-0,05
+ $TPNt$	-5,52	-4,50	-1,19	-3,78
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

146. taula Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	60,03	56,03	42,62	44,32
- C_t	55,39	49,52	34,93	38,29
- AM_t	3,70	4,81	2,32	2,87
= $BAll_t$	0,94	1,69	5,37	3,16
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAld_t$	0,67	1,21	3,84	2,26
+ AM_t	3,70	4,81	2,32	2,87
- IF_t	0,14	0,29	0,21	0,31
+ GFOT	4,22	5,73	5,95	4,82
+ REt	1,26	1,21	-1,69	-4,59
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdlt$	0,90	0,86	-1,21	-3,28
+ Eft	-0,98	-2,72	-0,15	-2,08
+ GFET	-0,08	-1,85	-1,36	-5,36
+ $ACNt-1$	33,56	14,90	19,96	16,81
- $ACNt$	23,01	11,69	17,34	16,47
- $\Delta ACNt$	-10,56	-3,21	-2,62	-0,33
- $INVt$	18,15	1,77	0,72	-5,35
+ $TINVt$	-3,45	5,32	6,49	5,14
+ $EFAt - AFAt$	20,31	0,70	-3,27	-4,08
+ It	5,68	6,93	1,51	1,32
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	4,06	4,95	1,08	0,94
+ $TFAt$	16,25	-4,26	-4,35	-5,02
+ $TPNt$	-12,79	-1,06	-2,14	-0,12
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

147. taula Metalurgiaren (burdinazko eta altzairuzko produktuen, eta ferroaleazioen fabrikazioa) sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	137,55	98,85	209,16	202,98
- C_t	132,59	95,60	198,18	191,02
- AM_t	4,80	4,42	5,13	5,13
= BAI_t	0,16	-1,17	5,85	6,83
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAId_t$	0,11	-0,83	4,19	4,89
+ AM_t	4,80	4,42	5,13	5,13
- IF_t	0,40	0,42	0,88	0,37
+ GFOT	4,52	3,16	8,43	9,64
+ RE_t	-0,60	0,09	62,71	-1,15
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= REd_t	-0,43	0,07	44,84	-0,82
+ EFT	-1,11	0,02	16,62	0,41
+ GFET	-1,54	0,09	61,45	-0,41
+ $ACNt-1$	21,44	30,58	59,20	62,21
- $ACNt$	30,48	26,33	56,89	63,29
- $\Delta ACNt$	9,05	-4,25	-2,31	1,08
- $INVt$	-7,02	3,10	-2,65	4,41
+ $TINVt$	0,96	4,40	74,84	3,73
+ $EFA_t - AFA_t$	1,07	-10,12	-10,36	-3,36
+ It	2,31	0,94	2,73	2,08
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	1,65	0,67	1,95	1,49
+ TFA_t	-0,58	-10,79	-12,31	-4,85
+ $TPNt$	-0,38	6,39	-62,52	1,12
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

148. taula Produktu metalikoen fabrikazioaren (makineria eta ekipoak izan ezik) sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	20,51	19,65	20,11	20,41
- C_t	19,02	17,64	18,50	18,22
- AM_t	0,68	0,70	0,55	0,63
= BAI_t	0,81	1,30	1,06	1,56
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAId_t$	0,58	0,93	0,76	1,12
+ AM_t	0,68	0,70	0,55	0,63
- IF_t	0,10	0,11	0,08	0,09
+ GFOT	1,16	1,53	1,24	1,66
+ RE_t	0,02	-0,04	0,07	-0,01
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= REd_t	0,01	-0,03	0,05	-0,01
+ EFT	0,03	0,15	-0,03	0,09
+ GFET	0,05	0,12	0,02	0,08
+ ACN_{t-1}	5,98	6,97	6,89	7,04
- ACN_t	5,76	7,46	6,26	6,92
- ΔACN_t	-0,22	0,50	-0,63	-0,12
- INV_t	0,71	0,54	0,53	0,62
+ $TINV_t$	0,72	0,61	1,35	1,24
+ $EFA_t - AFA_t$	-0,14	0,01	-0,43	-0,46
+ It	0,18	0,22	0,18	0,30
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,13	0,16	0,13	0,21
+ TFA_t	-0,27	-0,15	-0,56	-0,67
+ TPN_t	-0,45	-0,46	-0,80	-0,57
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

149. taula Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	24,26	27,61	23,33	21,75
- C_t	21,99	25,92	21,34	20,05
- AM_t	1,48	1,32	0,66	0,79
= $BAll_t$	0,79	0,37	1,33	0,91
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAld_t$	0,57	0,26	0,95	0,65
+ AM_t	1,48	1,32	0,66	0,79
- IF_t	0,87	0,64	0,31	0,32
+ GF0t	1,17	0,95	1,30	1,12
+ REt	-0,89	0,79	-0,23	0,11
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= REdt	-0,64	0,57	-0,16	0,08
+ EFt	0,14	-0,38	0,06	-0,02
+ GFEt	-0,49	0,19	-0,10	0,06
+ ACNt-1	10,59	27,25	6,43	10,87
- ACNt	15,28	12,99	7,84	8,16
- $\Delta ACNt$	4,69	-14,26	1,41	-2,71
- INVt	0,98	-6,15	0,20	-0,68
+ TINVt	-4,99	21,55	-0,41	4,56
+ EFAt - AFAt	4,51	-18,85	0,71	-3,87
+ It	1,02	0,79	0,35	0,27
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,73	0,57	0,25	0,19
+ TFAt	3,78	-19,41	0,46	-4,05
+ TPNt	1,22	-2,13	-0,05	-0,51
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

150. taula Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	200,24	126,94	118,01	118,05
- C_t	178,96	112,65	109,17	108,64
- AM_t	6,39	3,80	2,86	2,41
= $BAll_t$	14,89	10,49	5,98	7,01
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAlDl_t$	10,64	7,50	4,28	5,01
+ AM_t	6,39	3,80	2,86	2,41
- IF_t	3,59	1,20	0,96	0,42
+ GFOT	13,44	10,09	6,18	7,00
+ REt	-1,03	-5,04	-0,13	-9,58
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdIt$	-0,74	-3,61	-0,10	-6,85
+ Eft	1,01	0,68	0,74	-1,80
+ GFET	0,27	-2,93	0,64	-8,65
+ $ACNt-1$	76,79	40,62	33,61	23,32
- $ACNt$	46,98	46,81	25,97	26,14
- $\Delta ACNt$	-29,81	6,19	-7,64	2,83
- $INVt$	19,31	3,42	5,81	-7,19
+ $TINVt$	24,21	-2,45	8,66	2,71
+ $EFAt - AFAt$	-30,08	4,03	-7,61	-4,93
+ It	3,20	1,72	1,59	1,18
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	2,29	1,23	1,14	0,85
+ $TFAt$	-32,36	2,80	-8,75	-5,77
+ $TPNt$	8,15	-0,35	0,09	3,06
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

151. taula Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	27,76	44,29	29,37	31,70
- C_t	24,95	40,47	24,52	26,98
- AM_t	0,93	1,31	0,68	0,78
= $BAll_t$	1,88	2,51	4,17	3,94
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAIdl_t$	1,34	1,79	2,98	2,82
+ AM_t	0,93	1,31	0,68	0,78
- IF_t	0,23	0,27	0,12	0,12
+ GFOT	2,04	2,84	3,54	3,48
+ REt	-0,08	0,10	-0,15	-0,33
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdl_t$	-0,06	0,07	-0,11	-0,24
+ Eft	-0,07	0,37	0,25	0,23
+ GFET	-0,13	0,44	0,14	-0,01
+ $ACNt-1$	12,98	14,70	6,20	6,87
- $ACNt$	13,64	15,42	7,27	7,59
- $\Delta ACNt$	0,65	0,72	1,07	0,72
- $INVt$	0,87	1,37	0,70	0,55
+ $TINVt$	0,39	1,20	1,91	2,20
+ $EFA_t - AFA_t$	0,17	-0,97	0,72	-0,52
+ It	0,36	0,25	0,28	0,21
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,26	0,18	0,20	0,15
+ $TFAt$	-0,09	-1,15	0,53	-0,67
+ $TPNt$	-0,29	-0,05	-2,44	-1,53
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

152. taula Ibilgailu motordunen, atoi en eta erdi-atoi en fabrikazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabilere en egoera-orria

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	304,01	293,04	439,60	552,14
- C_t	283,90	274,14	414,30	518,49
- AM_t	7,84	6,97	16,03	18,58
= $BAll_t$	12,28	11,93	9,27	15,07
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAld_t$	8,78	8,53	6,63	10,77
+ AM_t	7,84	6,97	16,03	18,58
- IF_t	0,45	0,53	3,30	4,70
+ GFOT	16,17	14,97	19,36	24,65
+ RE_t	-0,08	-1,95	-3,26	-2,37
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= REd_t	-0,06	-1,39	-2,33	-1,69
+ EFT	0,37	0,73	-0,31	2,01
+ GFET	0,30	-0,66	-2,64	0,32
+ ACN_{t-1}	30,18	36,95	26,20	14,76
- ACN_t	33,45	37,02	14,34	12,71
- ΔACN_t	3,26	0,07	-11,85	-2,05
- INV_t	7,88	12,67	15,35	22,85
+ $TINV_t$	5,33	1,58	13,22	4,17
+ $EFA_t - AFA_t$	1,41	5,24	-4,64	-0,30
+ It	0,73	0,82	2,05	1,36
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,52	0,59	1,47	0,97
+ TFA_t	0,89	4,66	-6,10	-1,27
+ TPN_t	-6,22	-6,23	-7,11	-2,89
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

153. taula Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	8,34	8,08	12,23	11,70
- C_t	7,60	7,59	11,00	10,37
- AM_t	0,23	0,27	0,44	0,49
= BAl_t	0,51	0,22	0,79	0,84
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAl_d_t	0,36	0,16	0,57	0,60
+ AM_t	0,23	0,27	0,44	0,49
- IF_t	0,03	0,26	0,08	0,06
+ GFOT	0,56	0,17	0,92	1,03
+ RE_t	0,06	0,69	0,01	0,04
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE_d_t	0,04	0,49	0,01	0,03
+ EFT	0,00	0,17	0,01	0,01
+ GFET	0,04	0,66	0,01	0,04
+ ACN_t-1	6,36	3,62	4,70	4,86
- ACN_t	6,73	4,40	4,54	4,98
- ΔACN_t	0,37	0,78	-0,16	0,12
- INV_t	0,27	0,34	0,48	-0,25
+ $TINV_t$	-0,03	-0,28	0,62	1,19
+ $EFA_t - AFA_t$	0,11	0,13	-0,16	0,33
+ It	0,08	0,05	0,22	0,08
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,06	0,03	0,16	0,06
+ TFA_t	0,06	0,10	-0,32	0,27
+ TPN_t	-0,02	0,19	-0,30	-1,47
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

154. taula Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro – Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V_t	18,37	15,06	14,79	14,89
- C_t	17,21	14,18	13,06	13,05
- AM_t	0,10	0,12	0,54	0,72
= $BAll_t$	1,07	0,75	1,19	1,12
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAl_d_t	0,76	0,54	0,85	0,80
+ AM_t	0,10	0,12	0,54	0,72
- IF_t	0,00	0,01	0,10	0,13
+ GFOT	0,86	0,66	1,30	1,39
+ RE_t	0,00	-0,01	-0,39	-0,03
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE_d_t	0,00	-0,01	-0,28	-0,02
+ EFT	-0,04	0,01	-0,09	0,03
+ GFET	-0,04	0,00	-0,36	0,01
+ ACN_{t-1}	2,19	2,35	3,48	3,07
- ACN_t	3,01	2,96	3,64	3,21
- ΔACN_t	0,82	0,61	0,17	0,14
- INV_t	0,09	-0,18	0,99	0,51
+ $TINV_t$	-0,09	0,22	-0,22	0,75
+ $EFA_t - AFA_t$	-0,10	0,56	0,81	-0,26
+ It	0,03	0,02	0,17	0,06
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,02	0,01	0,12	0,04
+ TFA_t	-0,12	0,55	0,69	-0,31
+ TPN_t	0,21	-0,77	-0,47	-0,44
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

155. taula Industria osoko funtsen iturri eta erabileren egoera-orria

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2014	2015	2014	2015
+ V _t	91,76	71,13	93,63	93,47
- C _t	84,66	64,80	85,70	84,97
- AM _t	2,82	2,47	2,84	2,92
= BA _{It}	4,28	3,87	5,09	5,58
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Id} _t	3,06	2,76	3,64	3,99
+ AM _t	2,82	2,47	2,84	2,92
- IF _t	0,57	0,30	0,50	0,44
+ GF _O t	5,32	4,93	5,98	6,47
+ RE _t	-0,14	-0,43	2,49	-1,06
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Id} _t	-0,10	-0,31	1,78	-0,76
+ EF _t	0,29	0,36	0,88	0,11
+ GF _E t	0,19	0,05	2,66	-0,64
+ AC _N _{t-1}	24,35	17,48	20,69	16,35
- AC _N _t	24,08	17,58	19,60	16,99
- ΔAC _N _t	-0,27	0,10	-1,09	0,64
- IN _V _t	2,00	2,20	1,83	2,08
+ TIN _V _t	3,77	2,68	7,90	3,12
+ EF _A _t - AF _A _t	-0,78	-1,45	-1,69	-1,04
+ I _t	1,20	0,66	1,02	0,76
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,86	0,47	0,73	0,55
+ TF _A _t	-1,64	-1,92	-2,42	-1,58
+ TP _N _t	-2,13	-0,76	-5,48	-1,53
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

13. EAE-ko ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

13.1 SARRERA

Aurreko edizioetan egindako lanari jarraipena emateko, kapitulu honen helburua da EAEko, Nafarroako eta Estatu osoko enpresa-sarearen bilakaeraren eta egituraren azterketa bat egitea denbora-ikuspegi zabal batetik (2010-2016 aldia), ekonomia-sektoreak eta soldatako-kopuruak kontuan hartuta. Horren harira, gogoan izan behar da EINEko Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) hartu dela informazio-iturri bakartzat, azterketaren homogeneotasuna handiagoa izateko.

13.2 BILAKAERA OROKORRA


Krisi ekonomikoaren eraginaren ondorioz, enpresa aktiboen kopurua behera egiten ari zen aztertutako hiru geografia-eremuetan (EAE, Nafarroa eta Estatu osoa), baina gora egiten hasi zen Nafarroan 2014an, Estatuan 2015ean, eta EAEn 2016an, ekonomiaren susperraldiaren ondorioz.

Hori dela eta, EAEn, 2010ean, 169.782 enpresa aktibo zeuden, eta 2016ean, berriz, 151.216. Dinamika horrek % 10,9ko beherakada adierazten du. Estatuan ere, enpresa-kopuruak behera egin du, 3.291.263tik (2010) 3.236.582ra (2016). Zifra horiek % 1,7ko beherakada metatua erakusten dute. Nafarroan, aldiz, enpresa aktiboen kopuruak gora egin du, 42.347tik (2010) 43.907ra (2016); hau da, % 3,7ko igoera metatua izan da. Beraz, EAEk izan du beherakada metatu erlatibo handiena 2010-2016 aldian.

Nolanahi ere, komeni da kontuan izatea hiru eremu geografiko horietan, urtetik urterako aldakuntzen magnitudea desberdina izan dela aztertutako aldian zehar, eta, era berean, aldeak izan direla eremu bakoitzari dagozkion urtetik urterako aldakuntzen artean.

EAEn, enpresa-kopuruari dagokionez, 2012an izan zen beherakadarik handiena (% 3,9), eta % 1,8ko hazkundera izan zen 2016an. Nafarroan, urtetik urterako beherakadarik handiena 2011n gertatu zen (% 1,9), eta dinamismorik handiena, berriz, 2015ean (% 3,7ko igoera). Estatuan, beherakadarik handiena 2013an izan zen (% 1,7), eta igoerarik handiena, berriz, 2015ean (% 2,2ko hazkundera).


22. grafikoa Enpresa-kopuruaren bilakaera



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).


2016an, enpresa-kopuruaren urtetik urterako hazkundea % 1,7 ingurukoa izan zen aztertutako hiru eremu geografikoetan.

23. grafikoa Enpresa-kopuruaren urtetik urterako aldakuntza



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

24. grafikoa Ehunekoaren bilakaera, Estatuko enpresa guztien multzoan (Estatua=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Datu horiek erakusten dute EAEko enpresa-kopuruen ehunekoak behera egin duela Estatu osoko enpresen multzoan (2016an, % 4,7 ziren; 2010ean, % 5,2), eta Nafarroakoak, berriz, gora egin duela (2016an, % 1,36 ziren, eta 2010ean, % 1,29).


13.3 SEKTORE EKONOMIKOAK

Sektore ekonomikoei erreparatzen badiegu, lehenik eta behin industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak kontuan hartuta, ikusten da 2010-2016 aldian, aztertutako hiru eremu geografikoetan, beherakada izan dela orokorrean, salbu eta gainerako zerbitzuetan (Nafarroan zein Estatuan) eta merkataritzan (Nafarroan soilik).

Enpresa-kopuruari dagokionez, 2010eko datuen aldean, eraikuntzak izan du beherakada metatu erlatiborik handiena, bai EAEn (% 27,1), bai Estatu osoan (% 20,3), bai Nafarroan (% 9,7). Aldiz, Nafarroako gainerako zerbitzuen sektoreak izan du dinamismorik handiena: % 10eko igoera metatua izan du 2010-2016 aldian.

EAEri erreparatuz gero, ikusten da 2010-2016 aldian beherakada izan dela lau sektore handietako enpresa-kopuruan: eraikuntzan, % 27,1eko beherakada izan da; industrian, % 15,8koa; merkataritzan, % 10,7koa; eta gainerako zerbitzuetan, berriz, % 4,8koa.

25. grafikoa Enpresa-kopuruaren bilakaera sektore ekonomikoaren arabera (zenbaki indizeak 2010=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

2010. eta 2016. urteak soilik aztertuz gero, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionaleko (ESJN-2009) banaketa kontuan hartuta, ikusten da handizkako eta txikizkako merkataritzan zein ibilgailu motordunen eta motoen konponketan jarduten duten

enpresek dutela proportzio handiena aztertutako hiru geografia-eremuetako guztizko enpresa-kopuruan. Hain zuzen ere, EAEn, 2016an, 34.810 enpresa ari ziren jarduera horretan (autonomia-erkidego osoko enpresen % 23; 2010ean, ehuneko berdina). Ehuneko hori zertxobait handiagoa zen Nafarroakoa baino (autonomia-erkidego osoko enpresen % 22,5; 2010ean, % 22,8), eta zertxobait txikiagoa Estatukoa baino (2016an, Estatu osoko enpresen % 23,4; 2010ean, % 24,2).

156. taula Enpresak ekonomia-sektorearen arabera. 2010-2016 aldiko konparazioa

	EAE		Nafarroa		Estatua	
	2010	2016	2010	2016	2010	2016
Guztira	169.782	151.216	42.347	43.907	3.291.263	3.236.582
Erauzketa-industriak	49	49	34	36	2.827	2.304
Manufaktura-industria	13.627	11.321	3.449	3.083	206.474	172.130
Energia elektrikoaren, gasaren, lurren eta aire girotuaren hornikuntza	345	412	468	651	14.361	14.475
Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	297	276	141	144	6.639	6.710
Eraikuntza	29.362	21.402	6.887	6.219	510.243	406.682
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa	38.976	34.810	9.641	9.869	796.815	757.537
Garraioa eta biltegiatzea	13.014	10.716	3.679	3.268	223.827	193.357
Ostalaritza	13.676	13.758	3.352	3.565	289.614	276.093
Informazioa eta komunikazioak	2.928	2.821	463	629	53.155	61.212
Finantza- eta aseguru-jarduerak	2.690	2.957	769	827	68.542	75.487
Higiezinaren alorreko jarduerak	4.944	2.686	1.104	1.356	120.855	159.212
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	19.647	20.193	5.162	5.325	407.495	390.909
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	6.651	5.360	2.022	2.408	152.767	192.299
Hezkuntza	3.548	4.014	876	1.200	74.922	98.771
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak	6.992	8.324	1.138	1.623	128.371	153.591
Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	3.005	3.128	899	1.129	72.677	88.215
Beste zerbitzu batzuk	10.031	8.989	2.263	2.575	161.679	187.598

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketaren atzetik, EAEn, Nafarroan eta Estatu osoan, jarduera hauek daude (adierazitako ordenan): eraikuntza eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Eraikuntzan, hain zuzen, 2016an, EAEn 21.402 enpresa zeuden (autonomia-erkidego osoko enpresen % 14,2; 2010ean, % 17,3 ziren); Nafarroan, 6.219 (foru-erkidegoko enpresen % 14,2, ehuneko EAeko ehunekoaren antzekoa izanik; 2010ean, % 16,3 ziren); eta Estatuan, eraikuntzako 406.682 enpresa zeuden (enpresa guztien % 12,6; 2010ean, % 15,5).

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoei dagokienez, EAEn, 20.193 enpresa ziren alor horretakoak 2016an (EAeko enpresa guztien % 13,4; 2010ean, % 11,6 ziren); Nafarroan, 5.325 (Nafarroako enpresen % 12,1; 2010ean, % 12,2 ziren); eta Estatuan, 390.909

(% 12,1, Nafarroan jarduera horietan aritzen ziren enpresen ehuneko bera; 2010ean, % 12,4 ziren).

13.4 SOLDATAKO-KOPURUAK


Soldatako-kopuruak aztertzeko, 2010-2016 aldiari helduko zaio lehenbizi, aurreko epigrafean egindako moduan, eta soldatako-kopuruaren agregazio-maila handiagoa hartuta, eta gero, bi ekitaldi horiek soilik aztertuko dira, enpleguaren desagregazio-maila handiagoa hartuta.

2010-2016 aldian, oro har, enpresa-kopuruak behera egin zuen soldatako-kopuruaren arabeko maila guztietan, bai EAEn, bai Nafarroan, bai Estatu osoan, salbu eta Nafarroako eta Estatuko soldatakorik gabeko enpresen eta 1-2 soldatako dituzten enpresen multzoan.

2010. urtearen aldean, 6-9 soldatako dituzten enpresek izan dute beherakadarik handiena aztertutako hiru eremu geografikoetan. Hain zuzen ere, % 19,5eko beherakada izan dute Nafarroan (1.632 zeuden 2016an, eta 2.027, berriz, 2010ean), % 18,3koa EAEn (2016an, 6.004 zeuden; 2010ean, 7.352), eta % 18koa Estatu osoan (117.293 zeuden 2016an, eta 143.016, berriz, 2010ean).

EAEn, hain zuzen, 2010-2016 aldian, enpresa-kopuruak behera egin du, oro har, soldatako-bitarte guztietan: % 18,3ko beherakada izan da 6-9 soldatako dituzten enpresetan; % 16,1, soldatakorik ez dituzten enpresetan; % 14, 10-19 soldatako dituzten enpresetan; % 12,2, 20 soldatakotik gora dituztenetan; % 5,5, 3-5 soldatako dituztenetan; eta % 1,4, 1-2 soldatako dituztenetan.

26. grafikoa Enpresen bilakaera, soldatako-kopuruen arabera (zenbaki indizeak 2010=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

2010. eta 2016. urteak soilik aztertuta, soldatako langile-bitarteen desagregazio-maila handiago baten arabera, ikusten da soldatakorik ez duten enpresak direla nagusi bi ekitaldian eta hiru eremu geografikoetan. Hain zuzen, mota horretako 75.193 enpresa zeuden EAEn 2016an eta autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 49,7 ziren (2010ean,


% 52,8), eta ehuneko hori txikiagoa zen bai Nafarroakoa baino (2016an, autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 56,2; 2010ean, % 53,8), bai Estatu osoa baino (herrialde osoko enpresen % 55,4; 2010ean, % 53,9).

157. taula Enpresak soldatako-kopuruen arabera. 2010-2016 aldiko konparazioa

	EAE		Nafarroa		Estatua	
	2010	2016	2010	2016	2010	2016
Guztira	169.782	151.216	42.347	43.907	3.291.263	3.236.582
Soldatakorik gabe	89.606	75.193	22.770	24.656	1.774.005	1.791.909
1-2 soldatako	48.117	47.420	10.658	11.428	893.005	895.574
3-5 soldatako	14.926	14.103	4.143	3.867	318.155	292.403
6-9 soldatako	7.352	6.004	2.027	1.632	143.016	117.293
10-19 soldatako	5.134	4.414	1.369	1.158	88.396	75.022
20-49 soldatako	3.031	2.601	865	709	48.765	40.895
50-99 soldatako	889	776	258	210	13.745	12.020
100-199 soldatako	406	396	164	146	7.098	6.243
200-499 soldatako	221	211	68	73	3.374	3.489
500-999 soldatako	59	57	17	17	952	951
1.000-4999 soldatako	38	38	7	11	651	674
5.000 soldatako edo gehiago	3	3	1	0	101	109

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Soldatakorik gabeko enpresen atzetik, EAEn, Nafarroan zein Estatu osoan, honako hauek zeuden, ordena honetan: 1-2 soldatakoak eta 3-5 soldatakoak zituztenak. Hain zuzen, EAEn, 47.420 enpresak zituzten 1-2 soldatako, eta autonomia-erkidego osoko % 31,4 ziren (2010ean, % 28,3). Kuota hori handiagoa zen Estatukoa baino (2016an, % 27,7, eta 2010ean, % 27,1) eta Nafarroakoa baino (2016an, % 26 eta 2010ean, % 25,2). Bestalde, 3-5 soldatakoen multzoan, 14.103 enpresa zeuden EAEn, eta autonomia-erkidego osoko % 9,3 ziren (2010ean, % 8,8). Kuota hori zertxobait handiagoa zen, bai Estatukoa baino (% 9; 2010ean, % 9,7), bai Nafarroakoa baino (% 8,8; 2010ean, % 9,8).



3. LEHEN SEKTOREA

16

1. IKUSPEGI OROKORRA

1.1 BILAKAERA ESTATU-EREMUAN

Estatuko nekazaritza-sektorearen ekoizpena oinarritzko prezioetan maximo historikoetan kokatu da. 2000. urtetik, % 29 hazi da, eta 2009an izandako azken beherakadatik, % 23,3. 2016an, haren hazkundera % 2,9koa izan da, 2015ekoa baino txikiagoa, urte horretan % 6,8koa izan baitzen. Haren osagai sektorial nagusiak landare-ekoizpena, animalia-ekoizpena eta zerbitzuena edota beste batzuen dira. Osagai sektorial horien kuotek oso egonkor iraun dute mende-hasieratik, eta hau da 2016tik bakoitzak izan duen pisua, hurrenez hurren: % 61,4, % 35 eta % 3,6. Landare-ekoizpenak, iraupen laburragoko produktu-mota bat izateagatik, animalia-ekoizpenak baino gorabehera handiagoa izaten du urtetik urtera, baina epe luzean aldea ez da hain handia.

Oro har, sektorea nahiko egonkortuta dago ekoizpenaren tona-kopuruari dagokionez. Dena dela, produkturik errentagarrienak ekoizten dira gehienbat. Funtsean, prezioek eta inflazioak epe luzean izaten den goranzko joera eragiten dute. Nolanahi ere, 2016ko ekitaldian erregistratutako datu orokorrak nekazaritza-produktuen prezioek % -3,6ko beherakada izan dutela adierazten du, kantitatean % 6,7ko gorakada izan bada ere; horren ondorioz, balioaren igoera % 2,9koa izanik. 2015ean, aldiz, igoera prezioen gorakadak eragin zuen batez ere.

2016an, antzeko prezio-beherakadak izan dira bi adarretan (% -3,6 landare-ekoizpenean eta % -3,7 animalia-ekoizpenean), 2015ean ez bezala; izan ere, urte horretan, landare-produktuen prezioek eragin zuten igoera, abeltzaintza-azpisektorean beherakada izan zuten bitartean. Ekoizpen fisikoari begira, landare-ekoizpenaren adarrak gorakada handiagoa izan du animalia-ekoizpenarenak baino (hurrenez hurren, % 8,4 eta % 4,5). Hala, landare-ekoizpenaren balioan % 4,4ko igoera izan da, eta animalia-ekoizpenaren balioan, aldiz, % 0,7koa baino ez.

Urtero, adar horretako ministerioak nekazaritza-errentaren zenbatespena egiten du; hau da, sektorearen marjina, langile-kostuak ordaindu aurretik: hain zuzen, ekoizpenaren guztizkoaren % 54,9 dagokio. Adierazle horretan, hazkunde-erritmoa oso bizkorra izan zen 1990etik 2003ra, baina ordutik gorabeherak izan dira, eta epe luzean beheranzko joera izan du. Dena den, azken bi ekitaldietako datuek berriro ere 2003an eta 2007an lortutako mailetara hurbiltzen ari dela erakusten dute. 2016. urtean, zenbatetsitako hazkundera % 6,9koa izan da; hortaz, bi urte horietan metatutako hobekuntza % 17,8koa izango litzateke.

2016. urtean, nekazaritzako guztizko ekoizpenak nahiz nekazaritza-errentak igoera izan dute, oliba-olioari esker, hein handi batean. Hain zuzen, urte horretan haren balioa % 62,6 igo da; aurreko urtean, aldiz, beherakada handia izan zuen (% -39). Oliboan izandako igoerari

nekazaritza-ekoizpenaren igoera orokorraren % 84,6 dagokio, eta landare-ekoizpenaren igoeraren % 92,7a. 2015ean, berriz, barazkiek eta fruituek eragin zuten hazkundera; baina, 2016an, beherakada handia izan da barazkietan (% -9). 2015ean, fruituetan eta barazkietan lortutako emaitza 13 urtean izandako onena izan zen, aurten olioarekin gertatu den moduan. Edonola ere, aurten fruituek azken bosturtekoan izandako gorakadari eutsi diote (% 3,1), eta Espainiako kategoriarik garrantzitsuena dira, barazkien aurretik. Gainerako kategorietan, bilakaera apalagoa izan da. Ekoizpenaren ehunekoei erreparatuta, olioan izandako igoeraz gain, patata-ekoizpenaren balioaren igoera nabarmen daiteke (% 37,3); horren ondoren, maila apalagoan, labore industrialak daude (% 12,8). Barazkietan izandako beherakadaz gain, bazka-landareetan soilik izan da beherakada txiki bat.

Abeltzaintza-sektorean, produktu garrantzitsuenaren igoera, txerriarena alegia, egonkortu egin da (% 5,8) baina beherakadak izan dira garrantziaren arabera bigarrena eta laugarrena diren produktuetan (% -5 esnea eta % -4,4 hegaztiak). Produktu-motaren arabera, balioaren aldakuntzak oso txikiak izan dira 2015etik 2016ra bitartean. Izan ere, sektore horretan ekoizpena doitu egin ohi da, kostuak estaltzeko; batez ere, prezioak jaisten direnean. Espainian azken hamarkadan azpisektore horretan izandako hazkundera txerri-haragiaren garrantzia agerian jartzen da; ardi-aziendan beheranzko joera izan da, eta behi- eta hegazti-haragiek hazkunde txikia izan dute.

Nekazaritza-errentarekin batera, sektoreko lanaren zenbatespena egiten da, nekazaritzako lan-unitatetan (NLU). Horren arabera, sektoreko lanaren heren bat baino gehiago galdu da, oso erritmo jarraituan gainera, 1990etik; eta 2000. urtetik aurrera, ia laurden bat. Hala ere, urte batzuetan gorakada txiki batzuk izan dira; esaterako, 2016an, adierazle horretan % 1,6ko igoera izan da.

158. taula Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak

(M euro)

Kontzeptua	2015	2016*	% Δ 2016/2015		
	Ekoizlearen prezioak	Ekoizlearen prezioak	Monetarioa	Errealia	Prezioak
A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena	45.490,8	46.807,2	2,9	-3,6	6,7
• Landare-ekoizpena	27.552,0	28.752,3	4,4	-3,7	8,4
• Animalia-ekoizpena	16.264,7	16.377,1	0,7	-3,6	4,5
• Zerbitzu-ekoizpena	484,0	479,9	-0,8	1,2	-2,1
• Bigarren mailako jarduerak, ez-nekazaritzakoak, ez-bereizgarriak	1.190,1	1.197,9	0,7	0,5	0,2
B.- Bitarteko kontsumoak	21.495,5	21.310,3	-0,9	-3,7	2,9
C.- (A-B) Balio erantsi gordina	23.995,3	25.496,9	6,3	-3,5	10,1
D.- Amortizazioak	5.281,4	5.251,5	-0,6	0,2	-0,7
E.- Beste diru-laguntza batzuk	5.673,2	5.804,7	2,3	--	--
F.- Beste zerga batzuk	347,0	362,4	4,4	--	--
G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta	24.040,1	25.687,7	6,9	--	--

(*):2016ko urtarileko 2. estimazioa.

Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

1.2 BILAKAERA HEGO EUSKAL HERRIAN

Sektorearen makromagnitudeak⁽¹⁾

Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen makromagnitudeen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan sektoreak duen barne-konturako hurbilketa bat egin daiteke. Krisiak eragindako beherakada gainditu ondoren, ekoizpena egonkortu egin da, eta sektorea hazi egin da pixka bat (% 0,8), uneko prezioetan. Aurreko urtean bezala, hazkunde hori landare-ekoizpenari esker gertatu da, eta animalia-ekoizpenak nahiz baso-ekoizpenak, aldiz, beherakada izan dute (hauek dira datuak, hurrenez hurren: % 3,8, % -2,5 eta % -8,8).

Azken hamarkadetan, sektorea biziraupena bermatzera bideratu da batik bat, eta hazkundea apala izan da. Edonola ere, nekazaritza-sektorean (sektore horrek % 53,8ko pisua du), epe luzean, hazkundea arinxeagoa izan da. Abeltzaintza-sektoreak (% 36,2 dagokio), aldiz, ozta-ozta jarraitu dio inflazioaren erritmoari, eta oso bilakaera apala izan du. Baso-ekoizpenak (ehuneko txikiagoa dagokio: % 8), berriz, 2000. urtean baino zifra baxuagoak ditu.

EAEko nekazaritza-sektorearen barnean produktu-mota bakoitzak BPG-ri egiten dion ekarpenari dagokionez, hauek dira ehunekoak: mahastiak, % 22,1; behi-esneak, % 14,1; barazkiek, % 13,7; haragiak, % 11,7; zerealek, % 7; eta intsinis-pinuaren zuretarako mozketak, % 6,2.

Ekoizpenak nahiz BEGak jada krisiaren aurreko mailak gainditu badituzte ere, EAEko nekazaritza-errentak (edo balio erantsi garbia) –hartatik eratortzen dira gero soldatak– ozta-ozta lortu ditu duela hamarkada bat zituen mailen antzekoak. Diru-laguntzak aurreko urteetako antzekoak izan dira; sektore horretako ekoizpen-ondasunen amortizazioek, berriz, jauzi kualitatibo handia egin zuten 2013tik 2014ra bitartean, eta gerora egonkor eutsi diote.

⁽¹⁾ EAEko nekazaritzako makromagnitudeen aurrerapena. Nafarroari buruzko informazio baliokiderik ez dago eskuragarri (SEC-95 metodologiarekin, 2000. urtera arte autonomia-erkidego guztietarako modu sistematikoan erabilitakoa).

159. taula EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak*

Kontzeptua	2014	2015	2016
Amaierako nekazaritza-ekoizpena	491,5	522,9	532,7
Nekazaritza	251,2	288,9	286,5
Abeltzaintza	182,0	178,8	193,1
Basozaintza-sektorea	49,1	46,9	42,7
Norbere konturako beste ekoiz. eta hobekuntzak	9,2	8,4	10,4
- Sektoretik kanpoko gastuak	180,1	178,7	169,4
= Balio erantsi gordina (m.p.)	311,3	344,2	62,1
+ Diru-lag - zerg. saldoa	48,9	64,4	80,7
= Balio erantsi gordina (f.k.)	360,2	408,6	363,3
- Amortizazioak	61,4	61,9	425,3
= Balio erantsi garbia (f.k.)= Nekazaritza Errenta	298,8	346,7	344,7

(*):Aurrerapen-datuak, gerora egokitu daitezkeenak.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika eta Anlisi Sektorialen Zerbitzua.

Aurreko urteetan bezala, hazkundearen eragile nagusia mahastia izan da; hain zuzen ere, aurten 2008an lortutako diru-sarreraren gehienekoa berreskuratu eta gainditu du jada, eta bikoiztu baino gehiago egin du ekoizpen-balio hori, erreferentzia gisa 2010etik 2016ra bitartean gertatutako susperraldi bizkorra hartuta. 2016an, ekoizpena 10 milioi euroan baino gehiagoan hazi da, 2015. urtearekiko. Bigarren igoera garrantzitsua, 8 milioitik gorakoa, zerealena izan da. Nekazaritza-sektorearen emaitzan bi horiek izan duten garrantzia agerian jartzen da, kontuan hartuz gero sektorearen igoera, osoki hartuta, 4 milioikoa izan dela aurten.

Hauek dira amaierako balantze hori beheratu duten aldakuntza monetarioak: 5,7 milioi euro, fruituetan izandako beherakadagatik; -4,4 milioi, arrautzetan izandakoagatik; -2,5 milioi, pinu-zuraren beherakadagatik; eta -2,4 milioi, barazkietan izandako beherakadagatik. Patatak 1,4 milioi egin du gora; behi-haragiak, 1,2 milioi; eta ardi-haragiak 1,1 milioiko galera izan du.

Ehunekoetan, aldakuntzarik handienak zerealen igoera (% 27,5) eta fruituen beherakada (% -26,9) izan dira. Beste produktu batzuek % 15 inguruko beherakada izan dute; esaterako, erremolatxak, ardi- eta ahuntz-haragiek, eta arrautzek. Patatak % 13,9ko hazkundea izan du, eta mahastiak, % 9,9koa; gainerakoetan, aldakuntzak ez dira hain nabarmenak izan.

Epe luzean, behi-haragiaren balioan gorakada nabarmena gertatu da; dena den, azken bi urteetan ez du jarraipenik izan jauzi kualitatibo horrek (krisi-garaian, kategoria horretako urteko balioak bikoiztu egin dira). Esnearen balioak, 2015. eta 2016. urteetan, guztizko balioan haragiaren balioa gainditu du, behi-azienda oinarrituta, aurreko garaietan

gertatu izan den moduan. Txerriak, aldiz, ez du hainbesteko garrantzirik, eta haren bilakaera geldialdian dago. Beraz, biazienda horiei dagokienez, egoera estatu-eremuan dagoenaren kontrakoa da.


Estatistika horrek tona-kopuruari buruzko adierazleak ere eskaintzen ditu. Hauek dira adierazle horiei dagozkien aldakuntza nagusiak, ehunekotan: % 40,6ko hazkundera zerealetan; eta beherakada hauek: % 26 fruituetan, % 16 erremolatxan, eta % 8,9 intsinis-pinuaren zuretarako mozketan; hori da, hain zuzen, intereseko espezie nagusia basogintzan.

Prezioetan ere ez da aldakuntza handirik gertatu. Nabarmentzekoak dira patataren garestitzea (% 17,2) eta animalia-produktuen prezioetan izandako beherakadak: % -12,3 ardi- edo ahuntz-haragian, % -12,6 txerri-haragian, eta % -12,5 arrautzetan. Zerealak ere merkatu egin dira (% -9,3).

EAEko nekazaritzako BEG % 68,2koa da, eta aurreko urtekoa baino hamar puntu beherago dago; hori ekonomiaren gainerako sektoreen dinamismo gero eta handiagoagatik gertatu da. Nafarroako datu monetarioarekin alderatuz gero, EAE hurbilago dago berriro ere, aurreko urteetan gertatzen zen bezala.

27. grafikoa Balio erantsi gordinaren bilakaera nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura

(M euro)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika eta Análisi Sektorialen Zerbitzua. Nafarroako Estatistika Institutua.

Nafarroako lehen sektorea % 2,9koarekin geratu da aurten, Foru Komunitateko ekonomiaren balio erantsi gordinaren (BEG uneko prezioetan) gaineko % 3ko mailatik gertu, eta maila horretan eutsi dio oro har azken bosturtekoan. Industria- nahiz zerbitzu-sektoreekin alderatuta, lehen sektorearen diru-sarreraren maila eta ekoizpena

egonkorragoak dira, eta kontuan izanik epe luzean izandako inflazioa, maximo historikoetan dagoela. Ekonomiaren guztizkoa, aldiz, 2016ra arte ez da 2008ko balioen antzekoetara iritsi. Haren hazkundera %1,6koa izan da, aurreko urteetan izandakoen antzekoa: hain zuzen, Nafarroako ekonomiaren gainerako sektoreen hazkunderaren erdia izan du (% 1,6koa, gainerakoa % 3,1koa izan den bitartean). BEG-k 2009an soilik izan zuen beherakada, eta ehuneko-puntu erdi bat baino ez zen jaitsi. 2016an, 0,57 milioi eurotan kokatu da.

Nafarroako nekazariei ordaintzen zaizkien prezioei buruzko adierazleetan, beheranzko joera nabari da. Edonola ere, bada salbuespen bat: basogintzako prezioetan izandako jauzia, 2015ean. 2016an, % -3,1eko aldakuntzak gertatu dira indize orokorrean, % -0,6koa nekazaritzako produktuen prezioetan, % -6,2koa basogintzako produktuenetan, eta % -6koa animalia-produktuenetan. Estadistika horretan, halaber, nekazariak erabiltzen dituzten lehengaiengatik ordaintzen dituzten prezioak jasotzen dira: % 4,9 jaitsi dira. Nafarroako Estatistika Institutuaren adierazle horiek hiru azpisektoreetako bakoitzerako kalkulaturako hileko balioen batez bestekoak dira. Nafarroako Gobernuak dagokion Sailak kalkulaturako prezioen adierazlearen arabera, % -3,8ko beherakada izan da jasotako prezioetan: % -2,8 nekazaritzako produktuen kasuan, % -5 abeltzaintzakoetan eta % -5,4 basogintzakoetan.

Iturri horren arabera, hauek dira ehunekoak produktuen arabera: % 41,7ko igoera patatetan, % -11,3 zerealetan, % -19,7 industria-laboreetan, % 6,5 bazka-landareetan, % 12,2 fruituetan, % 9,1 barazkietan, eta % -16,8 ardoaren sektorean. Hala, zerealek eta ardoak eragin dute batez ere landare-azpisektorearen beherakada orokorra.

Animalia-produktuetan, hau izan da bilakaera: % 1 behietan, % -6,7 ardietan, % -8,8 ahuntzetan, % 1 txerrietan, % -17,1 hegaztietan, % -3,7 untzietan, % -7,8 esnean, % -9,4 arrautzetan eta % -5,3 abere bizietan. Kasu horretan, hegaztieki eta esneak eragin dute beherakada orokorra.

Tona-kopuruari dagokionez, nekazaritza-laboreen guztizkoa % 5,9 hazi da; mahastia % -0,8 murriztu da; barazkietan hazkundera izan da, % 11,2koa, hain zuzen; zerealetan, % 20,6ko igoera izan da, eta lekadunetan, % 39,3koa; beste hauetan ere murrizketa gertatu da: olibondoan % -28,4koa, erremolatxan % -26koa, patatan % -24,9koa, bazka-landareetan % -4,7koa eta fruituetan % -2,8koa.

Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza

160. taula Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Hego Euskal Herria

(Meuro)

Muga-zergen atalak	Eremua	Esportazioak		Inportazioak	
		2015	2016	2015	2016
Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak	EAE	248,2	242,9	353,7	389,8
	Nafarroa	124,6	135,7	135,2	158,6
	Hego Euskal Herria	372,4	378,7	488,6	548,3
Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak	EAE	80,8	85,2	312,4	291,8
	Nafarroa	338,9	359,8	190,1	221,7
	Hego Euskal Herria	404,7	445,0	481,5	513,4
Elikagaigintzako produktuak	EAE	600,7	591,8	339,1	315,0
	Nafarroa	538,8	549,6	217,8	236,9
	Hego Euskal Herria	1.132,8	1.141,4	553,1	551,9
Nekazaritzako elikagaien sektorea	EAE	929,8	919,9	1.005,2	996,6
	Nafarroa	1.002,3	1.045,1	543,1	617,2
	Hego Euskal Herria	1.910,0	1.965,1	1.523,2	1.613,7
Nekazaritzako elikagaien sektorearen partaidetzaren % esportazio-inportazioen gutzizkoetan	EAE	4,2	4,3	6,0	6,4
	Nafarroa	11,7	12,5	11,9	13,6
	Hego Euskal Herria	6,3	6,6	7,1	8,1

Iturria: Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuen gainean.

Hego Euskal Herriko nekazaritza-sektorearen kanpo-merkataritzako jarduera areagotu egin da azken urteetan, bai esportazioetan, bai inportazioetan. Oro har, EAEko esportazioak eta inportazioak eta Nafarroako esportazioak antzeko maila batean daude, baina salbuespena Nafarroako inportazioak dira, askoz ere gutxiago inportatzen baitu. Hala, aurreko ekitaldietan, superabit handia izateko joera nabarmena izan da Nafarroan. EAEn, aldiz, urte batzuetan inportazio gehiago izan da esportazioak baino, eta beste urte batzuetan, alderantziz. 2016an, Nafarroako joera hori eten egin da, eta balantza okertu egin da pixka bat. EAEn, berriz, defizita 2015ean baino handixeagoa izan da. Hala, Hego Euskal Herriko superabita murriztu egin da hirugarren urtez jarraian, baina ez aurreko bi urteetan bezainbeste.

Muga-zergen araberako hiru atal bereizi dira: lehenengo biak, industria-prozesamendurik gabe salerosten diren animalia- eta landare-produktuei dagozkie, eta hirugarrena, elikagaigintzari; azken hori gutzizko balioa kontuan hartuta garrantzitsuena da.

Nafarroan, aurreko urteetako esportazio-eritmo berari eutsi zaio atal horietan gutzietan; dena den, inportazioak pixka bat gehiago izan dira, eta, beraz, gutzizko balantzaren hazkundea geldotu egin da aurtan.

EAEn, landare- eta industria-produktuen inportazioak jaitsi egin dira pixka bat, baina animalia-produktuenak igo egin dira, ezohiko moduan, hori ez baita azken urteetako

joera izan. Esportazioak ere jaitsi egin dira oro har, baina ez hainbeste; dena den, landare-produktuetan susperraldi txiki bat gertatu da. Hori guztia kontuan izanik, defizit-egoeratik superabit-egoerara igaro da.

Hego Euskal Herrian, superabita industria-produktuetan hobetu egin da, eta landare-produktuetako defizit apala murriztu egin da pixka bat. Baina animalietan, egoerak okerrera egin du, eta horrek beherakada txiki bat eragin du oro har.

Industria-adarrak oinarrizko produktuen adarrarekin alderatuta erakutsi duen jarduera handiago baterako joera hori lotuta egon daitekeela, hein handi batean, bi horiek balio-kate berekoak izatearekin azpimarratzekoa da; eta balio-kate horien barnean, animalia-edo landare-produktuen bat elikagaigintzako atalera igaro daiteke urte batetik bestera, baldin eta prozesu industrialtzat jo daitekeen prozesuren bat aplikatu bazaio.

Esportazioetan, bi autonomia-erkidegoek antzeko zifrak dituzte, eta bietan industria-adarra da nagusi. Nafarroan, landare-adarra dago bigarren lekuan, eta EAEn, berriz, animalia-adarra.

Inportazioetan, bi autonomia-erkidegoetan hiru adarren mailak antzekoagoak dira esportazioetan baino. Halaber, animalia-produktuen inportazioak askoz ere gehiago dira EAEn, Nafarroan baino.

Biztanleria landuna

Sektore horretan jarduten duen biztanleria landunari dagokionez, Estatistika Institutu Nazionalaren hiruhilekoko datua hartu da erreferentziatzat; zehazki, urtearen erdialdekoa, 4 lurraldeetarako. 2016. urtean, bai EAEko hiru lurralde historikoetan bai Nafarroan, biztanleria landuna, azken urteetan beherakada izan ostean, igo egin da pixka bat; 2013an, ezohiko gorakada une bat izan ostean. Nolanahi ere, EAEn barnean, banaketa ez da orekatua, Araban gora egin baitu, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, behera; azken horretako erregistroak azken hamarkadako baxuenak izanik.

Adierazle horretan izandako gorabeherak baloratze aldera, lehen sektorearen ereduak desberdinak direla kontuan izan behar da, batetik, Bizkaia eta Gipuzkoaren artean; eta bestetik Nafarroan eta Araban. Desberdintasunak daude, halaber, beste alderdi hauetan ere: uzten urtarokotasuna, urtetik urtera aldakorra izan daitekeena; enpleguaren aldizkakotasuna; eta autonomo jabeen eta azpikontrataturako jornaleroen arteko oreka aldakorra.

161. taula Enplegua lehen sektorean*

(m pertsona)


Urtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	Hego Euskal Herria	Espania
2007	3,1	6,9	4,9	14,9	12,9	27,8	925,5
2008	1,9	7,5	5,4	14,8	14,0	28,8	830,6
2009	3,1	5,8	3,2	12,1	13,3	25,4	790,8
2010	3,1	4,7	4,7	12,5	11,3	23,8	772,8
2011	2,4	3,9	3,4	9,7	7,1	16,8	735,9
2012	2,2	7,7	2,2	12,1	8,6	20,7	722,3
2013	4,6	7,6	3,2	15,4	15,5	30,9	753,1
2014	3,0	6,2	4,4	13,6	13,4	27,0	739,3
2015	1,8	6,2	2,5	10,5	9,4	19,9	740,4
2016	3,7	5,4	1,9	11,0	9,8	20,8	760,2

(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak aurkeztu dira, sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaeraren barruan adierazgarriagoak direla uste baita.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN.

28. grafikoa Enpleguaren bilakaera lehen sektorean*

(m pertsona)



(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak aurkeztu dira, sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaeraren barruan adierazgarriagoak direla uste baita.

Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

2. NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA

2.1 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK

2016ko datuen arabera, EAeko eta Nafarroako nekazaritzako azpisektorean, argi eta garbi ekoizpen-hazkondeak nagusi izan dira, hirugarren urtez. Prezioen egoera, berriz, askotarikoa izan da.

Hain zuzen ere, tona-kopuru handieneko kategoriek (zerealak eta bazka-laboreak) prezio-jaitsierak izan dituzte, bai eta barazki nagusiak (tomatea) eta pisura saltzen diren lau produktu garestienek ere (zainzuria, arbendola, leka eta piperra). Aldiz, barazki berde nagusiak, frutak, patatak eta ardoa garestitu egin dira.

Zenbait produktuk ekoizpen maximoak izaten ari dira, azken hamarkadari dagokionez behintzat; esate baterako, garagarra, ardoa, brokolia, azalorea eta mahai-sagarra.

Barazkien ekoizpenean, oro har, ez da gorabehera handirik egoten, baina balantze desberdinak izan dituzte azken urteotan. 2016an, 2015ean ekoizpenak eta prezioek gora egin ondoren, 2014ko egoeraren antzekoa izan da; hau da, ekoizpen handiagoa prezio baxuagoan. Fruten eta ardoaren ekoizpenak eta prezioek gora egin dute zertxobait (ardoaren kasuan, hain zuzen, goranzko joera txikiak daude bi adierazleetan); patataren ekoizpenak behera egin du eta prezioak, berriz, asko igo dira; eta erremolatxaren ekoizpena asko jaitsi da, baina prezioek ez dute apenas gora egin.

162. taula Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak*

(m Tm)

Produktua	2015	2016	% Δ 16/15	% Euskal Herria/ Espainia 2016
Zerealak				
– Garia	435,8	593,6	36,2	7,5
– Garagarra	373,3	482,5	29,2	5,2
– Oloa	52,7	96,1	82,4	8,6
– Artoa	198,9	164,2	-17,4	4,2
Bazka-laboreak				
– Artoa	247,1	210,6	-14,8	4,8
– Alpapa	339,6	339,8	0,1	3,0
Barazkiak				
– Zainzuria	4,5	4,6	2,5	8,9
– Uraza	27,2	27,0	-0,7	2,9
– Espinaka	14,8	16,2	9,3	19,7
– Tomatea	143,9	181,8	26,3	3,5
– Piperra	30,1	40,2	33,7	3,4
– Orburua	14,6	14,9	2,1	7,0
– Azalorea	22,5	31,4	39,4	21,4
– Brokolia	63,5	70,7	11,4	14,8
– Kipula	18,8	18,8	-0,3	1,4
– Leka	12,2	13,9	14,3	8,1
– Ilar berdea	15,7	14,6	-7,2	16,6
Fruta-arbolak				
– Sagardo-sagarra	10,4	7,4	-28,8	8,8
– Mahai-sagarra	20,7	26,9	30,2	5,0
– Madaria	20,0	20,5	2,4	6,0
– Mertzika	12,7	11,1	-12,6	1,2
– Arbendola	4,2	2,7	-34,7	1,4
Ardoa eta mostoa (m HI)	1.554,7	1.628,7	4,8	3,7
Patata	72,6	66,6	-8,3	3,0
Azukre-erremolatxa	223,8	173,6	-22,4	5,9

(*): Zenbatespenak.

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina. Coyuntura Agraria de Navarra aldizkaria.

Zerealetan, gorabehera handiak ohikoak dira, baina hala ere, 2016a urte berezia izan da ekoizpen-hazkundeari dagokionez, artoaren kasuan izan ezik. Aztertutako lau zerealek batezbesteko egonkor samarra izan dute azken bosturtekoan, baina aurten, bi zereal nagusiek (garia eta garagarra) batezbesteko horietatik gora egon dira (% 36,2 eta % 29,2, hurrenez hurren), eta oloa, berriz, bizkor berreskuratzen ari da (% 82,4). Artoari dagokionez, behera egin dute bai giza kontsumokoak (-% 17,4) bai bazka-artoak (-% 14,8). Aztertutako beste bazka-labore nagusiaren (alpapa) ekoizpena aurreko urteetan bezala egonkorra da.

Patataren eta erremolatxaren ekoizpenak beheranzko joera izaten ari dira (-% 8,3ko eta -% 22,4ko beherakada, hurrenez hurren). Bietatik, erremolatxak ditu

urtetik urterako gorabehera handienak. Ardoaren ekoizpenak neurrizko hazkundea izan du (% 4,8), baina horrela, aurreko urtean egindako aurrerapen handia sendotu da.

Barazkiei dagokienez, lehen aipatu bezala, bereziak dira hamarkada honetan piperrak, azaloreak eta brokoliak lortutako hazkunde iraunkorrak eta maximoak. Piperraren eta azalorearen ekoizpenaren gorakadak (tonatan), gainera, aurreko urteko ekoizpenaren heren batetik gorakoak izan dira. Katetoria horretako produktu gehien ekoizpenak goranzko joera du. Urte honetan, pisu handieneko barazkiaren ekoizpenak (tomatea) % 26,3 egin du gora, eta hamarkadaren hasieran zituen urteko ekoizpen-mailak berreskuratzen ari da.

Fruta-arbolei dagokienez, produktu nagusiak (mahai-sagarra) eta gainerako produktuek egoera desberdinak izan dituzte. Mahai-sagarrak goranzko joera izaten jarraitzen du eta % 30,2ko gorakada izan du aurten. Gainerako produktuetan (sagardo-sagarra eta arbendola), goranzko joera eten da eta -% 28,8ko eta -% 34,7ko beherakada izan dute, hurrenez hurren, eta mertxika, berriz, beheranzko joera izaten ari da luzaroan, eta aurten -% 12,6ko beherakada izan du. Madariaren ekoizpenak % 2,4 egin du gora, eta erdibidean geratu da, 2013an eta 2014an hazkunde handiak izan baitzuen, eta 2015ean, berriz, beherakada.

Estatu osoko ekoizpenean EAEk eta Nafarroak dituzten kuotei dagokienez, aurten lehen postua azalbreari dagokio (kuota handiena, alegia; % 21,4), gorakada handia izan baitu. Espinakarekin, berriz, kontrakoa gertatu da: Estatuko tona-kopuruaren ia herena zegokion 2013an, eta orain % 19,7ra jaitsi da. Ilar berdea eta brokolia dira ranking horretako hurrengo postuetan dauden produktuak.

Aztertutako produktu gehien ekoizpenaren % 90etik gora Nafarroan egiten da. EAEk antzeko nagusitasuna du sagardo-sagarraren, patataren eta erremolatzaren ekoizpenean. Oloaren, urazaren, mahai-sagardoaren eta ardoaren ekoizpenean, berriz, bi autonomia-erkidegoek antzeko magnitudeak dituzte.

163. taula Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera*

Produktua	2015	2016	% Δ 16/15	% Euskal Herria/ Espainia 2016
<i>(ha)</i>				
Zerealak				
– Garia	96.893	101.423	4,7	4,5
– Garagarra	99.598	96.725	-2,9	3,8
– Oloa	14.747	17.945	21,7	3,0
– Artoa	18.554	15.047	-18,9	4,7
Bazka-laboreak				
– Bazka-artoa	5.081	5.101	0,4	4,7
– Alpapa	6.653	6.702	0,7	2,6
Barazkiak				
– Zainzuria	1.220	1.203	-1,4	10,8
– Uraza	1.003	1.092	8,9	2,9
– Espinaka	711	770	8,3	19,1
– Tomatea	2.349	2.422	3,1	4,0
– Piperra	1.114	1.238	11,1	6,1
– Orburua	1.193	1.130	-5,3	7,5
– Azalorea	1.220	1.371	12,4	18,2
– Brokolia	5.077	5.052	-0,5	19,8
– Kipula	361	362	0,3	1,5
– Leka	1.011	1.025	1,4	10,8
– Ilar berdea	2.555	2.398	-6,1	18,3
Patata	2.067	1.895	-8,3	2,9
Azukre-erremolatxa	2.348	1.832	-22,0	6,2

(*): Zenbatespenak.

Oharra: Mahastizaintzarako eta fruta-arboletarako azalerei buruzko datuak ez dira sartu, horien argitalpenaren nahitaezko maiztasun mugatuagatik (bost urtekoa).

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.

Zerealetarako laborantza-lurrek 2.300 kilometro karratutik gorako azalera hartzen dute EAEko eta Nafarroako lurraldeetan, eta gainerako laborantza-lur guztien azalera baino ia zazpi aldiz handiagoa da azalera hori; behintzat urtero datuak aurkezten dituzten hemen aztertzen diren produktuak kontuan hartuta (mahastiek edo fruta-arbolek ere azalera handiak hartzen dituzte, baina ez dira haiei buruzko datuak maiztasun horrekin argitaratzen).

Barazkietatik, azalerari dagokionez, brokolia nabarmentzen da, eta haren atzetik, urrun, tomatea eta ilarra daude. Beste produktu batzuen laborantza-lurrek 10-20 kilometro karratuko azalera hartzen dute: zainzuria, uraza, piperra, orburua, azalorea, leka, patata edo erremolatxa.

Lurzoruaren erabileran, gorabehera txikiak izaten dira urtetik urtera. Epe luzean, brokolia eta ilarra batez ere, gorakada izaten ari ziren baina aurrean, haien azalera zertxobait behera egin du.

Euskadiko eta Nafarroako laborantza-lurrek Estatuko guztizkoetan duten kuotei dagokienez, tona-kopuruan nabarmentzen ziren lau produktuak ageri dira adierazle horretan ere, baina kasu honetan, brokolia espinakaren aurretik dago aurten, eta ilarra eta azalorea zertxobait atzetik daude. Produktu horiek guztiek Estatuko laborantza-lurren azalera hartzen duten eremua bostena baino zertxobait txikiagoa da.

164. taula Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak*

(Tm/ha)

Produktua	Hego Euskal Herria		Espainia	
	2015	2016	2015	2016
Zerealak				
– Garia	4,5	5,9	2,9	3,5
– Garagarra	3,8	5,0	2,6	3,6
– Oloa	3,6	5,4	1,6	2,2
– Artoa	10,7	10,9	11,5	11,1
Bazka-laboreak				
– Bazka-artoa	48,6	41,3	41,5	24,5
– Alpapa	49,4	50,7	37,6	41,7
Barazkiak				
– Zainzuria	3,9	3,8	5,2	4,4
– Uraza	27,1	24,7	27,0	26,1
– Espinaka	21,0	21,0	18,0	18,5
– Tomatea	61,3	75,1	83,2	81,7
– Piperra	27,1	32,5	59,9	58,5
– Orburua	14,9	13,2	14,0	13,5
– Azalorea	18,5	22,9	23,2	23,2
– Brokolia	12,5	14,0	17,7	17,4
– Kipula	52,2	51,8	52,8	55,4
– Leka	12,1	13,6	19,1	18,5
– Ilar berdea	6,5	6,1	6,2	6,6
Patata	30,2	35,1	31,9	30,7
Azukre-erremolatxa	99,9	94,8	88,9	90,1

(*): Zenbatespenak.

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.

Aurreko aldagaietatik, errendimendu-ratioak lortzen dira (tona/hektarea), eta Euskadiko eta Nafarroako lurraldea Espainiako lurraldearekin alderatzeko aukera dago. Bi eremuak alderatuta, zerealetan ratio hobeak daude Euskal Herrian Espainian baino, eta, oro har, Euskal Herriak Estatuak baino errendimendu gero eta hobeak lortzeko joera duela ikusten da. Euskal Herriko errendimenduak hobeak dira zereal guztietan (artoa izan ezik), bazka-laboretan, espinakan, patatan eta erremolatxan. Espainiaren produktibitate okerrera, berriz, piperrak du, baina horren arrazoia labore horren barietate jakin batzuk eremu batzuetan eta besteetan nagusi direla izan daiteke.

Oro har, errendimenduen ratioa egonkorra da ia kasu guztietan, baina Euskadin eta Nafarroan gorabehera nabarmenak ikusten dira hektareako tona-kopuru handiena ematen duten bi produktuetan (azalorea eta tomatea). Estatuan ere, produktu horiek

hektareako tona-kopuru handiena ematen dute. 2016an, artoaren errendimenduak oso beherakada handia izan du Estatuan.

2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK

Kapituluaeren hasieran aipatu bezala, Euskadiko eta Nafarroako nekazariek 2016an lortutako prezioen panorama mistoa izan da, beste ekitaldi batzuetan ez bezala; esaterako, 2010ean, 2013an edo 2015ean prezio-igoerak izan ziren nagusi, eta 2014an, berriz, prezio-jaitsierak.

Aztertutako lehorreko laboreetan jaitsiera orokorrak izan dira (gariak -% 16,1, garagarrak -% 13, oloak -% 13,4, artoak -% 2,4 eta alpapak -% 20,3). Laborantza ureztatuko laboreetan, berriz, ez dira hain orokorrak izan, eta tomatearena nabarmentzen da batik bat (-% 13,6).

Prezio-igoeren artean patatarena da deigarriena (% 40,3), eta beste berdura batzuk ere asko garestitu dira, hala nola uraza (% 27,5), espinaka (% 19) eta azalorea (% 28,3). Fruta-arbolei dagokienez, egoera iazkoaren alderantzizkoa da. Iaz, sagarra soilik merkatu zen, eta gainerakoak garestitu egin ziren; eta aurten, berriz, fruta nagusi hori garestitu egin da (% 14). Erremolatxaren prezioa, funtsean, egonkorra da (% 1,3ko igoera). Ardoari dagokionez, ardo zuria gehiago garestitu da (% 12,5) ardo beltza baino (% 7,9).

Epe luzerako analisia eginez gero, produktu gehienetan, prezioak egonkorrak izaten ari dira. Salbuespen deigarriak zainzuria eta arbendola dira, eta azken ekitaldietan, badirudi piperra eta espinaka gora egiten ari direla.

165. taula Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak⁽¹⁾

Produktua	Nekazariak jasotako prezioak (euro/100 kg)		
	2015	2016	% Δ 16/15
Zerealak			
– Garia	20,24	16,98	-16,1
– Garagarra	17,40	15,13	-13,0
– Oloa	18,21	15,77	-13,4
– Artoa	17,29	16,88	-2,4
Bazka-laboreak			
– Alpapa	17,16	13,67	-20,3
Barazkiak			
– (Buru-)jaza	44,29	47,14	6,4
– Zainzuria	213,31	211,42	-0,9
– Uraza	25,12	32,02	27,5
– Espinaka	60,46	71,95	19,0
– Tomatea	32,56	28,12	-13,6
– Piperra	91,48	83,13	-9,1
– Orburua	65,11	66,03	1,4
– Azalorea	37,87	48,6	28,3
– Brokolia ⁽²⁾	39,50	42,85	8,5
– Kipula	25,55	19,4	-24,1
– Leka	151,32	136,36	-9,9
– Ilar berdea	52,43	49,65	-5,3
Fruta-arbolak			
– Sagarra	37,73	43,02	14,0
– Madaria	54,78	55,43	1,2
– Mertxika	56,10	59,83	6,6
– Arbendola	185,48	172,82	-6,8
Ardoa (euro/Hl)			
– Ardo zuri berria	35,41	39,85	12,5
– Ardo beltz berria	46,09	49,75	7,9
Patata	22,81	32,01	40,3
Azukre-erremolatxa	3,81	3,86	1,3

(1): Zenbatespenak.

(2): Iturri nagusian ez dago estatu-mailako 2016ko daturik; Coyuntura Agraria de Navarra aldizkariak Nafarroari buruz emandako datua adierazi da.

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.

3. ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA

3.1 AZIENDA-ERROLDA

Euskal Herrian, 2016an, azien da-errol dan aurreko urtean beherakada orokorrak baina txikiak izan ondoren, 4 azien da-mota nagusitatik 3k hazkundera izan dute. Ardi-azien da izan da salbuespena, eta epe luzeko joerari jarraituz, -% 1,8 egin du behera. Txerri-azien dak, bestalde, gorakada handia izan du (% 22,2), ahuntz-azien dak txikiagoa (% 5,9), eta behi-azien dak, berriz, oso txikia (% 0,2). Estatu osoan joera berdina izan dira, eta kasu horretan, 2015eko joerekin bat, hazkundera txikiagoak izan dira: behi-azien dak % 1,2, txerri-azien dak % 3 eta ahuntz-azien dak % 2,6. Ardi-azien dak, berriz, Euskal Herrian baino beherakada zertxobait handiagoa izan du (-% 3,4).

Aurten, urtetik urterako aldakuntzak antzekoak izan dira bi autonomia-erkidegoetan. Behi-azien daren aldakuntza txikiak goranzkoak izan dira EAEn (% 0,7) eta beheranzkoak Nafarroan (-% 0,4). Ardi-azien dak beherakada zertxobait handiagoa izan du EAEn Nafarroan baino (-% 2,2 eta -% 1,6, hurrenez hurren); ahuntz-azien dak hazkundera nabarmena izan du EAEn (% 8,8) eta ia batere ez Nafarroan (% 0,1). Txerri-azien dak antzeko hazkundera izan du bietan (% 19,3 EAEn eta % 22,4 Nafarroan), baina eremu bateko eta besteko magnitudeak oso desberdinak dira, Nafarroako buru-kopurua EAEn baino 20 aldiz handiagoa baita. Nafarroako ardi-azien daren buru-kopurua EAEn baino halako bi da, eta EAEn ahuntz-azien darena, berriz, Nafarroako halako bi baino handiagoa. Behi-azien dari dagokionez, EAEn buru-kopurua Nafarroako baino % 17,9 handiagoa da.

Ardi-azien daren beherakada etengabea eta oso lineala izan da bi autonomia-erkidegoetan eta Estatuan, 2000ko hamarkadako lehen urteetatik behintzat. 2015ean Estatuan izandako gorakada txikiak ez du jarraitutasunik izan. Txerri-azien dak gorakada izan du Estatuan eta Nafarroan azken ekitaldietan, eta hori esportaziorako ere erabiltzen diren zenbait txerrikiren ospea eta eskari orokorrarekin lot daiteke. Behi-azien daren egoera oso egonkorra da eremu guztietan, baina doikuntzak egiteko joera txikia dago, proportzioz handiagoa izan den eremuetan (EAE).

166. taula **Azienda-errolda (urte bakoitzeko azaroaren 30ean)**

(unitateak)

Eremua	Urtea	Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda
EAE	2011	145.874	308.129	30.283	17.445
	2012	139.855	294.747	29.806	19.567
	2013	138.245	274.490	28.096	21.761
	2014	141.979	263.796	28.023	24.800
	2015	135.569	259.454	26.410	27.124
	2016	136.510	253.660	28.732	32.348
Nafarroa	2011	111.403	562.400	10.859	478.781
	2012	110.361	551.753	12.442	469.758
	2013	110.425	542.319	12.435	447.849
	2014	114.030	527.890	12.708	546.356
	2015	116.223	516.469	12.968	528.764
	2016	115.737	508.138	12.985	647.096
Hego Euskal Herria	2011	257.277	870.529	41.142	496.226
	2012	250.216	846.500	42.248	489.325
	2013	248.670	816.809	40.531	469.610
	2014	256.009	791.686	40.731	571.156
	2015	259.454	775.923	39.378	516.469
	2016	252.247	761.798	41.717	679.444
Espainia	2011	5.923.112	17.002.721	2.692.898	25.634.869
	2012	5.812.606	16.339.373	2.637.336	25.250.377
	2013	5.696.907	16.118.586	2.609.989	25.494.715
	2014	6.078.733	15.431.804	2.704.229	26.567.578
	2015	6.182.908	16.522.956	3.009.582	28.367.335
	2016	6.257.057	15.962.892	3.088.035	29.231.595
EH/Espainia %	2016	4,0	4,8	1,4	2,3

Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren abeltzaintzako inkestak.

Hego Euskal Herri osoak Espainian dituen kuotak % 4 (behi-azienda), % 4,8 (ardi-azienda), % 1,4 (ahuntz-azienda) eta % 2,3 (txerri-azienda) dira. Ehuneko horietatik, hauek dagozkio Nafarroari: % 1,8, % 3,2, % 0,4 eta % 2,2. Xede horietarako, aurtengo hazkunderik handiena (hiru hamarren) txerri-aziendak izan du.

3.2 ABELTZAINZAKO EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

Esnearen ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Esnearen eta haragiaren ekoizpenen balio erlatiboak antzekoak dira abeltzaintzaren azpisektorean. Euskal Herriko esne-ekoizpenak % 2,8ko gorakada izan du 2016an, aurreko urteko gorakadaren herena. Gorakadaren zati handiena Nafarroan izan da, eta Araba izan da beherakada izan duen lurralde bakarra. EAEn lurralde bakoitzari dagokion kuota egonkorra da; izan ere, 2016ko banaketa eta 2010ekoa ia berdina dira: % 41,9 Gipuzkoa, % 32,1 Bizkaia eta % 26 Araba. Nafarroako ekoizpenak EAEkoa gainditu zuen 2011n, eta bien arteko aldea gero eta handiagoa da, batik bat 2015ean Nafarroan izandako gorakadaren ondorioz. Nafarroako ekoizpena heren bat handiagoa da 2010ekoa baino, EAEkoak % 6,9ko beherakada izan du bitartean. Ardi-aziendari dagokionez, % 42,9ra (Nafarroa) eta % 10era (EAE) iristen da ekoizpena.

Izan ere, aurtengo ekitaldian, 12,2 milioi litroko gorakadan, ardi-esnearen ekarpina handia izan da, ekoizpena 4 milioi litro handiagoa izan baita (% 19ko gorakada). Gorakada horretan, kuota handiagoa izan du Nafarroak EAEk baino, Nafarroako gorakada EAEko gorakada halako bi izan baita (% 23,8 eta % 11,9, hurrenez hurren). Ardiaren esne-ekoizpenaren guztizkoan duen kuota % 4,8tik % 5,6ra igo da. Ahuntz-esnean (% 0,2 da) aldakuntza desberdinak izan dira Nafarroan (-% 26,8) eta EAEn (% 10,1). Behi-esneak, berriz, Nafarroan % 2,8 eta EAEn % 1 egin du gora.

167. taula Esnearen ekoizpena

(m litro)

Urtea	Eremua	Behi-esnea	Ardi-esnea	Ahuntz-esnea	Guztira
2014	Araba	46.881	2.377	188	49.446
	Bizkaia	54.974	1.466	429	56.869
	Gipuzkoa	71.898	4.152	121	76.171
	EAE	173.754	7.995	737	182.486
	Nafarroa	208.408	11.570	343	220.321
	Hego Euskal Herria	382.162	19.565	1.080	402.807
2015	Araba	48.367	2.574	148	51.089
	Bizkaia	56.868	1.452	415	58.735
	Gipuzkoa	72.161	4.404	146	76.711
	EAE	177.396	8.429	709	186.534
	Nafarroa	233.074	12.460	348	245.882
	Hego Euskal Herria	410.470	20.889	1.057	432.416
2016	Araba	46.367	2.726	139	49.231
	Bizkaia	58.794	1.622	443	60.859
	Gipuzkoa	74.065	5.085	199	79.349
	EAE	179.226	9.432	781	189.439
	Nafarroa	239.499	15.432	255	255.185
	Hego Euskal Herria	418.724	24.864	1.036	444.624

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika eta Análisi Sektorialen Zerbitzua. Nafarroako Gobernu. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Esneari ematen zaion erabilerari dagokionez, lehenik eta behin ardi-esnearen aurtengo gorakadaren zati handiena gaztarako erabiltzen dela nabarmendu behar da (iaz baino % 16,4 gehiago). Behi-esnearen % 94,4 esne-zentraletara saltzeko erabiltzen da, baina ehunekotan, aurten, hiru urteetan beherakada handiak izan ondoren, kontsumitzaileentzako zuzeneko salmentak gorakada handiagoa izan du (% 13,8), behi-esneari dagokion % 2a hartuz. Beste erabilerak % 2,8 hazkuntzarako, eta % 0,8 abeltzainek berek kontsumitzeko izan dira.

Ardi-esnean, gaztarako erabilera da nagusi (% 53,1), esne-zentralei saltzearen gainetik (% 41,6). Zuzeneko salmentarako % 4,8 erabiltzen da, eta ekoizleen kontsumorako, berriz, % 0,4.

168. taula EAEn ekoiztitako esnearen erabilera

Erabilera	2014	2015	2016	(m litro) % Δ 16/15
Behi-azienda	173.754	177.396	179.226	1,0
– Txahalen hazkuntza	5.183	5.048	4.970	-1,5
– Pertsonen kontsumoa ustiatégian	1.626	1.515	1.432	-5,5
– Kontsumitzaileei zuzenean saltzea	3.655	3.116	3.547	13,8
– Esne-zentralei saltzea	163.290	167.717	169.277	0,9
Ardi-azienda	7.995	8.429	9.432	11,9
– Gazta	4.152	4.306	5.013	16,4
– Pertsonen kontsumoa ustiatégian	31	34	37	9,9
– Kontsumitzaileei zuzenean saltzea	360	421	454	7,8
– Esne-zentralei saltzea	3.423	3.669	3.928	7,1
Guztira	181.749	185.825	188.658	1,5
– Txahalen hazkuntza	5.183	5.048	4.970	-1,5
– Gazta	4.152	4.306	5.013	16,4
– Pertsonen kontsumoa ustiatégian	1.626	1.549	1.469	-5,1
– Kontsumitzaileei zuzenean saltzea	4.015	3.537	4.001	13,1
– Esne-zentralei saltzea	166.713	171.386	173.205	1,1

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika eta Análisi Sektorialen Zerbitzua.

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan, institutu espezializatuak daude, behi-aziendako esne-ustiatégien jarraipena egiteko. 2016an, institutu horiek erabiltzen dituzten abeletxeen lagina beste urte batzuetan baino gehiago murriztu da, Araban izan ezik, eta horrek urtetik urterako alderaketaren adierazgarritasuna gutxitzen du. Hain zuzen ere, Araban, gainerako lurraldeekiko desberdinak diren ezaugarri batzuk izan dira, eta horrek lotura izan dezake, neurri batean, lehen aipatutakoarekin. Esate baterako, lurralde horretan aztertutako guztizko behi-kopuruaren beherakada handiena izan da (nahiz eta lurralde horretako lagineko abeletxe-kopuruan bat gutxiago baino ez dagoen, 2015eko laginaren aldean). Abeletxeko edo hektareako batez besteko buru-kopurua lurralde horretan soilik egin du behera, eta buru bakoitzeko lortutako litroen batez bestekoak han egin du gora gehien.

Horrez gain, aurreko urtearen aldean, aztertutako ratioetako aldakuntzak ez dira % 10etik gorakoak izan, ez gorakadak, ez beherakadak.

Azken bosturtekoan, datu horietatik ateratako guztizko balioaren bilakaera, paraleloa izan da kasu guztietan: goranzko joera orokorra, goren unea 2014an, beherakada 2015ean, eta susperraldia 2016an (Nafarroan izan ezik, beherakada txikia izan baita aurten ere). Dena dela, Arabako datuak zertxobait altuagoak izan dira, eta Bizkaikoak, berriz, zertxobait baxuagoak. Balioa sendotuz doa, eta behi bakoitzeko urteko 3.000 euro baino zertxobait handiagoa da.

169. taula Esne-ekoizpenerako eliteko behi-aziendako ustiatzearen lagin baten emaitzak

Kontzeptua	Lurgintza		Lorra		Abere		INTIA-ITG	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Datu teknikoak								
- Lagineko ustiatze-kopurua	40	36	67	64	42	41	58	51
- Behi-kopurua	2.110	1.978	4.424	4.489	4.816	4.412	6.090	5.610
- Nekazaritzako azalera erabilgarria (ha) / ustiatze	24,5	23,5	33,3	35,27	72,0	73,6	47,2	47,15
- Behi-kopurua/ustiatze	53	55	66	70,15	115	107,6	102	110
- Behi-kopurua/ha	2,2	2,3	2,0	2,0	1,6	1,5	2,2	2,3
- Bazka-ekoizpenagatiko gastuak (euro/ha)	317,15	307,70	188,00	175,04	524,4	510,9	711,9	664,6
Prezioak eta errendimenduak								
- Esnearen prezioa (euro/1.000 litro)	355,9	356,6	342,65	344,65	345,11	336,5	333,10	317,52
- Esnearen ekoizpena (litro/behi)	8.559	8.757	8.537	8.522	9.525	10.070	9.422	9.609

Iturria: Lurralde bakoitzeko nekazaritza- eta abeltzaintza-elkarteen lankidetzaz zentroetatik jasotako memoriak eta informazioak. Lurgintza (Gipuzkoa), Lorra (Bizkaia) eta Abere (Araba), bai eta Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA ere (INTIA, ITG dibisioa).

Esnetarako ardi-aziendako ustiatzei buruzko datuak Arabako Abere institutuak neurtu eta plazaratzen ditu, eta Nafarroakoak, berriz, INTIA-ITG institutuak.

Aztertutako Nafarroako abeletxeetan, 2016ko emaitzak 2015eko emaitzen antzekoak dira, eta horrek urtetik urtera aldakuntzak izateko ohiko joera eten du une batez. Aldakuntza horiek eragina izaten dute ustiapeneko kontuetan. Emaitza horrek du aurreko urtean lortutako posizioari eutsi zaiola esan nahi (aurreko urteetako baino posizio hobea).

Batetik, aurtengo marjina garbiak % 1,1 egin du gora, eta ardi bakoitzeko marjina garbia % 5 igo da aurreko urtetik. Hori prezio-igoeraren (% 0,7) eta elikadura-gastuen beherakadaren (-% 6,2) ondorioa izan da. Hala ere, gastu aldakorrek % 4,7 egin dute gora; beraz, ardi-esnearen ekoizpeneko hobekuntza ekonomikoa ez da oso nabarmena

izan. Halaber, emandako diru-laguntzak iazkoak baino % 0,6 handiagoak izan dira. Igoera hutsala da hori, kontuan hartuta 2015eko igoera % 284,6koa izan zela.

Arabako Abere Institutuaren laginaren kasuan, marjina garbiak % 4,7 egin du gora. Aldakuntzak ikusita, horren arrazoia, batik bat, 2016an, "beste diru-sarrera batzuk" atala erdira baino beherago jaitsi dela izan da, eta lortutako emaitza ezinezkoa izango zen diru-laguntzetan % 13,1eko gorakada izan gabe.

170. taula ABEREk eta INTIA-ITGk kudeatutako esnetarako ardi-aziendaren ustiatgien batez besteko emaitza ekonomikoak

Kontzeptua	ABERE		INTIA-ITG	
	2015	2016	2015	2016
Datu tekniko-ekonomikoak				
- Laginaren ustiategi-kopurua	26	26	30	29
- Eskulana (GLU) ustiategi bakoitzeko	1,69	1,86	1,7	1,71
- Ardi-kopurua ustiategiko	398	379	372	359
- Azalera (ha)	77,25	80,58	24,8	23,95
- Esne-ekoizpena (litro/ardi)	--	--	141	147
- Esnearen prezioa (euro/1.000 litro)	--	--	1.526	1.537
Ekoizpena eta emaitzak (euroak)				
Produktu gordina	113.224	112.462	100.696	101.159
- Elikadura-gastuak	33.244	28.517	25.590	24.012
- Gastu aldakorrak	14.252	14.345	8.898	9.314
= Marjina gordina	65.728	65.599	66.207	67.834
+ Diru-laguntzak	20.806	23.522	5.703	5.737
+ Beste diru-sarrera batzuk ⁽¹⁾	8.346	3.689	--	--
- Eskulan-gastuak ⁽²⁾	11.006	12.024	--	--
- Gastu finakoak	39.146	43.798	33.010	34.267
= Marjina garbia	44.727	46.810	33.197	33.567
Emaitza unitarioak (euroak)				
- Marjina garbia / ardi	165,0	183,6	89,18	93,62
- Marjina garbia / GLU	26.516	25.228	23.226	22.851

(1): INTIA-ITGren kasuan, diru-sarrera horiek (zerbitzuengatik edo beste batzuegatik) produktu gordinean sartuta daude.

(2): INTIA-ITGren kasuan, gastu horiek gastu finkoen guttizkoan sartzen dira.

Iturria: Abere eta Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA, ITG dibisioa).

Haragi ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Azken hamarkadan, hildako ganaduaren tona-kopuruari dagokionez antzeman den aldaketa nagusia hegaztien haragiak erregistratutako gorakadan oinarritzen da, batik bat, hamar urtetan %134,1 hazi dena. Behi haragiaren kasuan aldiz, 2006 urtean izandako datuaren erdia baino zertxobait altuagoa da.

Euskal Herrian, hegaztien abeletxeak Nafarroan kokatzen dira, EAEko ekoizpena Nafarroako hegazti-ekoizpen guztiaren bostena izatera iristen ez den bitartean. Soilik behienak dute garrantzia handiagoa EAEn, Nafarroan dagoenaren tona-kopuru bikoitza baino gehiago baitago. EAEn, 2016an erregistratzen da lehen aldiz behi haragiaren ekoizpenean gorakada, 2003 urtetik gertatzen ez zena.

EAEko pisu erlatiboa haragiaren guztizkoan %23,8 da, baina bi autonomi erkidegoak batera hartuz, Estatu osoaren %2,7a suposatzen duten, (azken urtetan pixkanaka behera egiten ari den zifra). Zaldi haragiaren gutxieneko kategoria salbuespen bat da, aurten Estatu osoaren % 27a izatera iritsi dena. Hegazti haragia bigarren kokatzen da guztizkoaren %7,7arekin.

171. taula Euskal Herrian hildako ganaduaren kanaleko pisua

(Tm)

Urtea	Behi- azienda	Ardi- azienda	Ahuntz- azienda	Txerri- azienda	Zaldi- azienda	Hegazti- azienda	Untxiak	Guztira
2007	31.543	6.968	30	49.976	172	65.594	3.994	158.708
2008	28.768	6.213	33	52.327	1.098	73.986	4.051	167.981
2009	28.856	4.659	35	50.123	1.352	89.003	3.719	177.747
2010	26.219	4.372	41	41.577	1.787	77.571	3.978	155.545
2011	25.741	4.339	30	41.043	2.264	88.144	4.207	165.769
2012	21.548	3.806	29	40.856	2.725	97.062	4.418	170.443
2013	21.067	4.217	30	37.607	2.596	102.444	4.323	172.284
2014	19.715	4.093	44	37.706	2.655	103.667	4.423	172.303
2015	18.528	3.902	43	34.833	3.235	103.472	4.612	168.636
2016	18.029	4.071	42	23.379	3.532	116.739	4.440	170.233
EH/Esp. % 2016	2,8	3,5	0,4	0,6	27,0	7,7	7,4	2,7


Iturria: Abeltzaintzako inkestak. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

2016an hegazti ekoizpenean aldaketa berri bat antzeman da, aldaketarik gabeko bi ekitaldiren ondoren, eta txerrien kasuan ekoizpenak ia heren bateko beherakada izan du, 2015eko datuekin alderatuz. Hegaztien kasuan, urte arteko hazkundea, termino absolutuetan, 2009 urtea geroztik altuena da, eta 2011 geroztik ehunekotan. Aldiz, txerri ekoizpenean erregistratutako beherakada, altuena da bi kasuetan 2000 urteaz geroztik.

Aldaketa bat zein bestea Nafarroan ematen dira batik bat. Euskal Herrian, aldaketak honakoak dira: behi haragian -%2,7; ardi-haragian %4,3, ahuntz haragian -%2,4, txerri haragian -%32,9, zaldi-haragian %9,2, hegaztietan %12,8, untxi haragian -%3,7 eta %1a bere osotasunean. Mota hauetako kuotak honakoak dira: %10,6, %2,4, %0,02, %13,7, %2,1, %68,6 eta %2,6, hurrenez hurren.

29. grafikoa Abeltzaintza-ekoizpena Euskal Herrian, bilakaera espezieen arabera

(Indizea: 1990=100)



Iturria: Abeltzaintzako inkestak. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Abere eta INTIA-ITG institutuek behi-aziendaren haragia ekoizten duten eliteko ustiategiaren datu ekonomikoak ere jasotzen dituzte, baita ardi-aziendaren ekoizleenak ere Nafarroako erakundearen kasuan.

Arabako Abere institutuaren lagina behi-aziendari buruzkoa da, eta lagin horretan, batez besteko marjina garbia % 53,1 da. Aztertutako 75 ustiategietako batez besteko marjina garbia 6.400 eurokoa izan da, baina kopuru hori ezinezkoa izango litzateke diru-laguntzen bidez batez beste lortutako 8.100 euroko diru-laguntzak izan gabe. Diru-laguntzak, beste diru-sarrera batzuk eta gastu finakoak kontuan hartu aurretik, ustiapeneko balantzea negatiboa da berez. Horren arrazoia kostu aldakorrek lortutako salmentak baino zertxobait gehiago handitu direlako da. Nolanahi ere, produktu gordinaren eta marjina gordinaren egoerari eta diru-laguntzen beharri dagokienez, une honetako egoera askoz hobea da lagin horrek krisi ekonomikoaren urte larrietan erakusten zuena baino.

172. taula Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-aziendako ustiatgien emaitzak

Kontzeptua	ABERE		INTIA-ITG			
	Haragitarako behi-azienda		Haragitarako behi-azienda		Haragitarako ardi-azienda	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Datu tekniko-ekonomikoak						
- Laginaren ustiategi-kopurua	68	75	34	34	31	28
- Eskulana (GLU)	0,9	0,9	1,2	1,3	1,1	1,2
- Behi- / ardi-kopurua ustiatetik	54,6	57,0	71,6	77,4	677,0	638,3
- Azalera (ha)	84,2	81,5	35,7	40,1	43,0	34,5
- Txahalen/Arkumeen ekoizpena, saldutako kg behi/ardi bakoitzeko ⁽¹⁾	--	--	211,0	230,3	19,9	20,8
- Txahal- / arkume-haragiko kiloko salmenta-prezioa	--	--	3,90	3,9	3,92	3,7
Ekoizpena eta emaitzak (euroak)						
- Produktu gordina	37.238	39.785	76.021	91.122	65.163	65.152
- Elikadura-gastuak	19.238	21.332	39.661	40.396	30.467	28.106
- Gastu aldakorak	4.824	6.150	12.644	16.047	8.628	7.520
= Marjina gordina	13.176	12.303	23.716	34.679	26.067	29.526
+ Diru-laguntzak	18.819	26.925	8.348	12.072	9.543	10.787
+ Beste diru-sarrera batzuk ⁽²⁾	1.940	2.747	--	--	--	--
- Eskulan-gastuak ⁽³⁾	3.623	3.546	--	--	--	--
- Gastu finkoak	18.242	23.492	31.050	34.753	19.362	19.198
= Marjina garbia	12.070	18.482	-7.334	-74	6.705	10.329
Emaitza unitarioak (euroak)						
- Marjina garbia behi/ardi bakoitzeko	241,38	324,24	-102,4	-0,95	9,9	16,2
- Marjina garbia GLU bakoitzeko	13.411	20.536	-6.428	-60	6.305	9.705

(1): Haragi kiloak: Behi-azientan, kanaleko kiloak. Ardi-azientan, kiloak bizirik.

(2): INTIA-ITGk diru-sarrera horiek (zerbitzuengatik edo beste batzuegatik) produktu gordinean sartzen ditu.

(3): INTIA-ITGk gastu horiek gastu finkoetan sartzen ditu.

Iturria: Abere eta Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA, ITG dibisioa).

INTIA-ITG Nafarroako institutuaren laginean, 2016an joera positiboa izan dela ikusten da, bai behi-azientan, bai ardi-azientan. Aurten, behi-azientan, iaz izan ziren kontu negatiboak ia kitatzea lortu da, diru-laguntzen gorakadari esker, neurri batean. Ardi-azientan, berriz, marjina garbia handitu egin da, diru-laguntzen igoeratik gora, eta azken bosturteko emaitzarik onena lortu da.

Behi-azientan, gastu-kategoria guztiek gora egin dute, eta ardi-azientan, berriz, denak zertxobait murriztu dira, produktu gordina bera bezala. Eta hori, prezio-jaitsiera handiagoa izanda behi-azientan izandakoa baino. 31 ustiatetik 28 ustiatetik lagina erabiltzera pasa da, hori dela eta abeletxeen batez besteko azalera behera egin du, ia 43 ha izatetik, 34,5 ha izatera pasatuz.

Behi-azientaren haragiaren ekoizpenaren tona-kopuruak gora egin du (% 9,1) 2015eko tona-kopuruaren aldean, prezio-aldakuntzarik izan gabe. Diru-laguntzek % 44,6 egin dute gora, eta hori lagungarria izan da marjina gordina handitzeko, eta marjina garbiaren

beherakada (-% 99) aurreko urtekoa bezain handia ez izateko (-% 1.045,1 izan zen 2015ean). Ardi-aziendan, salmentei eustea lortu da, batez besteko merkatu-prezioak behera eginaz (-% 6,9), eta ekoiztako tona-kopurua aurreko urtekoa baino handiagoa izan delako (% 4,4). Marjina gordinak eta garbiak gora egin dute (% 13,3 eta % 54, hurrenez hurren).

173. taula INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-aziendako ustiategien emaitzak

Kontzeptua	Esne-txerrien ekoizpena ⁽¹⁾		Ziklo itxia ⁽²⁾	
	2015	2016	2015	2016
Ezaugarri tekniko-ekonomikoak				
- Aztertutako ustiategi-kopurua	12	12	18	16
- Txerri emeen kopurua ustiategi bakoitzeko	165,96	160,68	399,9	356,14
- Txerri eme bakoitzeko saldutako esne-txerriak	22,65	23,53	1,0	1,01
- Txerri eme bakoitzeko saldutako txerri gizenduak	0,20	0,24	20,8	22,57
- Txerri eme bakoitzeko saldutako txerri-kopurua	22,8	22,77	21,9	23,58
- Esne-txerriaren batez besteko pisua salmentan (kg)	17,5	18,12	9,3	8,81
- Txerri gizenduen batez besteko pisua salmentan (kg)	108,7	113,02	109,9	109,38
- Saldutako esne-txerrien + txerri gizenduen kopurua	3.792	3.820	8.742	8.399
- Esne-txerriaren batez besteko salmenta-prezioa (euroak)	37,2	38,07	26,7	25,64
- Txerriaren kiloko salmenta-prezioa, batez beste (euroak)	1,07	1,061	1,1	1,069
- GLU guztira	0,9	1,02	3,0	2,84
Emaitza ekonomikoak (euroak)				
- Produktu gordina	155.027	158.782	1.036.954	970.617
• Gastu aldakorrak	104.847	104.244	783.265	699.470
- Marjina gordina	50.180	54.538	253.689	271.147
• Gastu finkoak	40.270	38.792	231.327	196.066
- Marjina garbia	9.910	15.747	22.361	75.081

(1): 2016an 3 ustiategik 26,22 kg-ko esne-txerriak ekoizti dituzte eta 9k titia kenduta saldu dituzte (6,95 kg/esne-txerri).

(2): Ekoizpenaren % 80 baino gehiago gizendutako txerri gisa saltzen duten ustiategiak.

Iturria: Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA, ITG dibisioa).

INTIA-ITG institutuak txerri-aziendako ustiategien emaitza ekonomikoak ere aztertzen ditu, eta haren datuen arabera, 2016an emaitza hobea izan da 2015ean baino.

Esne-txerrien haragiaren ekoizpenari dagokionez, gastuak jaistearen ondorioz, 2016an, marjinek gora egin dute (marjina garbiaren kasuan, hain zuzen, % 58,9). Ziklo itxian ere, arrazoi bera dela eta, marjina garbia bikoiztu baino gehiago egin da (% 235,8ko gorakada); beraz, gora egin du aurreko urtean behera egin ondoren. Ziklo itxian, hain zuzen, ekoizpenak behera egin du, baina kostuak are gehiago jaitsi dira, (hazkuntza-ustiategietan, ekoizpena eta kostuak aurreko urteko kopuruen antzekoetan mantendu dira, aldakuntza gutxirekin) aldakuntza horiek bi alderdietan aldekoak izan direnez, marjinen arazo sortu ahal izatea ekarri dute.

4. BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA

Basogintzaren sektoreak, 2016an, egur moztuaren bolumenak aurreko urtean abiatu zuen beheranzko joera berretsi du. Bost urtez etengabeko gorakada izan ondotik beheranzko joera abiatu zen. Intsinis pinua da bi jarduera-joera horien eta, oro har, sektore osoaren xede nagusia. Edonola ere, moztutako egurraren bolumena krisiaren aurrekoa baino askoz handiagoa da (% 54,5 handiagoa, 2016ko datua 2007koarekin erkatzen baldin bada).

Beherakada erakusten duen bigarren urte honekin, aurreko bost urteetan (2009-2014) mozketak izandako gorakada handia itxi egiten da, % 344,5ekoa (2010, 2012 eta 2014 urteetan jazoa batez ere). Bosturteko horren lehen urtean, 2009an, eskariaren eragina apartekoa izan zen (aldi baterakoa Akitanian), eta horrek merkatuta eta EAEko jarduera desorekatu egin zuen, ekonomiaren, eraikuntzaren eta etxebizitzaren krisialdiaren erdi-erdian.

Aurten, 2016an, guztirako mozketa-bolumenak -% 6,5 egin du behera, aurreko urtean baino gehiago (-% 3,6 2015ean). Kontrastea bereziki handia da koniferoei, hau da, tipologia nagusiari begiratuz gero; izan ere, -% 2,2ko beherakada izan zuen 2015ean eta -% 7,8koa izan du 2016an; beste kategoriak, hostotsuenak, beherakada zertxobait arindu egin du, 2015ean % 12,8ko beherakada izan ondotik, % 2,7 handitu baita 2016an.

Beste urte batzuetan gertatu den moduan, probintziatik probintziara aldeak ikusi dira; hori horrela, Araban, bolumena % 14,9koa izan zen 2015ean, eta % 27,1 egin du atzera 2016an; Bizkaiak jarraipena eman dio iazko -% 7,3ko beherakadari, eta antzeko beherakada bat izan du aurten, % 8koa; eta Gipuzkoak iaz beherakada apal bat izan zuen arren (-% 0,8), igoera txiki bat izan du aurten (% 1,9koa).

Koniferoek hostotsuekiko izan duten mozte-bolumenaren datu erlatiboa % 87koa izan da EAEn, eta, zehazki, % 78,9koa Bizkaian, % 99,1ekoa Gipuzkoan eta % 92,6koa Araban. Hostotsuen egoerari begiratuta, alde handiak ikusten dira; izan ere, Araban aurten -% 61,1eko beherakada izan den arren, % 10,4ko igoera izan da Bizkaian eta % 6koa Gipuzkoan. Mozteko baimena duten metro kubikoen % 93,6 Bizkaian kokatzen dira.

174. taula EAEen egurra mozteko lizentziak

(m³ c.c. = metro kubiko, azal eta guzti)

Urtea	Eremua	Koniferoak	Hostotsuak	Guztira
2014	Araba	123.135	15.527	138.662
	Bizkaia	898.738	215.208	1.113.946
	Gipuzkoa	570.547	8.009	578.556
	EAE	1.592.419	238.744	1.831.163
2015	Araba	137.221	22.153	159.374
	Bizkaia	851.007	181.280	1.032.287
	Gipuzkoa	569.213	4.840	574.053
	EAE	1.557.441	208.273	1.765.714
2016	Araba	107.583	8.625	116.208
	Bizkaia	749.160	200.089	949.249
	Gipuzkoa	579.877	5.132	585.009
	EAE	1.436.620	213.847	1.650.466

Iturria: Estatistika eta Análisi Sektorialen Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

BaskEgur Euskadiko Egurraren Elkartek sektorea lan handia egiten ari dela eta jasangarritasunarekin konpromiso handia duela adierazten du, moztutakoak baino arbola gehiago landatzen baitira; horrez gainera, enplegu-poltsa handiak sortzen ditu (20.000 enplegu zuzen eta eratorri sortu ditu egurrak EAEen) eta jarduera ekonomikoa bultzatzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko basogintzak 2016an merkatu-prezioan nekazaritza-ekoizpen guztiaren % 8 inguru ekoitzi zuen (% 53,8 ekoitzi zuen nekazaritzak eta % 36,2 abeltzaintzak). Nekazaritzaren baitako kategorietan, intsinis pinua seigarrena da, mahastien, behi-esnearen, barazkien, behi-okelaren eta zerealen atzetik. Egur horren balioak, uneko prezioan, -% 9,2 egin du behera, eta 33,1 milioi eurora iritsi da. Basogintzaren sektore osoak 42,7 milioi osatu ditu aurten, eta % 8,8ko beherakada izan du balio osoan; prezioen batez besteko haztatuak % 2 egin du gora eta tona-ekoizpenak, berriz, % 8,9 egin du behera. Bolumenak eta tonak konparatzean, lehenek mozteko baimenak eta bigarrenak, berriz, egiaz egindako mozketak adierazten dituztela gogoratu behar da.

175. taula EAEn egurra mozteko lizentziak

(m³ c.c. = metro kubiko, azal eta guzti)

Espeziea	2015	2016	% Δ 16/15
– Basapinua	431	4.748	1.002,0
– Larizio pinua	36.697	33.414	-8,9
– Pinaster pinua	33.507	45.449	35,6
– Halepensis pinua	3.533	52	-98,5
– Radiata pinua (intsinis)	1.417.406	1.292.377	-8,8
– Beste konifero batzuk	65.867	60.579	-8,0
Koniferoak, guztira	1.557.441	1.436.620	-7,8
– Txopoa	3.685	2.219	-42,2
– Eukaliptoa	177.463	199.478	12,4
– Quercus	13.364	5.329	-60,1
– Beste hostotsu batzuk	13.761	6.910	-49,8
Hostotsuak, guztira	208.273	213.847	2,7
GUZTIRA	1.765.715	1.650.466	-6,5

Iturria: *Estatistika eta Análisi Sektorialen Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Lehen adierazi den moduan intsinis edo radiata pinua sektorean indar handiena duena da, eta haren bolumenak % 8,8 egin du behera. Espezie guztien bolumenaren % 78,3 biltzen du pinu horrek, eta % 90eko bolumena du koniferoen artean. Eukaliptoa arbola hostotsu nabarmenena da (bolumenaren % 93,2), eta % 2,7 egin du gora moztutakoen bolumenean, aurreko urtean izandako geldialdiaren ondoren. Ordura arte, datu orokorreki begiratuta, koniferoen goranzko joera bera erakutsi zuten 2009-2014 bosturtekoan. Gainerako espezieek eremu eta mozketako bolumen nabarmen apalagoak dituzte, gune jakinetan kontzentratuta. Hori horrela izanda, ez dira urtero mozten, eta, ondorioz, mozketen bolumenak asko aldatzen dira, gora eta behera, urtetik urtera.

5. ARRANTZA-SEKTOREA

5.1 IKUSPEGI OROKORRA

Arrantza-sektoreak eraldaketa jarraituak izan ditu azken hamarkadetan Euskadin eta inguruko lurraldeetan, eta 2016an itsasoan lan egiten dutenak duela 30 urte lan egiten zutenen laurdena ziren. 1985ean 7.950 tripulatzaile zeuden, 2015ean 1.890 geratzen dira eta 2016an gorakada txiki bat izan da (%0,8) 15 enplegu berriekin. Askotariko aldaketen mende dagoen jardura batean bilakaeraren emaitzarik nabarmenena da, batik batik lehiakortasunaren aldetik, eskaintzaren jatorriagatik, teknologiagatik eta soziologiagatik: historikoki arrantzan buru-belarri sartuta egon diren udalerrietan beste zeregin bat bihurtu da, betiere desegonkortasun eta ziurgabetasun handi bati lotuta, merkatuaren beraren baldintzengatik.

176. taula EAEko ontzidiaren egitura

Sektorea	Urtea	Unitate kopurua	CV potentzia	EGT*	Tripulatzaile kopurua
Altura	2013	46	120.441	44.061	891
	2014	42	113.526	41.493	817
	2015	42	108.061	39.373	768
	2016	42	108.060	39.274	763
Baxura	2013	175	54.569	11.076	1.208
	2014	159	50.388	10.382	1.168
	2015	151	47.351	9.882	1.122
	2016	153	47.837	10.910	1.142
EAE, guztira	2013	221	175.010	55.137	2.099
	2014	201	163.914	51.875	1.985
	2015	193	155.412	49.255	1.890
	2016	195	155.897	50.184	1.905

(*): Erregistro Gordineko Tonak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

Urte honetan, enpleguaren gorakadarekin batera, baxurako bi ontzi gehitu zaizkio ontzidiari, azken bi urteetan 28 ontzi amortizatu zituen joera hautsiz. Baxurako ontziak 153ra igo dira eta altuerakoak 42 izaten jarraitzen dute 2014az geroztik. Erantsitako ontzi horiei esker, euskal ontzidi osoaren potentzia eta tonajea handitu egin da 2016an urte arteko terminoetan (%0,3 eta %1,9 hurrenez hurren).

5.2 BAXURAKO ARRANTZA

2016an baxurako bi ontzi gehiago egotea xehatuz, Bizkaian urte horretan baxurako ontzien zifra ale batean txikitu dela ikus daiteke, baina Gipuzkoan hiru ale gehiago sartzeak orekatu du balio hori. Zehazki, Bizkaian ontzi bat galdu da Plentzian, eta Gipuzkoan hiru gehiago daude Getariako eta Mutrikuko portuetan, bi ontzi eta ontzi bat, hurrenez hurren.

Guztira, 2016an, Bermeok du baxurako ontzi kopuru handiena (29, ontzi guztien % 19); eta, berriro ere, Hondarribia eta Getaria dira hurrenak (ontzi guztien % 17,6 eta % 16,3, hurrenez hurren). Baxurako azpisektoreko potentziaren, tonajearen eta lan egiten dutenen adierazlerik handienak Hondarribiko portukoak dira, kuotak Euskadiko guztizkoen %28,6, %31,2 eta %30,1 izanik, hurrenez hurren. Oro har, Gipuzkoako batez besteko guztiak altuagoak dira adierazle guztietan. Lurralde horreta Bizkaian baino %18,6 ontzi gehiagorekin, ontziko zaldi-potentzian %58,3 gehiago, batez besteko tonajearen %94,7 gehiago eta ontzi estandar batean %71,1 langile gehiago ditu.

177. taula EAEko baxurako ontzidia, portu bakoitzeko (2016)

Portua	Unitate kopurua	CV potentzia	EGT	Tripulatazaile kopurua
- Hondarribia	27	13.534	3.079	336
- Getaria	25	10.771	2.479	260
- Mutriku	4	337	906	10
- Orio	6	4.660	860	94
- Pasaia	17	1.624	260	57
- Donostia	4	285	30	8
GIPUZKOA, GUZTIRA	83	31.211	7.614	765
- Bermeo	29	9.314	2.002	187
- Zierbena	5	871	172	25
- Armintza (Lemoiz)	4	256	36	10
- Lekeitio	9	2.382	488	57
- Mundaka	3	219	28	5
- Ondarroa ^(*)	7	2.304	378	52
- Plentzia	4	145	25	9
- Santurtzi ^(**)	9	1.136	168	32
BIZKAIA, GUZTIRA	70	16.627	3.297	377
EAE, guztira	153	47.838	10.911	1.142

(*): Ontzi bat dago EAetik kanpo, baina Ondarroako ontzien artean sartu da estatistika-sekretua gordetzeko.

(**): Estatistika-sekretua gordetzeko, Bilboko eta Portugaleteko ontzien (ontzi 1 bakoitzean) datuak Santurtzikoaren multzoan sartu dira. Getxok arrantza-ontziak izateari utzi dio.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

Modalitateka, Gipuzkoako baxura-arrantzan inguraketa-teknika erabiltzen da batik bat, portu gipuzkoarretako ontzien %44,6k erabiltzen dutena, eta modalitate hori %72,3, %68,2 eta %71,3 da hurrenez hurren, aztertutako beste hiru adierazleetan (zaldipotentzian, tonajea eta tripulatzaile kopuruan).

Bizkaiko portuetan, berriz, harrapaketa-teknikak desberdinak dira, arte xeheak izenekoak, baxurako ontzidiaren gero eta zati handiagoa hartzen duena, unitatetan (%51,7). Ontzi txikiagoak dira, eta horregatik, arte xeheek kuota txikiagoa dute hiru adierazleetan, heren baten ingurukoa (%33,2, %32 eta %37,1).

178. taula EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera (2016)

Modalitatea	Unitate kopurua	CV potentzia	EGT	Tripulatzaile kopurua
– Inguraketa	37	22.578	5.198	546
– Arte xeheak	25	2.167	1.162	63
– Tretza	8	654	106	20
– Beita bizia	7	4.846	970	113
– Xaxiango/kazako arrantza & lerro bertikalak & zapo-sarea ^(*)	6	966	179	23
GIPUZKOA, GUZTIRA	83	31.211	7.615	765
– Arte xeheak	40	5.516	1.056	140
– Inguraketa	15	6.700	1.457	150
– Tretza	10	2.849	548	60
– Artefaktuak & xaxiangoa/kazakoa & beita bizikoa ^(**)	5	1.561	235	27
BIZKAIA, GUZTIRA	70	16.626	3.296	377
EAE, guztira	153	47.837	10.911	1.142

(*): *Estatistika-sekretua gordetzeko, Gipuzkoan xaxiango/kazako arrantzarako, lerro bertikalako eta zapo-sareko ontziak sartu dira.*

(**): *Estatistika-sekretua gordetzeko, Bizkaian artefaktuekin aritzen diren ontziak, xaxiango/kazakoak eta beita bizikoak sartu dira.*

Iturria: *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.*

Ondoren, baxurako ontzidiaren harrapaketen bilakaeraren eta banaketaren pisua eta balioa aztertuko dira. Aurreko urtean bezala, pisua jaitsi eta balioa handitu egin da, kasu honetan -%0,93 eta %16,5, hurrenez hurren. Pisuaren beherakada 2015ean baino 6 ehuneko txikiagoa da eta balioaren igoera 6 ehuneko handiagoa; hartara, urte batetik hurrengorako alderaketa-balantzea sektorearen aldekoa da, argi eta garbi.

Aldeko egoera hori Gipuzkoako portuetan okertu da, haietan pisua %4,43 txikitu eta balioa %21,5 handitu delako; Bizkaian, aldiz, pisua %4 handiagoa izan da eta diru-sarrerak %7,9 soilik handitu dira. Bi magnitudeen arteko ratioa batez besteko 1,74 €/kg-koa izan zen 2016an Euskadin, eta 2015ean, berriz, 1,48 €/kg-koa. Gipuzkoan 43 zentimo hobetu zen kg-ko (2,05€/kg-ra iritsita), eta Bizkaian, 5 zentimo soilik (1,34 €/kg-n kokatuta).

179. taula Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira

Lurraldea	2015		2016		%Δ 16/15	
	Tm	m euro	Tm	m euro	Tm	m euro
Gipuzkoa	26.669	43.087	25.487	52.348	-4,4	21,5
Bizkaia	19.207	24.853	19.966	26.827	4,0	7,9
EAE	45.876	67.939	45.453	79.175	-0,9	16,5

Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

Freskoko salmenta banaketako modalitate nagusia da, aurten saldutako tonajearen %79,7 hartzen duena; kontserbek, berriz, %10,3, eta izoztuek, %10. Diru-sarrerei dagokienez, aipatutako lehen bi kanalen kuotek goranzko joerarekin jarraitzen dute, eta hirugarrena garrantzia galtzen ari da.

Prezioek antzeko aurrerapenak izan dituzte hiru kanaletan; arrain freskoarena 2,20 €/kg-an kokatu da, kontserbarena 1,82 €/kg-an, eta izoztuena 0,67 €/kg-an. 2015eko batez bestekoak 1,73 €/kg, 1,61 €/kg eta 0,58 €/kg izan ziren.

180. taula Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantzaren helmuga, 2016

Lurraldea	Freskoa		Kontserbak		Izoztuak	
	Tm	m euro	Tm	m euro	Tm	m euro
Gipuzkoa	19.896	43.016	3.498	7.830	2.061	1.501
Bizkaia	16.315	22.779	1.190	2.503	2.462	1.544
EAE	36.210	65.795	4.688	10.333	4.523	3.045

Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

Emaitza onak sektoreko bi arrantza-aldi edo kanpainetatik etorri dira, antxoaren eta hegaluzearen kanpainetatik, hain zuzen ere. 2010ean antxoaren debekua amaitu zenetik, biek gorabehera handiko faseak izan dituzte. Urte honetan, antxoa beheranzko egoera batetik goranzkora pasatu da, eta hegaluzeak ere gorakadak izan ditu, baina 2015ekoak baino txikiagoak. Hala, 2016an, harrapatutako antxoaren tonajea urte arteko %23,1 handitu da, eta horren ondorioz, balio osoa %14,9 handitu da. Hegaluzearen kasuan, berriz, lehorreratutako tonajeak nabarmen egin du gora (% 19,5); batez besteko prezioak ere gora egin du (% 10,5), eta horrek balio osoa % 32,2 igotzea eragin du.

181. taula Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016
Antxoa					
– Lehorreratzeak (Tm)	6.700	9.283	12.679	11.858	14.597
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	2,24	2,49	1,76	1,69	1,58
– Balioa (mila euro)	15.009	23.116	22.276	20.046	23.036
Hegaluzea					
– Lehorreratzeak (Tm)	6.632	3.578	2.966	5.110	6.106
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	3,49	3,50	3,38	3,42	3,78
– Balioa (mila euro)	22.206	12.521	10.033	17.471	23.093

Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

30. grafikoa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak



Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

Bizkaiari esleitutako pisaketaren %82,5 Ondarroari dagokio eta EAEko guztizkoaren %36,2a da. Aztertutako 6 espezie nagusiei dagokienez, aktiboena zen 4etan; antxoa-tonen %42,7, txitxarroaren %72,5, sardinaren %48,7 eta berdelaren %25,7ko kuota du.

Getaria da hegaluzean tonaje handienekoa (%55,1), eta Pasaia legatzaren euskal harrapaketen %61,1eko kuota du.

182. taula Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera (2016)

(Tm)

Kontzeptua	Guztira ⁽¹⁾	%	Espezie nagusiak					
			Antxoa	Hegaluzea	Txitxarroa	Legatza ⁽²⁾	Sardina	Berdela ⁽⁴⁾
- Hondarribia	7.121,94	15,7	2.513,00	1.609,06	44,35	4,69	801,29	1.493,54
- Pasaia	6.639,17	14,6	1.266,85	65,44	360,51	215,60	1.594,03	1.852,55
- Getaria	11.686,99	25,7	4.414,98	3.362,56	235,78	-	1.396,33	1.782,71
- Mutriku	38,88	0,1	-	-	0,20	1,32	-	35,11
GIPUZKOA, GUZTIRA	25.486,98	56,1	8.194,84	5.037,06	640,84	221,61	3.791,65	5.163,91
% espezieak / guztira			32,2	19,8	2,5	0,9	14,9	20,3
- Ondarroa	16.464,54	36,2	6.236,83	650,95	1.944,71	56,46	3.646,71	2.633,99
- Lekeitio	486,50	1,1	26,38	0,95	3,61	3,50	31,09	356,24
- Bermeo	2.994,99	6,6	138,80	416,74	90,24	69,29	13,91	2.093,49
- Bizkaia, gainerakoak ⁽³⁾	19,97	0,0	-	0,64	2,75	2,11	-	0,73
BIZKAIA, GUZTIRA	19.966,00	43,9	6.402,01	1.069,28	2.041,31	131,36	3.691,71	5.084,46
% espezieak / guztizkoa			32,1	5,4	10,2	0,7	18,5	25,5
EAE, guztira	45.452,98	100,0	14.596,85	6.106,34	2.682,15	352,97	7.483,35	10.248,37
% espezieak / guztizkoa			32,1	13,4	5,9	0,8	16,5	22,5

(1): Guztizko balioak garrantzi txikiagoko beste espezie batzuk jasotzen ditu.

(2): Legatzari buruzko datuek merlenka eta tarteko legatza jasotzen dituzte.

(3): Armintza, Santurtzi eta Mundaka.

(4): Berdela eta betaundia jasotzen ditu.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

Espezieka, aurten tonaje handieneko arraina antxoa bilakatu da, sardina hirugarren lekura pasatu ondoren, berdelaren atzetik. Tonajearen %32,1 antxoari dagokio, %25,5 berdelari eta %18,5 sardinari. Ondoren, hegaluzea, txitxarroa eta legatza daude, %10,2, %5,4 eta %0,7rekin, hurrenez hurren; gainerako espezieek %7,6 hartzen dute.

Pisaketaren beherakadak (-%0,93 2016an) 422,74 tona gutxiago suposatzen du 2016an, eta Hondarribian eta Bermeon, ontzi gehien dituzten portuetan, beherapen nagusiak gertatu dira (2.617,16 eta 789,82 tona gutxiago, hurrenez hurren, eta ehunekotan -%5,5 eta -%1,7). Pasaian eta Ondarroan izandako gorakadak azaltzen dira pisaketa orekatzeko, %5,1 eta %3,7ko gorakadekin; hau da, 2.301,54 eta 1.577,24 tona, hurrenez hurren.

Portuko eta espezieko urte arteko aldakuntza garrantzitsuenak, tonatan, Hondarribian sardinaren 3.303 tonako beherakada, Getariako espezie beraren 2.071 tonako beherakada edo Ondarroako 1.207 tonakoa izan dira; azken portu horretan, txitxarroaren arrantzak 982 tonako gorakada izan zuen eta antxoarenak 1.296 tonakoa. Azken espezie horretan, Pasaian 1.063 tonatan handitu dira harrapaketak, eta Getarian 661

tonatan; portu horretan, 566 tona berdel gutxiago harrapatu dira. Urte arteko gainerako aldakuntzak 500 tonatik beherakoak izan dira.

Portuen eta espezieen arabera prezioak asko aldatzen direnez, aldakuntza-panoraman diru-sarreratan desberdintasunak egotea ohikoa izaten da. Milioi bat eurotik gorako urte arteko aldakuntzei erreparaturaz gero, hegaluzearen harrapaketa izandako gorakada nabarmendu behar da (Getarian 3,5 milioi euro gehiago 2015ean baino, Hondarribian 2,2 milioi euro gehiago, Ondarroan 0,9 milioi euro gehiago, eta Bermeon, milioi bat euro gutxiago). Gorakada horiek sardinarekin lotutako diru-sarrerekin alderatuta nolabaiteko ordezkapen ekonomikoa ikus daiteke, Hondarribian -2,5 milioi eta Getarian -1,4 milioi. Pasaian, berriz, 1,3 milioi handitu da sardinetan eta 2,1 antxoatan, eta Ondarroan, 1,2 milioi handitu da azken espezie honetan.

183. taula Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera (2016)

(m euro)

Kontzeptua	Guztira ⁽¹⁾	%	Espezie nagusiak					
			Antxoa	Hegaluzea	Txitxarroa	Legatza ⁽²⁾	Sardina	Berdela ⁽⁴⁾
– Hondarribia	14.066,71	17,77	3.598,39	6.061,84	14,58	22,81	893,35	956,88
– Pasaia	13.004,12	16,42	2.428,34	269,01	464,35	809,33	1.728,78	1.655,95
– Getaria	25.235,27	31,87	7.401,43	12.935,62	92,49	-	1.233,94	1.123,68
– Mutriku	41,77	0,05	-	-	0,28	3,67	-	25,30
GIPUZKOA, GUZTIRA	52.347,87	66,12	13.428,16	19.266,48	571,71	835,80	3.856,07	3.761,80
% espezieak / guztizkoa			25,65	36,80	1,09	1,60	7,37	7,19
– Ondarroa	22.081,44	27,89	9.439,25	2.403,05	1.800,37	274,09	3.870,44	2.297,02
– Lekeitio	518,77	0,66	27,71	2,13	1,99	13,92	31,31	258,28
– Bermeo	4.128,46	5,21	141,12	1.418,57	18,79	218,23	6,16	1.533,28
– Gainerakoak ⁽³⁾	97,95	0,12	-	2,50	7,26	8,50	-	1,06
BIZKAIA, GUZTIRA	26.826,62	33,88	9.608,07	3.826,25	1.828,41	514,73	3.907,91	4.089,65
% espezieak / guztizkoa			35,82	14,26	6,82	1,92	14,57	15,24
EAE, guztira	79.174,49	100,00	23.036,24	23.092,72	2.400,12	1.350,54	7.763,98	7.851,45
% espezieak / guztizkoa			29,10	29,17	3,03	1,71	9,81	9,92

(1): Guztizko balioak garrantzi txikiagoko beste espezie batzuk jasotzen ditu.

(2): Legatzari buruzko datuek merlenka eta tarteko legatza jasotzen dituzte.

(3): Armintza, Santurtzi eta Mundaka.

(4): Berdela eta betaundia jasotzen ditu.

Oharra: Kofradietako salmentak. Urteko batez besteko espezieen prezioak desberdinak dira kofradia bakoitzean.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

2016an, Getariako portuak euskal baxurako guztizkoarekiko diru-sarreraren kuotaren %31,9 lortu du, 2015ean baino bi ehuneko gehiago; Ondarroa dago bigarren, aurreko urteko kuota berarekin (%27,9). Hondarribia, Pasaia eta Bermeo aurreko urteko antzeko ehunekotan geratu dira (%17,8, %16,4 eta %5,2), sailkapenean aldaketarik eragin gabe; gainerako portuen garrantzia askoz ere txikiagoa da.

Diru-sarreraren ehunekoei dagokienez, portu txikietako bat nabarmendu behar da, Mutrikukoa, salmentetan %88,1 gora egin duelako, Bizkaiko portu txikien %30,2a dena; Pasaian %27,2 egin zuen gora, Getarian %25,5, Gipuzkoa osoan %21,5, EAEn %16,5, Ondarroan %16,3, Hondarribian %10,5, Bizkaia osoan %7,9, eta Bermeon eta Lekeition ia %20 jaitsi da bakoitzean.

2016an, arrantza-aldietakoa izeneko arrainak, hegaluzea eta antxoa, ia-ia parean kokatu dira lehorreratutako balioaren kuotari dagokionez (%29,17 eta %29,10, hurrenez hurren), eta hori bera, beste eskala batean, berdelarekin (%9,92) eta sardinarekin (%9,81) gertatu da. Bosgarren espezie garrantzitsuena txitxarroa izan da, %3rekin soilik, eta legatzak euskal salmenten %1,7ko kuota izan zuen.

5.3 ALTURAKO ARRANTZA

Alturako sektorea, espezializatuagoa eta portu gutxi batzuetan kokatzen dena, 763 arrantzaleri eman dio lana, aurreko urtean baino 5 gutxiagori. Hiru azpisektoreetatik, atunontzi izoztaileak izan dira enplegu gehien eman dutenak (%70,2); halaber, zifra horri bakailao-ontzien enpleguarena gehitu behar zaio (kontsultatutako iturriak azken horiei buruz azken urteetan aplikatutako estatistika-sekretuagatik; 2 ontzi soilik geratu direlako eta datuen ez identifikatzearen eskakizuna behar bezala ez betetzeagatik).

Atunontzi izoztaileen azpisektoreko ontziak gehiago dira gainerako azpisektoreetakoak baino (alturako 42 ontzietatik 22 atunontzi izoztaileak dira, 18 freskoko alturakoak eta 2 bakailao-ontziak). Potentziari eta tonajeari dagokionez, proportzioa are nabarmenagoa da; pisuak %87,7 eta %86 direlarik, hurrenez hurren. Magnitude horietan, ez dira bakailao-ontzien datuak gehitu.

184. taula EAEko alturako ontzidia, 2016

Kontzeptua	Unitate kopurua	CV potentzia	EGT	Tripulatzaileru kopurua
Freskoko altura	18	9.532	3.870	227
Bakailao-ontziak	2	3.805	1.650	(*)
Atunontzi izoztaileak	22	94.723	33.754	536
Altura, guztira	42	108.060	39.274	763

(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, bi bakailao-ontzien enplegua atunontzi izoztaileen multzoan sartu da.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

Freskoko altura

2016an, altura osoko ontzi kopurua aurreko urteko bera da, eta potentzia eta tonajea ere antzekoak dira, aldagai horiek ez baitziren aldatu. Hala ere, freskoko alturak unitate bat galdu zuen, eta datuei erreparatu, badirudi atunontzi izoztaile gisa funtzionatzen hasi dela. Azpisektore hori 19 ontzitik 18ra pasatu da, eta atunontziak 21etik 22ra pasatu dira. Hain zuzen ere, freskoko sektoreko tonajeko unitate garbien eta potentziaren erorketa txikien (ehunekotan, -%4,1 eta -%3,7 izan ziren) eta izoztaileei dagozkien irabazien artean korrelazioa dago. Hala ere, freskoko alturan 6 enplegu galdu diren arren (-%2,6), atunontzi izoztaileek ez dituzte irabazi, eta horrez gain, ontzi bat gehiago izanda ere, 49 enplegu galdu dituzte. Eta, adierazi den moduan, gainera, bakailao-ontzietako enpleguak ere hor sartuta daude.

185. taula EAEko alturako freskoko ontzidiaren egitura, 2016*

	Unitate kopurua	CV potentzia	EGT	Tripulatuzaile kopurua
Freskoko altura, guztira	18	9.532	3.870	227

(*): Estatistika-sekretua babesteko, ez da datuen berri eman ez elkarteen arabera, ez modalitateen arabera.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

Bakailao-ontziak

Bakailao-ontzidia pixkanaka murrizten joan da aurreko urteetan, baina, oraingoz, Pasaian erregistratutako bi ontziek 2014 eta 2015eko antzeko adierazleak dituzte, enpleguaren kasuan izan ezik; alderdi horri dagokionez, babes estatistikoagatik aipatutako datuen transferentzia hori baldintzatuta dago.

186. taula EAEko bakailao-ontzidia, 2016*

	Unitate kopurua	CV potentzia	EGT	Tripulatuzaile kopurua
Bakailao-ontzidia, guztira	2	3.805	1.650	(*)

(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, bi bakailao-ontzien enplegua atunontzi izoztaileen multzoan sartu da.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

Atunontzi izoztaileak

Arestian aurreratutako moduan, 2016an Anabac konpainiak ale batean handitu zuen atunontzi izoztaileen ontzidia, Bermeoko portuan kokatua. Datuek, adierazitako moduan,

orain arte freskoko alturan jarduten zuen ontzi bat modalitate berri honetara pasatu dela erakusten dute. Potentzia eta tonajea, aldiz, kasik ez dira handitu (%0,5 eta %0,2).

Dena den, konpainia horretan enplegua 460tik 411ra murriztu da 2016an, %10,7ko jaitsiera nabarmena izanik, 2013an eta 2014an izandakoen antzekoa, baina larriagoa, esandako moduan, bakailao-ontzietako enpleguak ere hartan gehitu direlako.

Aldiz, Opagac konpainiak, Bilbo eta Bermeo artean banatuta 3 atunontzi izoztailerekin, ontzidiari eta adierazleei eutsi die 2016an, aurreko urtean ontzi bat eta tripulatzaileen laurdena galdu ondoren.

187. taula EAEko atunontzi izoztaileak, 2016

Elkartea Portu basea	Unitate kopurua	CV potentzia	EGT	Tripulatzaile kopurua
Anabac				
• Bermeo	19	84.367	28.831	411 ^(*)
Opagac				
• Bermeo/ Bilbo	3	10.356	4.923	75
Guztira	22	94.723	33.754	486

(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, Anabac-i lotutako atunontzien enpleguan sartu da bakailao-ontziei dagokien enplegua.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.



4. ZERBITZUAK

16

1. IKUSPEGI OROKORRA

Espainiako ekonomiak aurreko ekitaldiko aurrerapen-erritmoari eutsi dion testuinguru batean (% 3,2 bai 2015ean bai 2016an), EAEko ekonomiaren aurrerapen-erritmoa sendotu egin da, (% 3,1eraino iritsi da, eta aurreko ekitaldian, berriz, % 2,9 izan zen), eta Nafarroako ekonomiak ere aurreko ekitaldiko aurrerapen-erritmoari eutsi dio (% 2,9 2015ean eta 2016an).

Hirugarren sektoreari dagokionez, oro har, % 3,2 zabaldu da EAEn, % 3,6 Nafarroan eta % 3,4 Estatuan. Hala, kasu guztietan aurreko ekitaldian lortutako erregistroak hobetu dira (2015ean % 2,9, % 3,2 eta % 2,6, hurrenez hurren).

188. taula Zerbitzuen sektorearen bilakaera

(aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2014		2015		2016	
	Hego Euskal Herria	Espainia	Hego Euskal Herria	Espainia	Hego Euskal Herria	Espainia
Tren bidezko garraioa (salgaiak)*	0,4	--	-0,3	--	-23,7	--
Tren bidezko garraioa (bidaiariak)*	-6,1	--	-0,2	--	-0,5	--
Errepide bidezko garraioa (salgaiak)	3,7	3,0	5,8	8,2	1,5	2,8
Itsas garraioa (salgaiak)*	4,5	5,2	6,3	4,1	-3,1	0,6
Aireko garraioa (salgaiak)	12,5	6,9	9,3	4,7	11,9	11,2
Aireko garraioa (bidaiariak)	4,1	4,6	6,9	6,0	7,7	11,0

(*):EAEko datuak.

Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.

Puntu horretara iritsita, sektorearen heterogeneotasuna dela-eta, sektorearen azterketa agregatua egitea zaila dela adierazi beharra dago; hala ere, enplegua da adierazlerik egonkorrenetako bat. Alde horretatik, 2016ko ekitaldian hirugarren sektorean okupazioak EAEn % 0,8 gora egin duela nabarmendu behar da, % 2,9 Nafarroan (% 1,2 Hego Euskal Herri osoan) eta % 2,9 Estatuan.

2. HEZKUNTZA

2.1 UNIBERTSITATETIK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA

2016/2017 ikasturteko azken datuek Euskal Herrian unibertsitatetik kanpoko matrikulazioak igo egin direla adierazi dute, baina igoera hori (% 0,8) ez dela oso handia izan. Datuak zehatzago aztertuta ikus daiteke, aurreko ikasturtean gertatu bezala, Haur Hezkuntzako matrikulazioak jaitsi egin direla (% -2,2) berriro; eta gora egin dutela, berriz, Lanbide Heziketako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek (% 4,6, % 2,2, % 1,1 eta % 0,2 hurrenez hurren), nahiz eta igoera hori moteldu egin den. Nolanahi ere, 2016/2017 ikasturtean unibertsitatetik kanpo 480.859 ikasle matrikulatu dira guztira Euskal Herrian, pasa den ikasturtean baino 3.862 ikasle gehiago. Sare publikoak ikasle horien % 53,8 hartzen du.

Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzari dagokionez, 114.688 ikasle matrikulatu dira azken ikasturtean Euskal Herrian, hau da, pasa den ikasturtean baino 2.541 ikasle gutxiago. Aurreko ikasturtearekin alderatuta, ikastetxe publikoetan 1.523 ikasle gutxiago daude; eta, eremu pribatuan, aldiz, 1.018 matrikula gutxiago. Hala ere, sare bakoitzaren garrantzia apenas aldatu da: ikasleen % 55,2 sare publikora joan da, eta gainerako % 44,8a sare pribatura.

189. taula **Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza**

Eremua	2015/2016 ikasturtea			2016/2017 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	9.288	5.814	15.102	9.123	5.708	14.831
Bizkaia	22.602	23.351	45.953	22.086	22.835	44.931
Gipuzkoa	16.508	15.038	31.546	15.911	14.586	30.497
EAE	48.398	44.203	92.601	47.120	43.129	90.249
Nafarroa	16.424	8.204	24.628	16.179	8.260	24.439
Euskal Herria	64.822	52.407	117.229	63.299	51.389	114.688

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Informazioa eremu geografikoen arabera aztertuz gero, nahiz eta Haur Hezkuntzako ikasleak lurralde guztietan galdu diren, galera handiena Gipuzkoan izan dela ikus daiteke. Lurralde horretan % 3,3ko uzkurdua egon da eta antzekoa izan da bi sareetan: sare publikoan % 3,6 jaitsi da, eta, sare pribatuan, % 3. Nahiz eta probintzia horretan irakaskuntza publikoak bilakaera okerragoa izan, irakaskuntza mota horrek ikasleen

erdia baino gehiago (% 52,2) eskolatzen jarraitzen du. Bizkaian, bi sareetan gutxitu dira ikasleak (publikoan % -2,3 eta pribatuan % -2,1), eta horren ondorioz, matrikulazioek ere behera egin dute (% -2,2). Lurralde horretan, gainera, sare pribatuak garrantzi handiagoa du (% 50,8). Arabari dagokionez, aurreko ikasturteko datuekin alderatuta, ikus daiteke jaitsiera (% -1,8) bat egon dela eta matrikulazioak proportzio berean murriztu direla bi sareetan: lurralde horretan ikastetxe publikoetan (% 61,5) pribatuetan baino ikasle gehiago dagoenez, jaitsiera ere handiagoa izan da. Nafarroan, aldiz, nahiz eta ikasturtea emaitza negatiboekin amaitu (% -0,8), irakaskuntzako maila honetan gorakada bat aurkezten duen lurralde bakarra da. Hazkunde hori sare pribatuan eman da, sare horretako ikasleen matrikulazioek gorakada xume bat (% 0,7) izan dutelako; hala ere, datu hori ez da nahikoa sare publikoan izan den beherakada (% -1,5) konpentsatzeko. Sare publikoan ikasleen % 66,2 dago matrikulatuta. Beraz, 2016/2017 ikasturtean EAEn 90.249 ikasle matrikulatu dira Haur Hezkuntzan, pasa den ikasturtean baino % 2,5 baino gutxiago; eta Nafarroan, berriz, 24.439 ikasle, hau da, % 0,8 gutxiago. Sare publikoan, EAEn, ikasle guztien % 55,2 dago matrikulatuta eta Nafarroan, aldiz, % 66,2.

190. taula Euskalduntze maila. Haur Hezkuntza

Eremua	2015/2016 ikasturtea					2016/2017 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	3,2	34,6	62,2	0,0	100	3,1	33,5	63,4	0,0	100
Bizkaia	3,7	23,4	71,9	1,1	100	3,6	22,7	72,7	1,0	100
Gipuzkoa	2,2	3,6	94,2	0,0	100	2,3	3,1	94,6	0,0	100
EAE	3,1	18,5	77,9	0,5	100	3,1	17,9	78,6	0,5	100
Nafarroa*	30,9	1,9	26,5	40,7	100	30,8	1,4	27,5	40,3	100
Euskal Herria	8,9	15,0	67,1	9,0	100	9,0	14,4	67,7	9,0	100
Pribatua	7,6	28,6	53,3	10,5	100	7,9	27,9	53,7	10,6	100
Publikoa	10,0	3,9	78,3	7,8	100	9,8	3,4	79,1	7,7	100

Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera, Euskal Herri osoari dagokio.

A: Hezkuntza gaztelaniaz, euskara beste irakasgai bat gehiago dela.

B: Irakaskuntza elebiduna.

D: Hezkuntza euskaraz, gaztelania beste irakasgai bat gehiago izanik.

X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.

(): Nafarroan, euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntzari ofizialki G ereduaren esaten zaio.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua.

Euskalduntze maila aztertuta, ikus daiteke Haur Hezkuntzan D ereduaren (irakaskuntza euskaraz, gaztelania beste irakasgai bat gehiago dela) bilakaera nabarmendu dela eta aztertu diren eremu geografiko guztietan egin duela gora, gehiago edo gutxiago. Gipuzkoan, adibidez, nahiz eta D ereduak ia balio maximoa (% 94,6) izan, parte-hartzea are handiagoa izan du (azken ikasturtean baino ehuneko 0,4 puntu gehiago). Bizkaiaren kasuan, D ereduak antzeko bilakaera izan du (ehuneko 0,8 puntu gehiago) eta hizkuntza-

mapa honako hau da: D ereduak, % 72,7; B ereduak, % 22,7; eta A ereduak, % 3,6. Arabari dagokionez, berriz, A ereduak (irakaskuntza gaztelaniaz, euskara beste irakasgai bat gehiago dela) eta B ereduak (irakaskuntza elebiduna), % 3,1 eta % 33,5 hurrenez hurren, behera egin dute, eta, horren ondorioz, D ereduak egin du gora (ehuneko 1,2 puntu gehiago), ikasleen % 63,4k aukeratuz eredu hori. Nafarroako Foru Erkidegoko egoera, berriz, oso bestelakoa da, X ereduak (euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza) garrantzi gehien (% 40,3) duen ereduak da; ondoren, A eta D ereduak (% 30,8 eta % 27,5) antzeko parte-hartzea dute; eta azkenik, B ereduak oso lekukotasun urria du (ikasleen % 1,4). Hala ere, nabarmendu behar da D ereduak soilik izan duela bilakaera positiboa, puntu 1 irabazi baitu azkeneko ikasturtearekin alderatuta; gainerako ereduak parte-hartzea galdu dute. Horren ondorioz, euskalduntze-tasa EAEn % 96,5 da, eta Euskal Herrian, aldiz, % 82,1.

Lehen Hezkuntza

2016/2017 ikasturtean Lehen Hezkuntzan ikasle-kopuruak apur bat egin du gora, eta hazkunde horretan aztertu diren lau lurraldeek izan dute eragina. Lehen Hezkuntzan 170.801 matrikulazio egon dira guztira Euskal Herrian eta ikasle-zentsua % 1,1 igo da; beraz, balio absolutuetan 1.800 ikasle gehiago daude. Eremu geografikoen arabera aztertuta, Arabak du bilakaera onena (% 3), matrikulazio guztien % 11,8 izanik; ondoren, Nafarroa eta Gipuzkoa datoz % 1 inguruko bilakaerarekin, % 24,2 eta % 26ko matrikulazioak izanik. Bizkaiak, aldiz, igoera txikiagoa du (% 0,4); hala eta guztiz ere, lurralde horrek du ikasle-kopuru handiena (% 37,9).

191. taula Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza

Eremua	2015/2016 ikasturtea			2016/2017 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	11.776	7.794	19.570	12.257	7.906	20.163
Bizkaia	31.760	32.787	64.547	31.915	32.898	64.813
Gipuzkoa	22.361	21.615	43.976	22.711	21.745	44.456
EAE	65.897	62.196	128.093	66.883	62.549	129.432
Nafarroa	25.827	15.081	40.908	26.257	15.112	41.369
Euskal Herria	91.724	77.277	169.001	93.140	77.661	170.801

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua.

Zentro motaren arabera ikasleen bilakaera aztertuz, bi sareek ikasleak irabazi dituztela ikusten da; hala ere, sare publikoak aldaketa handiagoak izan ditu; izan ere, Bizkaietan izan ezik, beste lurraldeetan sare publikoak garrantzi handiagoa du. Zehatzago, informazioa lurraldeen arabera banatuta, Nafarroan 10 ikasleetatik 6 (% 63,5) sare publikoko

ikastetxetara joaten dira, eta % 36,5, aldiz, ikastetxe pribatuetara. Arabako egoera oso antzekoa da; izan ere, matrikulazioen % 60,8 ikastetxe publikoetan egiten dira, eta % 39,2, ikastetxe pribatuetan. Horrez gain, ikastetxe publikoek ikasturte honetako urte-arte aldakuntzarik onenak dituzte (% 4,1); beste adierazleek igoera xumeagoak baitituzte. Bestalde, Gipuzkoan, ehunekoak orekatu egin dira: sare publikoan % 51,1 dago eta sare pribatuan % 48,9. Bizkaian Haur Hezkuntzako jokabide-patroia errepikatzen da, hau da, irakaskuntza pribatuak publikoak baino garrantzi gehiago du (% 50,8 eta % 49,2); nahiz eta, orekatzeko joera erakutsi duen. Nolanahi ere, Euskal Herrian sare publikoak (% 54,5) pribatuak (% 45,5) baino garrantzi gehiago du Lehen Hezkuntzan; batez ere, ikasle gehiago sartu direlako sare publikora Araban eta Nafarroan.

192. taula Euskalduntze maila. Lehen Hezkuntza

(%)

Eremua	2015/2016 ikasturtea					2016/2017 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	6,7	40,4	52,9	0,0	100	5,9	39,4	54,7	0,0	100
Bizkaia	5,7	25,6	67,4	1,3	100	5,1	25,3	68,2	1,4	100
Gipuzkoa	2,6	10,7	86,8	0,0	100	2,6	9,5	87,9	0,0	100
EAE	4,8	22,7	71,8	0,7	100	4,3	22,1	72,9	0,7	100
Nafarroa	20,0	0,5	26,9	52,5	100	19,9	0,4	26,7	53,0	100
Euskal Herria	8,5	17,4	61,0	13,2	100	8,1	16,8	61,7	13,4	100
Pribatua	9,0	31,1	45,9	13,9	100	8,5	30,8	46,7	14,0	100
Publikoa	8,0	5,7	73,7	12,6	100	7,8	5,2	74,2	12,8	100

Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera, Euskal Herri osoari dagokio.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua.

Lehen Hezkuntzako hizkuntza-ereduen artean D eredia da erreferentziatzeko eredia hiru lurralde historikoetan. Datu hori nabariagoa da Gipuzkoan; izan ere, lurralde horretan, 10 ikasleetatik 9k (% 87,9) D eredian ikasten dute eta gainerako erduei (B eredia eta A eredia % 9,5 eta % 2,6 hurrenez hurren) toki gutxi uzten die. Bizkaia X eredia (% 1,4) duen EAEko lurralde bakarra da; hala ere, lurralde horretan ere D eredia (% 68,2) da nagusi; B ereduak, berriz, % 25,3 hartzen du eta A ereduak % 5,1. Arabako lurralde historikoan hizkuntza-mapa aldatu egiten da pixka bat: D eredia (% 54,7) nabarmen nagusitzen da, baina B ereduak (% 39,4) ere badu bere garrantzia; A ereduak % 5,9 eskasa du. Hala eta guztiz ere, Nafarroan X eredia da nagusi, matrikulazioen % 53 duelako; ondoren, D eta A ereduak daude, beren artean aldaketa handirik izan gabe (% 26,7 eta % 19,9 hurrenez hurren); eta azkenik, ia desagertuta B eredia dago (% 0,4). Horrela, bada, euskalduntze maila % 78,5ekoa da Euskal Herrian eta % 95ekoa EAEn.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Hurrengo irakasmila aztertuta, hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Euskal Herrian 107.962 ikasle matrikulatu dira guztira. Azken ikasturteko datuek % 2,2 igo dela matrikulazioa erakusten dute, balio absolutuetan ikasle-zentsua handitu duten 2.368 ikasle gehiago. Aldeko aldakuntza hori lortzeko, aztertutako eremu geografiko guztiek izan dute eragina; izan ere, hiru lurralde historikoek antzeko bilakaera (% 2,4) izan dute, eta Nafarroak, aldiz, bilakaera xumeagoa (% 1,7).

193. taula Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH

Eremua	2015/2016 ikasturtea			2016/2017 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	5.768	6.213	11.981	5.980	6.286	12.266
Bizkaia	17.958	22.033	39.991	18.381	22.571	40.952
Gipuzkoa	13.170	14.344	27.514	13.438	14.745	28.183
EAE	36.896	42.590	79.486	37.799	43.602	81.401
Nafarroa	15.663	10.445	26.108	15.817	10.744	26.561
Euskal Herria	52.559	53.035	105.594	53.616	54.346	107.962

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Sare motaren arabera ikasleak nola banatzen diren aztertuta, EAEn oreka dago; eta Nafarroan, aldiz, garrantzi handiagoa du sare publikoak (% 59,5). Bizkaian urtetik urterako bilakaera (% 2,4) antzekoa da: irakaskuntza pribatuan ikasleen % 55,1 dago eta publikoan, aldiz, % 44,9. Gipuzkoan, ikasleen % 52,3k sare pribatua aukeratzen du eta % 47,7k, berriz, sare publikoa; izan ere, ikastetxe publikoek pribatuek baino hazkunde txikiagoa izan dute (% 2 eta % 2,8 hurrenez hurren). Araban ikastetxe pribatuek publikoek baino ikasle gehiago dituzte (% 51,2 eta % 48,8 hurrenez hurren); hala ere, ikastetxe publikoek hazkunde handiagoa izan dute (% 3,7 eta % 1,2). Hau guztiarekin, EAeko DBHko ikasle gehienek (% 53,6) irakaskuntza pribatua aukeratzen dute eta Nafarroakoek (% 59,5), aldiz, nahiago dituzte ikastetxe publikoak ikasketak egiteko.

194. taula Euskalduntze maila. DBH


Eremua	2015/2016 ikasturtea					2016/2017 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	18,8	33,8	47,4	0,0	100	17,3	33,4	49,4	0,0	100
Bizkaia	11,1	28,3	59,4	1,2	100	10,2	27,8	60,8	1,3	100
Gipuzkoa	2,8	18,4	78,7	0,0	100	2,7	17,0	80,4	0,0	100
EAE	9,4	25,7	64,3	0,6	100	8,6	24,9	65,9	0,6	100
Nafarroa	9,3	0,1	25,1	65,5	100	9,0	0,2	25,3	65,5	100
Euskal Herria	9,4	19,4	54,6	16,7	100	8,7	18,8	55,9	16,6	100
Pribatua	11,5	33,1	39,8	15,6	100	11,0	32,4	40,9	15,7	100
Publikoa	7,2	5,5	69,5	17,7	100	6,4	5,0	71,1	17,5	100

Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera, Euskal Herri osoari dagokio.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Euskalduntze mailan sakontzen bada, maila baxuagoko irakaskuntzetan bezala, EAEn D eredu eta Nafarroan X eredu nagusi direla ikus daiteke. Hizkuntza-mapari dagokionez, Gipuzkoan D eredu (% 80,4; ehuneko 1,7 puntu gehiago) argi eta garbi nagusi da; eta Bizkaian (% 60,8; ehuneko 1,4 puntu gehiago) eta Araban (% 49,4 + 2pp) ere eredu horrek garrantzi handiena du. Era berean, B ereduak antzeko barneratze maila du bai Bizkaian bai Araban (% 27,8 eta % 33,4 hurrenez hurren); eta A ereduak, aldiz, pixkanaka garrantzia galtzen doa eta datuak oso baxuak dira (% 10,2 eta % 17,3 hurrenez hurren). EAEn, lehen adierazitako datuen arabera, ikasturte batetik bestera gero eta ikasle gehiago D eredura joaten da; izan ere, DBHko ikasleen % 65,9k eredu horretan egiten ditu ikasketak. Nafarroari dagokionez, lehen aipatu bezala, X eredu (% 65,5) nagusi da Nafarroako hizkuntza-mapan; ondoren, D, A eta B ereduak daude, % 25,3, % 9 eta % 0,2 hurrenez hurren. Hori guztia kontuan hartuta, euskalduntze-tasa EAEn % 90,7koa da eta Euskal Herrian % 74,7koa.

31. grafikoa Ikasleen matrikulazioaren bilakaera Euskal Herrian



Oharra: Ezin izan dira eduki Nafarroako 2006/2007 ikasturteko datuak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua.

Erdi-mailako irakaskuntzak

Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoak eta Goi Mailakoak.

Lanbide Heziketako ikasleen bilakaerari dagokionez eta aurreko ikasturtean izandako jokabide-patroiari jarraituz, matrikulazioek gora egin dute berriro. Euskal Herrian 48.588

ikasleko zentsua dago gutxi-gorabehera eta matrikulazioek % 4,6 egin dute gora; beraz, aurreko ikasturtean baino 2.151 ikasle gehiago daude guztira. Nabarmendu behar da Eusko Jauriaritzak aniztasun handiko programak ezarri dituela Lanbide Heziketa hobetzen jarraitzeko; horren erakusgarri da Lanbide Heziketa Duala. Heziketa horrek ikastetxe hezigarriko irakaskuntza prozesua eta enpresetako ikaskuntza eta lana uztartzen ditu. Beraz, Lanbide Heziketara atxikitutako ikasle-kopurua hazten den testuinguruan, ikasturte honetan datu hauek nabarmendu dira: Gipuzkoan % 7,6 igo dira matrikulazioak, Bizkaian % 3,7, Nafarroan % 3,6 eta Araban % 2,8.

**195. taula Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera.
Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketa**

Eremua	2015/2016 ikasturtea			2016/2017 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	4.420	2.723	7.143	4.572	2.770	7.342
Bizkaia	9.850	9.013	18.863	9.814	9.752	19.566
Gipuzkoa	7.833	4.910	12.743	8.084	5.634	13.718
EAE	22.103	16.646	38.749	22.470	18.156	40.626
Nafarroa	5.792	1.896	7.688	5.935	2.027	7.962
Euskal Herria	27.895	18.542	46.437	28.405	20.183	48.588

Iturria: Eusko Jauriaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Lanbide Heziketako ikasleen bilakaera ikastetxe motaren arabera aztertuta, ikasleen gehiengoak ikasketak sare publikoan egiten dituztela ikusten da, baina eremu pribatuan egon dela hazkunde handiena. Nafarroan eta Gipuzkoan irakaskuntza publikora joateko lehentasuna nabaritzen da batez ere, nahiz eta eremu pribatuko bilakaera hobea izan (Nafarroan, pribatuan % 6,9 eta publikoan % 2,5; eta Gipuzkoan, pribatuan % 14,7 eta publikoan % 3,2). Hala ere, ikasleen gehiengoa ikastetxe publikoetan matrikulatzen da (Nafarroan, % 74,5; Gipuzkoan, % 58,9). Bizkaian gora egin dute Lanbide Heziketako ikastetxe pribatuetan matrikulatutako ikasleek (% 8,2) eta sare publikoan, aldiz, pixka bat behera egin dute (% -0,4); horren ondorioz, bi sareak apur bat orekatu dira (sare publikoan ikasleen % 50,2 dago eta sare pribatuan % 49,8). Araban, berriz, bilakaera oso bestelakoa izan da: sare publikoak (% 3,4), pribatuak (% 1,7) baino aldaketa handiagoa izan du. Hala ere, ikastetxe publikoek garrantzi handiagoa (ikasleen % 62,3) dute. Gauzak horrela, Euskal Herrian Lanbide Heziketako ikasle gehienek ikastetxe publikoetan egiten dituzte ikasketak (publikoan % 58,5 eta pribatuan % 41,5); hala ere, azken datuek adierazten dute eremu pribatuan igoera bat egon dela.

196. taula Euskalduntze maila.
Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketa

(%)

Eremua	2015/2016 ikasturtea					2016/2017 ikasturtea				
	A	B ^(*)	D	X	Guztira	A	B ^(*)	D	X	Guztira
Araba	88,1	1,3	10,7	0,0	100	85,9	6,3	7,8	0,0	100
Bizkaia	86,1	0,6	13,3	0,0	100	81,6	6,4	12,0	0,0	100
Gipuzkoa	51,3	5,7	43,0	0,0	100	47,5	12,4	40,1	0,0	100
EAE	75,0	2,4	22,6	0,0	100	70,9	8,4	20,7	0,0	100
Nafarroa	0,0	0,0	2,7	97,3	100	0,0	0,0	3,2	96,8	100
Euskal Herria	62,6	2,0	19,3	16,1	100	59,3	7,0	17,8	15,9	100
Pribatua	74,7	3,8	11,2	10,2	100	72,4	6,7	10,8	10,0	100
Publikoa	54,5	0,8	24,7	20,0	100	49,9	7,2	22,8	20,0	100

Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera, Euskal Herri osoari dagokio.

() Batxilergoako eta Lanbide Heziketarako legez A eta D ereduak bakarrik daude, baina A ereduko talde batzuek irakasgai batzuk euskaraz ematen dituzte, eta modalitate hori, A eredu indartu gisa ezagutzen dena, B eredura hurbil daiteke.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua.

Hizkuntza-mapari dagokionez, EAEn maila baxuagoko irakaskuntzan (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan) D eredu nagusi da, aldiz, Lanbide Heziketan, ikasleek gehien aukeratzen dutena A eredu da; eta Nafarroan X ereduak du lehen postua. Zehatzago, A ereduak % 85,9ko parte-hartzea du Araban eta % 81,6koa Bizkaian; Gipuzkoan, berriz, barneratzea baxuagoa da: % 47,5ekoa; izan ere, lurralde horretan D ereduak garrantzi handia (% 40,1) du eta B ereduak, nahiz eta azken urtean igoera izan, apenas du indarrik (% 12,4). Nafarroan, ia ikasle guztiek (% 96,8) X eredu aukeratzen dute eta D ereduak (% 3,2) ia ez du indarrik, nahiz eta bilakaera positiboa izan. Beraz, EAEn euskalduntze maila % 29,1ekoa da eta Euskal Herrian % 24,9koa.

LOGSE BATXILERGOA

Batxilergoko ikasleen bilakaerari dagokionez, 2016/2017 ikasturtean Euskal Herrian aurreko ikasturteko antzeko datuak egon dira, hau da, 38.820 ikasle, % 0,2 gehiago. Hala ere, datuak zehatzago aztertuz gero, eremu geografikoen arabera bilakaera desberdina izan dela ikus daiteke. Araban eta Gipuzkoan Batxilergoko ikasleek behera egin dute (% -2,1 eta % -0,2 hurrenez hurren), Nafarroan aurreko ikasturteko datuak mantendu dira, eta Bizkaian gora egin dute matrikulazioek (% 1,2); azken datu hori nahikoa izan da Euskal Herri osoko datuek gora egiteko.

197. taula Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. LOGSE BATXILERGOA

Eremua	2015/2016 ikasturtea			2016/2017 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	2.169	2.186	4.355	2.016	2.249	4.265
Bizkaia	7.655	7.633	15.288	7.579	7.899	15.478
Gipuzkoa	5.486	5.039	10.525	5.377	5.128	10.505
EAE	15.310	14.858	30.168	14.972	15.276	30.248
Nafarroa	5.408	3.160	8.568	5.311	3.261	8.572
Euskal Herria	20.718	18.018	38.736	20.283	18.537	38.820

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua.

Zentroen titulartasuna kontuan hartuta, ikasleen banaketan oreka nagusitzen da, Nafarroan izan ezik; lurralde horretan irakaskuntza publikoak parte-hartze handiagoa du (publikoak % 62 eta pribatuak % 38). Irakasmila honetan, aurreko ikasmilan bezala, eremu pribatuak publikoak baino bilakaera positiboagoa izan du. Izan ere, aztertutako lurralde guztietan, sare publikoan ikasle-kopurua murriztu egin da, eta sare pribatuan, aldiz, igo. Arabak du bilakaera okerreina; izan ere, ikastetxe publikoetako ikasle-zentsua murriztu egin da (% -7,1) eta ikastetxe pribatuetan, aldiz, igo (% 3); horrez gain, sare pribatuak barneratze handiagoa (% 52,7) du. Gipuzkoako bilakaeraren joera oso antzekoa da: Batxilergoko ikasle gutxiago dago irakaskuntza publikoan (% -2), eta sare pribatuan, berriz, proportzio berdinetan (% 1,8) igo da; hala ere, sare publikoan ikasle gehiago (% 51,2) dago. Bizkaian eta Nafarroan izandako matrikulazio pribatuko dinamismoak (% 3koa biak), matrikula publikoetako jaitsiera orekatu du (% 1 eta % 1,8 hurrenez hurren), eta horren ondorioz, ikasturtea datu positiboekin amaitu da. Sare bakoitzak zer-nolako garrantzia duen aztertuta, Bizkaian ikasle gehienek (% 51) Batxilergoko ikasketak ikastetxe pribatuetan egiten dituztela ikus daiteke: ez da gauza bera gertatzen Nafarroan, lurralde horretan 10 ikasleetatik 6k ikastetxe publikoetan ikasten baitute.

198. taula Euskalduntze maila. LOGSE BATXILERGOA

(%)

Eremua	2015/2016 ikasturtea					2016/2017 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	48,5	0,8	50,7	0,0	100	44,3	2,1	53,7	0,0	100
Bizkaia	41,1	1,9	55,6	1,4	100	39,1	3,5	56,1	1,3	100
Gipuzkoa	22,0	4,1	73,9	0,0	100	20,7	4,9	74,5	0,0	100
EAE	35,5	2,5	61,3	0,7	100	33,4	3,8	62,1	0,7	100
Nafarroa	4,7	0,0	24,3	71,0	100	3,8	0,0	24,5	71,7	100
Euskal Herria	28,7	2,0	53,1	16,2	100	26,9	2,9	53,8	16,3	100
Pribatua	39,4	3,6	40,6	16,4	100	38,0	5,1	40,4	16,5	100
Publikoa	19,4	0,6	64,0	16,1	100	16,7	1,0	66,1	16,2	100

Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera, Euskal Herri osoari dagokio.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Batxilergoko euskalduntze mailari dagokionez, aurreko ikasturtearekin alderatuta aldaketa gutxi daude: EAEn, D eredu da nagusi eta Nafarroan X eredu. Gipuzkoan daude D eredu matrikulatutako ikasle gehien (% 74,5); eta Bizkaiak (% 56,1) eta Arabak (% 53,7) antzeko garrantzia dute eredu horretan. Hala ere, azken bi lurralde horiek barneratze esanguratsua dute A eredu (% 39,1 eta % 44,3 hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, EAEn Batxilergoko ikasle gehienek (% 62,1) D eredu egiten dituzte ikasketak eta heren batek (% 33,4), A eredu; beraz, euskalduntze maila % 65,9koa da. Nafarroari dagokionez, ikasleen % 71,7k X eredu aukeratzen du eta % 24,5ak, aldiz, D eredu. Hori guztia kontuan hartuta, euskalduntze-tasa % 56,8koa da Euskal Herrian.

2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

2016/2017 ikasturteko azken datuen arabera, Euskal Herriko unibertsitate-ikasleen zentsuak behera egin du berriz ere; kasu honetan % 1,9koa izan da jaitsiera eta azken ikasturtean baino 1.237 ikasle gutxiago zenbatu dira. Beraz, guztira 62.286 ikasle joan dira Euskal Herriko bost unibertsitateetara. Hauek dira unibertsitateak: Euskal Herriko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (publikoak), eta Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea (pribatuak). Oro har, ikasle-kopuruak gora egin du, baina Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) behera egin dute matrikulazioek (% -6,1) eta unibertsitate horrek indar handia duenez (ikasleen % 57,3), bilakaera negatiboa izan da ikasturte amaieran. Ondorioz, 2016/2017 ikasturtean unibertsitate hauetan ikasle-kopurua igo egin da: Mondragon Unibertsitatean (% 9,4), Deustuko Unibertsitatean (% 8), Nafarroako Unibertsitatean (% 11) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan (% 1,1).

199. taula Ikasle eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko Unibertsitateetan

Unibertsitateak eta lurraldeak	Ikasleak		Irakasleak	
	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea(*)	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea(*)
Euskal Herriko Unibertsitatea	37.999	35.680	5.611	5.667
Araba	7.096	6.759	983	996
Bizkaia	21.245	20.096	3.230	3.285
Gipuzkoa	9.658	8.825	1.398	1.386
Nafarroako Unibertsitatea	7.776	7.861	787	778
Nafarroa	6.736	6.890	687	683
Gipuzkoa	1.040	971	100	95
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	6.834	6.910	863	885
Nafarroa	6.834	6.910	863	885
Deustuko Unibertsitatea	7.317	7.899	1.688	1.714
Bizkaia	5.803	6.220	1.561	1.577
Gipuzkoa	1.514	1.679	127	137
Mondragon Unibertsitatea	3.597	3.936	334	396
Gipuzkoa	3.597	3.936	334	396
Guztira	63.637	62.286	9.283	9.440
Araba	7.096	6.759	983	996
Bizkaia	27.048	26.316	4.791	4.862
Gipuzkoa	15.809	15.411	1.959	2.014
EAE	49.953	48.486	7.733	7.872
Nafarroa	13.570	13.800	1.550	1.568

(*):Behin-behineko datuak.

Iturria: EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta irakaskuntzaren estatistika.

Irakasleei dagokienez, 2016/2017 ikasturtean goranzko bilakaera egon da aurreko ikasturteko datuekin alderatuta. Guztira 9.440 irakasle daude bost unibertsitateetan, aurreko ikasturtean baino 157 irakasle gehiago. Igoera horretan bost euskal unibertsitateetatik lauk lagundu dute; izan ere, Nafarroako Unibertsitateak 9 irakasle gutxiago izan ditu. Euskal Herriko gainerako unibertsitateek irakasle-kopurua handitu dute: Mondragon Unibertsitateak 62 irakasle gehiago, EHUK 56, Deustuko Unibertsitateak 26 eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak 22.

Jarraian Euskal Herriko unibertsitate-ikasleen bilakaeraren daturik esanguratsuenak adieraziko dira, unibertsitate bakoitzaren datuak banaka aztertuta.

200. taula Ikasleen banaketa UPV/EHU⁽¹⁾

Lurralde historikoa	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea ⁽²⁾	%	Δ% aurreko urtea
Araba	7.096	6.759	100,0	-4,7
Farmazia F.	1.402	1.362	20,2	-2,9
Filologia, Geografia eta Historia F.	2.219	2.051	30,3	-7,6
Irakasleen UE	988	1.029	15,2	4,1
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	925	815	12,1	-11,9
Gizarte Laneko UE	545	550	8,1	0,9
Enpresa Zientzien UE	502	466	6,9	-7,2
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F.	515	486	7,2	-5,6
Bizkaia	21.245	20.096	100,0	-5,4
Zientziak eta Teknologia F.	2.576	2.514	12,5	-2,4
Arte Ederren F.	1.287	1.223	6,1	-5,0
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	2.694	2.559	12,7	-5,0
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	2.450	2.407	12,0	-1,8
Medikuntza eta Odontologia F.	2.393	2.308	11,5	-3,6
Industria Ingeniaritza eta Telekomun. GET	2.289	1.880	9,4	-17,9
Enpresa Ikasketen UE	1.136	1.001	5,0	-11,9
Erizaintzako UE	696	686	3,4	-1,4
Irakasleen UE	1.933	1.955	9,7	1,1
Lan Harremanen E.	557	549	2,7	-1,4
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	1.813	1.756	8,7	-3,1
Meatzte Ingeniaritza Teknikoko UE	582	494	2,5	-15,1
Nautikako GET	233	207	1,0	-11,2
Zuzenbide Fakultatea Bizkaiko atala	606	557	2,8	-8,1
Gipuzkoa	9.658	8.825	100,0	-8,6
Zientzia Kimikoen F.	346	353	4,0	2,0
Zuzenbide F.	922	892	10,1	-3,3
Informatika F.	534	522	5,9	-2,2
Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako F.	950	945	10,7	-0,5
Psikologia F.	1.102	1.075	12,2	-2,5
Arkitekturako GET	1.192	714	8,1	-40,1
Enpresa Ikasketen UE	1.219	1.102	12,5	-9,6
Irakasleen UE	1.067	1.097	12,4	2,8
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoaren UE	330	297	3,4	-10,0
Donostiako U. Politeknikoa	1.461	1.331	15,1	-8,9
Erizaintzako UE	535	497	5,6	-7,1
Guztira	37.999	35.680	100,0	-6,1

(1): Ez dira kontuan hartzen UPV/EHUri eta campus birtualari atxikitako zentroak.

(2): Behin-behineko datuak.

Iturria: UPV/EHU.

Lehenik eta behin, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) aztertuz, ikasle gehienek (% 57,3) unibertsitate hori aukeratzen dute eta ikasturte honetan 35.680 ikasle matrikulatu dira, pasa den ikasturtean baino 2.319 ikasle gutxiago, hau da, % 6,1eko murrizketa egon da. Matrikulazioak EHuko hiru campusetan jaitsi dira: Bizkaiko campusak, 20.096 matrikulazio eta ordezkari handiena (% 56,3) duenak, % 5,4ko jaitsierra izan du (1.149 ikasle gutxiago); Gipuzkoako campusak, 8.825 unibertsitate-ikasle dituenak, % 8,6ko murrizketa izan du (833 ikasle gutxiago); eta Arabako campusak, 6.759

ikasle dituenak, % 4,7ko jaitsiera izan du (337 ikasle gutxiago) aurreko ikasturtea kontuan hartuz.

EHUk argitaratutako datuak zehatzago aztertuta, Bizkaiko campuseko (EHUko erreferentziatzko unibertsitatea) ia fakultate guztiek ikasle gutxiago izan dituzte, batek izan ezik: Irakasleen UEk, % 1,1eko igoera izan duelarik. Ondorengo ikasketa hauek izan dituzte bilakaera txarrenak: Industria Ingeniaritzako eta Telekomunikazioetako GET (% -17,9), Meatze Ingeniaritza Teknikoko UE (% -15,1), Enpresa Ikasketen UE (% -11,9) eta Nautikako GET (% -11,2). Era berean, % 12 inguruko pisua izan duten fakultate hauen beherakadak nabarmentzen dira: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (% -5), Zientziak eta Teknologia Fakultatea (% -2,4), Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (% -1,8) eta Medikuntza eta Odontologia Fakultatea (% -3,6).

Gipuzkoako campusak Bizkaikoaren joera bera jarraitu du eta matrikulatutako ikasle-kopuruak nabarmen behera egin du. Garrantzi erlatibo handienaz (% 15,1): Unibertsitate Politeknikoak % 8,9ko jaitsiera izan du; eta Enpresa Ikasketen UEk eta Psikologiako Fakultateak % 12 inguruko parte-hartzearekin jaitsiera nabarmena izan dute (% -9,6 eta % -2,5 hurrenez hurren). Era berean, Arkitekturako GETan (% -40,1) eta Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoaren UEn (% -10) izandako ikasle-kopuruaren jaitsierak nabarmendu behar dira. Beste fakultate batzuetako igoerak, hala nola Irakasleen UEn (% 2,8) eta Zientzia Kimikoen Fakultatean (% 2), ez dira nahikoak izan datu orokorrak positiboak bihurtzeko.

Azkenik, Arabako campusean ere jaitsi egin da ikasle-kopurua; nahiz eta, Irakasleen UEn, ikasle gehien dituen campuseko hirugarren fakultatean, gora egin duen ikasle-kopuruak (% 4,1) eta Gizarte Laneko UEk, bestalde, aurreko ikasturteko datuak mantendu dituen (% 0,9). Kontrako aldean, indar gehien duten eta behera egin duten bi fakultate daude: Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea (ikasleen % 30,3; % -7,6) eta Farmazia Fakultatea (% 20,2; % -2,9). Horrez gainera, kontuan hartu behar dira Industria Ingeniaritza Teknikoko UEn (% -11,9) eta Enpresa Zientzien UEn (% -7,2) izandako uzkurdurak.

201. taula Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean

Lurralde historikoa	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea ⁽¹⁾	%	Δ% aurreko urtea
Nafarroa	6.736	6.890	100,0	2,3
Zuzenbidea	468	511	7,4	9,2
Medikuntza	1.271	1.249	18,1	-1,7
Filosofia eta Letrak	341	342	5,0	0,3
Informazio Zientziak	723	712	10,3	-1,5
Hezkuntza eta Psikologia ⁽²⁾	472	521	7,6	10,4
Zientziak	576	606	8,8	5,2
Farmazia	659	673	9,8	2,1
Arkitektura	487	450	6,5	-7,6
Teologia	147	144	2,1	-2,0
Ekonomia eta Enpresa Zientziak	982	1.024	14,9	4,3
Idazkaritza eta Administrazioa	123	157	2,3	27,6
Erizaintza	487	501	7,3	2,9
Gipuzkoa	1.040	971	100,0	-6,6
Industria Ingeniaritza	1.001	965	99,4	-3,6
Idazkaritza eta Administrazioa	39	6	0,6	-84,6
Guztira	7.776	7.861	100,0	1,1

(1): Behin-behineko datuak.

(2): 14/15 ikasturtetik eskaintzen da titulazio hori.

(3): Gainera, doktoregoko 876 ikasle eta masterreko 640 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.

Nafarroako Unibertsitateko ikasleei dagokienez, 2016/2017 ikasturtean 85 matrikulazio gehiago egon dira. Guztira, 7.861 ikasle daude unibertsitate horretan: 6.890 ikasle Nafarroako campusean eta 971 ikasle Gipuzkoako campusean.

Matrikulazioetako datuak zehatzago aztertuta, Nafarroako Unibertsitateko bi campusek ez dutela bilakaera bera izan ikus daiteke. Alde batetik, Nafarroako campuseko matrikulazioek % 2,3 egin dute gora (aurreko ikasturtean baino 154 ikasle gehiago); Gipuzkoako campusean, aldiz, % 6,6ko jaitsiera izan dute (aurreko ikasturtean baino 69 ikasle gutxiago). Era berean, campus bakoitzaren garrantzia nabarmendu behar da, izan ere, 10 ikasletik 9k Nafarroako campusean ikasten dute.

Nafarroako campusa aztertuta eta fakultatetako informazioa graduen arabera ikertuta, azken ikasturte honetan zenbait fakultatetan ikasle-kopurua murriztu egin dela ikus daiteke. Garrantziaren arabera honela ordenatzen dira: Arkitektura Fakultatea (% -7,6), Teologia (% -2), Medikuntza (% -1,7), eta Informazio Zientzia (% -1,5). Fakultate horietan campuseko ikasleen % 37,1ak ikasten du; horietatik Medikuntza Fakultateak ditu ikasle gehien (% 18,1) eta Arkitektura Fakultateak gutxien (% 6,5); gainera, azken fakultate honek du bilakaera txarrena. Igoerak, oro har, urriak diren arren, Idazkaritza eta

Administraritzako Graduak gorakada handia (% 27,6) izan du, batez ere Gipuzkoako campuseko ikasleak Iruñera pasa direlako. Gainerako bilakaera positiboak hauek izan dira: Hezkuntza eta Psikologian (% 10,4), Zuzenbidean (% 9,2), Zientzian (% 5,2), Ekonomia eta Enpresa Zientzian (% 4,3), Erizaintzan (% 2,9) eta Farmazian (% 2,1). Bestalde, Filosofia eta Letretako matrikulazioak (% 0,3) mantendu egin dira.

Gipuzkoako campusean –Idazkaritza eta Administraritzako Graduan gertatutakoa alde batera utzita, hau da, ikasleak Nafarroako campusera pasa direla –, Industria Ingeniaritzako Fakultatean beherakada handia izan dute matrikulazioek eta guztira 1.000 ikasle baino gutxiago daude.

202. taula Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP)

Fakultateak eta unibertsitate-eskolak	15/16 ikasturte a	16/17 ikasturte a ⁽¹⁾	%	Δ% aurreko urtea
Nekazaritza Ingeniaritzen GET	459	501	7,3	9,2
Industria Ingeniaritza eta Telekom. GET	1.974	1.945	28,1	-1,5
Osasun Ikasketen UE	633	644	9,3	1,7
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	1.245	1.213	17,6	-2,6
Giza eta Gizarte Zientzien F.	1.732	1.767	25,6	2,0
Zientzia Juridikoen F.	583	624	9,0	7,0
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. / Zientzia Juridikoak ⁽²⁾	208	216	3,1	3,8
Guztira⁽³⁾	6.834	6.910	100,0	1,1

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.

(3): Gainera, doktoregoko 397 ikasle eta masterreko 720 ikasle eta ziklotako 16 ikasle daude.

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Nafarroako Unibertsitate Publikoari dagokionez, azken ikasturtean ikasle-kopurua pixka bat igo da, guztira 6.910 ikasle matrikulatu dira, pasa den ikasturtean baino 76 ikasle gehiago. Nafarroako Unibertsitate Publikoko zazpi fakultatetatik bitan ikasle-bolumena murriztu da. Horietako lehenak, Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioko GET, ikasle gehien dituen fakultatea (% 28,1eko garrantzia), pixka bat jaitsi (% -1,5) da eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak (ikasleen % 17,6) joera bera aurkeztu du eta % 2,6ko beherakada izan du. Bestalde, matrikulazioek gora egin dute Nekazaritza Ingeniaritzen GETean taldearen jokaera hoberena (% 9,2) duelarik, nahiz eta ordezkari txikia (% 7,3) izan. Ondoren, Zientzia Juridikoak daude (% 7ko hazkuntza eta % 9ko ordezkari), bai eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza (% 3,8ko hazkuntza eta % 3,1eko barneratzea). Azkenik, % 2ko igoerarekin Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea (% 25,6ko kuotarekin) eta Osasun Ikasketen UE (% 9ko parte-hartzearekin) daude. Hala eta guztiz ere,

hazkunderak jaitsierak orekatzen dituzte eta ikasturte honetan aurrekoan baino 76 ikasle gehiago egon dira.

203. taula Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean

Lurralde historikoa	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea ⁽¹⁾	%	Δ% aurreko urtea
Bizkaia	5.803	6.220	100,0	7,2
Zuzenbide Fakultatea	842	862	13,9	2,4
Teologia Fakultatea	97	134	2,2	38,1
Ingeniaritza Fakultatea	577	597	9,6	3,5
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	1.166	1.361	21,9	16,7
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	1.426	1.534	24,7	7,6
Erljio Zientzien Goi Institutua	0	0	0,0	0,0
EUMBAM (DUri atxikitako zentroa)	721	742	11,9	2,9
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	974	990	15,9	1,6
Gipuzkoa	1.514	1.679	100,0	10,9
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	562	582	34,7	3,6
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	704	782	46,6	11,1
Zuzenbide Fakultatea ⁽²⁾	45	58	3,5	28,9
Ingeniaritza Fakultatea	1	1	0,1	0,0
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	202	256	15,2	26,7
Guztira⁽³⁾	7.317	7.899	100,0	8,0

(1): Behin-behineko datuak.

(2) 14/15 ikasturtean sartu da Zuzenbide Fakultatea Gipuzkoako campusean.

(3): Gainera, doktoregoko 351 ikasle eta masterreko 1.471 ikasle daude.

Iturria: Deustuko Unibertsitatea.

Deustuko Unibertsitateari dagokionez, 2016/2017 ikasturtea oso positiboa izan da; izan ere, fakultate guztiek izan dute hazkundera aurreko ikasturtearekin alderatuta. Hala ere, denek ez dute dinamismo bera izan. Deustuko Unibertsitatean 7.899 ikasle matrikulatu dira guztira, aurreko ikasturtean baino % 8 gehiago, hau da, 582 ikasle gehiago.

Bizkaiko campusean 6.220 ikasle matrikulatu dira eta 2015/2016 ikasturteko datuak % 7,2 igo dira. Datu horiek hobetzeko fakultate guztiek lagundu dute; bilakaera onena Teologiako Fakultateak izan du (% 38,1) eta ikasle-zentsua gehien hazi duena Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea izan da (% 16,7ko hazkundera, 195 ikasle gehiago). Fakultate hori da Psikologiako eta Hezkuntzako Fakultatearekin batera ordezkapen handiena dutenak dira (% 21,9 eta % 24,7 hurrenez hurren).

Gipuzkoako campusean, bilakaera onena Zuzenbideko Fakultateak (% 28,9) eta Psikologia eta Hezkuntza Fakultateak (% 26,7) izan dute, hala ere, oro har, ikasle gehien dituzten fakultateek izan dute dinamismo txikiagoa: Ekonomia eta Enpresa Zientzien

Fakultateak (ikasleen % 46,6 du eta % 11,1eko igoera izan du) eta Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateak (ikasleen % 34,7 du eta % 3,6 igo da).

204. taula Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean

Fakultateak eta unibertsitate-eskolak	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea (1)	%	Δ% aurreko urtea
Goi Eskola Politeknikoa	1.239	1.363	100,0	10,0
Industria Antolaketako Ing. Gradua	135	131	9,6	-3,0
Industria Elektronikako Ing. Gradua	124	149	10,9	20,2
Informatikako Ing. Gradua	83	106	7,8	27,7
Telekomunikazio Sistemen Ing. Gradua	45	50	3,7	11,1
Ing. Mekanikoko Gradua	330	371	27,2	12,4
Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Gradua	239	227	16,7	-5,0
Energiaren Ing. (2)	123	136	10,0	10,6
Prozesu Industrialetako Ekoteknologiaren Ing. (2)	45	52	3,8	15,6
Ing. Biomedikoa (2)	115	141	10,3	22,6
Giza eta Hezkuntza Zientzietako F.	1.048	1.097	100,0	4,7
Haur Hezkuntzako Gradua	326	340	31,0	4,3
Lehen Hezkuntzako Gradua	539	559	51,0	3,7
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua	183	198	18,0	8,2
Enpresa Zientzien F.	913	1.062	100,0	16,3
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua	415	433	40,8	4,3
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua	498	629	59,2	26,3
Gastronomia Zientzien F.	397	414	100,0	4,3
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak	397	414	100,0	4,3
Guztira	3.597	3.936	100,0	9,4

(1): Behin-behineko datuak.

(2): 13/14 ikasturtetik aurrera eskainitako titulazioak.

Iturria: Mondragon Unibertsitatea.

Azkenik, Mondragon Unibertsitatean 3.936 ikasle matrikulatu dira 2016/2017 ikasturtean: % 9,4 hazi da, hau da, 339 ikasle gehiago ditu aurreko ikasturtearekin alderatuta.

Goi Eskola Politeknikoan soilik egon dira bi jaitsiera; hala ere, ikasturtea emaitza positiboetan amaitu da (% 10). Beraz, jaitsiera horiek Industria Antolaketako Ingeniaritzan eta Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzan gertatu dira, % 3 eta % 5 hurrenez hurren. Bestalde, gainerako ikasketetako matrikulazioetan gorakada handiak egon dira, batez ere, Informatikako Ingeniaritza Graduan (% 27,7), Ingeniaritza Biomedikoan (% 22,6) eta Industria Elektronikako Ingeniaritza Graduan (% 20,2).

Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean ere gora egin dute matrikulazioek, baina Goi Eskola Politeknikoan baino gutxiago. Guztira 1.097 ikaslek ikasi dute, hau da, % 4,7ko

hazkundera izan du. Lehen Hezkuntzako Gradua ikasleen erdiak ikasten du eta % 3,7 igo da; Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduak du bilakaera onena (% 8,2); eta Haur Hezkuntzako Gradua % 4,3 hazi da.

Enpresa Zientzien Fakultatean 1.062 ikasle daude guztira eta lau fakultatetako igoera handiena (% 16,3) izan du; batez ere, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduan (guztizkoaren % 59,2) igoera nabarmena (% 26,3) egon delako. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduak, aldiz, bilakaera txikiagoa (% 4,3) du.

Azkenik, Gastronomia Zientzien Fakultateak Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak izeneko Gradua du eta 414 ikasle ditu guztira, aurreko ikasturtean baino %4,3 gehiago. Gainera, Mondragon Unibertsitateko ikasleen % 10,5a erakusten du gradu honek.

3. GARRAIOA

3.1 TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA

Garraioei buruzko kapitulua aztertzen hasteko, trenbide bidezko garraioari helduko zaio. Euskal Herrian, ekitaldi honetako bidaiarien kopurua aurreko ekitaldikoaren ia berdina izan da. Zehazki, oso beherakada txikia izan da bidaiari-kopuruan (-% 0,5), eta 2015ean (-% 0,2) hasitako beherakada txikien joera dago oraindik. Beraz, Euskal Herrian jarduten duten bi konpainien (Renfe eta EuskoTren) bidaiari-kopuruak batuz gero, aurten, 31.959 mila bidaiarik erabili dute trenbidea.

205. taula Bidaiarien mugimendua*

Urtea	Bidaiariak (m)	%Δ
2012	36.433	19,2
2013	34.273	-5,9
2014	32.186	-6,1
2015	32.118	-0,2
2016	31.959	-0,5

(*): RENFEren datuak Bilboko eta Donostiako aldiriko trenetako bidaiariei dagozkie. Iturria: RENFE eta EuskoTren.

Bidaiarien mugimenduei buruzko datuak arreta handiagoz aztertuz gero, eta Renferen informazioa kontuan hartuta, Bilbo inguruko aldiriko trenen bidaiarien kopuruak aurreko ekitaldiko kopuruaren antzekoak direla (-% 0,4), baina Donostia ingurukoek, berriz, zertxobait gora egin dutela (% 2,7) ikusten da. EuskoTrenen bidaiariei dagokienez, hiru garraio-sistemetatik (Bilbo inguruko aldirikoak, Donostia inguruko aldirikoak eta EuskoTren) bilakaera txarrena izan dute, bidaiarien kopuruak % 1,8 egin baitu behera. Dena dela, konpainia bakoitzaren kuota antzekoa da; hain zuzen ere, Renfek 16.458 mila bidaiari izan ditu (guztizko bidaiarien % 51,5) eta EuskoTrenek, berriz, 15.500 mila (% 48,5).

206. taula Bidaiarien mugimendua, konpainien arabera

Kontzeptua	2014	2015	2016	%Δ 16/15
Renfe - Bilboko nukleoa	10.127	10.183	10.138	-0,4
Renfe - Donostiako nukleoa	6.283	6.152	6.320	2,7
EuskoTren	15.776	15.783	15.500	-1,8
Guztira	32.186	32.118	31.959	-0,5

Iturria: EuskoTren eta Renfe.

Diru-bilketari dagokionez, bi konpainiek dinamika desberdina dute. Renfen, % 2,7ko gorakada izan da aurreko ekitaldiko balioen aldean, eta EuskoTrenen, berriz, beherakada

txikia (% 0,3). Renfek, hain zuzen, 17.253,7 mila euro bildu ditu 2016an, eta EuskoTrenek, berriz, 25.861 mila euro (azken urteetan izandako joera jarraitu da EuskoTrenen; hau da, beherakada txikia).

207. taula Bidaiarien garraioaren ondoriozko diru-bilketa

<i>(m euro)</i>				
Kontzeptua	2014	2015	2016	%Δ 16/15
Renfe*	17.036,1	16.797,8	17.253,7	2,7
EuskoTren**	25.958,3	25.943,1	25.861,0	-0,3
Guztira	42.994,4	42.740,9	43.114,7	0,9

(*): RENFEren datuek aldiriko trenetako bidaiarien zifra soilik adierazten dute.

(**): Trenaren, tranbien eta autobusen diru-bilketa bane hartzen du.

Iturria: EuskoTren eta Renfe.

Euskal Herria jatorritzat eta/edo helmugatzat duten salgaien bolumenta aztertuko da jarraian, eta alderdi horretan ere, konpainiek portaera desberdina dute. Renfek garraiatutako salgaien bolumenak % 2,4ko uzkurdua izan du. EuskoTrenek garraiatutakoak, berriz, izugarri gora egin du 2016an (% 516,4). Salgaien trafikoak izandako gorakada Eusko Jaurlaritzaren *Basque Country Logistics* estrategiaren barruan kokatu behar dela aipatu behar da. Estrategia horren helburua EuskoTrenek, epe laburrean, bere trenbide-lizentzia izateaz gain, segurtasun-ziurtagiria izatea da, ADIFen Interes Orokorreko Trenbide Sarean (RFI) jardun ahal izateko eta Estatuko eta Europako edozein saretan salgaiak garraiatu ahal izateko. Gaur egun, EuskoTrenek, Bilbo-Hendaia linearen bidez, paper-fabriketarako zura garraiatzen du, bai eta totxoak, alanbre-burdina eta aluminiozko *slaba* ere.

208. taula Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten merkantzien bolumenta*

<i>(m Tm)</i>				
Kontzeptua	2014	2015	2016	%Δ 16/15
Renfe	2.528,4	2.459,9	2.399,7	-2,4
Renfe, trenbide metrikoa (Feve)	695,9	745,4	e.d.	--
EuskoTren	0,3	8,3	51,4	516,4
Guztira	3.224,6	3.213,6	--	--

(1) Edukiontzia ez dira sartzen.

(2): Ez dago daturik.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Trenbide bidezko garraioak sortutako enpleguari dagokionez, ekitaldian % 2,4ko gorakada izan da, EuskoTreneko plantilla handitzearen ondorioz. Renfek, berriz, plantilla murriztu du (16 langile gutxiago). Euskal enpresak 974 langile ditu guztira, 2015ean baino 54 gehiago. Hori dela eta, trenbide bidezko garraioaren arloko 10 lanpostutatik 6 dagozkio konpainia horri.

209. taula Trenbide bidezko garraioaren sektoreko langileak

Kontzeptua	2014	2015	2016	%Δ 16/15
Renfe (*)	676	666	650	-2,4
EuskoTren	921	920	974	5,9
Guztira	1.597	1.586	1.624	2,4

(*): 2013tik, Renferen eta FEVEren enpleguak elkarrekin zenbatzen dira.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Trenbide bidezko garraioari buruzko atala amaitzeko, euskal Y-ari buruzko zenbait albiste aipatuko dira. 2016ko abenduaren amaieran, 180 graduko norabide-aldaketa izan zen obren etorkizunerako, Sustapen Ministerioak Bergarako lotunea desblokeatu baitzuen (eremu horretako obrek urtebetetik gora zeramaten geldituta). Beraz, Sustapen Ministerioak baimena eman zuen bost tarteetatik lau birdefinitu eta gero lizitatu ahal izateko. Halaber, Sustapen Ministerioak onartu egin zuen AHTa Bilbon eta Gasteizen lurperatzea. Eusko Jaurlaritzak denbora asko zeraman obra horiek egiteko eskatzen, baina gobernu zentralak ez zien onarpenik ematen. Dena dela, eta Euskal Y-a lehenbailehen errealitate bihurtzeko ahaleginak asko areagotuta ere, oso konplikatuak izango da aurreikuspenetako epeak betetzea (abiadura handiko trena 2019an inauguratzea, alegia).

Bilboko Metroa

Bi ekitalditan egonkortasuna izan ondoren, 2016an beherakada izan da Bilboko Metroko erabiltzaileen kopuruan (-% 0,5). 2016an, 87.105 mila bidaiari izan dira, 431 mila bidaiari galdu direla, eta ekitaldirik txarrena izan da 2009tik. Bilboko Metroak, 22 urteko ibilbidean, goranzko joera izan duela aipatu behar da, eta 2012., 2013. eta, orain, 2016. urteetan soilik izan direla saldo negatiboak urteko balantzean.

210. taula Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan

Urtea	Bidaiariak (m)	%Δ
2007	85.864	7,6
2008	86.333	0,6
2009	87.043	0,8
2010	88.556	1,7
2011	89.616	1,2
2012	87.615	-2,2
2013	87.133	-0,6
2014	87.397	0,3
2015	87.536	0,2
2016	87.105	-0,5

Iturria: Bilboko Metroa

Bilboko Metroko sarea osatzen duten 41 geltokietan izandako bidaiarien hileko mugimendua aztertuz gero, 2016ko azaroan bidaiari-trafikorik handiena izan zela ikusten da; hau da, 7.823.941 txartel pasa dira makinatik, aurreko biurtekoko balioetatik behera, hala ere (7.910.584 eta 7.931.163 bidaiari, hurrenez hurren). Bidaiari gehien izandako egunari dagokionez, Santo Tomas eguna izan da berriz ere: 360.577 bidaia erregistratu dira; hala ere, aurreko urteko kopurua baino txikiagoa izan da (380.463 bidaia).

Bilboko Metroko bidaiarien banaketa geltokien arabera aztertuz gero, 2016an bidaiari-fluxurik handiena Abandoko geltokiak izan duela ikusten da; hain zuzen, Bilboko Metroko bidaiarien % 7,3 hartu ditu (6.336.453 bidaiari). Haren atzetik, Moyuako geltokia dago (6.287.927 bidaia, guztizko trafikoaren % 7,2), azken ekitaldi honetan Abandok gainditu duena. Trafiko handieneko hurrengo geltokiak Indautxu, San Mames eta Zazpikaleak/Casco Viejo izan dira (% 7, % 6,9 eta % 6,1, hurrenez hurren; 5 milioi bidaiaritik 6 milioi bidaiarira arteko bitartean). Bidaiari-trafiko handiena duten bost geltokiek Bilboko Metroaren guztizko trafikoaren % 34,4 hartzen dutela nabarmendu behar da. Aldiz, urtean bidaiari gutxien izan dituzten geltokiak Urbinagakoa, Plentziakoa eta Urdulizkoa izan dira, non parte-hartzeak oso txikiak izan diren (% 0,1, % 0,001 eta % 0,0002, hurrenez hurren).

211. taula Bilboko Metroko bidaiarien banaketa, geltokien arabera (2016)

Geltokia	%	Geltokia	%
Abando	7,3	Etxebarri	1,6
Moyua	7,2	Bidezabal	1,5
Indautxu	7,0	Peñota	1,5
San Mames	6,9	Basauri	1,5
Zazpikaleak / Casco Viejo	6,1	Ansio	1,4
Santutxu	5,3	Astrabudua	1,4
Deusto	4,7	Leioa	1,2
Barakaldo	4,1	Sopela	1,2
Gurutzeta/Cruces	4,0	Kabiezes	1,1
Areeta	3,8	Gobela	0,9
Santurtzi	2,9	Abatxolo	0,9
Sarriko	2,8	Neguri	0,8
San Inazio	2,7	Lutxana	0,6
Algorta	2,7	Larrabasterra	0,5
Sestao	2,6	Aiboa	0,5
Basarrate	2,5	Berango	0,4
Portugalete	2,4	Lamiako	0,3
Ariz	2,2	Urbinaga	0,1
Bagatza	2,2	Plentzia	0,0
Erandio	1,9	Urduliz	0,0
Bolueta	1,7		

Iturria: Bilboko Metroa

Urtetik urterako aldakuntzei dagokienez, Urdulizko eta Plentziako geltokietako erabiltzaile-kopuruaren beherakada kontuan hartzekoa da (-% 99,8 eta -% 99,1, hurrenez hurren; obrak egiten ari dira geltoki horietan), bai eta Zazpikaleak/Casco Viejo geltokikoa (-% 6,3) eta Etxebarrikoa (-% 5) ere. Aldiz, bidaiari-kopuruaren gorakada handia izan da Lutxanako (% 42,2), Boluetako (% 13,7), Sopelako (% 7,5) eta Santurtziko (% 6,3) geltokietan. Gainerako geltokietan, aldakuntzak, positiboak edo negatiboak, txikiak izan dira, % 5etik beherakoak. Balio absolututan, honako hauek nabarmentzen dira: batetik, Abandoko geltokia, 194.566 bidaiari gehiago izan baititu aurreko ekitaldiaren aldean (% 3,2ko gorakada), eta bestetik, Zazpikaleak/Casco Viejo geltokia, 356.914 bidaiari galdu baititu aurreko ekitaldiko erregistroaren aldean. Aldakuntza horietako batzuk metroan 2016an egin diren obren ondorioz izan direla aipatu behar da. Lehenbiziko obra Urdulizen trenbidea lurperatzeko eta trenbide-pasagunea kentzeko lanak izan dira; horren ondorioz, Sopelaren eta Urdulizen arteko zerbitzua autobusez egin behar izan da. Bigarren obraren ondorioz, Zazpikaleak/Casco Viejo geltokiko San Nikolaseko sarbidea itxi behar izan dute, eta, beraz, Lutxanan egin behar izan da Txorierritik etortzen diren EuskoTreneko bezeroen garraio-aldaketa.

Analisian sakonduta, metroaren erabiltzaile-kopuruaren bilakaera lineaka aztertuz gero, 2. linean egin direla bidaien % 38,5 (33.509.508 bidaiari) ikusten da, eta % 6,7ko beherakada izan duela 2015eko balioen aldean. Ibilbide-tarte komuna da (28.385.632 bidaia, guztizkoaren % 32,6) 2016an bidaiari-kopuruan gorakada izan duen tarte bakarra (% 8,2). Azkenik, 1. lineak 21.811.984 bidaiari izan ditu (guztizko trafikoaren % 25), eta ekitaldi honetan % 0,1eko beherakada txikia izan du. Trafiko handieneko ibilbideak Abando-Santutxu (744.339 bidaia), Moyua-Santutxu (585.904 bidaiari) eta Zazpikaleak/Casco Viejo-Santutxu (578.744 bidaiari) izan dira.

Bilboko Metroan gehien erabilitako txartel-motei dagokienez, *Creditrans barik* da aukera erabiliena, Bilboko Metroko erabiltzaileen erdiak baino gehiagok erabiltzen baitute (% 52). Haren atzetik, hileko txartela eta *Gizatrans barik* daude, antzeko ehunekoak dituztenak (% 13,8 eta % 13,2, hurrenez hurren), eta gero, *Super 50* (% 7,7) eta *Urtekoa26* (% 5,4) daude, eta azkenik, ehuneko txikiagoa izanik, *Joanaldikoa* txartela (% 2,7), beste txartel-mota batzuk (% 2,2), *Hileko Gazte Txartela* (% 1,9), *EuskoTrenekin Baterakoa* (% 0,8) eta *Mallona* (% 0,3).

2017an, Bilboko Metroko bidaiari-kopuruan hazkundea izango dela espero da, neurri batean San Nikolaseko sarbidea (Zazpikaleak/Casco Viejo) berriz irekiko delako, EuskoTrenek operatzen duen 3. linearen inaugurazioa dela eta. Zalantzarik gabe, 3. linea irekitzean, sarea hobetuko eta hedatuko da, eskualde gehiagok izango dute Bilbo hurbilago, eta bidaiari-fluxu handiagoa sortuko da. Bestalde, Urdulizko geltoki lurperatua

inauguratzea aurreikusita dago, eta Sopelaren eta Plentziaren arteko trenbide-zerbitzua berrezartzea, eta horrela, autobus bidezko garraio-aldaketak amaituko dira.

3.2 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Errepide bidezko garraioaren adierazle nagusien analisia egingo da jarraian. Lehenik eta behin, ibilgailu-parkeari dagokionez, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) datuen arabera, ibilgailu-parkea 32.107.077 ibilgailuk osatzen dute Espainiako. % 2,3ko gorakada da hori 2015eko datuen aldean; hau da, 717.394 ibilgailu gehiago daude. Euskal Herrian, ibilgailu-parkean, urtetik urterako aldakuntza % 1,6koa izan da; hau da, 27.313 ibilgailu gehiago daude aurreko ekitaldian baino, eta parkea 1.772.856 ibilgailuk osatzen dute. Analisia euskal probintzien arabera eginez gero, adierazle horrek probintzia guztietan gorakada duela ikusten da; hori bai, gorakada txikia. Hau da, % 1,9koa Nafarroan, % 1,6koa Gipuzkoan eta Araban, eta, azkenik, % 1,3koa Bizkaian.

212. taula Ibilgailuen parkea

(unitateak)

Eremua	Kamioiak		Autobusak		Autoak		Motozikletak		Industria-traktoreak		Beste batzuk		Guztira	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Araba	29.867	29.726	503	519	150.062	152.850	14.702	15.171	1.156	1.196	7.591	7.669	203.881	207.131
Bizkaia	87.049	86.484	1.764	1.859	497.528	504.278	49.957	51.952	3.475	3.483	18.508	18.671	658.281	666.727
Gipuzkoa	63.966	63.101	895	907	308.580	314.015	54.669	56.921	3.127	3.150	15.951	16.295	447.188	454.389
EAE	180.882	179.311	3.162	3.285	956.170	971.143	119.328	124.044	7.758	7.829	42.050	42.635	1.309.350	1.328.247
Nafarroa	77.178	76.886	812	825	303.975	310.846	32.166	33.299	4.267	4.389	17.795	18.364	436.193	444.609
Hego Euskal Herria	258.060	256.197	3.974	4.110	1.260.145	1.281.989	151.494	157.343	12.025	12.218	59.845	60.999	1.745.543	1.772.856
Espainia	4.851.518	4.880.697	60.252	61.841	22.355.549	22.876.247	3.079.463	3.211.397	195.657	207.911	847.244	868.984	31.389.683	32.107.077
EH/Espainia %	5,3	5,2	6,6	6,6	5,6	5,6	4,9	4,9	6,1	5,9	7,1	7,0	5,6	5,5

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Informazioa lurraldeka xehatuz eta analisia Euskal Herriko eremurako eginez gero, Bizkaiak ibilgailu-proporziorik handiena du (parkearen % 37,6), eta haren atzetik daude Gipuzkoa (% 25,6), Nafarroa (% 25,1) eta Araba (% 11,7). Termino erlatibotan, aztertutako lau lurraldeak Estatu osoaren multzoak baino dinamismo txikiagoa izan dutela kontuan hartuta, Euskal Herriaren ehunekoa txikiagoa da Estatu osoaren multzoaren barruan, eta Euskal Herriko parkea guztizko horren % 5,5 da; hau da, aurreko ekitaldian baino 0,1 puntu portzentual gutxiago.

Ibilgailu-motari dagokionez, jakina, autoen ehunekoa handiagoa da besteena baino. Hain zuzen ere, Espainian, parkeko 10 ibilgailutatik 7 autoak dira (% 71,2), aurreko urtean baino zertxobait gehiago (% 2,3). Autoen atzetik, kamioiak daude (% 15,2) eta gorakada

ia hutsala izan dute (% 0,6). Motozikletek (ibilgailuen % 10), berriz, gorakada handiagoa izan dute (% 4,3). Ibilgailu-parkea industria-traktoreek eta autobusek osatzen dute. Parkearen % 1etik beherako proportzioa dagokie biei, nahiz eta gorakadak izan dituzten aurreko ekitaldien balioen aldean (% 6,3koa industria-traktoreek, eta % 2,6koa autobusek).

Analisi hori bera lurraldeka eginez gero, Euskal Herriko parkeari dagokionez, Bizkaian auto (% 39,3), kamioi (% 33,8) eta, batik bat, autobus (% 45,2) gehien daudela ikusten da. Gipuzkoan daude motozikleta gehien (% 36,2), eta Nafarroa, berriz, industria-traktoreen arloan nabarmentzen da (% 35,9). Halaber, termino konparatibotan, parkeko adierazle guztiek Espainian gorakada izan dutela aipatzea garrantzitsua da. Euskal Herrian, berriz, denek izan dute goranzko bilakaera, kamioiek izan ezik, 2015eko balioak baino txikiagoak izan baitituzte aztertutako lau lurraldeetan.

213. taula Kamioien, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazio garbia*

(unitateak)

Eremua	Kamioiak eta industria-traktoreak		Autobusak		Guztira	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Araba	-358	-101	-20	16	-378	-85
Bizkaia	-352	-557	13	95	-339	-462
Gipuzkoa	-1.242	-842	-9	12	-1.251	-830
EAE	-1.952	-1.500	-16	123	-1.968	-1.377
Nafarroa	-497	-170	-5	13	-502	-157
Hego Euskal Herria	-2.449	-1.670	-21	136	-2.470	-1.534
Espainia	21.631	41.433	453	1.589	22.084	43.022

(*): Parkearen urtetik urterako aldakuntza.

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Kamioien, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazio garbiei dagokienez, ekitaldiko saldoa, oro har, negatiboa da, baina nolabaiteko hobekuntza izan da aurreko ekitaldiaren aldean. Lehenik eta behin, autobusek ez dituzte jada 2015ean izandako balio negatiboak izan, eta gorakadak izan dira matrikulazio garbian. Bigarrenik, kamioien eta industria-traktoreen segmentuko beherakada geldotu egin da. Zehazki, Euskal Herrian, ibilgailu-mota horien matrikulazio garbiak 1.534 unitateko beherakada izan du. Ez ordea Espainian, matrikulazio garbiak 43.022 unitateko gorakada izan baitu (aurreko urteko balioak -2.470 eta 22.084 ibilgailu izan ziren). Euskal lurraldeei dagokienez, Gipuzkoan izan da beherakada handiena kamioien, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazio garbian (-830), eta atzetik egon dira Bizkaia (-462), Nafarroa (-157) eta, azkenik, Araba (-85).

214. taula Motorizazio-indizeak

Eremua	Ibilgailu/1.000 biztanle		Biztanle/auto	
	2015	2016	2015	2016
Araba	636	642	2,1	2,1
Bizkaia	579	588	2,3	2,2
Gipuzkoa	632	642	2,3	2,3
EAE	605	613	2,3	2,2
Nafarroa	685	697	2,1	2,1
Hego Euskal Herria	623	632	2,2	2,2
Espania	676	691	2,1	2,0

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta geuk egina.

Motorizazio-indizeari dagokionez, aztertutako lehenbiziko adierazleak mila biztanleko zenbat ibilgailu dauden neurtzen du, eta 2016an, balioen gorakada orokorra izan da. Euskal Herrian, oro har, 632 ibilgailu daude mila biztanleko, eta ratio horrek gora egin badu ere (2015ean, 623 zeuden), Estatukoa baino txikiagoa da, 2016an 691 ibilgailu baitzeuden mila biztanleko (2015ean, 676). Datuak lurraldeka aztertuta, Nafarroak du portaerarik onena arlo horretan, Estatuko tasa ere gainditzen baitu: 2016an 697 ibilgailu zeuden mila biztanleko (2015ean, berriz, 685). Nafarroaren atzetik, Araba eta Gipuzkoa daude, tasa berdina izanik, 642 ibilgailu mila biztanleko (aurreko ekitaldian, 636 eta 632, hurrenez hurren), eta azkenik, Bizkaia dago (588 ibilgailu mila biztanleko; 2015ean, 579).

Aldiz, bigarren adierazleari dagokionez (auto bakoitzeko biztanle-kopurua), aldakuntza minimoak izan dira aurreko ekitaldiko datuen aldean. Hain zuzen ere, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan adierazle hori ez da aldatu (auto bakoitzeko 2,3 biztanle Gipuzkoan, eta 2,1 Araban eta Nafarroan). Bizkaian, berriz, zertxobait jaitsi da (2,3tik 2,2ra). Gauzak horrela, Euskal Herrian, aurreko ekitaldiko tasa berdina izan da (2,2 biztanle auto bakoitzeko), eta Estatuan, berriz, beherakada txikia izan du tasak, 2,1etik (2015) 2,0ra (2016).

215. taula Garraiatutako salgaiak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barneko eta eskualde arteko garraioa jatorrizko eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera

(mila Tm)

Eremua	EAE		Nafarroa		Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Eskualde barruko garraioa	32.581	35.235	12.423	14.739	45.004	49.974	676.312	693.352
Eskualde arteko garraioa	44.396	42.751	25.882	24.299	70.278	67.050	295.305	305.537
Guztira	76.977	77.985	38.305	39.037	115.282	117.023	971.617	998.888

Iturria: Sustapen Ministerioaren Estatistika Aldizkaria.

Errepideko Salgaien Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorraren¹ datuen arabera, 2016ko ekitaldiak saldo positiboa izan du jarduera osoaren multzoari dagokionez, eta garraiatutako salgaien guztizkoak gorakadak izan ditu aztertutako lurralde guztietan. Beraz, EAEn, 77.985 mila tona salgai garraiatu dira errepide bidez (Euskal Herriko guztizkoaren bi heren), eta jarduerak % 1,3ko gorakada izan du. Nafarroan, berriz, 39.037 mila tona salgai garraiatu dira, eta gorakada % 1,9koa izan da. Guztira, Euskal Herrian, 117.023 mila tona salgai garraiatu dira, eta gorakada % 1,5ekoa izan da. Estatu osoan, 2016ko ekitaldian, urtetik urterako aldakuntza positiboa izan da (% 2,8), Euskal Herrikoa baino handiagoa, eta ia mila milioi tona salgai garraiatu dira (998.888 mila tona, hain zuzen ere).

Hala ere, datuak zehatzago aztertuz gero, garraio-motaren arabera bilakaera desberdinak daudela ikusten da: Euskal Herrian, eskualde barruko garraioaren dinamismoak eskualde artekoak izandako uzkurdua konpentsatu du. Zehazki, salgaien eskualde arteko garraioaren jarduerak behera egin du EAEn, Nafarroan eta, beraz, Euskal Herrian (-% 3,7, -% 6,1 eta -% 4,6, hurrenez hurren). Garraio-mota hori guztizko trafikoaren % 54,8 da EAEn, % 62,2 Nafarroan, eta % 57,3 Euskal Herriko trafiko osoan. Aldiz, EAEn eta Nafarroan eskualde barruko garraioan izandako gorakadei esker (% 8,1 eta % 18,6, hurrenez hurren), balantzearen saldoa positiboa izan da. Espainian, berriz, salgaien eskualde barruko garraioaren jardueraren gorakadaz gain (% 2,5; salgaien garraioaren % 69,4 da garraio-mota hori), gorakada eskualde arteko garraioan ere izan da (% 3,5), eta bien artean, Estatuan garraiatutako salgaien guztizko trafikoak % 2,8ko gorakada izatea lortu dute.

Errepide bidezko garraioari buruzko datuen azterketa sakontzeko, azken atal honetan hiri-garraioari buruzko datu garrantzitsuenak azalduko dira. EAeko hiru hiriburuetan jarduten duten enpresetatik lortu dira datu horiek: Bilbobus (Bilbo), Dbus (Donostia) eta TUVISA (Gasteiz). Analisia hasi baino lehen, TUVISARI buruzko azken aldiko informaziorik ez daukagula aipatu behar dugu; beraz, hemen azalduko da 2015eko ekitaldikoa da.

¹ Ikuspuntu metodologikotik, inkesta Trenbide eta Errepide bidezko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak errepideko garraiorako baimendutako ibilgailu astunen kolektiboari zuzenduta dago; ibilgailu horien karga erabilgarriko edukierak 3,5 Tm-tik gorakoa izan behar du eta gehieneko pisu baimenduak 6 Tm-tik gorakoa.

216. taula Hiri-garraioa. Sektoreko oinarrizko datuak

Kontzeptua	Bilbo		Donostia		Gasteiz	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Sareko lineak (*)	42	43	38	39	15	--
Luzera (km)	567,4	596,6	260,3	--	203,5	--
Autobus-parkea	147	149	127	130	81	--
Langileak	572	576	456	474	310	--

(*): Eguneko eta gaueko lineak barne.

Iturria: Transportes Colectivos SA; Cía. del Tranvía de San Sebastián SA; Transportes Urbanos de Vitoria SA.

Bilbori dagokionez, Bilbobus garraio-konpainian, aztertutako adierazle guztiek goranzko joera izan dute. Zehatzago, 2016an, konpainiak beste linea bat gehitu du zerbitzura (42tik 43ra), eta sarearen luzera 29,2 kilometro handitu da (596,6 kilometro guztira). Ibilgailu-parkea ere indartu da, beste 2 autobus gehitu baitira (149 guztira), eta plantilla ere handitu da (4 langile gehiago; 576 daude guztira).

Dbus konpainiari dagokionez, sarearen luzerari buruzko informazioa ezin izan da lortu, baina bilakaera positiboa hautematen da enpresaren magnitude nagusietan. Izan ere, Dbus konpainiak, Bilbobusek bezala, beste linea bat gehitu du bere sarera (39 linea guztira, 2016ko ekitaldiaren amaieran). Autobus-flota ere handitu da, beste 3 unitate gehitu baitira, eta 130 ibilgailu ditu guztira. Plantillak ere joera hori izan du, eta 18 langile gehiago daude, 2016. urtearen amaieran 474 langile egonik.

Gasteizko Hiri Garraioen (TUVISA) konpainiari dagokionez, 2015eko datuek 2014tik aldaketa gutxi egon direla agerian uzten dute. Alabaina, langileen kopuruari dagokion aldakuntza izan da nabarmenena. Zehatzago esanda, autobus-parkeak eta sareko lineak ez dira aldatu (81 eta 15, hurrenez hurren), eta sarearen luzerak murrizketa txiki bat izan du (209,2 km-tik 203,5 km-ra). Langileen kopuruak, berriz, gora egin du (12 pertsona gehiago), eta 310 langilera iritsi da azken urtean.

217. taula Hiriko garraioaren bilakaera

Kontzeptua	Bilbo		Donostia		Gasteiz	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Egindako km erabilgarriak (m)	6.419	6.440	6.280	6.775	4.436	--
Garraiatutako bidaiariak (m)	26.121	25.928	28.243	28.500	13.766	--
Bildutako dirua (m euro)	11.848	11.844	18.743	19.186	6.350	--
Ustiapeneko emaitza (m euro)	-27.068	--	-11.459	-14.425	-13.243	--
Tarifak (euro)	1,25/0,64	1,25/0,64	1,65/0,91	--	1,15/0,56	--

(--): Txosten hau egiterakoan ez zegoen daturik.

Iturria: Transportes Colectivos SA; Cía. del Tranvía de San Sebastián SA; Transportes Urbanos de Vitoria SA.

Analisia jarraituz, Bilbobuserako eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta, 2016an, egindako kilometro erabilgarrien kopuruak gora egin du, 6.440 mila kilometrora arte (hau da, 2015ean baino 21 mila kilometro gehiago). Hala ere, ez da gorakadarik egon garraiatutako bidaiarien kopuruan (25.928 mila pertsona guztira, aurreko ekitaldian baino % 0,7 gutxiago). Testuinguru horretan, bildutako diruari dagokionez, aldaketa gutxi dago aurreko ekitaldiaren aldean: 11.844 mila euro bildu dira eta tarifak ez dira aldatu.

Azterketa hori Donostiako hiri-garraioan aplikatuz gero, beheranzkoak baino goranzko mugimendu gehiago daudela ikusten da. Donostiako autobusek egindako kilometro erabilgarrien kopurua 6.775 mila kilometrokoa izan da (495 mila kilometro gehiago). Bidaiari-kopuruak ere apur bat gora egin du (% 0,9), eta 28.500 mila pertsona garraiatu dira guztira Gipuzkoako hiriburuan. Bildutako diruak % 2,4 egin du gora eta 19.186 mila eurokoa izan da, baina ustiapeneko emaitza negatiboa da oraindik ere, eta gainera, 2015ekoa baino okerragoa (-14.425 mila euro 2016an, eta -11.459 mila euro 2015ean).

Azkenik, TUVISAr dagokionez, 2015eko datuek konpainiaren bilakaeran hobekuntza erakusten dute. Zehatzago, 2015ean egindako kilometro erabilgarriek % 2,3 egin dute gora eta TUVISAREN erabiltzaileek, berriz, % 5,2. Bildutako diruak ere gainditu egin ditu 2014ko datuak (% 14,8 gehiago), eta tarifak aurreko urtetik ez dira aldatu. Azkenik, ustiapeneko emaitza negatiboa bada ere (-13.243 mila euro), 2014koa baino hobea da.

3.3 ITSAS GARRAIOA

Itsas garraioari dagokionez, ANAVEk (Espainiako Ontzi Jabeen Elkartea) argitaratutako informazioaren arabera, itsaso bidezko munduko garraioko jarduerak gorakada izan du berriz ere. 2016an, 11.091 milioi tona garraiatu dira guztira, aurreko ekitaldian baino 296 milioi tona gehiago, eta gorakada aurreko ekitaldikoa baino handiagoa izan da (% 2,7 eta % 2, hurrenez hurren).

218. taula Itsaso bidezko munduko merkataritza

	<i>(M Tm)</i>			
Merkantziak	2014	2015	2016^(*)	% Δ 16/15
Solteko solido nagusiak	2.984	2.957	3.023	2,2
Petrolio eta petrolio-produktuak	2.770	2.887	3.016	4,5
Beste solteko solido batzuk	1.836	1.857	1.851	-0,3
Edukiontzietako kargak	1.621	1.661	1.721	3,6
Karga konbentzional orokorra	808	829	844	1,8
Gas likidotuak	583	606	636	5,0
Guztira	10.601	10.795	11.091	2,7

()*: Behin-behineko datuak
Iturria: Anave, Clarkson.

Datuen lehen azterketa eginez gero, 2016. urtea, oro har, salgai-mota guztietan ona izan dela ikusten da, beste solteko solido batzuen atalean izan ezik, salgai-mota horretako jarduerak zertxobait behera egin baitu (-% 0,3). Pisu handieneko salgaiak aztertuko dira lehenbizi (hau da, solteko solido nagusiak, hala nola burdin mea, ikatzak eta aleak). 3.023 milioi tona garraiatu dira (guztizko salgaien garraioaren % 27,3 dagokie) eta % 2,2ko gorakada izan dute, Txinako inportazioen gorakadari esker, neurri batean. Petrolio gordina eta petrolio-produktuak izan dira bigarren, antzeko pisu espezifikoa izanik (% 27,2). 3.016 milioi tonako trafikoa izan dute eta % 4,5eko gorakada izan da jarduera horretan. Edukiontzietako kargek % 15,5eko kuota izan dute, eta haien trafikoak % 3,6ko gorakada izan duenez, beste solteko solido batzuen kuotara (% 16,7) hurbildu dira. Karga konbentzional orokorrak % 7,6ko kuota eta % 1,8ko gorakada izan du. Gas likidotuek, berriz, kuotarik txikiena izan arren (% 5,7), urtetik urterako aldakuntzarik onena izan dute (% 5).

219. taula **Espainiako itsas merkataritza**

Kontzeptua	<i>(m Tm)</i>		
	2015	2016	% Δ 16/15
Esportazioak	95.621	98.401	2,9
Inportazioak	199.060	195.319	-1,9
Kabotajea	43.592	46.418	6,5
Guztira	338.274	340.139	0,6

Iturria: Anave, Estatuko Portuak.

Espainiako itsas merkataritza aztertuz gero, 2016an guztizko trafikoak % 0,6ko gorakada txikia izan duela ikusten da (340.139 mila tona garraiatu dira). 2016an, aurreko urtean ez bezala (esportazioek behera egin zuten, eta inportazioek, berriz, gora), itsas esportazioek % 2,9 egin dute gora, eta 98,4 milioi tonako trafikoa izan da (inoizko handiena). Inportazioek, berriz, % 1,9ko beherakada izan dute, 195,3 milioi tonara arte, solteko solidoen beherakada handiaren ondorioz (-% 9,4). Testuinguru horretan, kabotajeko trafikoak goranzko joera izaten jarraitzen du; ekitaldi honetan % 6,5eko gorakada izan du, eta 46,4 milioi tonako trafikoa.

Azterketa sakontzeko, Euskal Herriko itsas merkataritzaren bilakaerari dagokionez, Bilboko eta Pasaiaiko portuei buruzko informazio garrantzitsuena azalduko da jarraian. Aurreko hirurtekoan jarduera hedatu ondoren, 2016ko ekitaldian, itsas trafikoak behera egin du bi portuetan. Beherakada hori askoz nabarmenagoa da Pasaiaiko portuan.

220. taula Euskal portu nagusietako trafikoa

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2014	2015	2016	2014	2015	2016
Deskargak	19.421,2	20.464,3	19.766,1	1.990,3	2.316,1	1.947,6
Kargak	11.399,2	11.935,6	12.182,6	1.461,9	1.422,4	1.446,2
Tokiko trafikoa	60,6	359,0	9,1	--	--	--
Hornidura	126,4	115,9	109,4	28,3	31,6	33,3
Arrantza	0	0	0	22,7	23,2	27,6
Guztira	31.007,4	32.874,8	32.067,3	3.503,2	3.793,3	3.454,7

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Lehenik eta behin, erreferentziazko portuari helduko zaio, Bilbokoari. Han itsas merkataritzaren bolumena 32,1 milioi tonakoa izan da, aurreko urtean baino % 2,5 gutxiago, oso urruti 2015ean izandako % 6ko gorakadatik. Beherakada hori honako atal hauetan izandako beherakadek eragin dute: deskargak (-% 3,4), hornidura (-% 5,6) eta tokiko trafikoa beherakada izugarria (-% 97,5). Kargak soilik izan dute goranzko joera (% 2,1), baina ez da nahikoa izan beherakada horiek konpentsatzeko. Hala eta guztiz ere, bilakaeran joera heterogeneoak izan diren arren, Bilboko trafikoa banaketan ez dago apenas alderik aurreko ekitaldiaren aldean: kargetan eta deskargetan kontzentratzen da ia jardura osoa (% 61,6 eta % 38, hurrenez hurren), eta horniduraren eta tokiko trafikoa kuotak oso txikiak dira (% 0,3 eta % 0,03).

Pasaiaiko portuko trafikoa dagokionez, 2016ko ekitaldian, jarduerak beherakada nabarmena izan du (-% 8,9), eta 3,5 milioi tonara jaitsi da (2015ean, 3,8 milioi tonakoa izan zen). Deskargak izandako bilakaera negatiboa (-% 15,9; atalik garrantzitsuena da, jardueraren % 56,4 baita) erabakigarria izan da duela urte batzuetako joera positiboa aldatzeko. Kargak bilakaera ona izan dute (% 1,7; jardueraren % 41,9), eta hornidurak hazkundea izan du (% 5,5; jardueraren % 1 da), bai eta arrantzak ere (% 18,8; 27,5 milioi kilo sartu dira, eta 84 milioi eurotik gorako balioa izan dute lonjan), baina horiek guztiak ez dira nahikoak izan deskargen portaera negatiboa konpentsatzeko.

221. taula Salgaien guztizko trafikoaren osaera

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2014	2015	2016	2014	2015	2016
Petrolio-produktuak	14.026,6	15.319,1	15.614,7	--	0,08	--
Beste solteko likido batzuk*	2.318,3	2.880,7	2.472,5	--	--	--
Solteko solidoak	4.594,0	4.528,2	4.362,1	1.509,0	1.694,3	1.099,2
Salgai orokorrak	9.881,5	9.671,8	9.499,5	1.943,2	2.044,2	2.294,7
Gainerakoak	187,0	474,9	118,5	51,0	54,8	60,9
Guztira	31.007,4	32.874,8	32.067,3	3.503,2	3.793,3	3.454,7

(*): Datua gas naturalaren eta beste solteko likido batzuen baturari dagokio.

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaia Portu Agintaritza.

Informazioa salgai-motaren arabera xehatuz gero, Bilboko portutik hasita, batzuen eta besteen trafikoaren portaerak desberdinak izan dira 2016an. Petrolio-produktuen trafikoak zertxobait gora egin du (% 1,9; proportzio handiena dute jardueran, % 48,7, hain zuzen). Gainerako magnitudeetan, berriz, zenbat eta handiagoa izan salgai-motaren proportzioa jardueran, orduan eta handiagoa izan da trafiko-beherakada. Hain zuzen ere, salgai orokorren trafikoak (jardueraren % 29,6, bigarren kuota handiena) % 1,8ko beherakada izan du; solteko solidoen trafikoa (jardueraren % 13,6) % 3,7 jaitsi da; solteko beste likido batzuenak (trafikoaren % 7,7) beherakada nabarmena izan du (-% 14,2); eta, azkenik, gainerako salgaien trafikoak (jardueraren % 0,4) izan du multzoko portaerarik txarrena (-% 75).

Pasaia portuko salgaien trafikoari dagokionez, hango jarduera hiru salgai-motak osatzen dute, ez baitira petrolio-produktuak eta solteko beste likido batzuk erabiltzen. 2016an, proportzio handieneko bi salgai-mota horiek dinamika desberdina izan dute; hau da, salgai orokorren trafikoa (jardueraren % 66,4) argi eta garbi berraktibatu da (% 12,3); solteko solidoen trafikoak (jardueraren % 31,8), ordea, beherakada handia izan du (-% 35,1). Gainerako salgaiek portu horretako trafikoa osatzen dute, non proportzio txikia duten jardueran (% 1,8) eta haien trafikoak % 11,1eko gorakada izan duen. Hori horrela izanda, ekitaldiko balioak 2015eko balioen azpitik daude.

222. taula Kanpoko trafikoa eta kabotajea

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2014	2015	2016	2014	2015	2016
Inportazioa	19.038,4	19.916,7	19.234,1	1.928,4	2.268,6	1.912,2
Esportazioa	10.478,1	10.872,2	11.027,1	1.461,9	1.419,4	1.446,2
Kabotajea	1.303,8	1.611,0	1.687,5	61,9	50,5	35,4
Guztira	30.820,3	32.399,9	31.948,7	3.452,2	3.738,5	3.393,8

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaia Portu Agintaritza.

Kanpo-trafikoari eta kabotajeari dagokienez, bi portuen jarduera kontuan hartuta, 2016an 35,3 milioi tona garraiatu dira, horietatik, 31,9 milioi tona Bilboko portuari dagozkiorik. 2016an, jarduerak % 2,2ko beherakada izan du, inportazioarekin lotutako galeren ondorioz; hain zuzen ere, jardueraren proportziorik handiena dagokie (% 59,8) eta % 4,7ko beherakada izan dute. Beherakada horretan Bilboko zein Pasaiako portuek zerikusia izan dute, bietan jaitsi baita atal hori (-% 3,4 eta -% 15,7, hurrenez hurren). Aldiz, esportazioei dagokienez, bi portuek izan dute emaitza positiboa, baina oso txikia (% 1,5eko gorakada), eta ez da nahikoa izan inportazioen beherakada konpentsatzeko. Kabotajeari dagokionez, proportzio txikiagoa dagokio jardueran (% 4,9), eta alderantzizko portaera izan du portu batean eta bestean, Bizkaikoan gora egin baitu (% 4,7), eta Gipuzkoakoan, berriz, behera (-% 29,9).

223. taula Bilboko Portuko kanpoko trafikoaren osaera 2016

(m Tm)

Esportazioak		Inportazioak	
Gasolina	1.338,6	Petrolio gordina	9.995,1
Produktu kimikoak	975,4	Siderurgia-produktuak	2.030,8
Gasolioa	899,8	Gas naturala	1.178,2
Beste petrolio-produktu batzuk	868,8	Soja-babak	949,2
Siderurgia-produktuak	868,3	Gasolioa	758,9
Zementua eta klinkerra	828,6	Produktu kimikoak	618,1
Beste batzuk	5.247,6	Beste batzuk	3.703,8
Guztira	11.027,1	Guztira	19.234,1

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Geuk egina.

Bilboko portuaren analisia jarraituz, 2016an EA Eren antzeko joera izan dela ikusten da; izan ere, inportazioek (proportzio handiena dagokie; 19,2 milioi tona garraiatu dira) % 3,4ko beherakada izan dute, eta esportazioek (11 milioi tona) eta kabotajeak (1,7 milioi tona) gorakada izan dute (% 1,4 eta % 4,7, hurrenez hurren).

Bilboko portuari buruzko informazioa sakonago aztertuz gero, esportazioen atalean salgaiak jardueran antzeko proportzioa dutela ikusten da (% 7,5etik % 8,8ra), gasolina izan ezik, proportzio handiagoa baitu (% 12,1). Hori esanda, jardueraren proportzio handiena duen salgaiak (gasolina) eta siderurgia-produktuek eta beste produktu batzuek neurri desberdineko beherakadak izan dituzte (-% 10,8, -% 17,7 eta -% 8,8, hurrenez hurren). Beste muturrean, esportatutako salgai nagusien rankingean sartu dira gasolioa, beste petrolio-produktu batzuk, eta zementua eta klinkerra. Horrez gain, produktu kimikoen esportazioek gorakada izan dute. Hori guztia dela eta, esportazioen multzo osoak gorakada txikia izan du (% 1,4; 2015ean, % 3,8koa izan zen).

Inportazioei dagokienez, lehen aipatu denez, ez diote aurreko urtean izandako joera positiboari (% 4,6ko gorakada) eutsi, eta % 3,4ko beherakada izan dute. Inportazioen ataleko salgai nagusiak (hau da, petrolio gordina; jardueraren % 52) goranzko joera izan arren, gorakada oso txikia izan da (% 0,4) eta ez da nahikoa izan siderurgia-produktuek (-% 1,7; jardueraren % 10,6) eta gas naturalak (-% 21,6; jardueraren % 6,1) izandako beherakadak konpentsatzeko. Halaber, jarduerara salgai berriak gehitu direla aipatu behar da, hala nola soja-babak, gasolioa eta produktu kimikoak, eta gero eta presentzia handiagoa dutela.

224. taula Pasaiaiko portuko kanpoko trafikoaren osaera. 2016

(m Tm)

Esportazioak		Inportazioak	
Siderurgia-produktuak	824,2	Siderurgia-produktuak	764,6
Autoak eta autoen piezak	371,2	Burdinazko txatarrak	238,3
Eraikuntza-materialak	85,8	Zerealak eta zerealen irinak	171,2
Beste mineral ez-metaliko batzuk	48,5	Papera eta orea	146,7
Erauzitako beste mineral batzuk	41,6	Pentsua eta bazka	125,9
Beste salgai batzuk	74,8	Beste salgai batzuk	465,6
Guztira	1.446,2	Guztira	1.912,2

Iturria: Pasaiaiko Portu Agintaritza. Geuk egin.

Pasaiaiko portuko kanpo-trafikoari dagokionez, Pasaiaiko portuan, Bizkaikoan gertatu den bezala, esportazioen guztizkoak gora egin du (% 1,9), eta inportazioen guztizkoak, berriz, behera (-% 15,7). Testuinguru horretan, esportazioen portaera ona jardueran proportzio handienak dituzten bi salgaietan izandako gorakaden ondorioa izan da. Hain zuzen ere, siderurgia-produktuek gorakada txikia izan dute (% 0,9), eta autoek eta haien piezek ere gora egin dute (% 7,4). Bien artean, Pasaiatik esportatutako produktuen trafikoaren % 82,7 dira.

Inportazioei erreparatuz gero, zifren beherakada orokorra burdin txatarren eta beste salgai batzuen trafikoaren beherakadagatik gertatu da (-% 68,3 eta -% 23,9, hurrenez hurren). Bi salgai horiek jardueraren herena baino gehiago dira. Siderurgia-produktuen bilakaera bikaina izan da (2016an, gorakada handia izan dute, % 29,1ekoa, eta jardueraren % 40 izan dira), baina ez da nahikoa izan beste ataletako beherakadak konpentsatzeko.


225. taula Bilboko portua. Trafikoa herrialdeen arabera, 2016

<i>(m Tm)</i>			
Herrialdea	Deskargak	Kargak	Guztira
Errusia	4.003.302	76.248	4.079.549
Erresuma Batua	1.835.395	2.131.984	3.967.379
Mexiko	2.422.229	191.708	2.613.937
Ameriketako Estatu Batuak	774.149	1.632.939	2.407.088
Espainia	517.269	1.155.486	1.672.755
Herbehereak	690.153	844.561	1.534.714
Frantzia	88.355	1.106.034	1.194.389
Txina	963.199	151.916	1.115.115
Brasil	666.800	392.258	1.059.057
Kolonbia	696.400	220.330	916.730
Nigeria	777.611	8.234	785.845
Belgika	165.813	458.371	624.184
Maroko	10.960	610.242	621.202
Beste batzuk	6.154.505	3.202.292	9.356.799
Guztira	19.766.140	12.182.603	31.948.743

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Geuk egina.


Bilboko portuan trafiko-bolumen handienak dituzten herrialdeei dagokienez, aldaketa asko egon dira aurreko ekitaldiaren aldean, eta Mexikok, Espainiak, Herbehereek eta Kolonbiak soilik jarraitzen dute antzeko postuetan (jardueraren % 8,2, % 5,2, % 4,8 eta % 2,9 dagokie, hurrenez hurren). Esate baterako, rankingaren lehen postuan Errusia dago (laugarrena zen iaz) eta Erresuma Batuari leku hori kendu dio. 2015ean, Erresuma Batuak % 14,4ko kuota zuen, eta 2016an, berriz, % 12,4koa izan du. Errusiak, berriz, % 7,1eko kuota zuen 2015ean, eta 2016an, Bilboko guztizko merkataritzaren, % 12,8 dagokio. Mexikok, AEBk eta Espainiak merkataritza-bazkide diren 5 herrialde nagusien multzoa osatzen dute. Portaera nabarmenen artean, Frantziak (5 postu igo da urtebetean) eta Brasilek (2 postu igo da) izandakoak aipatu behar dira. Aldiz, beheakada Nigeriak, Estatu Batuek eta Txinak (3, 2 eta 1 posizio jaitsi dira, hurrenez hurren, 2015eko postuen aldean) izan dute. Azkenik, sailkapen horretan Belgika eta Maroko sartu berriak dira (jardueraren % 2 eta % 1,9, hurrenez hurren), eta rankingeko lehenbiziko hamahiru herrialdeek Bilboko portuko trafikoaren % 70,7 egiten dute.

32. grafikoa Salgaien eta itsasontzien trafikoa Bilboko portuan



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.

33. grafikoa Salgaien eta itsasontzien trafikoa Pasaiaiko portuan



Iturria: Pasaiaiko Portu Agintaritza.

226. taula Pasaiaiko portua. Trafikoa herrialdeen arabera, 2016

Herraldea	Deskargak	Kargak	Guztira
Erresuma Batua	159,3	538,8	698,2
Belgika	230,2	237,1	467,2
Alemania	349,7	82,0	431,7
Herbehereak	230,0	68,0	298,0
Suedia	240,8	0,0	240,8
Aljeria	60,1	99,4	159,4
Finlandia	148,6	4,0	152,6
Irlanda	38,6	85,5	124,1
Polonia	100,1	5,7	105,8
Ameriketako Estatu Batuak	0,0	86,9	86,9
Errusia	82,4	3,8	86,2
Frantzia	38,3	15,5	53,8
Italia	45,3	4,3	49,6
Beste batzuk	224,2	215,3	439,5
Guztira	1.947,6	1.446,2	3.393,8

Iturria: Pasaiaiko Portu Agintaritza. Geuk egina.

Pasaiaiko portuari dagokionez, 2016an, Bilboko portuan baino aldaketa gutxiago daude. Pasaian, Errusiaren beherakadaren (6 postu jaitsi da aurreko ekitalditik) eta Frantziaren beherakadaren (2 postu jaitsi da) ondorioz, 2015ean beheko postuetan zeuden herrialde batzuek gora egin dute, hala nola Suediak, Irlandak eta Aljeriak (jardueraren % 7,1, % 3,7 eta % 4,7, hurrenez hurren). Beste herrialde batzuek, berriz, aurreko urteko postuari heldu diote; esaterako, Herbehereek eta Finlandiak (jardueraren % 8,8 eta % 4,5, hurrenez hurren). Pasaiaiko portuaren trafikoaren erdia baino gehiago hiru herrialderi dagokie: Erresuma Batua dago lehen postuan, sendo (trafikoaren % 20,6 dagokio), eta haren atzetik, Belgika eta Alemania daude (Pasaiaiko portuaren guztizko trafikoaren % 13,8 eta % 12,7, hurrenez hurren). Halaber, sailkapenean sartu berri diren herrialdeak aipatu behar dira, hala nola Polonia, Estatu Batuak eta Italia (trafikoaren % 3,1, % 2,6 eta % 1,5, hurrenez hurren). Oro har, rankingeko lehenbiziko hamahiru herrialdeen merkataritza-jarduera Pasaiaiko portuko guztizko trafikoaren % 87 da.

227. taula Bilboko portua. Magnitude ekonomikoak

Kontzeptua	2014	2015	2016	(m euro) % Δ 16/15
Zerbitzu eta kanonengatiko diru-sarrerak	62.506	65.207	65.211	0,01
Gastu arruntak	33.358	33.451	34.530	3,2
Amortizazioak	30.085	28.489	28.467	-0,1
Ustiapeneko mozkina	3.110	6.006	5.485	-8,7
Ekitaldiko emaitza	3.056	3.467	3.255	-6,1
Cash Flow	36.251	37.962	37.207	-2,0
Ibilgetu materiala	516.511	501.480	502.731	0,2

Iturria: Bilboko Portu Agintaritzak.

Bilboko portuaren magnitude ekonomiko nagusiei erreparatuz gero, diru-sarrerak gorakada txikia izan dutela ikusten da (% 0,01), eta 65,2 milioi euro izan direla. Bestalde, ustiapeneko mozkinari dagokionez (5.485 mila euro), % 8,7 jaitsi da, aurreko ekitaldiko emaitza bikainetik urrun (% 93,1eko gorakada izan zen). Gastuek % 3,2 egin dute gora (34,5 milioi euro), eta ekitaldiko emaitza 3.255 milioi eurokoa izan da, -% 6,1eko beherakada izanik.

Itsas garraioaren atalarekin amaitzeko, jarraian bi portuetako gertakari nabarmenenak azalduko dira. Bilboko portutik hasita, bidaiarien trafikoari dagokionez, 190.626 bidaiari izan dira, aurreko ekitaldian baino % 15 gehiago. Bidaiarien % 54,6 Erresuma Baturako ferryaren 129 eskaletatik iritsi ziren, eta gainerako % 45,4, berriz, Bilbon porturatu ziren 51 gurutzaldietan (2015ean, 43 izan ziren). 2017rako aurreikusitako inbertsioei dagokienez, Bilboko Portu Agintaritzak obra hauetan 88,6 milioi euro inbertitzea aurreikusten du: erdiko kai-muturraren lehen fasearen eraikuntza, Lucero lurmuturreko harrobi ohiaren egonkortze-lanak, Arasurreko tren-bazterbidea eta Getxoko gurutzaldikai berriaren itsas geltokia. Horrez gain, sektore pribatuak (Noatum Container Terminal Bilbao, ASK Chemicals, DBA Bilbao Port eta Navacel enpresek, esaterako) 55,8 milioi euroko inbertsioak egitea aurreikusten ditu. Halaber, 2017an beste inbertsio garrantzitsu bat izango da: Haizea Wind enpresak itsas dorre eolikoak fabrikatzeko eta esportatzeko lantegi berri bat eraikiko du. Proiektuaren arduradunen arabera, 55 milioi euroko inbertsioa egingo da eta 300 lanpostu berri sortuko dira.

Pasaiaiko portuari dagokionez, 2016ko ekitaldian, oso dinamika desberdinak izan dira salgai-mota batzuetan eta besteetan, eta oro har, jardueraren beherakada izan da, % 8,9koa, martxoan Arcelor Zumarraga lantegia ixtearen ondorioz batik batik. Arcelor portuaren bezero nagusietako batenez, albiste horrek nolabaiteko kezka eragin du. Dena dela, Pasaiaiko Portu Agintaritzak trafikoak dibertsifikatzeko ahaleginak egiten ari da. Bestalde, 2017an plan berezia behin betiko onartzen bada, portuak biltegi berri

batzuk eraikitzeari ekingo dio, gaur egungo eta etorkizuneko trafikoei zerbitzu hobea emateko.

3.4 AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Aire bidezko garraioari dagokionez, AENAK aurkeztutako datuen arabera, gorakadak izan dira Euskal Herriko aire bidezko garraioarekin lotutako adierazle guztietan. Hau da, aireontzien, bidaiarien eta salgaien mugimenduek 2014an hasitako goranzko joera izaten jarraitu dute.

228. taula Euskal Herriko aireko trafikoa

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Salgaiak (Tm)		
	Guztira	% Δ	EH/Espainia %	Guztira	% Δ	EH/Espainia %	Guztira	% Δ	EH/Espainia %
2010	66.270	-1,7	3,6	4.479,5	3,9	2,3	30.570,0	1,4	4,7
2011	66.434	0,2	3,5	4.532,4	1,2	2,2	37.391,7	22,3	5,6
2012	61.775	-7,0	3,7	4.624,6	2,0	2,4	36.958,5	-1,2	5,7
2013	52.014	-15,8	3,3	4.186,4	-9,5	2,2	40.044,1	8,3	6,3
2014	52.779	1,5	3,3	4.359,2	4,1	2,2	45.055,3	12,5	6,6
2015	55.456	5,1	3,3	4.658,9	6,9	2,3	49.255,0	9,3	6,9
2016*	56.099	1,2	3,1	5.018,8	7,7	2,2	55.115,6	11,9	6,9

(*): 2016rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Atal bakoitzeko informazioari erreparatuz gero, Euskal Herriari dagokionez, bidaiarien eta salgaien trafikoaren hazkunde-erritmoa areagotu egin da. Aireontziek ere gora egin dute, baina aurreko ekitaldian baino gutxiago. Beraz, 2016an % 7,7ko gorakada izan da bidaiarien kopuruan (5 milioi bidaiariren muga gainditu da), salgaien trafikoak gorakada nabarmena izan du (% 11,9; 55.115,6 tonara iritsi da), eta aireontzien operazioek izan dute dinamismorik txikiena, gorakada txikia izan baitute (% 1,2).

Analisi hori Estatuaren esparruan eginez gero, arlo hauetan Espainiak Euskal Herriak baino bilakaera hobea izan duela ikusten da: aireontzien operazioak (% 7,9ko eta % 1,2ko gorakadak, hurrenez hurren) eta bidaiari-kopuruak (% 11ko eta % 7,7ko gorakadak, hurrenez hurren). Salgaien trafikoaren bilakaera, berriz, oso antzekoa izan da batean eta bestean (% 11,2ko gorakada Espainian, eta % 11,9koa Euskal Herrian). Hori dela eta, Euskal Herriko jarduerak Estatu guztizkoetan duen proportzioa zertxobait jaisten da lehenbiziko bi adierazleetan, eta bere horretan jarraitzen du salgaien arloan.

229. taula Aireontzien trafikoa, aireportuaren arabera
(unitateak)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Hego Euskal Herria		EH/Espainia %	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Trafikoa, guztira	41.113	41.845	3.133	3.049	4.664	4.806	6.546	6.399	55.456	56.099	3,3	3,1
Barrualdekoa	23.105	23.219	2.867	2.845	4.464	4.538	2.353	2.628	32.789	33.230	6,4	6,3
Nazioartekoa	18.008	18.626	266	204	200	268	4.193	3.771	22.667	22.869	2,0	1,8

(): 2016rako behin-behineko datuak.*
Iturria: AENA.

Euskal aireportu bakoitzean gertatutakoa sakonago aztertuz, aireontzien mugimenduz hasita, 2016an bi aireportuk beherakadak izan dituztela ikusten da, eta beste biek, berriz, gorakadak. Zehazki, bilakaera negatiboa izan du, lehenik eta behin, Noaingo aireportuak (Iruñea): Euskal Herrian aireontzi-trafiko txikiena duen aerodromoa izateaz gain (guztizko trafikoaren % 5,4), beherakada handiena (% 2,8) izan duen aireportua izan da, bai hegaldi nazionaletan, bai nazioarteko hegaldietan. Bigarren, Forondak (Gasteiz) % 2,2ko beherakada izan du adierazle horretan (jardueraren % 11,4 izanda), nazioarteko jardueraren beherakadaren ondorioz. Aldiz, Hondarribiko (Donostia) eta Loiuko (Bilbo) aireportuek emaitza positiboa izan dute ekitaldian (% 3ko eta % 1,8ko gorakadak jardueran, hurrenez hurren), bi trafiko-motetan izandako goranzko joeren ondorioz. Loiuko aireportuak lider izaten jarraitzen duela aipatu behar da, aire bidezko fluxuaren % 74,6 baitagokio. Gainera, ekitaldi honetan, nazioarteko jardura indartu da.

230. taula Salgaien trafikoa, aireportuaren arabera*
(Tm)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Hego Euskal Herria		EH/Espainia %	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Trafikoa, guztira	2.871	2.974	4,3	2,0	3	4,6	46.371	52.135	49.255	55.116	6,9	6,9
Barrualdekoa	1.729	1.677	1,0	0,8	3	4,6	12.436	13.384	14.173	15.067	12,0	12,3
Nazioartekoa	1.143	1.297	3,3	1,3	0	0,0	33.935	38.751	35.082	40.049	5,9	5,9

(): 2016rako behin-behineko datuak.*
Iturria: AENA.

Salgaien aireko trafikoari dagokionez Gasteizko aireportuan jardura gehiena kontzentratzen da (Euskal Herriko salgaien trafikoaren % 94,6), eta, gainera, % 12,4ko gorakada izan da, salgai nazionalen eta nazioarteko salgaien trafikoak eraginda. Bilboko eta Donostiako aireportuek jardura horren % 5,4 eta % 0,01 egiten dute, hurrenez hurren, eta aireportu horietan gora egin du garraiatutako salgaien bolumenak ere (% 3,6 eta % 52, hurrenez hurren), baina dinamika desberdinak izan dira merkatuen arabera.

Loiuko aireportuan barne-trafikoak jarduerak behera egin du eta nazioartekoak gora. Hondarribikoan, berriz, ez da nazioarteko trafikorik izan, eta barne-trafikoak gora egin du. Azkenik, Iruñeko aireportuak oso presentzia txikia du Euskal Herriko aire bidezko salgaien trafikoan (% 0,004), eta gainera, jarduera horrek beherakada handia izan du azken ekitaldi honetan (-% 53,3).

231. taula Bidaiarien trafikoak, aireportuaren arabera*

(m)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Hego Euskal Herria		EH/Espainia %	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Trafikoa, guztira	4.252	4.570	144	151	252	261	11	36	4.659	5.019	2,3	2,2
Barrualdekoa	2.464	2.583	139	146	252	260	7	29	2.862	3.018	4,6	4,5
Nazioartekoa	1.787	1.988	6	5	1	2	4	7	1.797	2.001	1,2	1,2

()*: 2016rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Euskal Herriko aireportuetako bidaiari-trafikoari dagokionez, 2016an, emaitza positiboak izan dira euskal sarea osatzen duten lau aireportuetan. Bilboko aireportuan (bidaiarien trafikoaren % 91,1 egiten du), bidaiari-fluxuak % 7,5 egin du gora, neurri handi batean nazioarteko trafikoaren bilakaeraren ondorioz. Donostiako eta Iruñeko aireportuetan, berriz, hegaldi nazionalak esker egin dute gora bidaiari-fluxuek (% 3,7 eta % 4,6, hurrenez hurren), Forondan bezala. Forondak, hain zuzen, Euskal Herriko bidaiarien mugimenduetan ehuneko txikia du (% 0,7), baina aireportu horretako balioek izugarri egin dute gora (% 231,2), trafiko nazionalak eraginda.

232. taula Aireportuko trafikoaren gorakada (2016/2015)*

Aireportua	Bidaiariak		Aireontziak		Merkantziak	
	Milakoak	% Δ	Unitateak	% Δ	Tm	% Δ
Bilbo (Loiu)	318	7,5	732	1,8	103	3,6
Iruñea (Noain)	7	4,6	-84	-2,7	-2	-53,3
Donostia (Hondarribia)	9	3,7	142	3,0	2	52,0
Gasteiz (Foronda)	25	231,2	-147	-2,2	5.764	12,4
Hego Euskal Herria	360	7,7	643	1,2	5.861	11,9

()*: 2016rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Kapitulua amaitzeko, jarraian, Hego Euskal Herriko lau aireportuetan izandako azken albisteak azalduko dira. Bilbotik hasita, Bizkaiko aireportuan, bidaiarien kopuruak gora egiten jarraitzen du, eta 2017aren amaierarako 5 milioiren muga gaindituko dela espero da. Hori dela eta, Air Bilbao sozietate publikoa terminala handitzen pentsatzen ari da, puntako orduetan masifikazio-arazoak ez izateko, hori agerikoa baita goizeko lehen

orduetako hegaldietan batik bat. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du datozen urteetan metroko 3. linea Loiraino helarazteko, eta hori egitea bidaiari-fluxua handitzeko lagungarria izan daiteke.

Hondarribiko aireportuan, pista laburtzearen gaiari –Europar Batasunak exijitzen dituen segurtasun-parametroak betetzeko beharrezkotzat jotzen zen– eta arazo horrek aireportuaren bideragarritasunean izan dezakeen eraginari dagokienez, badirudi neurri batean konpondu dela, pistaren arteketaren bidez. Pistako zoladura artekatzeko obrak eginda, terminalak European Aviation Agency (EASA) agentziaren ziurtagiria lortu ahal izango du, eta horrela, gaur egun egiten dituen hegaldiei eusteko aukera izango du, bai eta beste linea berri batzuk zabaltzeko ere, Air Nostrum eta Vueling konpainiekin, biek Gipuzkoan jarduten jarraitzeko interesa baitute.

Forondari dagokionez, salgaien trafikoan batik bat jarduten duen aireportua izan arren, Ryanair konpainiak 2017ko martxotik aurrera Arabaren eta Teneriferen arteko hegaldiak martxan jarriko ditu. Konpainia horrek jada Gasteiz-Milan hegaldia Forondatik egiten du, eta hori guztia dela eta, bidaiarien kopuruan gorakada handia izango dela pentsatzekoa da. Horrela, 10 urteko geldialdiaren ostean, hegaldi erregularren jarduera berreskuratuko litzateke Arabako aireportuan. Horrez gain, 2017ko hasieran, errekorrak gainditu dira karga-kopuruetan, neurri handi batean DHL konpainiari esker. Enpresa hori aireportuko jardueran lider da, eta bere instalazioen zabalkuntza 2017. urtearen amaieran inauguratzea aurreikusten du. Horrela, bere ahalmen operatiboa handituko luke.

Azkenik, Nafarroako aerodromoari buruzko azken albisteei dagokienez, badirudi Lufthansa konpainiak Iruñea-Frankfurt hegaldia egiten hasiko dela 2017ko azarotik aurrera. Zalantzarik gabe, albiste ona da batik bat hegaldi nazionalak (Madrilekin batez ere) dituen aireporturako, aireportuaren ahalmen operatiboa askoz handiagoa baita gaur egungo jarduerarako behar dena baino. Hori guztia dela eta, konexio berri horrekin Noingo bidaiarien kopuruak gora egingo lukeela kalkulaten da (160.000-200.000 bidaiari gehiago).




5. FINANTZA SEKTORĀ

16

1. IKUSPEGI OROKORRA

2016an, munduko hazkundera %3,1 izan zen, 2015eko datua baino hamarren bat hobea, eta ekonomia sortu berrien hazkunderaren -%4 inguru- eta aurreratuen hazkunderaren -%2 inguru- emaitza da, eta pixka bat txikiagoa da AEBn (%1,6) eta Eurogunean (%1,7). NDFk munduko hazkunderako iragarritako aurreikuspenak %3,5 eta %3,8 dira, 2017rako eta 2018rako, hurrenez hurren. Euroguneako pixka bat okerragoak dira (%1,7 eta %1,6), neurri batean Brexitaren ebazpenaren ziurgabetasunaren pisuagatik eta bestea aldaketa politiko batzuegatik, bai eta ekonomiaren susperraldia eta enplegua sustatzeagatik krisiak eta bankuen batasunak eragin handiena izan duten herrialdeetan ere. Itxaropen horiek hobekuntza dira AEBrentzat, dollarraren sendotasuna eta politika fiskal hedakorra euskarritzat hartuta, beste zenbait alderdiren artean.

34. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*




(*)Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa.
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Testuinguru horretan, Espainiako ekonomiak 2016rako aurreikusitako hazkunde ekonomikoaren (%3,2) eta enplegua berreskuratzearen helburuak bete ditu. Dena den, hobekuntza horren zati baten oinarria leheneratu daitezkeen egoera iragankorrak direla aipatzen da; esate baterako, interes-tasen eta petrolioaren prezioaren maila baxuak. Nolanahi ere, eragina onuragarria izan da eta horri esker etxeetako kontsumoa hobetu berreskuratu da, enpresek erabaki handiagoa izan dute inbertsioetan, eta, azken finean, familien eta enpresen palanka-efektu finantzarioak txikitzen jarraitu du. Nazioarteko eskariari eutsi izana -oso garrantzitsua zenbait sektoretan; adibidez, turismoan- eta barne-eskaria berreskuratzea daude enpresa-jardueraren errektibazioaren oinarrian.

Beraz, enpresa-finantziazioaren beharretan gorakada bat izan zen, neurri handi batean bere baliabideetan oinarritu bada ere, 2016an kreditu berrien eskaria eta eskuratzea handitu egin da.

Horren haritik, 2016. urtea lasai samarra izan da finantza-merkatuetan, eta ez da interes bereziko albisterik izan. Oro har, kreditua eskuratzeko baldintzen hobekuntza jarraitua dakar horrek, prezioen funtsezko gorakadarik egon ez den agertoki batean. Hain zuzen ere, diru-agintaritzek ez zuten aldaketarik egin diruaren prezioan, baina, hala ere, berreskurapenak gora egitea espero zela aipatu zen arren, ez da oraindik gauzatu. Finantza-bitartekotzako erreferentziazko bi aldagaien eboluzioak Espainian sektore pribatuaren palanka-efektu finantzarioak txikitzen jarraitzen duela erakusten du, kreditu-saldoak behera eginaz (-%4,1), pixka bat gutxiago jaitsi dela Nafarroan (+%0,9), baina, hala ere, bi kasuetan 2006eko antzeko zifrak izanik; bestalde, amortizazio-eragiketarako kreditu berriaren aurrean berresten ditu. Dena den, adierazle horiek etxeetako inbertsioaren berreskurapen motela erakusten dute, etxebizitza erosteko izenpetutako hipoteken kopurua kasu, eta 2010. urteari dagokion datuaren erdiaren inguruan kokatzen da oraindik. 2013ko balio minimoa gainditu ondoren, adierazle hori urte arteko %14,7an kokatu da Espainian, eta %10,8an EAEn, 2016an.

35. grafikoa Ibox-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa



Iturria: Espainiako Bankua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.

Bestalde, agenteen aurrezki-posizioak ere honako hauen mende daude: agente bakoitzak bere gain hartzen dituen arrisku-erabakiak, kaudimena eta jarduera berreskuratzeko bermea, eta aukera desberdinen ordainketa. Hala, sektore pribatuaren gordailuetako saldoak, 2016. urtearen amaieran, urte arteko aldakuntza-tasa positiboa izan zuen Espainian (%0,4) eta EAEn (%2,2), eta bi kasuetan magnitude nominala

2010ekora hurbildu zen, 2013ra arte galdutakoa berreskuratuz, eta azken hiru urteetan hobetzeko profila erakutsiz. Hala ere, banku-gordailuetako aurrezki-posizio horiek 2 bilioi euroko atariaren azpitik jarraitzen dute Espainian eta 91 milioi eurotan EA Eren kasuan, eta aurreko urteetan lortutako balio maximoak izan ziren. Ordainsari baxuen testuinguru horretan, aurrezki-posizioak¹ ageriko gordailuetara bideratzen dira gehiago (%40,0) aurrezki-gordailuetara (%25,4) eta eperako gordailuetarako (%34,7) baino.

Bestalde, aurrezki-posizioen hobekuntza hori Inbertsio Kolektiboko Erakundeen bilakaerak osatzen du, aurten haien ondarean handitu baita (%7,1) eta erakundeen kopuruak beheratz doitzen jarraitzen du (-%0,7); gainera, errenta aldakorrean oinarritutako instituzioen ondare-portaera (%0,7) errenta finkokoan oinarritutakoa (%0,2) baino hobe da. Azkenik, Espainiako Burtsak bigarren mailako merkatu horietako kontratazioaren murrizketa nabarmen batekin (-%32) itxi zuen urtea eta IBEX-35 indizeak bilakaera aldakorra izan zuen, 9.000 puntutik beherakoa ia ekitalde osoan; hala ere, berreskurapen-profil bat izan du azken hilabetean eta 9.352 puntura iritsi da, eta hartara, urte arteko aldakuntza -%2 izan da.

Aurrezki- eta kreditu-posizio horien eskaintza kreditu-erakunde² bidez egiten da, neurri handi batean. Eta berregituratze handia izan dute: 2016. urtean 2011. urtean baino 85 gutxiago daude. Gehienak gordailu-erakundeak dira (206), eta horien % 60,2 Espainiakoak dira. Hain zuzen ere, horiek azaltzen dute gordailu-erakundeek guztira izan duten beherakada, atzerriko erakundeen kopuruak ez baitu aldaketa handirik izan (86 ziren 2011n eta 82 dira 2016an).

233. taula Kreditu-erakundeak eta kredituko finantza-establezimenduak (KFE). Erakunde-kopurua

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Gordailu-erakundeak	275	258	241	224	217	206
Espainiako gordailu-er.	189	173	155	138	135	124
KFC/ ECAOL	59	55	50	47	44	43
Guztira	335	314	292	272	262	250

Nota: Guztizkoarekiko aldea atzerriko sukurtsalei (gordailu-erakundeak) eta kreditu ofizialari (1) dagokio.

Iturria: Espainiako Bankua.

Kreditu-erakundeen berrantolatze horren ondorioz, doitzea izan da 2008. eta 2016. urteen artean: kreditu-erakundeetan enplegatutakoen kopuruak % 30 egin du behera (-84.038 enplegatu). Atzerakada hori, hein handi batean, gordailu-erakundeek eragindakoa

¹ Espainiarako banatzailea, sektore pribatua. 2014ra arte, figura nagusia eperako gordailua zen, aurrezki-posizioen erdia baino gehiago era horretakoa baitzen. Bistarako gordailuak, aldiz guztikoaren laurden bat baino gutxiago ziren ordura arte.

² Gordailu-erakundeak bankuak, lehen aurrezki kutxak zirenak eta kreditu-kooperatibak dira, kredituko beste finantza-erakunde batzuekin batera

da, 81.575 enplegatu gutxiago baitituzte. Izan ere, 2011tik gordailu-erakundeen enplegua 90eko hamarkadakoa baino txikiagoa da, eta berrehun mila pertsonatik behera dituzte enplegatuta. Enplegu-doitzeak jarraitu egin du 2016an (-8.545 enplegatu), atera diren langileak baino langile gutxiago kontratatu baitira¹.

234. taula Kreditu-erakundeak eta kredituko finantza-establezimenduak (KFE). Enplegatutako pertsonak

	2008	2011	2013	2014	2015	2016
Gordailu-erakundeak	270.855	242.726	212.991	203.305	197.825	189.280
KFC/ECAOL	7.150	5.047	4.577	4.665	4.812	4.695
Kreditu ofiziala	296	320	310	321	317	308
Guztira	278.301	248.093	217.878	208.291	202.954	194.263

Iturria: Espainiako Bankua.

Estatu osoan² gertatzen den kontua da, eta bilakaera hori adierazten duen aldagaia bulego-sarea da. 2008. eta 2016. urteen artean, gordailu-erakundeek 17.019 bulego galdu dituzte estatuan, eta joera berberari jarraitzen dio 2016an: 2.278 bulego gutxiago daude 2015ean baino. EAEn eta Nafarroan ere joera berbera da 96 eta 38 bulego gutxiago baitaude, hurrenez hurren, eta 80ko hamarkadako balioetatik hurbil geratzen da bulego-sarea. Dena den, azpimarratu behar da negozio-eredua eta bezeroaren arreta errotik aldatu dela: bulego-jarduerak asko egin du behera (presentzialak eta "paperekoak"), formatu birtualen eta interkonexioaren mesedetan.

235. taula Gordailu-erakundeak. Bulego-kopurua

	EAE	Nafarroa	Espainia
2008	1.988	716	45.662
2015	1.522	569	30.921
2016	1.426	531	28.643

Iturria: Espainiako Bankua.

Kreditu-erakundeek 2016ko ekitaldia interes-tasa txikiek baldintzatutako emaitzekin itxi dute, eta horiek finantza-marjina eta marjin gordina estutzen jarraitzen dute (-% 8 eta % 6). Ustiapen-gastuek bere horretan jarraitzen dute (% 0,5), pertsonal-gastua txikiagoa den arren (-% 1,7). Hornidurak handitzeak (% 97, 3.482 M€ arte) azaltzen du ustiapenaren emaitzak behera egitea (-% 20,1). Azken finean, baterako emaitza hau da: 6.717 M€-ko zerga aurreko mozkina, 2015ean izandakoa baino % 37,5 txikiagoa.

¹ Erretiroak eta sustatutako bajak, batez ere.

² Ez dago Autonomia-Erkidegoka bereizitako daturik.

2. FAMILIEN FINANTZA-EGOERA

2017ko apirilean, Europako Banku Zentralak euroguneko¹ familien finantza-egoerari buruzko kontsulta argitaratu du, eta kontsultaren emaitzak zehatz-mehatz Euskadikoak ez badira ere, orientagarriak izan daitezke txosten honen testuinguruan. Abiapuntua aktibo errealak eta finantzarioak dituzten familien ehunekoa da: Eurogune osoan ehuneko horiek % 82,2 eta % 17,8 dira, hurrenez hurren; herrialde batzuek erregistro handiagoa dute osagai errealean (Espainiak, % 85,1), eta beste batzuek osagai finantzarioan (Belgikak, % 23,3). Aktibo erreal horien zati garrantzitsu bat etxebizitzari dagokio (bizilekua), familien aktibo nagusia baita.

236. taula Euroguneko familietako ondarearen egitura (erreal eta finantzarioa)

(familien %)

	Euro-gunea	Belgika	Alemania	Espainia	Frantzia	Italia	Herbehereak	Austria	Finlandia
Aktibo errealak	82,2	76,7	77,6	85,1	81,1	88,6	75,1	86,0	83,0
Aktibo finantzarioak	17,8	23,3	22,4	14,9	18,9	11,4	24,9	14,0	17,0

Iturria: Europako Banku Zentrala, "The Household Finance and Consumption Survey". 2017ko apirila

Familien % 97,2k aktibo finantzarioak dituzte, eta, horien artean, banku-gordailuak dira figura nagusiak, bai eurogunean (% 96,9), bai Espainian (% 99,6), baita aztertutako gainerako herrialdeetan ere. Gainera, garrantziaren arabera, familien % 30,3k pentsio-planak dituzte (borondatezkoak); Belgikan eta Alemanian familien % 44,4k eta % 46,3k dituzte, eta Espainian familien % 24,5ek. Aztertutako herrialdeetatik, Italiak eta Austriak dituzte figura finantzario horren ehuneko txikiak.

Euroguneko hamar familietatik batek aurrezki-posizioak ditu inbertsio-funtsetan (% 9,4), eta akzioetan –salmenta publikoari, bigarren mailako merkatuei eta abarri lotuak– (% 8,8); Espainian, berriz, akzioen ehunekoa pixka bat handiagoa da (% 11,0). Bestalde, nabarmendu behar da Espainiako hamar familietatik batek dirua mailegutan utzi diola beste familia bati (% 11,7); ehuneko hori euroguneko batezbestekoa baino handiagoa da (% 7,9), baita beste herrialde batzuetakoena baino handiagoa ere, hala nola Belgikarena (% 6,7) eta Frantziarena (% 5).

Azkenik, aipatu behar da beste aktibo batzuk ere ageri direla beste aktibo batzuen epigrafean, hala nola partizipazioak enpresetan eta bigarren mailako merkatuetan

¹ https://www.ecb.europa.eu/pub/economic-research/research-networks/html/researcher_hfcn.en.html. Euroa integratu duten herrialdeei buruzko informazioa dakar, baina txosten honetan dimentsio eta/edo garapen-maila edo kaudimen makroekonomiko handiena duten herrialdeak soilik jaso dira.

sartzen ez diren beste akzio batzuk. Aipagarria da Alemanian eta Finlandian zenbat familiak dituzten figura-mota horiek (% 14,5 eta % 15,8).

237. taula Familien aktibo finantzarioen posizioen osaera eurogunean

(familien %)

	Euro-gunea	Belgika	Alemania	Espainia	Frantzia	Italia	Herbehereak	Austria	Finlandia
Aktibo finantzarioak	97,2	97,9	99,4	99,6	99,6	93,3	99,2	99,8	100
Gordailuak	96,9	97,5	99	99,6	99,6	93,2	98,6	99,7	100
Inbertsio-funtsak	9,4	21	13,1	5,7	8,6	5,9	13,3	10	27
Bonuak eta errenta finkoa	4,6	7,8	4,2	2,1	1,2	13	3,8	4	0,9
Akzioak (burtsa)	8,8	11	9,6	11,0	11,7	3,7	8	5,4	21,4
Diru zordundua / mailegu pribatuak	7,9	6,7	13,3	11,7	5,0	0,9	8,6	8,3	--
Pentsio-planak (borondatezkoak)	30,3	44,4	46,3	24,5	38,5	9,3	35,3	14,5	23,6
Beste aktibo finantzario batzuk	7,5	3,4	14,5	2,3	9,9	2,7	4,1	1,5	15,8

Iturria: Europako Banku Zentrala, "The Household Finance and Consumption Survey". 2017ko apirila

Bestalde, Europako Banku Zentralaren inkestaren arabera, Euroguneako familien % 42,4k zorren bat dute, ehuneko handienak Herbehereek (% 63,1) eta Finlandiak (% 57,4) dituzte, horien antzeko kopuruak Belgikak (% 48,4) eta Espainiak (% 49,3) dituzte, eta zertxobait txikiagoak Frantziak (% 47,2) eta Alemaniak (% 45,1).

Hala ere, desberdintasun handiena hipoteka-zorra duten familien ehunekoaren ingurukoa da; izan ere, Herbehereetan familien % 42k dute hipoteka-zorra, hiru familietatik batek Espainian (% 35), Belgikan (% 34,5) eta Finlandian (% 35,2), eta lau edo bost familietatik batek Frantzian (% 24,3) eta Alemanian (% 20,4). Eurogune osoan, berriz, beste zor-mota batzuk¹ dituzten familien ehunekoa (% 28,2) hipoteka-zorra dutenena baino handiagoa da (% 23,3); hori gertatzen da aztertutako herrialdeetan, salbu eta Belgikan, Espainian eta Herbehereetan, non familiek hipoteka-zor handiagoa baitute.

238. taula Euroguneako familien zorra eta zor-mota

(familien %)

	Euro-gunea	Belgika	Alemania	Espainia	Frantzia	Italia	Herbehereak	Austria	Finlandia
Banku-zorra dute	42,4	48,4	45,1	49,3	47,2	21,2	63,1	34,4	57,4
Hipoteka dute	23,3	34,5	20,4	35,0	24,3	10,1	42,0	16,7	35,2
Beste zor batzuk	28,2	25,2	32,8	27,4	33,6	13,9	37,9	20,6	43,9

Iturria: Europako Banku Zentrala, "The Household Finance and Consumption Survey". 2017ko apirila

¹ Kontsumorako kreditua, kreditu pertsonala, bermerik edo eskakizunik (abalak...) gabeko kredituak, etab.

Azkenik, kontsulta honen testuinguruan kalkulatu da zenbat familia dauden kreditua murrizteko egoeran, hiru egoera hauetakoren batean daudelako: i) azken hiru urteetan kreditu bat eskatu dute eta uko egin diete, ii) kreditu bat eskatu dute eta eskatutakoa baino kopuru txikiagoa lortu dute eta iii) ez dute krediturik eskatu, kreditu-murrizketaren bat hauteman baitute. Adierazle horrek erakusten du euroguneko familien % 8 kreditua murrizteko egoeran egon direla azken hiru urteetan; Espainiaren kasuan, familien % 11,5 egon dira egoera horretan, aztertutako herrialdeen arteko ehuneko handiena, hain zuzen ere.

239. taula Kreditura sarbidearen inguruan Eurozguneko familien balorazioa

(familien %)

	Euro- gunea	Belgika	Alemania	Espai- nia	Frantzia	Herbe- hereak	Austria	Finlandia
Kreditua eskatu dute azken 3 urteetan	18,6	16,8	23,7	18,4	26,7	9,2	5,6	29,0
Eskatzaileei ukatu edo murriztu (zenbatekoa)	13,3	10,1	10,0	22,4	11,2	24,1	18,7	5,9
Ez du eskatu, kreditu-murrizketa hautemateagatik	6,4	2,7	5,2	9,2	8,8	3,3	2,9	5,3
Kreditu-murrizketa familientzat	8,0	3,9	6,5	11,5	10,3	4,5	3,5	6,3

Nota: Italia ez da ageri, informazio hori eman ez duelako.

Iturria: Europako Banku Zentrala, "The Household Finance and Consumption Survey". 2017ko apirila

Dena dela, euroguneko familien % 18,6k eskatu dute kredituren bat azken hiru urteetan, eta ehuneko hori handiagoa da Frantzian (% 26,7) eta Finlandian (% 29), baina batezbestekoaren antzekoa Espainian (% 18,4).

Datu interesgarria da azken hiru urteetan kredituren bat eskatu duten europar familien % 13,3ri ukatu dietela (edo eskatutako kredituaren zenbatekoa murriztu dietela); ehuneko altuenak Herbehereetan (% 24,1) eta Espainian (% 22,4) izan dira. Gainera, espainiar familien % 9,2k adierazi dute ez dutela krediturik eskatu kreditu-murrizketaren bat hauteman dutelako, eta ehuneko hori euroguneko batezbestekoa (% 6,4) eta aztertutako herrialdeetakoena baino handiagoa da.

3. KREDITU-ERAKUNDEAK

3.1 KREDITUAREN BILAKAERA

Kredituaren bilakaera Estatuan

Espainiako kreditu-erakundeen aktiboen bilakaerak beheranzko joera izan du 2013tik; urte horretan hasi zen beheranzko joera hori (% -11,6), eta hala jarraitu du hurrengo urteetan ere, baina erritmo moderatuagoarekin, 2015ean (% -5,2) eta 2016an (% -4,1) bereziki.

Kredituak dira aktiboaren osagai nagusia (% 64,9) eta 2016an kuotak gora egin du bigarren urtez jarraian (0,9 puntu gora), 2008. eta 2014. urteen artean % 78tik % 62ra jaitsi ondoren. Aipaturiko portzentajeazko susperraldia ez da termino nominaletan gertatzen, hortaz, 1,719 bilioi euroekin, kreditu-kitapen bizidunak % 2,7ko atzerakada izan du 2015ari dagokionez. Azken batean, kreditu-masaren doikuntzak aurrera jarraitzen du, handia izan baita (% 28, 2010etik pilatuta), eta enpresen eta familien desapalankatzea nagusi dela erakusten du kontratazio berrien aldean, kreditu-erakundeen balantzean islatzen den bezala.

Beste hiru kategoria nagusik osatzen dute erakunde horien aktiboa: akzioek eta partaidetzak (% 9,2), gainerako baloreek (% 13,8) eta sektorizatu gabeko aktiboek (% 12). Hirurek irabazi dituzte kuotak eta kopuruak krisialdian, baina 2016an, bigarren urtez jarraian, behera egin dute kopuruari dagokionez (% -1, % -12 eta % -3,7, hurrenez hurren). Akzioen beherakada oso arina izan da, eta gainerako baloreena 2015ean izandako % 15,6ko ererikoarekin lotzen da (krisia hasi zenetik urte horretan jaitsi zen gehien kuotaren ehunekoa atal horretan); kredituek eta akzioek, aldiz, kuota irabazi dute apur bat.

240. taula Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera

Kontzeptua	(m eurotan)					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	3.400.435	3.422.612	3.025.756	2.912.822	2.760.239	2.646.981
Kredituak	2.357.167	2.229.670	1.926.174	1.805.615	1.767.591	1.719.085
Akzioak eta partaidetzak	250.831	257.501	280.357	261.536	246.261	243.811
Baloreak, akz. eta part. izan ezik	405.582	508.991	492.801	492.346	415.508	365.826
Sektorizatu gabeko aktiboak	386.854	426.449	326.424	353.327	330.879	318.529

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Etxeetarako eta enpresetarako kredituak (“beste sektore egoiliar batzuk”) 1,276 bilioi euro hartu ditu, eta haren urte arteko aldaketa-tasa negatiboa izan da (% -3,8). Hala eta guztiz ere, epigraferik garrantzitsuen da eta kreditu-saldo biziaren ia guztizkoaren hiru laurden hartzen ditu (% 74,2); haren joera beheranzkoa da, ordea, eta 2016an azken hamarkadako baliorik txikiena erregistratu du, 2012. urtea alde batera utzirik.

Beste alde batetik, 2016an, segmentu ez-egoiliar zordunaren pisuak gora jarraitzen du eta % 11,1koa da. Aitzitik, kreditu-sistemaren kredituak % 9,5ean geratu dira (aurreko urtean baino gutxiago), eta haren bilakaera eta administrazio publikoei esleitutako kredituarena berdina izan dira.

Beste sektore egoiliar batzuen kredituak kreditu-saldo osoaren joera markatzen du: 2008tik metatutako jaitsiera % 31,8 da sektore horretan, eta haren erritmoa iraunkorra da 2011tik. Edonola ere, kreditu-saldo bizia segmentu guztietan erori da (% -0,7 sistema-artekoen segmentuan, % -1,7 administrazio publikoen segmentuan eta % -3,8 beste egoiliarren segmentuan), eta atzeritarren segmentuan izandako hazkundera ez da iritsi hura konpentsatzera (% 2,6). Baina, 2016an, krisia hasi zenetik lehenengo aldiz, aldaketa horien guztien datuak bi digitutatik beherakoak dira.

Azken batean, 2016an bere horretan jarraitzen du aurreko ekitaldietako desapalankamendu-joerak, baina erritmo lasaiagoan, bat etorri ekonomia-jardueraren berpiztearekin eta agenteen finantziario-beharrekin, bai eta segmentu batzuen suspertze progresiboarekin (automobila, etxebizitza) eta erakundeen eskaintzarekiko posizioaren hobetzearekin ere.

241. taula Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera

(m eurotan)

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	2.357.167	2.228.670	1.926.174	1.805.615	1.767.591	1.719.085
Kreditu-sistema	250.867	278.914	210.536	155.097	164.206	163.053
AP	89.687	114.275	87.140	101.313	89.972	88.471
Beste sektore egoiliar batzuk	1.782.554	1.604.934	1.448.244	1.380.101	1.327.062	1.276.140
Beste ez-egoiliar batzuk	234.059	231.546	180.254	169.104	186.351	191.151

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren helmuga Estatuan

Kreditu-saldoak modalitateen arabera aztertuz gero (merkataritzakoa, bermatua edo besteak), azken bi ekitaldietako joerei ia guztiz eusten zaiela ageri da. Berme erreala duten kredituak hamarkada honetako zenbatekorik baxuenean daude; haien jaitsiera

metatua ia % 40koa da 2009. urtearekiko, hau da, puntu gorenarekiko (1,11 bilioi eurotik 0,68 bilioi euroraino). Kategoria nagusia dira (% 53,2), baina 2016ko ehuneko hori baxuena da krisiaren aurretik. Eperako kredituekin kontrakoa gertatu da (% 30,2): punturik altuenean daude aldi horren barruan, nahiz eta haren magnitude-ordenan ez den aldaketa handirik izan denbora horretan. Merkataritza-kredituak ere kuotarik handiena lortu du 2008tik (% 3,5), jarduera ekonomikoa hobetzearekin batera; beste maileguen segmentuak, aldiz, daturik txikiena agertzen du 2011tik (% 13,1), baina krisiaren hasierakoa halako bi da, hala ere.

Merkataritza-kredituak gora egin du hirugarren urtez jarraian; kasu honetan, igoera % 5,6koa izan da, aurreko urteko igoeraren herena adinakoa. Beste kategoriek behera egin dute: berme errealeak % -4,6 eta eperako beste zordunenak % -0,2 egin dute behera (hiru urte segidan aldaketak oso txikiak izan dira), eta beste maileguenak, aldiz, % -10,5 (hirugarren urtez errepikatzen dira haien kopuruaren % 10en ererikoak). Hau da, kasu guztietan, amortizazio-eragiketei lotutako bolumenaren balio erlatiboa emakida berriak baino handiagoa izateak eragina izan du azken emaitzan, eta desapalankamendua agertu du bai globalki, bai segmentuka.

242. taula Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(m eurotan)


Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	1.782.554	1.604.934	1.448.244	1.380.101	1.327.062	1.276.140
Merkataritza-kreditua	49.937	40.523	34.570	36.606	42.640	45.048
Berme erreala duten zordunak	1.032.823	900.991	790.398	741.237	711.483	678.442
Eperako beste zordun batzuk	490.485	434.521	368.969	376.262	386.474	385.753
Beste mailegu batzuk	209.309	228.899	254.307	225.996	186.465	166.885

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Eperako beste mailegu batzuen kategoria (kontsumorako kreditua barne) % 27,4 jaitsi da 2011-2013 tartean, metatuan, eta gero % 4,5 igo da 2014-2015 aldian; 2016an, % 0,2 egin du atzera. Horrek erakusten du etxeen ekonomiak bizkortzen ari direla, bai eta finantzaketa behar duten kontsumo-eragiketena ere, baina haien erritmoa motela da.

2007tik 2013ra bitartean, "beste mailegu batzuk" % 150 inguru hazi zen, oro har. 2014tik 2016ra bitartean, aldiz, beheranzko aldi bat erregistratu da, % 34,4 metatuta; 2016an, zehatzago esanda, atzerakada % 10,6koa izan da. Merkataritza-kredituak bere zenbatekoaren % 62 galdu zuen 2007-2013 aldian eta 2014tik aurrera % 30,3ko suspertzea metatu du hiru urtez segidan gora eginez (nabarmenezkoa da 2015ean % 16,5 igo zela). 2016an % 5,6 egin du gora.

36. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (BSE)



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Ondoren, azterketa gordailu-entitateek emandako kredituetara mugatzen da, kredituan espezializatutako establezimenduek ematen duten frakzio txikia deskontatuta. Gordailuetan espezializatutako entitateek 1,22 bilioi eman dituzte kredituetan "beste sektore egoiliar batzuk" izeneko sektoreari (BSEei).

Kreditu-saldo biziari dagozkion 1,22 bilioi euro horietatik ekoizpen-jarduerena % 47,6 da (hamarkadako kopururik txikiena) eta etxebizitzak erosi eta birgaitzeari dagokiona % 42,9 (aldi horretako handiena). Kontsumo iraunkorreko ondasunenak (% 2) eta beste kredituenak (% 7,5) 2009tik hona izan diren kuotarik handienak dituzte.

243. taula Gordailu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	(m eurotan)					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	1.715.037	1.537.748	1.392.384	1.328.189	1.274.656	1.222.541
Ekoizpen-jarduerak	929.832	788.412	690.631	647.426	619.953	582.060
Etxebizitzak erosi eta birgaitzea	643.556	620.580	592.278	568.212	541.032	524.780
Kontsumo iraunkorreko ondasunak	29.798	26.038	19.869	21.615	20.576	24.464
Beste kreditu batzuk	111.851	102.718	89.606	90.936	93.095	91.236


Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Emaitza horretan zenbateko nominalek, kasu guztietan, behera egin dutela kontuan hartu behar da, eta, beraz, aipatutako portzentaje-berregokitzeak jaitziera handiagoa islatzen duela segmentu batzuen saldoan beste batzuenan baino. Halaber, kontuan hartu behar da batez besteko denborazko ibilbidea handiagoa izan dela etxeen

zorpetzearen kasuan ekoizpen-jardueren kasuan baino, eta horrek eragingo zuela azken hauek lehenago desapalankatzea eta multzo guztian pisu gutxiago izatea.

Horrela, bada, 2016an, kreditu hauen guztizkoan izandako % 4,1eko jaitsieraren aurrean, ekoizpen-xedekoeak % 6,1 egin dute atzera eta beste kredituen kategoriak % 2; kontsumo iraunkorreko ondasunak, aldiz, nabarmendu dira, % 18,9ko urtearteko aurrerapen batekin eta 2012tik galdutakoaren zati handi bat berreskuratuz. Ekoizpen-jarduerarako kredituek eta etxebizitzetarakoek 6 urteko jaitsierak metatu dituzte, aldi horretan % 40,3 eta % 19,8 pilatu baitituzte, hurrenez hurren.

37. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk




Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren bilakaera EAEn eta Nafarroan

2016an, aurreko urtean bezala, partikularrei eta enpresei gordailuak ematen dizkieten erakundeek EAEn esleitutako kreditu-saldo bizia % 1,8 handitu zen, Bizkaiaren goranzko joerari esker (% 5,9), Gipuzkoan eta Araban magnitude hori negatiboa izan baita (% -1,7 eta % -7,3) Nafarroan eta Estatuaren gainerakoan behera egin du, % -2,9 eta % -4,1, hurrenez hurren. Edonola ere, ilara-grafikoan ageri da nola 2013-2014ean hasitako inflexioak (urtearteko aldaketan mailan) jarraitzen duen aurreko urtearen bide berean, Araban izan ezik, han jaitsiera handitu egin baita.

38. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuentzako kredituaren bilakaera



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Administrazio publikoei emandako kredituari dagokionez, aldaketek beste bide bat hartu dute. Nafarroan (% 14,7), Araban (% 7,9) eta Bizkaian (% 4,2), gorakadak apalagoak izan dira aurreko urtean baino, eta gorakada horiei Gipuzkoa ere gehitu zaie (% 4), aurreko urtean atzera egin ondoren.

244. taula Gordailu-erakundeak. Kreditua agenteen eta eremuaren arabera

Eremua	Urtea	(m eurotan)		
		AP	BSE	GUZTIRA
Araba	2014	1.890	8.962	10.852
	2015	2.240	8.794	11.034
	2016	2.416	8.154	10.570
Bizkaia	2014	3.373	35.323	38.696
	2015	3.718	36.176	38.894
	2016	3.875	38.300	42.175
Gipuzkoa	2014	745	18.883	19.628
	2015	679	18.430	19.109
	2016	706	18.113	18.819
EAE	2014	6.008	63.168	69.176
	2015	6.637	63.400	70.037
	2016	6.997	64.567	71.564
Nafarroa	2014	719	16.678	17.397
	2015	1.007	15.631	16.638
	2016	1.155	15.172	16.327
Euskal Herria	2014	6.727	79.846	86.573
	2015	7.644	79.031	86.675
	2016	8.152	79.739	87.891
Espainia	2014	94.697	1.328.193	1.422.887
	2015	85.708	1.274.523	1.360.361
	2016	83.866	1.222.530	1.306.396

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Beste adierazle batzuk: hipotekak eratzea eta ibilgailuak matrikulatzea

Arestian aipatu diren ondasunen artean, etxebizitzak eta automobilak arreta berezia eskatzen dute, partikularrei ematen zaizkien kredituak aztertzean. Etxeetan ondasun horiek erosteko finantzaketari buruz hartzen diren erabakiak maiz lerrokatzen dira kredituaren bilakaerarekin eta egoera ekonomiko orokorrarekin. Segidan jasotzen dira etxebizitza-hipoteka berrien eratzeari buruzko zenbakiak¹ eta ibilgailuen matrikulazioari buruzkoak, Estatuari, EAERI zein Nafarroari dagozkienak.

2015ean igoera handiak izan ziren hipoteka-kopuruan eta haien zenbateko osoan bai EAEn bai Espainian (% 20tik % 30era bitartekoak kasu guztietan), eta 2016an joera horrek badirau, gorakadak txikiagoak badira ere (% 10etik % 20ra bitartekoak). Nafarroan, gorako inflexio-puntua lehenago hasita ere (2013an), gorakadaren bidea apalagoa izan da. 2016an, % 5koa izan da hipoteka-kopuruan eta % 3,6koa zenbateko osoan.

Estatuan eta EAEn eraturako hipoteken batez besteko zenbatekoak gora egiten jarraitzen du, baina aurreko urtean baino apalago; eta Nafarroan, bitartean, behera egin du bosgarren urtez segidan ratio horretan (% 1,3, 2016an) eta % 16ko erorikoa metatu da bost urtean.

2016an, EAEn egindako etxebizitza-hipoteka berriak kreditu horiek Estatuan duten guztizko balioaren % 6,6 dira, eta Nafarroakoak, berriz, % 1,3 dira. Kreditu horren batez besteko zenbatekoa % 19,6 handiagoa da EAEn Espainian baino, eta Nafarroan, aldiz, bigarren urtez segidan Estatuaren batez bestekoa baino txikiagoa da, % 7,6 beherago, zehatz esanda.

¹ Iturria: EIN. Estatu osoko jabetza-erregistroek emandako informazioa; hemen sartzen dira xede guztietarako hipoteka-kredituak, ez ohikoa bakarrik (etxebizitza hipotekatua erostea). Fluxu-estatistika bat da (urteko hipoteka-jarduera), Espainiako Bankuak jasotako kreditu-informazioa ez bezala; azken horrek, posizio zordunen stocka jasotzen du.

245. taula Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Espainia						
Hipoteka-kopurua	408.461	273.873	199.703	204.302	245.382	281.566
Zenbateko osoa (milioi €)	45.716	28.329	19.973	20.891	26.015	30.900
<i>Batez besteko zenbatekoa (milako €)</i>	<i>111,92</i>	<i>103,44</i>	<i>100,01</i>	<i>102,25</i>	<i>106,02</i>	<i>109,74</i>
EAE						
Hipoteka-kopurua	23.065	16.920	12.146	11.469	13.991	15.509
Zenbateko osoa (milioi €)	3.355	2.251	1.464	1.380	1.781	2.036
<i>Batez besteko zenbatekoa (milako €)</i>	<i>145,45</i>	<i>133,01</i>	<i>120,53</i>	<i>120,29</i>	<i>127,33</i>	<i>131,28</i>
Nafarroa						
Hipoteka-kopurua	5.520	4.095	3.170	3.710	3.804	3.993
Zenbateko osoa (milioi €)	666	459	345	384	391	405
<i>Batez besteko zenbatekoa (milako €)</i>	<i>120,62</i>	<i>112,00</i>	<i>108,88</i>	<i>103,37</i>	<i>102,91</i>	<i>101,43</i>

Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.

Bestalde, 2016an automobilen matrikulazioak handitu ziren, aurreko urteetan bezala, baina erritmoa apaldu egin da. Espainian, hazkundea geroago hasi zen, eta aurten % 10,9 handitu da, aurreko urtearen erdia gutxi gorabehera (aurreko urtean % 20,9koa izan zen), baina Nafarroan (% 1,2) eta EAEn (% 2,5) izandakoa baino gehiago, nahiz eta aurreko bi urteetan igoyerak antzekoak izan hiru eremuetan (% 16tik % 21era bitartekoak). 2016ko matrikulazio-kopurua salmenta-kopuru txikiena izan zen unearekin alderatuz gero (2012an izan zen hori), Nafarroan aurtengo matrikulazioa urte hartakoa baino % 53,7 handiagoa izan dela ikusten da, EAEn ordukoa baino % 50,5 handiagoa eta Espainian ordukoa baino ia % 64 handiagoa.

246. taula Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak.

Kontzeptua	<i>(Unitate kopurua)</i>				
	2012	2013	2014	2015	2016
Nafarroa	7.034	7.737	9.170	10.690	10.814
EAE	25.616	27.321	32.300	37.601	38.547
Espainia	699.589	722.689	855.308	1.034.232	1.147.007

Iturria: ANFAC.

Berankortasunaren bilakaera¹

Berankortasun-ratioa, zalantzazkotzat kalifikatutako kredituak osotasunean duen partaidetza da. Ratio hori % 13,8 arte igo zen 2009-2013 aldian eta gero behera etorri da 2016an % 9,2ra iritsi arte, Estatuan egoitza duten partikular eta enpresei dagokienez.

¹ Ez dugu autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik.

247. taula Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk.

<i>(m eurotan)</i>			
Urtea	Zalantzazko kr.	Kredituak*	(Zalantz./Kredituak) x 100
2011	135.505	1.715.748	7,9
2012	162.601	1.537.748	10,6
2013	191.748	1.392.384	13,8
2014	167.743	1.328.189	12,6
2015	129.979	1.274.652	10,2
2016	112.275	1.222.541	9,2

(*): Beste sektore egoiliar batzuen esku utzitako funtsak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Segmentuka ikusten da berankortasun-ratioa nabarmen handiagoa izan dela enpresen segmentuan (% 20,9ra iritsi zen 2013an), baina % 13,3ra jaitsi da 2016an. Joera hori bera ageri da familien segmentuari dagokion ratioa, maila apalagoetan bada ere: % 6,7tik % 5,4ra igaro da aldi horretan.

Ekoiaren ematen zaizkion kredituen kasuan, arazo horiek eraikuntzan eta higiezinetan eragin dute gehien (% 29,7 eta % 25,4, hurrenez hurren); kosta egiten ari zaie gainerako ekonomiaren bideari jarraitzea, eraikuntzari batez ere. Garraioan, adibidez, jaitsiera oso nabarmena izan da urte pare batean baino ez (berankortasun-punturik handiena 2014an lortu zen sektore horretan, beste guztietan baino urtebete geroago); 2016an ere baxuenen artekoa izan du (% 6,2). Ostalaritzan berankortasuna aguro okertu zen, 2013an puntu gorenera iritsi arte, baina orain nahiko bizkor ari da oneratzeko. Magnitude honetan antzeko kurbari jarraitu arren, industria eta lehen sektorea beti egon dira zerbitzuen sektorea baino beherago berankortasunari dagokionez, eta zerbitzuen sektorea eraikuntzaren sektorea baino beherago.

248. taula **Gordailu-erakundeak. Zalantzakoen edo berankortasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

Kontzeptua	<i>(m eurotan)</i>					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Zalantzak guztira	7,9	10,6	13,8	12,6	10,2	9,2
Ekoizpen-jarduerak	11,6	16,0	20,9	18,9	14,9	13,3
Nekazaritza eta arrantza	6,5	9,1	13,6	12,2	10,2	9,1
Industria	5,7	9,4	13,8	13,3	11,2	9,1
Eraikuntza	18,7	26,6	35,3	33,7	30,9	29,7
Zerbitzuak	12,0	16,3	21,0	18,9	14,4	13,0
<i>Higiezin-jarduerak</i>	<i>21,5</i>	<i>29,1</i>	<i>38,0</i>	<i>36,2</i>	<i>27,4</i>	<i>25,4</i>
<i>Finantzak (bankuz kanpokoak)</i>	<i>1,4</i>	<i>2,2</i>	<i>3,3</i>	<i>2,4</i>	<i>2,1</i>	<i>2,1</i>
<i>Merkataritza eta kon.</i>	<i>7,2</i>	<i>10,7</i>	<i>15,2</i>	<i>15,6</i>	<i>12,9</i>	<i>11,5</i>
<i>Garraioa eta bilteg.</i>	<i>4,3</i>	<i>8,6</i>	<i>13,7</i>	<i>17,3</i>	<i>13,1</i>	<i>6,2</i>
<i>Ostalaritza</i>	<i>8,2</i>	<i>16,8</i>	<i>23,2</i>	<i>20,4</i>	<i>17,2</i>	<i>14,6</i>
<i>Bestelako zerbitzuak</i>	<i>5,4</i>	<i>8,9</i>	<i>13,3</i>	<i>12,2</i>	<i>9,9</i>	<i>8,8</i>
Beste helburu batzuk/etxebizitza	3,4	4,7	6,7	6,6	5,5	5,4
Etxebizitzak erosi eta birgaitzea	2,8	3,8	5,8	5,7	4,7	4,6
Beste batzuk	6,8	9,8	13,5	12,2	10,0	10,0
Gainerakoak	6,6	10,4	12,2	6,3	16,6	7,0

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Etxebizitza-inbertsiorako kreditu-masak, bai eta familiei beste helburu batzuetarako emandakoak ere, enpresa-jarduerak baino ratio txikiagoak ditu, baina haren bilakaera arestian azaldutakoaren antzekoa da (puntu gorena 2013an izan zuen). Haren jaitsiera leunagoa izan da, eta, etxebizitzaz besteko helburuen kasuan, 2016an ez da jaitsi (%10ean gelditu da). Etxeetarako kredituek %5,4ko berankortasuna izan dute, zalantzakoen guztizko tasa %9,2 izanik; enpresen sektorean %13,3koa izan da, eta %7koa, bestelako helmuga duten kredituen kasuan.

Kredituak helmugan arabera nola banatzen diren alderatzen bada zalantzak kredituarekin, desberdintasun nagusi bat nabari da: familien etxebizitza-erosketak garrantzi handiagoa du lehenengoan bigarrenen baino (gordailu-erakundeek ziurtzat jotzen dute haren itzulketa); eta higiezin-jarduerak, aldiz, kontrako zentzuan nabarmentzen dira.

249. taula Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera helburuen arabera.
Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<i>(m eurotan)</i>						
Zalantzazkoak guztira	135.505	162.601	191.748	167.473	129.980	112.275
Ekoizpen-jarduerak	108.096	126.032	143.511	122.314	92.164	77.335
Nekazaritza eta arrantza	1.395	1.830	2.477	2.145	1.824	1.706
Industria	7.659	11.628	14.846	14.085	11.773	9.407
Eraikuntza	17.814	19.521	20.315	15.961	12.947	11.304
Zerbitzuak	81.228	93.055	105.874	90.120	65.619	54.918
<i>Higiezin-jarduerak</i>	<i>63.223</i>	<i>64.202</i>	<i>66.265</i>	<i>53.732</i>	<i>36.665</i>	<i>30.275</i>
<i>Finantzak (bankuz kanpokoak)</i>	<i>1.576</i>	<i>2.005</i>	<i>2.871</i>	<i>2.385</i>	<i>2.067</i>	<i>1.690</i>
<i>Merkataritza eta kon.</i>	<i>5.461</i>	<i>7.840</i>	<i>10.438</i>	<i>10.432</i>	<i>8.659</i>	<i>7.768</i>
<i>Garraioa eta bilteg.</i>	<i>1.730</i>	<i>3.431</i>	<i>4.761</i>	<i>4.968</i>	<i>3.635</i>	<i>1.690</i>
<i>Ostalaritza</i>	<i>2.843</i>	<i>5.608</i>	<i>7.094</i>	<i>5.686</i>	<i>4.612</i>	<i>3.881</i>
<i>Bestelako zerbitzuak</i>	<i>6.394</i>	<i>9.969</i>	<i>14.534</i>	<i>12.883</i>	<i>9.981</i>	<i>9.026</i>
Beste helburu batzuk/etxebizitza	26.200	34.544	46.530	44.171	34.736	33.652
Etxebizitzak erosi eta birgaitzea	17.799	23.807	34.080	32.308	25.204	23.930
Beste batzuk	8.401	10.737	12.450	11.863	9.532	9.722
Gainerakoak	1.209	2.025	1.707	990	3.080	1.288

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

3.2 GORDAILUEN BILAKAERA

Estatuko kreditu-erakundeetako gordailuak

Kreditu-erakundeen gordailuen saldoa 1,886 milioi eurokoa izan da 2016an, eta, beraz, % -3,8ko urtearteko jaitsiera izan da. Magnitude horrek behera egin du aurten ere, eta, denbora-tarte handiago bat kontuan hartuta, azken bost urtean 421 mila milioi euro galdu dira gordailuetan. Faktore askok eragin dute horretan: aurrezki-modu horrek erakargarritasuna galdu izana (ordainsaria oso txikia da), aurrezkiak erabili izana ordainketei aurre ekiteko, edo, aurrezteko gaitasunik ez izatea, besterik gabe.

Gordailu guztien artetik, bi herenak (% 66,6) partikularrei eta enpresei dagozkie (baliorik handiena, krisia hasi zenetik); % 15,4, kreditu-sistemari (baliorik txikiena 2010etik hona); % 15,1, ez-egoiliarrei, eta % 2,9, administrazio publikoei (txikiena, krisiaren hasieratik hona).

Gordailuen saldo osoaren hiru osagaiek berdintsu jokatu dute, bai kreditu-sistemak (% -4,8), bai beste sektore egoiliar batzuek (% -1,5) zein beste ez-egoiliarrek (% -5,9). Jaitsierarik handiena administrazio publikoen gordailuetan gertatu da, % 29,4 egin baitu behera 2016an. Kreditu-sistema puntu gorenera iritsi zen 2012an, eta handik hona ia erdiraino jaitsi dira haren sistema-arteko gordailuak.

250. taula Kreditu-erakundeak. Gordailuak kreditu-erakundeetan, agenteen arabera

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	2.307.138	2.297.865	2.065.401	1.997.363	1.940.673	1.866.552
• Kreditu-sistema	372.668	572.928	381.293	311.533	302.834	288.158
• AP	69.717	69.183	63.485	76.150	77.063	54.371
• Beste sektore egoiliar batzuk	1.373.079	1.316.735	1.314.129	1.289.280	1.261.715	1.242.580
• Beste ez-egoiliar batzuk	491.675	339.019	306.493	320.400	299.061	281.444

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Partikularren eta enpresen sektore nagusian (BSE), gordailuen saldoaren gainbehera etengabea izan da, baina geldoa: sei urtez segidan behera egin du, baina % 9,5 baino ez du metatu (bat dator aurrezteko zailtasunekin eta produktu horren erakargarritasun eskasarekin). Ez-egoiliarren segmentuko gordailuen kasuan, 2013tik 2016ra bitarteko balantzea % 8,2ko erorikoa izan da hiru ekitaldietan, eta % 2,1ekoa 2016an. Administrazio publikoei esleitutako gordailuek atera egin zuten 2010-2013 hirurtekoan % 19,7, eta % 14,4 hurrengo hirurtekoan (2013-2016), baina ez modu linealean, gorabehera handiekin baizik.

251. taula Gordailu-erakundeak. Gordailu motak. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	1.170.396	1.147.690	1.155.977	1.138.434	1.137.827	1.136.795
• Agerikoak	269.711	265.027	281.967	328.852	384.450	454.221
• Aurrezkikoak	202.949	199.073	206.485	221.934	254.227	288.186
• Eperakoak	697.736	683.589	667.525	587.648	499.150	394.388

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Azterketa ekonomiaren erdiko segmentuan bakarrik zentratzen bada, hau da, etxeen eta erakunde pribatu ez-finantzarioetan, eta gordailu-erakundeetan (kredituan espezializatutako azpisektore txikia alde batera utzita), gordailu horiek 1,14 bilioi euro inguruan daudela ikusten da 2016an, 2014ko zenbateko berbera, alegia, eta 2008koa baino % 1,5 gutxiago baino ez.

Gordailu-baldintzen edo moten arabera, 2016an jarraitasuna izan dute azken ekitaldietako joerek. Berehala erabiltzeko moduko aurrezkiek –ageriko gordailuek– gora egiten jarraitzen dute modu iraunkorrean, eta indar handiagoz, epe finkoko gordailuen kaltetan. Lehenengo modalitateak % 71,4 egin du gora 4 urtean eta bigarrenak % 47ko metatu batekin egin du behera sei urtez segidan. Hori interes-tasa baxuekin eta horiek eperako gordailuek eskaintako diferentzialari garrantzia kentzearekin egokitzen da. 2008an horiek ziren nagusi: ageriko gordailuen bolumena halako hiru metatu zuten. 2016an, aldiz, ageriko gordailuek eperakoak gainditu dituzte: agerikoek %40ko kuota

izan dute eta eperakoek % 34,7. Eta "aurrezki-gordailuak" izenekoek % 25,4 dute; aurrekoak baino pisu gutxiago dute, baina ehuneko hori krisi ekonomikoa hasi zenetik izan duen handiena da.

Aurrezpenaren beste adierazle batzuk

Negozioen eta etheen errenta-mailak eta aurrezki-gaitasunak aurrezpen-posizioak definitzen dituzte neurri handi batean. Ildo horretan, Estatistikako Institutu Nazionalak kontabilitate nazionalari buruz emandako datuek adierazten dutenez, familien eta enpresen diru-sarrerek behera egin dute krisialdian, eta halaxe egin dute baita haien gastuek eta inbertsioek ere. Hortara, aurreko urteetako planteamendua orokorrean zuhurra izanik ere, aurrezkien zenbatekoak behera egin du.

Horrela, bada, 2009tik 2013ra bitartean familien errenta gordin erabilgarriak % 5,7ko jaitsiera metatua izan du; hurrengo hiru urtekoan, aldiz, % 5eko susperraldia izan du, eta 2016an %, 1,6ko hobekuntza.

Etxeek errenta horretan oinarri hartuz egin duten aurrezki gordina, bai eta haren emaitza den tasa ere, gorabeheratsuak izan dira azken urteetan, eta haietan faktore kontrajarriek eragin dute (errenta gutxiago, batetik, baina baita, bestetik, aldi batzuetan aurrezle-profila hartzeko behar handiagoa ere, ekonomia-egoeraren beraren ziurgabetasuna dela eta.) Hortaz, azken bost urtekoan ratio hori % 7,4tik % 9,1era bitartean mugitu da, baina 2016an erlaxatu eta % 6,6raino jaitsi da, errenta gordinak hobeto jokatu baitu (gora egin du) eta aurrezkiak okerrago jardun baitu.

Hau da, aurrezki-tasa jaitsi egin da, errenta handiagoa eta aurrezki txikiagoa izan baitira; jokaera hori bat dator kontsumoaren susperraldiarekin eta etxerako erosketa handiak egiteko erabakiekin, eta horiei ekonomian zein enpleguan itxaropenak hobetzen ari direla gehitu behar zaie. Honek guztiak zuhurtzia eta aurrezte-asmo gutxiagoz aritzea eragiten du.

252. taula Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina

(m eurotan)

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Etxeen unitateak						
• Errenta gordin erabilgarria	819.649	788.983	781.049	787.429	807.243	820.050
• Aurrezki gordina	74.674	58.768	66.214	64.635	64.428	54.072
• Aurrezki-tasa (%)	9,1	7,4	8,5	8,2	8,0	6,6
Soz. ez-finantzarioak						
• BEG	573.008	557.406	546.035	550.911	575.653	598.806
• Aurrezki gordina	137.857	146.373	166.207	161.879	181.101	191.834
• Aurrezki-tasa (%)	24,1	26,3	30,4	29,4	31,5	32,0

Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.


Jarduera ekonomikoa suspertzeak eta, beraz, enpresek inbertitzeko duten gaitasuna handitzeak BEG-aren bilakaeran dute islada argia, magnitude horrek behera egin baitzuen 2014ra arte, eta hobetzen hasi baita 2015 eta 2016an (2011n zuen mailaraino oneratu da). Ildo horretan, eta 2010-2014 artean halako urtearteko aldakortasun bat izanik ere, enpresen aurrezki gordina kopuru berdintsuetan kokatu zen, eta hurrengo biurtean aurrerakada metatua % 18,5ekoa izan da (% 11,9 2015ean eta % 5,9 2016an).

Hori guztia kontuan hartuta, aurrezki-tasa gora eta behera ibili da aldi horretan, baina goranzko joerarekin (familiena baino hiruzpalau handiagoa izan da). Aurreko urtean gertatu zen bezala, 2016an aurrerakada txiki bat izan du eta % 32raino iritsi da. Hobetzeko espektatiba sendotu eta instalatutako gaitasuna erabili da, eta horren emaitza bilakaera zuhur hori da, finantzatu beharreko inbertsio-eragiketak justifikatzen baititu eta aurrezki-posizioak desegiten, diruzaintzako finantzaketa-lerro gisa lehiakorrak izanik ere.

Gordailuen bilakaera¹ EAEn eta Nafarroan

Gordailuen saldoa % 2,3 handiagoa izan da EAEn 2016an eta, hartara, 2011n izan zen mailaren antzekoa berreskuratu du. Bigarren urtez jokaera positiboa izan du; Estatuan, aldiz, atzera egin du azken bi urtean (% -1,5 2016an). EAEn eta Nafarroan biak batera hartuta izandako gordailuen pisua Estatu osoaren % 7,7 izan da, BPGan % 7,8 eta populazioan % 6 izanik ere.

39. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

¹ Kontuan hartu behar da ez dagoela aurrezkiaren neurri osorik; izan ere, pasibo-erabakiak, gordailu-figugetarantz orientatzeaz gain, baliteke inbertsio-xedeetara lekualdatzea, esaterako, funtsetara, balioetara edo higiezinaren jarduera bezalako beste batzuetara.

EAE, gordailuen saldoaren % 55 baino gehiago Bizkaiari dagokio, % 30,7 Gipuzkoari eta % 13,3 Arabari. Administrazioen atalean –txikiagoa–, Bizkaiko pisua % 69raino iristen da, Arabakoa % 17,9 da eta Gipuzkoakoa, % 13,1.

Nafarroan erregistratutako gordailuen pisua Euskal Herrikoaren guztizkoaren % 16,4 da, administrazioen eremuan; BSEen eremuan % 17,6 da eta guztizko gordailuenean, % 17,5.

Gordailuen bilakaerak jokaera positiboa izan du 2016an Euskal Herrian (% 2,3). 2016an, EAEko hiru lurraldeetan aldakuntza negatibo batetik positibo batera igaro da, eta 2016an gorakada horiek apaldu dira. Urtearteko hazkunde hauek izan dituzte: Bizkaia (% 4,7), Araba (% 2,6) eta Gipuzkoa (% 1,3). Nafarroan, 2016an gertatu da gora egiteko inflexioa. Izan ere, 2016ko aldaketek Nafarroa aurretik jartzen dute, % 3,9ko gorakada batekin; atzetik, Bizkaia doa, % 2,2ko igoerarekin; gero, Araba, % 1,7rekin eta Gipuzkoa % 1,6rekin; Espainiako datua, aldiz, negatiboa da: % -1,5.

Administrazio publikoen gordailuen atalean, aldaketak askoz ere handiagoak izan daitezke, haietan mugimendu puntualek eragin argia dute eta. 2016an, atal hau % 59raino handitu zen Araban eta % 34,7 Nafarroan; Gipuzkoan % -27,4 egin du atzera, aurreko urtean % 77,6 igo ondoren; Espainian ere atzera egin du (% -29,8), eta Bizkaian (% -2,7) eta EAE (% -0,2) ez da ia ezer ere aldatu.

253. taula Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta APen gordailuak.

(m eurotan)


Eremua	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
Araba	2014	331	9.381	9.712
	2015	326	9.623	9.949
	2016	519	9.600	10.119
Bizkaia	2014	2.197	37.800	39.997
	2015	2.059	39.586	41.645
	2016	2.004	40.554	42.558
Gipuzkoa	2014	294	22.267	22.561
	2015	522	22.561	23.083
	2016	379	23.062	23.441
EAE	2014	2.822	69.448	72.270
	2015	2.907	71.770	74.677
	2016	2.902	73.216	76.118
Nafarroa	2014	530	15.257	15.787
	2015	424	15.144	15.568
	2016	571	15.602	16.173
Euskal Herria	2014	3.352	84.705	88.057
	2015	3.331	86.914	90.245
	2016	3.473	88.818	92.291
Espainia	2014	73.448	1.139.756	1.213.204
	2015	76.097	1.135.720	1.211.817
	2016	53.412	1.140.814	1.194.227

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Interes-, kostu- eta ordainsari-tasen bilakaera

Europako Banku Zentralak erreferentziazko interes-tasa % 0,0an ezarri zuen 2016ko martxoan, aurreko urte eta erdian % 0,05ean eduki ondoren. Ez dirudi gaurko egoera (interes nuluko tasa) epe motzean aldatuko denik, baina kontuan hartu behar da AEBko Erreserba Federalak dagoeneko bi mugimendu egin dituela tasak berreskuratzeko.

40. grafikoa Berriz finantzatzeko interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentra



Iturria: Europako Banku Zentra.

Aipaturiko erreferentziarekiko koherentzian, interes-tasa guztiak beherantz egokitzen jarraitu dute 2016an, inolako salbuespenik gabe. Egokitzapenak modu desberdinean aplikatu dira sektoreen arabera (familiak edo enpresak); baldintzak aiseago egokitu dira enpresetan, kredituen prezioaren murrizketa handiagoa eta gordailuen ordainsariaren murrizketa txikiagoa izan baitira sektore hartan.

Edonola ere, gordailuen ordainketa guztien ehunekoak % 0ko erreferentziazko interes-tasara asko hurbildu dira 2016an. Aitzitik, kontsumorako maileguen prezioa askoz ere geldiago murriztu da erreferentziazko interes-tasak baino, bai eta familiei etxebizitzetarako edo beste helburu batzuetarako ematen zaizkien kredituekin alderatuta ere. Bi urte baino gehiagorako familia-gordailuek eta ageriko familia-gordailuek pizgarri gutxiago dituzte bi mutur horien arteko epea dutenek baino.

254. taula Kreditu-erakundeak. Etxekoen unitateetarako⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasak (TEDR)

	2013	2014	2015	2016
	(%)			
ETXEKOEN UNITATEETARAKO MAILEGU ETA KREDITUAK ⁽²⁾				
– Etxebizitza ⁽¹⁾	2,99	2,56	1,98	1,91
– Kontsumoa ⁽¹⁾⁽³⁾	8,90	7,74	7,56	7,12
– Beste xede batzuk ⁽¹⁾	5,58	4,64	3,77	3,62
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGU ETA KREDITUAK				
– Zorpekoak	3,38	3,14	2,34	1,66
– 250.000 €-rainoko kredituak ⁽¹⁾	5,12	4,18	3,26	2,64
– 250.000 eta 1.000.000 € arteko kredituak ⁽¹⁾	3,88	2,79	2,05	1,79
– 1.000.000 €-tik gorako kredituak ⁽¹⁾	2,73	1,99	1,96	1,60
ETXEKOEN UNITATEEN GORDAILUAK ⁽²⁾				
– Agerikoak	0,22	0,17	0,12	0,06
– Eperakoak ⁽¹⁾	1,50	0,66	0,39	0,11
• gehienez urte 1erakoak	1,23	0,59	0,35	0,10
• 2 urtetik gorakoak	1,85	0,83	0,24	0,07
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK				
– Agerikoak	0,35	0,31	0,24	0,15
– Eperakoak ⁽¹⁾	1,30	0,51	0,31	0,13
• gehienez urte 1erakoak	1,30	0,51	0,31	0,11
• 2 urtetik gorakoak	1,37	0,50	0,66	0,48

(1): Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.

(2): Etxeak eta etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

(3): 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere sartzen da.

TEDR tasa: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, UTB komisiorik gabe.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

4. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK

2016an, Inbertsio Kolektiboko Erakundeek (aurrerantzean, IKE) 272.034 milioi euroko ondarea lortu dute, eta urtetik urterako hazkundera % 5,4koa izan da, aurreko ekitaldian jada erregistratutako faktore batzuek baldintzatuta: burtsa-merkatuen susperraldiak, finantza-hegakortasun txikiagoak, eta errentagarritasunaren hobekuntzak, beste helmuga batzuek, hala nola aurrezki-gordailuek, ordainsari txikiagoa eskaintzen duten bitartean.

Nolanahi ere, Erakundeen kopuruak behera egiten jarraitu du (% -2,8), 2015ean erregistratutakoak baino proportzio handiagoan gainera (% -1), eta portaera hori bera izan du azpisektoreko kategoria nagusiak, Higigarrietako Inbertsio Funtsak (HIF): zazpi urtean zehar murriztu da haren kopurua, aurten joera hori geldotu egin bada ere (% -0,7). Halaber, murrizketa izan da SICAVen (Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateak) kopuruan, % 3,9 jaitsi baita, zenbait ekitalditan jarraian gora egin ostean.

255. taula Finantza-arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua

Kontzeptua	Ondarea (M euro)		Erakunde-kopurua	
	2015	2016	2015	2016
Inbertsio Funtsak (HIF)	222.145	237.862	1.760	1.748
Inbertsio-sozietateak (SICAV)	33.532	32.092	3.372	3.239
Inbertsio libreko IKE (ILIKE)	1.708	1.793	37	41
Inbertsio libreko IKEen IKE	338	287	11	7
Guztira	257.723	272.034	5.180	5.035

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

HIFek % 87,4ko ekarpena egiten diote IKEen ondareari; SICAVek, % 11,8; ILIKEek hondarbalioa dute (% 0,6), eta ILIKEIKEek (% 0,1), balio marjinala. Gainera, HIFak beren posizioa sendotzen ari dira, lau ekitaldi jarraitutan lau ehuneko-puntu baino gehiago hazi baita. IKEen kopuruaren banaketari dagokionez, heren bat HIF dira (% 34,7), eta bi heren, SICAV (% 64,3). Hala, 2016an, aurreko ekitaldietan bezala, HIFen batez besteko ondarea (136,1 milioi euro) SICAVena baino (9,9 milioi) handiagoa izan da. Amaitzeko, IKEen batez besteko ondarea handitu egin da (% 8,6) 2016an, eta 2012tik % 90eko hazkunde metatua izan du.

HIFen eta SICAVen ondare-banaketa

2016an HIFen ondarean erregistratutako hazkundera (% 7,1) inbertsio-zorroan ere gertatu da (% 7), eta haren ondarearen % 92,1 dagokio; hori diruzaintzari egindako esleipenarekin osatzen da (% 7,7). Epigrafe hori handitu egin da aurreko urtearekiko (% 7,7).

10,8). Inbertsio-posizioek gorakada handiagoa izan dute kanpoko zorroan (% 11,2), barnekoan baino (% 2,1); horrela, banaketak, ehunekotan, kanpoko zorroaren garrantzia sendotzen du (% 56,3 eta % 54,2, 2016an eta 2015ean), barnekoarekiko (% 43,7 eta % 45,8, 2016an eta 2015ean).

Inbertsio-posizioen artean, zorraren balio adierazgarriak nabarmentzen dira, bi zorroetan hazi baitira (% 8,6 eta % 16, barneko zorroan eta kanpokoan), eta elkarrekin HIFen inbertsio osoaren posizioen % 54,7 osatzen dute; 2016an, 12.785 milioi euroko gehikuntza garbia izan dute. Bigarren lekuan, beste IKEetako posizioak daude, elkarrekin aipatutako inbertsio horren laurdena baitagokie, eta portaera partekatua dute, bi zorroetan areagotu baitira (% 9,7 eta % 7,1, barneko zorroan eta kanpokoan). Nolanahi ere, hori dezente garrantzitsuagoa da kanpoko zorroan, 46.435 milioi eurokoa baita, eta bigarren inbertsio-helmuga, eta ez da hain esanguratsua barneko zorroan, 6.249 milioi euro izan baitira 2016an.

Hirugarren inbertsio-lerroa ondare-tresnak dira: atzera egin dute barneko zorroan (% -2,6), eta gorakada izan dute kanpokoan (% 7,4); elkarrekin, HIFen inbertsio-posizioen % 13 osatzen dute, eta haien ekarpenean atzera egin da pixka bat (% 13,4 2015ean). Halaber, inbertsio-tresna horiek garrantzitsuagoak dira kanpoko segmentuan (20.035 milioi euro), barnekoan (8.530 milioi euro) baino. Azkenik, kreditu-erakundeetako gordailuek inbertsio guztiaren % 7,9 osatzen dute, eta haren urtetik urterako ekarpenean beherakada txiki bat izan da (-2,2 ehuneko-puntu), barneko zorroan egindako doikuntzagatik (% -16,3), posizio horiek marjinalak baitira kanpoko zorroan (81 milioi euro).

Inbertsio-sozietateetan, atzerakada izan da ondarearen bilakaeran (% -4,3), eta portaera hori bereziki inbertsio-zorrora igaro da (% -6,4); inpaktu handiagoa eragin du barneko posizioetan (% -18,2), kanpokoetan (% -0,9) baino. Azpimarratzekoa da inbertitutako zenbatekoaren hiru laurden kanpoko zorroari dagokiola (% 72,6), eta sendotu egin da aurreko urtearekiko (% 68,6).

Inbertsio-figuren artean, beste IKE batzuetako posizioak nabarmentzen dira: handitu egin dira kanpoko zorroan (% 6,2) nahiz barnekoan (% 4,7), eta inbertsioaren % 39,6 osatzen dute. Bigarren helmuga ondare-tresnak dira: haien portaera atzeranzkoa izan da kanpoko zorroan (% -8) nahiz barnekoan (% -7,1), eta % 33,6ko ekarpena egiten diote inbertsioari. Eta hirugarren helmuga zorraren balio adierazgarriak dira: beherakada izan dute kanpoko zorroan (% -4,7), eta, batez ere, barnekoan (% -34,6); hala, garrantzia galdu dute inbertsio-sozietateek egindako inbertsio osoan (% 27,1ekoa eta % 23,7koa 2015ean eta 2016an, hurrenez hurren).

256. taula Higigarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtzen ondare-banaketa, balio eraginkorraren arabera

(M eurotan)

Kontzeptua	Inbertsio-funtsak (*)			Inbertsio-sozietateak		
	2015	2016	%Δ 16/15	2015	2016	%Δ 16/15
Ondarea	222.145	237.862	7,1	33.532	32.092	-4,3
Finantza-inbertsioen zorroa	204.797	219.141	7,0	30.035	28.128	-6,4
Barneko zorroa	93.834	95.799	2,1	9.424	7.707	-18,2
Zorraren balio adierazgarriak	58.451	63.471	8,6	3.663	2.395	-34,6
Ondare-tresnak	8.757	8.530	-2,6	3.090	2.972	-7,1
Inbertsio Kolektiboko Erakundeak	5.698	6.249	9,7	1.418	1.485	4,7
Kreditu-erakundeetako gordailuak	20.483	17.134	-16,3	1.226	925	-24,5
Eratorkiak	434	406	-6,5	-7	-5	-26,4
Beste batzuk	10	8	-15,1	33	34	4,2
Kanpoko zorroa	110.957	123.336	11,2	20.608	20.413	-0,9
Zorraren balio adierazgarriak	48.543	56.308	16,0	4.472	4.263	-4,7
Ondare-tresnak	18.654	20.035	7,4	7.026	6.466	-8,0
Inbertsio Kolektiboko Erakundeak	43.366	46.435	7,1	9.090	9.653	6,2
Kreditu-erakundeetako gordailuak	104	81	-21,9	6	7	12,4
Eratorkiak	286	474	65,8	8	16	95,9
Beste batzuk	5	2	-54,3	5	8	68,8
Zalantzasako inbertsioa, inbertsio berankorra edo auzipeko inbertsioa	7	6	-12,5	3	8	164,7
Diruzaintza	16.594	18.393	10,8	3.211	3.792	18,1
Garbia zordunak/hartzekodunak	753	328	-56,4	286	172	-39,8

(*): Hortik kanpo daude inbertsio libreko IKEak (ILF eta ILIKEF).

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

HIFen tipologia

Hurrengo taulan, HIFen ikuspegia laburbildu da, kontuan hartuta inbertsioaren helmuga, eta hamar HIF mota eta beste funts batzuk amaierako azpitaldea adierazi dira. 2016ko egoeran ez da aldaketa garrantzitsurik ikusten 2015. urtearekiko; hala, errenta finkoko funtsek (% 17), nazioarteko errenta aldakorrak (% 11,1), funts globalek (% 11,2) eta kudeaketa pasiboko funtsek (%12,2), funtsen bi heren baino gehiagoko ekarpena egiten dutenek (% 62,5), beren posizioa sendotu dute 2015. urtearekiko (% 61,9).

Partaideetan, nabarmentzen direnak errenta finkoko funtsak (% 28,4), errenta finko mistokoak (% 12,6) eta nazioarteko errenta aldakorra (% 14,2) dira, elkarrekin partaideen erdiak baino gehiago baitira (% 55,2), posizioak galdu badituzte ere (% 57). Gorakada nabarmena izan da funts hauen posizioetan: errenta aldakorraren bermea (% 6,7), globalak (% 8) eta kudeaketa pasibokoak (% 9); eta horiek konpentsatu egin dute beste hauekin lotutako partaideen ehunekoan izandako atzerakada: errenta finko mistoa (% 12,6), aldakor mistoa (% 5,4), euroa (% 4,8) eta errenta finkoaren bermea (% 3,7).

Ondare-banaketak errenta finkoko funtsak (% 31,2) sendotzen ditu, bai eta errenta aldakorraren bermeak (% 6,5), funts globalak (% 8,8) eta kudeaketa pasibokoak (% 9,9) ere, gainerako motek atzera egin baitute ekarpen horretan; batez ere, errenta finko mistoak (% 16,8, -3,4 ehuneko-puntu) eta errenta aldakor mistoak (% 6,9, -2,9 ehuneko-puntu).

257. taula Higarrietako Inbertsio Funtzen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera (abenduaren 31)

Kontzeptua	% Funtz-kopurua		% Partaide-kopurua		% Ondarea	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Errenta finkoa	17,7	17,0	28,7	28,4	29,5	31,2
Errenta finko mistoa	7,3	8,2	14,7	12,6	20,2	16,8
Errenta aldakor mistoa	7,9	9,3	8,0	5,4	9,7	6,9
Euro errenta aldakorra	6,0	6,2	5,5	4,8	4,1	3,6
Nazioarteko errenta aldakorra	11,1	11,1	13,6	14,2	7,7	7,4
Errenta finkoaren bermea	10,3	6,8	5,5	3,7	5,6	3,6
Errenta aldakorraren bermea	11,4	11,0	5,4	6,7	4,5	6,5
Funts globalak	9,9	11,2	5,0	8,0	5,7	8,8
Kudeaketa pasiboko funtsak	11,8	12,2	7,2	9,0	8,0	9,9
Itzulkin absolutuko funtsak	5,4	5,9	6,2	6,8	5,1	5,1
Beste funts batzuk	1,3	1,2	0,2	0,2	0,04	0,0109
HIF guztira (funtz- eta partaide-kopurua, milioika euro ondarea)	1.804	1.805	7.682.947	8.253.611	222.145	237.862

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

5. BURTSA-MERKATUA

Ekitaldi konplexua izan da 2016koa; hori dela eta, nolabaiteko ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna nagusitu dira burtsa-merkatuetan. Urtea definitzen duten ezaugarrien artean, hauek nabarmentzen dira: banku zentralak diru-politikan izan dituzten jokaera desberdinak –goranzko ondorioak izan ditu epe luzeko tipoetan–, gertaera politikoak (Brexit, Trump), eta aurreikusitakoak baino ekonomia-hazkunde txikiagoko itxaropenak sendotzea. Horrela, nazioarteko zenbait erakundek (Nazioarteko Diru Funtsak, esaterako) beherantz zuzendu dute munduko hazkundearen datua, eta, beste alde batetik, Munduko Merkataritza Antolakundeak urte arteko munduko merkatuaren hazkunde txikiagoa berretsi du.

Merkatuaren jokaeran, errekuperazioaren jarraitutasunari buruzko ziurgabetasun hori islatu da, Europako burtsa nagusietan izandako emaitzen arteko aldeetan ikusten den bezala. Izan ere, merkatuetan gorabeherak izan dira: alde batetik, Londresen (% 14,4), Parisen (% 4,9) eta Frankfurtan (% 6,9) errekuperazioa; beste alde batetik, Madrilgo Ibex-35en jaitsiera (-% 2); eta, azkenik, Eurostoxxen egonkortasuna (% 0,7). Europatik kanpo, AEBko merkatuetan igoera garrantzitsuak izan dira Dow Jones (% 13,4), S&P 500 (% 9,5) eta Nasdaq 100 (% 5,9) indizeetan, eta igoera horiek datu jakin batzuen (sektore-salmentak, enplegu-adierazleak edo enpresen etekinak, besteak beste) eragin positiboan oinarritu dira batez ere, eta ez hainbeste gobernuarekin lotutako faktoreek izandako garrantzian (Trumpen eragina alde batera utzita).

258. taula Burtsa-indize nagusien bilakaera

Urtea	Ibex-35 (Madril)	CAC-40 (Paris)	Dax-Xetra (Frankfurt)	FT-SE 100 (Londres)	Dow Jones (New York)	Nikkei (Tokio)	Eurostoxx 50	Nasdaq Composite
2014	10.279,5	4.272,7	9.805,5	6.566,1	17.823,1	17.450,8	3.146,4	4.736,1
2015	9.544,2	4.637,1	10.743,0	6.242,3	17.425,0	19.033,7	3.267,5	5.007,4
2016	9.352,1	4.862,3	11.481,1	7.142,8	19.764,1	19.114,4	3.290,5	5.383,1
<i>Urte arteko aldakuntza (%)</i>								
2014	3,7	-0,5	2,7	-2,7	7,5	7,1	1,2	13,4
2015	-7,2	8,5	9,6	-4,9	-2,2	9,1	3,8	5,7
2016	-2,0	4,9	6,9	14,4	13,4	0,4	0,7	7,5

Oharra: Abenduaren 31n.

Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

10.000 puntuko zorua galtzeaz gain, Espainiako burtsa-merkatuen ezaugarri nagusia negoziazio-bolumen baxua izan da, hala errenta finkoaren segmentuan, nola errenta aldakorraren segmentuan; bilakaera hori goian aipatutako ziurgabetasun-faktore globalek eragindakoa izan da. Espainiako burtsak 652.907 milioi euro negoziatu ditu 2016an, eta kopuru hori 2015ean negoziatutakoa baino % 32 txikiagoa da. Bilakaera hori bat dator burtsa nagusietan izandakoarekin, eta inbertsore handien zorroen eta kapital-fluxuen dinamiken arteko lotura-maila handia erakusten du.

5.1 IKUSPEGI OROKORRA

Lehen mailako edo jaulkipeneko merkatuak

Lehen mailako edo jaulkipeneko merkatuen 2016ko jarduerak aurreko ekitaldiko ezaugarriei eutsi die eta geldotasun-profil bat indartu du, jaulkipen-saldo garbia negatiboa baita (-28.949 milioi euro); kopuru hori ez da aurreko bi urteetan erregistratutakoa bezain txikia, baina eragileen jaulkipen-dinamismo eskasa erakusten du. Hala ere, kontuan hartutako bi eragile-segmentu handien jokaera desberdina da zertxobait. Horrela, akzioak ez diren baloreei erreparatuz gero, ekitaldiko jaulkipenaren saldo garbia -34.147 milioi eurokoa izan da, eta urte arteko aldakuntza, berriz, positiboa (+15.508 milioi euro). Emaitza horretan amortizazio-operazioak nagusitu dira posizio horien zabalkuntzen gainerik.

259. taula Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Inbertsio-funtsetako partizipazioak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak

(M euro)

Kontzeptua	2014	2015	2016	Urte arteko aldakuntza	
				Aldak. 15/14	Aldak. 16/15
Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Balio nominalak	-102.846	-49.555	-34.047	53.291	15.508
- Finantza-erakundeak	-150.610	-97.706	-63.933	52.904	33.773
• Finantza-erakunde monetarioak	-96.473	-31.157	-21.557	65.316	9.600
• Bestelako finantza-bitartekariak	-54.137	-66.549	-42.377	-12.412	24.172
- Administrazio publikoak	47.088	43.383	25.299	-3.705	-18.084
• Administrazio zentrala	49.627	50.172	27.847	545	-22.325
• Autonomia-erkidegoak	-2.298	-6.788	-2.549	-4.490	4.239
• Tokiko korporazioak	-240	0	0	240	0
- Sozietate ez-finantzarioak	676	4.768	4.587	4.092	-181
Akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak	11.361	17.734	5.098	6.373	-12.636
- Kapital-zabalkuntza Funtzen ekarpena	11.361	17.734	5.098	6.373	-12.636
• Finantza-erakundeak	8.281	12.207	2.571	3.926	-9.636
• Sozietate ez-finantzarioak	3.080	5.527	2.527	2.447	-3.000
- Salmenta-eskaintza publikoak	0	0	0	0	0
Jaulkipen garbien eta salmenta-eskaintza publikoen guztizkoa	-91.485	-31.821	-28.949	59.664	2.872

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Gutziko emaitza hori finantza-erakundeen posizio negatiboen ondorioz gertatu da, -63.933 milioi euroko saldo garbiarekin itxi baitute urtea jaulkipen-merkatuetan, posizioak murrizteko profilari eusteaz gain; testuinguru horretan, beste finantziario-modu batzuetan sartzeko erraztasunak hobetu dira. Halaber, jokaera hori kreditu-erakundeetan (-21.557 milioi euro) eta bestelako kredituko finantza-establezimenduetan (-42.377 milioi euro) ere gertatu da, bietan ere saldo negatiboekin; finantza-erakundeen posizio globaletan bakoitzak izan duen ehunekoari dagokionez, % 33,7koa eta % 66,3koa izan dira, hurrenez hurren.

Aurrekoarekin alderatzearen, administrazio publikoek jaulkitako balioaren saldo garbia 25.299 milioi eurokoa izan da, eta kopuru horretan jaitsiera handia dago aurreko urteko kopuruarekin alderatuz gero (-% 41,7). Eraitza hori Estatuko Administrazioaren jokabideak baldintzatuta dago; izan ere, nolabaiteko jaulkipen-bolumena mantendu du (27.847 milioi euro), baina 2015. urtean erregistratutako balioa baino askoz txikiagoa (-% 41,7). Autonomia-erkidegoek eta tokiko erakundeek, ordea, posizioak galdu dituzte, saldo negatiboa eta nulua izan baitituzte, hurrenez hurren. Azkenik, akzioak jaulkitzearekin lotutako saldo garbia 5.098 eurokoa izan da, merkatu horietan izan den geldotasunaren adierazgarri; kopuru hori ez da iristen aurreko urtean jaulkitako balioaren herenera (-% 71,3), eta banaketa orekatua dago finantza-erakundeen, kontuan hartutako enpresen eta erakunde ez-finantziarioen artean.

Bigarren mailako merkatuak: burtsak

Bigarren mailako merkatuetan negoziatutako guztizko balioa krisia hasi zenetik izandako txikiena izan da 2016an: 2015ean, 960.807 milioi euro izan ziren; 2016an, berriz, operazioen bolumena 651.389 milioi eurokoa izan da (% 32,2 gutxiago), eta horrekin errekonferazio-profila hautsi da. Zati nagusia (% 99) akzioen bitartekotzari dagokio, eta horrek merkatuaren jokaera baldintzatu du: aurreko urteko jardura baino heren bat txikiagoa izan da 2016koa (-% 32,2). Errenta finkoko baloreen negoziazioa garrantzirik gabea izan da, eta jaitsiera handia izan du urte arteko jokaeran (-% 77,7); errenta-mota horrek beheranzko profila du 2011tik.

260. taula Burtsa-merkatua. Negoziatutako bolumenen balio efektiboa

Tituluak	2014	2015	2016	%Δ 16/15
Funts Publikoak	35.935	23.935	4.775	-79,7
Beste obligazio batzuk	2.323	169	659	289,9
• Bankuak	206	3	--	-100,0
• Gainerakoak	2.117	166	659	297,0
Obligazioak, guztira	40.581	23.692	5.434	-77,1
Akzioak (SIBE, Burtsa art. Lot. Sist.)	883.869	960.327	650.908	-32,2
• Bankuak	343.688	337.752	227.957	-32,5
• Elektriakoak	110.054	115.751	90.080	-22,2
• Eraikuntza	43.849	44.587	36.789	-17,5
• Komunikazioa	114.198	143.214	66.127	-53,8
• Gainerakoak	271.080	319.022	229.956	-27,9
Gainerako akzioak (Korro Sist. Kont.)	480	480	480	--
• Madrilgo Burtsa	360	360	360	--
• Bartzelonako Burtsa	120	120	120	--
• Bilboko Burtsa	--	--	--	--
• Valentziako Burtsa	--	--	--	--
Akzioak, guztira	884.349	960.807	651.389	-32,2

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Azken finean, negoziatutako bolumena 2012ko edo 2013ko balioetara itzuli da, eta urte horietan burtsa-dinamismo eskasa eta hegakortasuna izan ziren nagusi merkatuetan. 2016. urtea bat dator urte horiekin ezegonkortasunean, baina ezegonkortasun hori beste faktore batzuekin dago lotuta, eta ez du zor subiranoarekin (Greziako krisia) zerikusia duen osagairik. Izan ere, 2017ko lehen seihieko ibilbideak nolabaiteko errekuerazioa adierazten du, eta, adibide gisa, Ibex-35 indizeak 10.444,5 puntutan itxi du ekainaren 30ean (9.352,1 puntu 2016ko abenduan). Halaber, urtearen lehen seihilekoan errenta aldakorrean negoziatutako bolumena 364.867 milioi eurokoa izan da; eta kopuru hori 2016ko seihileko berean erregistratutakoa baino txikiagoa da (-% 6,4, urte artekoa), baina urte-itxiera hobea dakarrela dirudi, ekaineko urte arteko igoera % 11,1koa izan baita, eta hiletik hilerakoa, % 18koa.

2016. urtean negoziatutako bolumenen banaketari erreparatzen bazaio, mantendu egin da lau sektore handien garrantzia (merkatuaren bi herenak dira): horrela, heren bat bankari dagokio (% 35), zazpiren bat, elektrikoei (% 13,8), hamarren bat, komunikazioei (% 10,2), eta ehuneko txikiago bat, eraikuntzari (% 5,7); hori osatzeko, beste heren bat dago (% 35,3), gainerako jardueren baturari dagokiona. Aipatutako kategoria guztiak bat datoz kontratazioak izandako beheranzko bilakaeran; nabarmentzekoa da, zehazki, komunikazioaren segmentuan izandako urte arteko jaitsiera handia (-% 53,8), eta, horren atzetik, bankarena (-% 32,5), elektrikoena (-% 22,2) eta eraikuntzarena (-% 17,5). Gainerako sektoreak ere jaitsi egin dira (-% 27,9).

Burtsako jarduera ia guztia burtsa arteko lotura-sistema elektronikoaren bitartez egiten da, eta garrantzirik gabeko gutxieneko bat korro-sistemaren bitartez (bolumen hori ez da aldatu 2014tik). Bestalde, errenta finkoaren garrantzia merkatu horien guztizko jardueraren % 0,7raino murriztu da -SCLVren (Baloreak Konpentsatu eta Likidatzeko Zerbitzua) bidez negoziatzen da-, eta hortik % 88,9 errenta finko publikoa da -aurreko urteko kuota baino txikiagoa, % 100etik hurbil baitzegoen-. Elektrikoei aurten bankuak gehitu zaizkie, bi sektore horietako inork ez baitu izan mugimendurik burtsako errenta finkoan.

Bigarren mailako merkatuak: errenta finkoa

CADERen (Idazpenen Zentrala) bitartez negoziatutako errenta finkoa 5,82 milioikoa izan da 2016an, eta jaitsiera % 3,9koa izan da 2015eko datuekin alderatuz gero. Negoziatutako bonuen eta obligazioen bolumena 4,8 milioi eurokoa izan da; urte arteko jaitsiera, berriz, % 9,5koa, eta horrek, bere garrantzia dela-eta, merkatu horren jokaera globala baldintzatu du. Altxorraren Letretan negoziatutako bolumena nekez iritsi da

miloi bat eurora; garrantzitsua izan da urte arteko gorakada (% 37,3), baina horrek bonuek izandako jaitsiera ez du konpentsatzen.

261. taula Errenta finkoko merkatu antolatuetako kontratazioa⁽¹⁾

(milako M euro)

Kontzeptua	2014	2015	2016	%Δ 16/15
Idazpenen Zentrala⁽²⁾	6.227	6.061	5.825	-3,9
– Bonuak eta obligazioak	5.548	5.333	4.826	-9,5
• Kontuen titularren art.	1.100	893	978	9,5
– Altxorraren Letrak	719	728	999	37,3
• Kontuen titularren art.	278	334	546	63,5
AIAF⁽³⁾	1.099	518	174	-66,4
– Enpresa-ordaindukoak	45	30	21	-30,0
– Matador bonuak	0,02	0,1	0,01	-85,4
– Hipoteka-zedulak	388	200	77	-61,5
– Oblig. eta bonu sinpleak	666	288	76	-73,6

(1): Kontratazio nominala.

(2): Soilik eragiketa sinpleak, eskura. Bonu eta obligazioen eta Altxorraren Letren eragiketen guztizkotik negoziatutako zenbatekoak.

(3): Merkatuan SA batek egiten ditu eragiketak, eta AIAF Aktibo Finantzarioen Bitartekarien Elkartearen izena hartu du oinordetzan.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Zor edo errenta finkoko AIAF merkatuak balioa galtzeko joera mantendu du, eta 2016an 174 mila euroko operazioak izan ditu; kopuru hori 2015ean negoziatutako bolumenaren laurdena da, eta 2014an negoziatutakoaren ia hamarrena. Kontratazio-galera horrek kontuan hartzen diren elementu guztiei eragin die. Azkenik, produktu deribatuetan ere jardueraren jaitsiera ikusten da: eperakoei dagokienez, 3 urteko goranzko joera hautsi da, indarrean dauden kontratuen kopuruak behera egin baitu (-% 8). Aukerak, berriz, % 40,8 jaitsi dira; bigarren urtez jarraian jaitsiera handiak izan dituzte, eta horiek 2014ra arte izandako iguera garrantzitsuak konpentsatu dituzte.

262. taula Eperakoen eta aukeren merkatu ofizialak*

(kontratu-kopurua, milakotan)

Kontzeptua	2015	2016	%Δ 16/15
– Eperako finantzarioak	7.706	7.092	-8,0
– Aukera finantzarioak	544	322	-40,8

(*): Egindako eragiketak.


Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

5.2 BILBOKO BURTSA

Bilboko Burtsako indize orokorra 1.489,50 puntutan itxi da 2016an, eta bigarren urtez jarraian galerak izan ditu (-% 5,6 eta -% 5,4, 2016an eta 2015ean, hurrenez hurren).

Urtean zehar izan duen bilakaera beste ekitaldi batzuetan izandakoa baino lauagoa izan da (Ibex-35en bilakaeraren antzekoa), eta 1.283 eta 1.543 punturen artean ibili da. Jaitisiera urteko lehen asteetan ikusi zen (hor gehienekoa eta gutxienekoa izan ziren), gorakada bat udaberrian, beste jaitisiera bat udan (bi kasuetan gehienekora eta gutxienekora berriz iristekotan egon zen), eta egonkortze bat urtearen amaieran; azken hilean, berriz, goranzko fase bat hasi zen, eta horrek ekitaldiaren hasierako puntutik oso gertu utzi zuen indizea.

41. grafikoa Kotizazio Indize Orokorra. Bilboko Burtsa (2016)



Iturria: Bilboko Burtsa.

263. taula Bilboko Bursaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, gehienekoa eta gutxienekoa

Urtea	Azkena	Gehienekoa	Gutxienekoa
2008	1.589,90	2.625,68	1.338,57
2009	1.921,55	1.936,17	1.149,30
2010	1.615,18	1.975,39	1.398,65
2011	1.366,61	1.808,89	1.210,76
2012	1.331,00	1.443,33	974,81
2013	1.658,57	1.660,80	1.231,66
2014	1.668,99	1.849,71	1.601,52
2015	1.578,45	1.941,39	1.530,92
2016	1.489,50	1.542,97	1.283,77

Oharra: Oinarria 2000, 1999ko abenduaren 31koa.

Iturria: Bilboko Burtsa. Indizeak. Grafiko historikoak.

Euskal burtsaren transakzioak 2016an 107.132 milioi eurokoak izan dira. Aurreko urteko datuekin alderatuz gero, jaitisiera argia izan da 2016an (-% 40,2), bai eta azken bosturtekoan izandako kopuruekin alderatzen bada ere. Kategoriei dagokienez, aldeak daude batzuen eta besteen artean: akzioak edo errenta jaitsi egin dira (-% 4,7), eta

errenta finkoak, berriz, gora egin du (% 14). Ildo horretatik, azken hirurteko joerak hautsi dira, errenta aldakorra gora egiten ari baitzen, eta errenta finkoa, berriz, behera. Hori dela eta, azken balore-mota hori negoziatutako guztizkoaren % 1,9 izan da, aurreko urteko kopurua (% 1) baino nabarmen handiagoa.

264. taula Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena Balio efektiboak*

<i>(M eurotan)</i>					
Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	%Δ 16/15
E. aldakorra - (SIBE)⁽²⁾	139.477	172.655	180.713	107.132	-40,7
Errenta finkoa	2.759	1.989	1.856	2.116	14,0
Eragiketa-aretoan ⁽¹⁾	0	0	0	0	-
Elektronikoa (SEND) ⁽²⁾	28	61	0	0	-
SAC-CL-BVB ⁽³⁾	2.731	1.928	1.856	2.116	14,0
Guztira	142.235	174.644	182.570	109.248	-40,2

(*): Erosketak + salmentak.

(1): Korroen merkatu tradizionala.

(2): SIBE (Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema) etengabeko merkatuak eta SEND (Zorra Negoziatzeko Sistema Elektronikoa), AIAF merkatuarekin loturik eta txikizkarietara zuzenduta.

(3): Kontuko Idazpenen eta Bilboko Baloreak Konpentsatu eta Likidatzeko Zerbitzuak (SAC-CL-BVB) — CADErekiko independentea da— EAEko zor publikoa kudeatzen du 1991. urteaz geroztik, eta 1993. urtetik aurrera, Bilboko Burtsaren gainerako balio eskusiboak.

Iturria: Bilboko Burtsa.